

BIDEKO IPUÏÑAK

ZUBIRI'TAR IÑAKI
(EUSKERAZAINTZAKOA)



BIDEKO IPUIÑAK

ZUBIRI'TAR IÑAKI
(EUSKERAZAINTZAKOA)

BIDEKO IPUIÑAK

AURKIBIDEA

Orrialde

EDURREZKO LOREA	9
XABIER ETA ERRUBI	25
INDIA'KO BITXIAK	39
LUMATXUA	47
ESTALPEKO LAGUNAK	63
BASETXE ZAARRA	67
AMELU'REN OROITZAK	75
ASPERENA	93
AURGAI-ERAILKETEA	101
ARLOTETXU	109
AITITA AUZITEGIAN	119
ATERKINZALEA	131
JAUNARTZE-JANZKIA	137
ZELAIGANE'KO ERROTARIA	141
ITURBURUA	149
MENDIBURU'KO ARTZAIÑA	161
ZERURAKO JANTZIA	169
GABONETAKO MIRARIA	173
IRU LORA	177
JOSU AURRAREN BILLA	183
TXAKUR BASATIA	191
MALKOEN DIZDIRA	203
KLIN-KLON	207
ERRIKO ORDULARIA	215
TXA-FUN'GO BITXIA	227
AMA KLARE	247

© EGILLEA
I.S.B.N. 84-398-9166-0
Legezko gordailua: B1451-87
Irarkola: I. BOAN, S.A. - Particular de Costa, 12-14
48010 BILBAO

IPUIN-LIBURU EDERRA

Ipuin-liburu mardula, ederra, aurkeztu dausku gaur Zubiri'tar Iñaki idazleak. Txalogarria benetan Bizkai'koak eta bizkaitarrak benetan diran idazle askok aspaldion egiten daben lana!

Egia esan ipuiñen mundua ondo landuta eta jorratuta egoala esan zeitekean. Askotariko ipuiñak eta askotariko trebebideak artuta argitaratu dira aspaldion Euskalerrian, bide barri oneik urratzen gure Mikel Zarate maixu aundia genduala. Orregaitik, ipuin ederrak, zoragarriak, irakurgarriak agertzen dira gure txapalketa edo sariketa guztietara.

Zer egin eikean ba gure Zubiri'tar Iñaki'k arlo onetan?

Egin dau, bai, bere egitekoa, eta ondo egin be. Liburu onetan irakurleak aurkituko dauzan ipuiñak, guztiak, euren trebebide berezia eta euren barritasuna agertzen dabez.

Ipuiñak abertzaletasunez eta Jainko-zaletasunez beterik, gaiñezka datoz, eta ez dago orretan jokabide barria. Antxiñako jokabidea da ori. Baiña emen agerpen orreik era barri baten aurkituko dauz irakurleak.

Izadiagaz alkar-izketea agertzen da sarritan, umeak naiz elduak alkar izketa bero ori bide dala, izadi-zaletasuna edo gaur esango genduken lez, ekologi-bidea erakusten dabe. Aizea, izarrak, abereak, landarak izlari dira ipuiñetan eta izadia ta fedea alkartzeko, izaki orreikaz batera agertzen dira aingeruak be izlari.

Abereak sarritan agertzen dira norkiai laguntzen. Gai au ez da gaurkoa, antxiña atera eban leoiaren arantzea gizonak eta leioak maitasuna agertu erritarren aurrean gizon arentzat. Jokabidea antzekoa da, baiña emen euskal-giro berezi baten agertzen da.

Ipuinak Euskalerrriaren Lutelestia, (jeografia) irakasteko bide lez be artzen dira bein baiño geiagotan. Norkiak egaz joaten dira eskualde batetik bestera ipuinak eskatutako zeregiñak betetzera eta bidean, laiñoetan doazen artean, azpian dagozan errien eta lurraldeen izenak agertzen dira. Eziketa-bide au erabilgarria da eta onura geiago atera leikio.

Irudimena etorritsu bear daben ipuin oneitan egokiro alkartzen dira. jazokizunen ipuiñetan ondo alkartu bear diren gauza bi: Jazokizunak maillaka egokiro jartea eta elburua lortu baiño lenago azpiratu bear diren oztopo ugariak sendo agertzea. Ipuinik geienetan ikusi daike irakurleak alkartze egoki au.

Zein ipuin-motataru sartu ete geinkez idatzi onetan agertzen diranak?

Ez da gauza erreza galdera oneri erantzuna emotea. Ipuinak ez dira gizaundienak edo mito-bidekoak, ez dira jazokizunezkoak, ez dira kondairazkoak, ez dira ingurumenezkoak, ez dira, geineak beintzat, erlejiño-girokoak, ez dira zaldudenak edo maitemiñezkoak, baiña geienetan sartzen da olako zerbait.

Esaterako, geienak agertzen dabe zelan edo alan fede-arazoa ta euskal-giroa, baiña ba-dagoz euskal-giroa bizi-bizi dabenak, baita beste batzuk gaurko erlejiño arazoak, lekaiimeenak esaterako, zeatz eta egokiro agertzen dabezenak.

Batzutan aingeruak agertzen dira, beste batzutan barriz, Maitagarria edo lamiña onak.

Trebebidetako ugaritasuna eta irudimen zabala agertzen dira ba, ipuin oneitan eta irakurlea ez da aspertuko irakurtzen. Ez dira ipuin ezagunak, erriak beti esan dauzanak, ez, bakoitxak bere barritasuna dakar.

Eta amaitzeko, euskerea Bizkai'ko euskera erreza da, naihta noizean bein, izkuntza aberastuteko asmoaz, esaldi ez-ezagunak erabilli.

Or dauka ba, Bizkai'ko Elertiak beste liburu eder eta txalogarri bat. Ordu pozgarriak izateko bide izan dakiela irakurleai.

OLAZAR'tar Martin'ek

EDURREZKO LOREA

Lorenea basetxean, oean etzanda, Mirentxu, ibarreko edertasuna geisorik dago. Bere adats bigunak aspaldiko dizdira galdu egin dau; begi ederrek ez dabe lengo argi bizia erakusten; matrail zurbillak izaren besarkada zuriarekin bat egiten dira; irribarre egiteko zan aboa ta ibar-zelaien zapalorak baiño gorriagoa edegiten zana, orain miñezko keiñuaz itxita dago. Iien bekaitza zan soin lerdena makaltasun utsaz ezin dabilke, eta esku bigun samurrak orain izaren gaiñean igige ikusten dira.

Danek maite-maite dabe Mirentxu, baiña oroz gain, Uriz etxe-ko gazteak. Gaur otz andia da, baiña negu gordin onetan otzago sentitzen da mutilla bere barruan. Lorenea begiztatuz eta Mirentxu'ren irudia gogotik kendu eziñik, Uriz'ko mutillak be, eriotza lakoa dan larritasun bizia barrutik somatzen dau illunabar geldi onetan. Mirentxu'ren alde zeozer egin aal izango ba'leu...!

Gogoeta illunotan murgildurik, gazteak etxera abiatzen da. Gau betea da, eta bideko okergune baten, abots batek geldierazoten dau. Gozoa da, eme ta eztitu...

—Aizu, Uriz, Lorenea'ko Mirentxu maite-maite dozu, eta larri zagoz zure biotzekoa orren geisorik ikustean, baiña latz eta mingotsa bada be, bizitzara ekarri dagiken bide bat badago...

—Nor zaitut olan itz egiten daustazun ori...? Zelan dakizu Mirentxu biotz-biotzez maite dodala...?

—Gazteen barruan ikusi dagiket, eta badakit isillean aspalditik maite dozula... Begira, baso-zelaien Maitagarria nozu, basoetako

itzalgunetan latsen ondoan billoak urrezko orrazi bat azpintzen dauzana. Nire aalmenean dago maitasun-zauriak ezagutzea, baita batzutan arein osabidea jakitea be...

—Esaidazu Maitagarri orrek, ba ete da bideren bat Mirentxu onik atarateko...?

—Txarto dago benetan... Bai, iru eguneko epean il egingo yaku, tarte ori baiño len Edurrezko Lorea berarentzat aurkitzen ez ba'da.

—Non dago lore bakan ori...?

—Oso urrun, gure Aberriko sortalde-mugan. Auñamendi garai-ko tontorrean, lora zuri eder ori neguan sortzen da. Baiña ez ei'da biotzik araiño azartu daitenik, eta izanik be, ezin leike iru egunen epean joan-etorria egin. Orregaitik Lorenea'ko Mirentxu gaixoa nai-ta-ez il egingo yaku...

—Esaidazu, Maitagarri orrek, zelan jaritsi nengike lore bikain ori...?

—Olakorik egin dagiken gizasemerik ez da jaio oraiñarte. Orretarako egalari izan bear da.

Uriz'en gogoa illundu zan, eta intziri bat iges egin yakon. Mutillaren oiñazea ikustean, Maitagarriak auxe esan eutsan:

—Entzun egistazu, Uriz, arrigarri ori egiteko urretxindorra izan bear...

—Zergaitik ez nozu iru egunez urretxindor biurtzen...?

—Izan be, biurtu zagikedaz, baiña aurretik auxe jakin bear dozu: arako bide luzean indargeturik, jausteko zorian zure burua ikusiko dozu, eta gautu orduko, baso amaigabeen deslai ibilliko zara... eta an ez da iñor azalduko zuri laguntzeko. Nork entzun zure oiuaq, norabarik joan zaitezanean...? Itsasoan galtzen dan ur-tanto ezaiña lakoa izango zara. Aize zakarrak or-emenka edurmaluta baten antzera eroango zaitu, bira ta biraka bidea idoro eziñik. Soiñean otz ankerra sastakaia bai'litzan sartuko yatzu biotza elbarritu arte. Gosea, bideko nekea ta egarria ezin izango dozuz jasan, eta azkenean iñoren laguntzarik bage ostenduko zara. Bidea latza da ta negua gogorra maite ori. Zure gogoa Anboto'ko atxa

baizen sendoa izanik be, ez zara biurtuko. Baiña Mirentxu zure bizitza baiño areago maite ba'dozu, orduan urretxindor biurtuko zaitu, eta ain zuzen be, iñondiko urretxindorrik yaukalena.

—Bai, Maitagarria, Mirentxu barik ez dot bizi gura. Biurtu nagizu urretxindor, Edurrezko Lorearen billa joan naiten...

Orduantxe, iretargia odei baltz baten atzetik ostenduta, goizalde asi zan, eta egun sentia orduko, urretxindor bikain biurturik, mutilla eguratsean zear murgildu zan, atzean Maitagarria errukituta, negarrez geratzen zala.

Arin eta zuzen egan egiten dau urretxindorrek. Lorenea oso atzean geratu da, eta orain laiño-adats batek estalduriko Anboto'ko erpin zorrotzerantz doa. Arago, aru sakonez ebagitako Gipuzkoa'ko lurraldea agertzen yako, errekatxuen ur gardenak an-emen dizdiraka ta ikotika zidarrezko ariak bai'litzazan, iraduz jabeturik itsasoko ur kresalak artzearen. Anboto ta Gantzagaitz artean, Zabalandi'ko mendatea zearkatu ezker, Gipuzkoa'n sartzen da. Bizkai'ko barrutia atzean datza, eta aurrean ezauea. Norbaitek, aurki, Auñamendi'rako bidea ereakutsiko dautso, osterantzean jatsi egin bearko dau, Txirulin, gipuzkoar anaiari, Aralar mendira nondik joaten dan itauntzeko.

Olan doala, ezkerretara Udalaitz izten dau. Aurrean, Gipuzkoa'ko mendirik gorena dan Aitzkorri dagerkio. Arin doa urretxindorra aldiaren aurkako norlenka bizian; iru eguneko epe estua baiño ez bere aukeran, eta onezkero lenengoaren eguberdia da. Azkar joan bear izango dau, eta orregaitik azkona baizen arin zearkatzen dau eguratsa.

Aitzkorri'ra eldu da noizbait, baiña larritasun andia bere biotzaz jabetzen da, nora jo ez dakit-eta. Nai-ta-ez, une baliotsuak galdu arren, an beean agertzen dan baso andi batera jaitea erabagiten dau, Gipuzkoa'ko urretxindorrek Aralar'erako bidea erakutsi dagion. Baiña... zer diran aurrean agertzen yakozan orban areik...? Ezustean, begien aurretik lauso lodia kendu bai'litzakion, sei larratxori urreratzen yakoz. Iru larratxori eskuman, beste irurak ezkerrean jarririk, alaitsuak dirautsoe:

—Esan, txori arrotz orrek, nor zaitugu, nora zoaz...?

—Ni, urretxindor biurturiko Bizkai'ko Uriz bertsolaria naz.

Auñamendi'n lorezen dan Edurrezko Lorearen billa noatzue.

—Zertarako, baiña, nai dozu lore ori, urretxindor arrotz orrek...?

—Lorenea'ko Mirentxu ederra osatu daiten.

—Zelakoa da Mirentxu ori...?

—Goizaldeko argia baiño maitagarriagoa da.

—Urretxindor arrotz ori, ez zaitez joan orren urrun, ez zara biurtuko-ta.— asperenka diñotsoe larratxoriek.— Geratu zaitez gurekin eta guztitariko janariz gaiñera, ez dozu ez nekerik ez oztzik jasango. Aizu, Aitzkorri'ko bazter zoragarriak erakutsiko dautsuguz, eta zeuk ordaiñez, udabarriko goizalde argitsuetan abesten irakatsiko dauskuzu. Geratu zaitez gurekin txori maite ori...!

Baiña berak burua astinduz,

—Joan egin bear dot, lagun maiteok —diñotse—, Mirentxu barik ez dot bizi gura. Erakutsi egistazue, arren, Aralar'erako bidea.

Baiña larratxoriek ez dautsoe bidea erakutsi gura, eta isiltzen dira. Erantzunik ezean, urretxindorraren begiak malkoz beteten dira, eta olan ikustean, errukiturik, Iruli'k, areitarikorik gazteenak, auxe diñotso:

—Ikusten al-dozuz an urrutian, laiñoz estalduriko mendi areik...? Areixek dozuz Aralar mendi-katea. Aizto baizen zorrotza dirudian ezkerreko atxa, Txindoki da, eta eskumakoa, Putxerri dozu. Onetan dagoan leize batera Anboto'ko Damea ei'doa, Bizkaia'n eguraldi txarra danean. Egan egizu atx bi orrein artetik, gaba emoteko baso andi batera eldu arte.

—Eskerrik asko, Iruli —biotzez darantzuiro urretxindorrak—. Biurtean zuretzat nire abestirik ederrena.

Barrero be bideari ekiten dautso urretxindorrak, eta atzean geraturiko larratxoriak ostentzen dira.

Aralar mendi-katerantz abiatzen da, eta illuntze orduko, Naparra'ko maillo yaukal onen gaiñean dago, baiña gosez eta otzez makalduta. An beean atxez inguraturiko zelai zabal ederra agertzen yako, eta andik laster ur-zulo andia ikusten dau. Una'ko Putzua, Aralar'ko artaldean edaskea da, eta egarri dan ezkerro, jatsi ta ertzean

edateko asmoz kokatzen danean, gaiñaldea izoztua aurkitzen dala egizatzen dau, eta edan barik bideari darraikio ostera, zuzenbidea galdurik, odeiek tontorrak estaltzen dabezalako. Beean ez da besterik ikusten oian illun eta amaibakoa baiño. Aize-uluen artean edur-malutak inguratzen dabe, eta unaturik, indarge-urren, ekaitzaren besoetan orbelaren antzera norabarik doa, sastakai zorrotza bai'litzan otzak alderik-alde sointxua zearkatzen dautsala. Bisutsak lausoturiko begiak ixten ditu, eta kemena galduta, aizearen atzaparretan lumatxu galdu baten antzera doa...

Ezin dagikio Mirentxu'ri Edurrezko Lorea jadanik eroan, ezta Bizkai'ko bere bazter maitagarria barrero ikusiko be... Eta orduan begiak itxita, txio larria jaurtiten dau.

— II —

Azkenengo udean, Egariñe, pagausoa, ikusmena baiño urrutia-go edatzen diran Eskandinabia'ko baso bikaiñetan, bizi izan zan. Uso indartsu ta ariña, egun eta egunetan egan egin dagike nekatu barik, baiña Egariñe'gan agiriena, beste egaztiakanako darabillan ardurea da, illunpetan agertzen dan itsasargiaren antzekoa.

Bai zorientzua izan dala errialde aretan...! Zugaitz tantai mardoak, zerurantz jagiten dira oztinaren laztan garbiaren billa. Areitariko baten, Egariñe'k abi txukuna eukan, eta inguruetan janari oparoa zanez, asti-unetan jolasten eban. Batzutan eguzkiaren atzetik ebillen, aren izpiak edan gura izango bai'leuazan. Bestetan, barriz, atxez-atx amiltzen diran ur-jaustiri gardenetara joian, aparra ta txipristin-tantoak ego-laztanakaz ukutzeko...

Asteak bajoiazan aurrera, eta egunak laburtzen eta gabak luzatzen asi ziran garaian, lurralde argientzako lei bizia sortu yakon. Toki aretatik alde egiteko jorana andiagotuta, Egariñe'k, iñondik etorkion irrika bizia ezin egikean menperatu...

Bein baten, Usozarrak, usorik jakintsuenak, basoko bazter guztietara mezulariak igorri ebazan, urrengo goizean ego-alderantz abiatuko litzakezala jakiñerazoz. Gau aretan, usoek urru ta urru jardun eben, eta egunsentiaz batera, Auñamendi'rantz abiatu ziran.

Usozarrak taldearen aurrea artu eban, eta nekatzen zanean beste uso batek ordeztu eban, gero beste batek etabar. Gose ziranean, beeko basoetara jatsi ta ezkur-jateari emoten eutsuen, eta gaba igarorik, egorantz ostera be.

Bein baten, urrutian, mendi oztin batzuk ikusi ebezan, eta zoraturik, egaketea arindu ta itsuak antzera aurrera oldartu, eta laster mendi arein gainean aurkitu ziran, baiña aizearen indarra andiegia izanik, beerantz egan egin eben mendate bat idoroteko asmoz. Bapatean, orbelakaz estaldutako mendatea agertu yaken, eta azkonak lez aurrera jo eben.

Eta olan, Etxalar'ko mendatean uso-saldoaren ondapena jazo zan. Sare zital batzuk agertu yakez aurrean, eta orduan igoteko naiez zoroen antzera aalegintzen dira. Beranduegi baiña, askorentzat, sarean atzitura geratzen baidira, eta izu gorrian eriotza aurkitzen dabe. Gaixoak...! Ez dabez iparreko bazter zoragarriak barrero ikusiko, ez ango ur-jaustiri gardenen ondoan jolas egingo, ezta ditxarokien egoaldeko eguzki epel argitsuaren laztanak inoiz artuko be...

Egariñe'k eta atzetik darraikioen beste lagun batzuk ozta-ozta iges egiñik, arru-gaiñetik zorotu bai'litzazan Goi-Naparra'rantz doaz, ezker-eskumatik tirokatuak dirala. Alako baten, Egariñe'k erremin izugarria oartzen dau, eta egoan zauriturik, pagadi baten gainera amiltzen da. Otz-ikaraz dardar, orbel bigunen artean ezkututzen da, eta onen txerak babestuta, gaba emoten dau.

Egun batzuk iraungo dauz ezkutunetik urten barik. Noizbait, zizpen dunbotsak, sare zitalak, eta eiza-txakurren zaunkak ostentzen dira. Gosez makalduta, Egariñe janari-billa asten da. Ibilli baiño, narrazka doa, eta lats garbi baten egarmiña bareturik, ezkur-jateari emoten dautso. Asko dago zorionez, eta egunen bidean bizkortzen da.

Beiñola, usokideak ikusten ez baziran be, egorantz abiatu zan areikin batzeko asmoz, eta oraindiño egan egiteko gai ez izanik be, aalik ariñen ibilli ebillen.

Eta noizbait, mendi garai bateko egian aurkitu zan. Aralar mendian egoan... baiña ai ene...! onezkero beranduegi jadanik, tontorrak edurrez jantziten asiak ziran-eta. Negu-miña zan, eta sasoiko goibeltasuna ta otza biotzeraiño sartu yakozan.

Illunabarra urreratzen da, eta aize zakarrak pagoen adaburu billutsik astintzen dauz neguko negarra isuriz. Lumak bilduta, txoriek abien babes epela billatzen dabe neguko besarkada mingarria uxatzearren.

Edurrak edatzen dauan argi motelpean, oi lez gaur be, Egariñe janari-billa latsaren ertzera doa xixariren bat idoroteko asmoz, ezkurak aspalditik amaitu dira-ta. Aize-putz basatien artean edurra zurrunbilloka asten da, eta orduan ekaitzaren uluen artean, Egariñe abira biurtzen da.

Abi-ondora urreratzean, eta pagoaren beeko adarretara igoteko zorian, Egariñe'k zerbait egan doala ikusten dau. Zer izango ete...? Zugaitz baten orbela, edo-ta enbor baten azalkia, aurki...? Urreratzean, lumakaz estaldutako urretxindor gaixo bat geldi-geldi illik bai'legoan ikusten dau. Benetan maite dauz Egariñe'k basoko txoria, baiña urretxindorra maiteen. Iparreko oianetan aren txinta zoragarriak entzutean, lilluratuta lez sentitzen zan.

Txori gaixoari min egiteko bildurrez, mokoaz samur-samur artu, eta bere abira daroa. Ara elduta, egapean babesten dau bearezko beroa emotearren. Astiro-astiro txoria bere senetara biurtzen da. Biotzaren taupadak gero ta biziagoak egiten yakoz, eta au oartzean, Egariñe'k are estuago besarkatzen dau. Lo indargarriak urretxindorraren begiak ixten ditu, eta burutxua usoaren kolkoan jarrita, loak artzen dau.

Gau osoan aizeak orruka dirau, zugaitzak astintzen dauzala, zartatu naiean lez. Goizaldea barik, ekaitza baretzen da, eta urretxindorra iratzarrita, bere ondoan usoa ikusten dau. Arrituta, bere buruari itauntzen dautso zelan daiteke ori, aurreguneko illunabrean otzez dardar eta makalduta, ilteko zorian jausi zan-eta.

Begikada maitekorraz, usoak auxe itauntzen dautso:

-Zergaitik zenbillen edur-ekaitzaren artean galduta, eta nora ziñoazan gaixo ori... nor zaitut, nondik zatoz...?

-Ni, Uriz, Bizkai'ko bertsolaria nozu. Auñamendi'ra eldu neintekean, Maitagarriak urretxindor biurtu ninduan. Aitzkorri'ko Iruli,

larratxori gazteak, baso onetan gaba emon nengikeala esan eustan, baiña illuntzean galduta, indar barik jausi nintzan.

—Bai, orduantxe ikusi zindudazan, eta abi onetara ekarrita, gabeen zear berotu zaitut. Ni, Egariñe pagausoa nozu. Emendik urrun samar, mendi oztin batzutan zauritu ninduen, eta noizbait baso onetan negua igarotea erabagi neban.

—Esaidazu, Egariñe, ba al-dakizu nondik joaten dan Auñamendi'ra...? Onen tontorrean sortzen dan lora baten billa noatzu, Mirentxu, Gorbea'ko Lorea osatu daiten.

—Ez zaitetz joan araiño, Uriz maitia, joaterik ez dozu-ta. Edozelan be, lora ori jaritsiko bazenduke be, ezin zeinkekez Bizkai'ra biurtu. Geratu zaitetz nirekin baso onetan. Badago lekurik emen biontzat, eta udabarria etorri dakigunean, nire lagunekin iparrentz abiatuko gara, eta iretargiak zidarrezturiko gau isilletan, eresi zoragarriak, zerutzaz ames egiteko dakizuzanak abestuko dauskuzuz... Geratu zaitetz nirekin...

—Ezin naz, Egariñe maite ori... Nire ames bakarra Mirentxu da. Ezagutuko ba'zendu Gorbea'ko lora ori...!

Egariñe'k arrenka eskatzen dautso joan ez daiten, baiña benebenetan saiatu arren, urretxindorrek ezetz diñotso. Joan baiño len, latsaren ertzera laguntzen dautso zeozer jan dagian, baiña iraduz menperaturiko urretxindorrek, apur batzuk irunsi baiño ez, bideari jarraitu nai dautso. Urten baiño len, Egariñe'k zuzenbidea darakuskio orduko egunsentia da-ta. Eskerronez, urretxindorrek egoakaz laztantzen dau, eta tximista baizen arin, eguratsean zear ostentzen da. Uso bakartia naigabez beterik geratzen da, eta malko lodi bi isurtzen yakoz.

Goizalde ederra da. Lenengo eguzki-printzek agurtuta, urretxindorra azkona bai'litzan doa. Aralar mendi-katea atzean gelditzen da, eta urrundik mendi-lerro batek dei egiten dautso. Egun osoa egan eta egan irauten dau urretxindorrek, eta Auñamendi'ra eltzean, azkenengo egun-argia ostentzen da. Onezkero, urretxindorrek otz eta nekearen aztarnak erakusten dauz. Illuntasun betean galduta egan egiten dau, gero ta makalago sentitzen dala. Estu ta larri, illunpeak aztertzen dauz leku egoki baten billa, baiña alperrik...

Norabarik doa, orbela aize-besoetan antzera. Noizbait, eta amiltzeko zorian dala, tontor garai baten atzetik, isillik eta irribarrets printz zuriak nonai jaurtikiz, iretargia agertzen yako. Orduantxe, an beean, zingira baten ur baketsuak ikusten dauz. Inguruan, baso amaibagea urrutietaraiño edatzen da, neguko besarkadapean lotan antzera pago billutsak ikusten dirala. Basoko lillurak erakarrita, urretxindorrek une batez gelditu nai izango leuke dakusan edertasuna gogo-biotzean gordeteko, baiña otzak eraginda jaisten da, eta zugaitzen adaburu billutsak ur yakozala, baso-soil baten argi bat agertzen da. Itxaropenaz dardar ara zuzentzen da, bearrezko atseden idoroteko asmoz.

—IV—

Lorea, basoko etxeoandrea, pago-enborrakaz egiñiko etxetu polit baten bizi da. Etxola, latazko teillatu aldapatsuz babestuta dago, edurraren pisuak zapaldu ez dagian. Arkakarats bat etxaurreari itsasten yako, orma zaarrak jagon gura izango bai'leuazan. Inguruan eta lats kantari bateraiño jatsiz, larra orlegi bat edatzen da, errekatxuaren ur gardenen musua artzeko irrikan. Gero, latsaren tirain bizia iraduz jabeturik zingiran ostentzen da, baso-tantaiek inguraturiko, ames urdiñetan lo-aldia emoteko.

Bai atsegin yakola Lorea'ri basoko anditasuna ederretsi, eta errekatxuaren leiarrezko suzmurra aspertzeke entzutea...! Uda ta udabarrian, basoa, orri orlegizko itsaso baten antzera, ikusmena baiño urrutiago edatzen da laiño oztña biurtzeraiño, eta illunabaretan, argiaren azken musuak amusko zoragarria besteratzen dau. Aize samurrak ostoak laztantzean, pozaren-pozez dantzan egiten dabe, eta aren aboz Aztobizkar'ko edesti zaarra entzutean, dardarez asten dira. Orduan, eder-miñak eraginda, pago-tantaien adaburuetatik pozez zoroturiko txoriek aizeari laguntzen dautsoe, eta iratzarrita, errekatxuak iraduz dabillan aize alderraiaren ipuin zaarrak ertzeko arriai birresaten dautsez.

Udagoian be, basoko edertasuna...! Itsaso orlegia lits askotako urrezko amaigetasuna biurturik, ego-aizearen putz epel eta indar-

tsua artzen dau, iraduz dabil-eta atzetik negu itunak jarraitzen dautsalako, eta atzitua nai izan ez dauan ezker, iparrerantz abiatzen da negar-zotiñak edonon isuriz, aspaldiko ipuiñak basoari dirautsazala. Aizearen edeski zoragarriak entzutean, kidarrak urraturik, ostoeak aize-altzoan iges egiten dabe, antxiñako esaera zaarrak ez galtzarren. Osto batzuk su ta urrezko zurrunbilloen artean urrutian galtzen dira. Beste batzuk, oster, suzko malkoak antzera, zingirari oparizat arin daroazan latsean kokatzen dira.

Soiñeko zuriz jantzita, negua atzetik dator. Lo-guraren menpe, basoa geldi-geldi agertzen yako, eta beronen edertasuna ikustean, edur eta izotzezko besana zuri yaukalaz janzten dau. Basoa lotan dagoan ezker, iratzarri gura dau, zein ederra dan eta zelan maite dauan entzun dagion, baiña baso lotia ez da iratzarten. Suminduta, neguak aren adar logaleak astintzen dauz, illik datzaten orbekak anker sakabanatuz, eta erasoaldi zoroan zugaitzen aurka oldartzen da uluka, miñaren-miñez itxartu daitezen... Baiña basoak lotan dirau...

Orduan zorotuta, zingiragana doa ta badiñotso basoa baiño ederragoa dala, baiña zingirak be neguko gau luzeak urrumaturiko, lo darrai. Asarre biziak jabetuta, gaiñaldeari erasoten dautso ur gardenak zigortzen dauzala, baiña zingira iratzarri ez dagikela ikusirik, asarrealdi zoroan izotzezko estalki bat az jaten dau, eta olan ederturik, zingirak lotan iraungo dau udabarriaren laztanak oartu arte.

Illunabarra asten da. Basoa bare ta isillik dago, neke utsaz aizea lo geratu dalako. Lorea'ren etxolan su biurri ta jostariak sukaldeko ormetan argi ta itzal ikaratiak eratzen dauz. Badirudi batzutan, sukaldea illunpetan ostenduko dala, baiña oster be, atsegin dizdiratsuz eta irri-txinpartak dariozala, argia biziagotzen da.

Lorea jesarrita dago sutondoan, baiña garrai ez dautse jaramonik egiten... Aurpegi liraiña eskuetan jarrita, sorbaldan beera jauten yakozan billoetan, su biurriak urregorritzko ñir-ñir bigunak ipinten dautsaz, ozkorriko musuak bai'litzazan. Naigabez negar egingo leuke Lorea'k, baiña oiñaze larriak malkoak irusten dautsoz, eta olan, isillean, geldi-geldi, larritasuna berekiko gorde egiten dau.

Bere alboan gorua dago, ondoko seaskan datzan Yontxu, bere

semearentzat, kirru bigunaz lora-atalak baizen samurrak diran miesak eioteko, baiña gaur Lorea'ri ez yako bururatzen olakorik... Bere seintxuak izararik ez dauz iñoiz bear izango, Yontxu bere seme bakarra il-agiñean dagoalako.

Badira egun batzuk geisotu dala, eta orain gar ñimiñoaren antzera, bere bizitza itzungiten ari da. Asieran eri zitala bere kutunagandik uxatzen aalegindu zan, atzamar bigunakaz seintxuaren bekoki zuria laztanduz, suzko larrosak baizen kiskalgarriak diran semetxuaren matrail gorriak musuka ta musuka, baita begi motelak eta otz biurtzen asi yakozan eskutxu guriak be, baiña dana alperrik...

Gau itunean zear aizearen uluak aditzean, semea besoetan artuta, estu-estu kolkoan besarkatu egin dau, eriotzak kendu ez dagion, eta seiñaren aurpegitxua biotz-iturritik isuritako malkoakaz bustitzen dau, baiña Yontxu gaisoak lo-zorro astunpean darrai. Jateko gogorik ez, baiña bai errekatxuaren ur garbiak zoro antzera edango leukez, begiak sukarpean itxita dauzala. Noizean bein soak amagana zuzendurik, isillik, otoi gartsuaren antzera, sentitzen dauan min kiskalgarria kendu dagiola eskatzen dautso.

Lorea'k badaki, besterik ezean, Yontxu'k gau batez lo nasaia egingo ba'leu osatuko litzakela, eta augaitik samur-samur Larraun eta Saraitsu'ko eresi politikak abestu egiten dautsoz. Seiñak, baiña ez dau aringarririk aurkitzen, eta semearen begi eskaritsuak barriro be ikustean, sutondoan jesarten da aurpegia eskuetan ezkutatu. Yontxu'ren billa aingeru bat bialdu dagian eskatzen dautso Jaunari, semea orren oiñazeturik ikusten ez dagike jasan-eta.

Lorea'k ez daki non lurperatuko dauan bere semetxua. Etxolaren ondoan jagiten dan andarrai gorripean ipiñiko eta dau, illobia malkoz busti dagian...? Edo-ta errekatxuaren ertzean, onen suzmur eresintsuak gau ta egun lagundu dagion...? Pago tantaipen obiratu-ko ete dau, txorien abestiak eta aize-asperenak adarretan zear, beti bere Yontxu'rekin egon daitezen...?

Aurpegia eskuen artean, Lorea'k sutondoan darrai. Abodi mendian norabarik dabillan otso bakartiaren aiuria ez dau aditzen, ezta leioan dei bildurtia be. Geldi-geldi dirau, baiña bigarrenez sendoago entzuten dan deiari jaramon egiñik, leiora urreratzen da, eta edegitean, urretxindor ikarati bat ikusten dau.

—Etxekoandrea —txoriak otzez dardar diñotso— itziko daustazu etxe onetan gaba emoten...? Urrunditik natortzu, eta indargeturik aurkitzen naz. Biar goizaldean joango naz. Unetxu batez egon al-naiteke sutondoan...?

—Zatoz barrura, urretxindor laztan ori, eta eskerrik asko zure etorreragaitik, olan ba gaba ez yat ain jasangatxa izango.

Lorea'k leioa ixten dau, eta barrero sutondoan jesarten da. Beroak indartuta, urretxindorak Lorea'ri bere bidaiaren zergaitia azaltzen dautso. Amaitzean, eta seaska begiztatzean Lorea'ren oiñazez beteriko soak ikustean, zer dala-ta orren naigabaturik egoteko itauntzen dautso. Lorea'k seiñaren geisotasuna ta oiñazetzaz esaten dautso, eta semea joan dakionean, bizitzaren bakartasunaz batez be.

Urretxindorra seaskaraiño doa, eta oe-buruan kokaturik, Yontxu'ren aurpegitxu oiñazetua ikustean, eresi eder bateri emoten dautso, auxe dirautsala:

—Yontxu, laztan orrek, zergaitik ez dozu lorik egiten...? Gabaren edertasuna...! Izarrai ta iretargiari zidarrezko azkon bigunak dariez, neguko janzi zuria agirian jarteko. Zugaitzak geldi-geldi lotan dagoz udabarriaren laztanak igurikan. Zergaitik ez dozu ames egiten gabeko altzo atsedengarrian...?

Baiña Yontxu egarri da, eta amak emoten dautson ura zoro antzera edaten dau.

—Badakit egarri jasangatxpean zagozala, maite ori —urretxindorak darrai—. Amatxu bai dala zure egarria...! or dakust gaixoa atsekabeak jota... Zu joaten ba'zara aren egarri itzungieziña...! Gau ederra lekorean, baiña are ederragoa zeuganako amaren maitasuna, eta naigabeak eragindako malkoen bitxiak...! Baiña, ara... zer ikusten dabe orain nire begiok...? Biotz-barruan otoitz bat sortu yako, eta ezpanetara barik zeruan dago...

Unetxu batez urretxindorra isildu zan, eta gero onetaraxe jarraitu eban:

—Begira, Yontxu... Iretargiaren izpi baten gaiñean zaldika, aingeru bat izarrik-izar onantza dator, eta orain argiz beterik badozu emen... Ego garbiakaz begiak laztantzen dautsuz, eta gero bekokian

musu bat emonda, zerura biurtzen da. Yontxu, maite orrek, lo egin orain, zeugan bizitza barria sortu dalako...

Eta orduan lo baketsu batek artuta, Yontxu'ren irribarre zoriontsua zuzen-zuzen amaren biotzeraiño doa, igarotako naigabearen illuntasuna uxatuz.

Urretxindorak lo egiten dau goizalderarte, eta egunsentiaz batera iraduz jabeturik, itxartuten da, bidaiari barrero ekitearren.

—Urretxindor maite ori —dirautso Lorea'k—, ez zaitez joan... geratu emen gurekin betiko...

Baiña urretxindorak ezin dagikeala diñotso, eta Auñamendi garaiko zuzenbidea erakutsi dagiola. Lorea leiora doa, eta nondik joan bear izango dauan azaltzen dautso.

—Auñamendi'ko tontorrean, aize basatiak etenbarik putz dagi neguan. Orainarte iñork ez dau Edurrezko Lorea artu aal izan. Guztiak aizearen aurka saiatu dira, azkenean garaituta jausteko. Tontorrera eltzean, ez ekin aizearen aurka, aitzitik, aizalpea billatu egizu, eta olan araiño elduko zara.

—Esaidazu, Lorea, zergaitik sortzen da mendi orretan lora ori...?

—Bein baten, Maitagarria negar egitera ara joan ei'zan, eta edurraren gaiñean isuritako malko bat jaustean, lora bakan ori sortu zan. Ordutik, negu guztietan lora eder ori agertzen da.

—Eta zergaitik negar egin eban Maitagarria'k...?

—Gure Aberriko egoera larriagaitik —erantzun eutsan asperenka Lorea'k—, baiña negar-arpulu ori isuri yakonetik, euskereak betiko iraungo ei'dau.

Joan aurretik, urretxindorak lo dagoan Yontxu'ri aurpegian txera bat egiñik, eta Lorea'ri agur esanez, eguratsean murgiltzen da Auñamendirako azken bide-zatia egitearren.

Eskumatara Abodi mendi-katea, eta ezkerretara Ori'ko gaillurra dituala, mendate bat zearkatzen dau, eta gero Erronkari arana agertzen yako. Andik laster, Belagua zelai zabala igarorik, ezustean isil eta bildurgarria Naparra'ko Auñamendi Garaia laiñoaren artean aurkezten yako.

Urretxindor kementsuak egan egiten dau gorantz, baiña arnasa gero ta neketsuago biurtzen yako. Otzak sointxua aginkatzen dau-tso, baiña tontoretik ur dago onezkero. Bapatean, aize-zartada batek artuta, or-emenka lasto-izpi baten antzera doa. Orduantxe, Lorea'ren esanaz gogoratzen da, eta jarki barik batetik bestera bere burua eroaten izten dau. Noizbait, aizearen indarra bareturik, edur-gaiñera jausten da.

Makurtuta, atzaparrak edurretan tinko egiñik, tontorrera urretzen da, eta orduantxe ikusten dau... Iretargiaren izpiakaz eta aingeruen egoakaz eunduta bai'litzan, Edurrezko Lorea kider txairo baten gaiñean kulunkatzen da.

Betarik galtzeke, Edurrezko Lora Zuria mokoan artuta, indaraldi bat azkaltzen dau, eta aalik ariñen etxerakoa egiteko urrun-zen da.

Arin egan egin bear izango dau urretxindorrek garaiz eltzeke. Biaramoneko goizaldean iru eguneko epea amaituko da-ta. Larri ta estu aalik azkarren etxerakoa egin gura dau.

Atzean geratu dira Irati'ko basoa eta Lorea Yontxu'rekin zoriontsu bizi dan pago-enborrez egiñiko etxola. Illuntzean Aralar mendigaiñetik doa guztiz makalduta. Onuragarria izango litzakio Egariñe'ren abian atsedendia izatea, baiña asti-galtzerik ez dago, eta bideari nekez darraikio. Andik laster gau betea da, eta motelki islaturik, odei-itsaso batek inguraturiko Aitzkorri dagerkio. Egoak berunezkoak biurtu yakoz, eta nekeak, lo-gurak eta otzak jabetuta, beeko illunpetara jausten da.

Ezusteanean, gabeanean zear larratxori-talde bat agertzen da. Lengo egunean ikusitako ber-berak dira. Txioka, azkonak antzera urretxindorregana datoz, unetxu batez egan egiteari eutsi dagiola dirautsoela, eta olan lagunduko dautsoe beeko baltz-unera jausi ez daiten. Oraintsu, Edurrezko Lorearen lorratz argitsua ikusi dabe, baita txoriaren txio larria entzun be, eta laguntzearen aalik ariñen yatorkoz.

Iru larratxori eskumatara, eta beste irurak ezkerretara jarririk, mokoakaz ego nekatuui eusten dautsie, eta illundian zear bideari darraikioe. Andik laster, edurrezko iratxo baten antzera, Aitzkorri atzean geratzen da. Ur dago Bizkaia, eta Anboto'rantz abiatzen dira.

Bizkai'ko mugara eltzean, larratxoriak ez dira urrunago azartzen, aurreko lurraldea ez dabe ezagutzen-eta. Eresi samur bataz, urretxindorra iratzarten dabe, eta agur maitekorraz illunpetan ostentzen dira.

Onezkero zerbait bizkortuta, Gorbea'rako bideari ekiten dau-tso, amesetan lez Mirentxu'ren eskaria entzungo bai'leuan:

—Uriz, maite ori, erdu zaitez, bizitzea amaitzen yat-eta. Eriotzaren arnas izoztua gero ta urrago somatzen dot, arindu zaitez neugana...

Nekaturiko urretxindorrek egaketea arintzen dau. Aalik azkarren doa, baiña bere egaldi zoroak ezin dagike luzaro iraun. Bularra nekeaz zapalduarik, eta indarrak galtzeko zorian, gaixoak ez daki non dagoan ezta nora doan be. Une aretan odeien artetik iretargia agertzen da, eta txoriaren larritasuna ikustean, samurturik, argi-izpi bat bialtzen dautso, eta onen argiaz inguraturik, aizea aalik ariñen ildokatzen dau.

Atzeko mendien artetik, egunsentia iragartzen dauan argi gorrailla dager, eta orduantxe, iretargiaren izpia ostentzen da. Onezkero, Lorenea ur dago, baiña urretxindorrek orain ez dau arrano antzera egan egiten; mozkor baten antzera, alboka egiñez eguratsean zear doa. Baiña indarren mugaraiño elduta be, Edurrezko Lorea mokoan artuta, aurrera darrai.

—V—

Mirentxu'k bizitzea parrastaka galtzen dau. Arnasa albetan eta biotza taupada zorotan, badirudi zerbait barrutik laster autsiko yakola. Dana isil-isillik dago aldia gelditu egin bai'litzan, Gorbea'ko Lorea joan baiño len azkenengoz ikustatzeko.

Goizaldea asten da, eta onen dizdir zurbilla oartzean, neskeak begiak edegiten dauz, leioan zear ikusten diran bazter maitiak azkenengoz ikusteko. Orduan, berekiko auxe diño:

—Baiña... non egongo ete da Uriz, nire maitale kutuna...? Bazterren batera joango zan, aurki, bere naigabe andia bakarrean

irusteko. Badira egun batzuk ostendu egin dala... Zergaitik ete...? Berak be bakarrik itziko ete nau eriotzari aurre egiteko...? Larri-une oneitan guztiak ostendu dira, Uriz batez be, maite-maite ninduan mutil lerden eta sutsua, Bizkai'ko bertsolaririk onena. Zergaitik bera be...?

Irrikan, leioan zear lekoreru begiratzan dau. Urrutian, goizaldeko argia gero ta biziago biurtzen da, baiña... zer izango ete eguratsean zear datorren orbantxua...? Azken indarraldian, mokoan daroan iñoiz ez ikusiriko lorarik zoragarriena, urretxindor bat leioan zear sartu, eta oe-buruan kokatzen da.

Eskuetan artuta, Mirentxu'k Edurrezko lorea abora daroa, eta orduan neskearen begiak barriro argitsuak, ezpanak gorriak, billoa dizdiratsua, eta matraillak larroskarak biurtzen dira. Zanetatik odol barri ta epela dabilkio. Orduan irribarre egiten dau, eta olan ikustean, Uriz'ek, urretxindorrak, azken eresia neskatillarentzat abesten dau, bere maitasun eta zoriona adierazoz. Baiña egindako indarraldiz ausitako biotza gelditzen doakio, eta abestia suzmur gozoz gozoa biurturik, begiak itxita isiltzen da.

Olan ikustean, Mirentxu'k maitasunez gaiñezka esku biguntan artzen dau, biotz-ondoan eutsi, eta maite-maite musu luzea emoten dautso. Baiña urretxindorra ilten da... Bitxi lakoak diran negar-angulu bi Gorbea'ko Loreari darioz, eta malkoen laztanak oartzean, urretxindorra iratzaririk ez dauan lo gozo baten murgiltzen da.

— VI —

Eguratsean zear abots naigabetuaz, larratxori gazte batek non-gura aldarrikatzen dau:

—Entzun egistazue guztiok...! Asperenka eta negar-malkoen artean, goizeko aizeak esan daust, gaur egunsentia sortzean, Uriz, Bizkai'ko bertsolaria, maite-maite genduan urretxindorra, il dala... il dala...

Eta eguratsean zear egan egiñez, bere oiñaze bizia jabetu eziñik, Iruli'ri, larratxori gazteari, malko lodiak darioz...

XABIER ETA ERRUBI

Bizkai'tik Araba'rantz edatzen dan Anboto'ko egi malkartsuan, udabarri baten Errubi azeria jaio zan. Mundura etorren une berean, arratsaldea ozkorri bizian ilten zan, eta nekaldi aretan eguzkiaren azkenengo dizdir gorrizka zulotik sartzean, abia argi gozo gorriaz bete zan, eta jaio barriaren narrua laztanduz, begientzako zoragarria dan ozkorri antzeko margoz jantzi zan.

Azeri-amak bitxi gorria baizen ederra zan bere kumea ikustean, ezin eban arrotasunaren eragiña jabetu, eta miiña larroskaraz laztantzen ebalu, kurrinka leunakaz auxe iñotsan:

—Ozkorriko bitxi antzekoa zara, bai... errubizko bitxia emoten dozu nire laztan orrek...

Ordutik, Errubi izena emon eutsan, eta ain zuzen be, ezin egikion ori baiño deitura egokiagorik jarri, bere narru eder, ziriko-tsu, argitsua, bitxi gorria bai'litzan oroz gain bereizten zalako.

Errubi'rekin batera, beste kume bi jaio ziran: arra be gertaturiko Izkio, eta txikiena zan Mañe eme ikaratia. Izkio Errubi baizen andia zan, baiña aren narru gartzainkarea ezin zeitekean anaiarena-kin bardindu. Mañe'ren narrua, osteru, zurailagoa, bellegiagoa zan, eta Errubi'renaren ondoan, motel eta bizibakoa emoten eban.

Uriñe'k, arein amak, maite-maite ebazan iru kumeok, baiña Errubi, bere bitxi gorria, kutunena eban, eta onen narru biguna miiñaz laztantzen eutsanean, are ederragoa zirudian.

Asieran, Uriñe'k ez ebazan kumeak bakarrik izten gitxitan baiño eta une laburretan. Bearrezko janaria billatu, eta aalik lasterren kabira biurtu oi zan, kume gosetiak ondo azteko.

Egunen bidean, kumeen soin biribillak lerdentzen asi ziran, eta ez eben len baizen sarri amaren berotasunik bear. Errubi'ri begitxuak zabaldu izan yakozan onezkero, eta abi-zuloko sarrerea erdiz ezkututzen eban inarraren zear, argi-printzai begira ta begira egotea atsegin yakon. Txorien txinta garbiak, mamorroen burrunbak, eta aize bigunak eragindako zugaitzen abarrotsak lilluraturik, gero ta argiago zabalduko erakarpen uxa-eziña beragan sentitzen eban. Amaren oar-deietan oartzen zan debekua aditu ez ba'leu, basadian zear abiatuko litzakean.

Goiz baten, Uriñe'k abitik atara ebazan, bizitzaren ezkutuak ikasi egiezan. Azeri-amak kumeek jasan bear izango ebezan galtzoriak, ondo bai ondo ekiazan, eta augaitik, izaera basatiaren legeak irakatsi nai eutsezan. Olan ba, Bagilla'ko goizalde eder baten, kumeek iru illabete ozta-ozta beterik, abitik atara ebazan.

Lekoreko argi betera urtetean, Errubi'k begiak itxi bear izan ebazan, eta gero astiro-astiro edegita, zabalduko edertasuna begiztatzean, arrituta geratu zan. Bere atzean Anboto'ko atxa, eta aurrean Gantzagaitz'eko erpin zorrotza ikusi egikeazan, eta ezker-eskumatara orlegi biziko mendiak, urrutirantz edatzen ziran laino-artean ostendu arte.

Ustekabez, pago baten kokatuta txori bat pozaren-pezoz zoro antzera txioka asi zan, eguzkiari goizaldeko agurra bialtzen eutsala. Errubi'k ez ekian zergaitik, baiña txoritxuaren txintak entzutean, zeruan egoala iruditu yakon, eta geldi-geldi, goizaldeko eresari erraikion, onen eten egitearen bildur bai'litzan. Lillura onetan egoala, Uriñe'pean zotz batek karrask egin, eta ikaraturiko txoriak alde egin eban.

Ama-kumeak batuta, alkarrekin bideari jarraitu eutsoen. Alako baten, Uriñe lurrean zapaldu zan eta belarriak artezturik, zaunka bereziaz kumeak geldierazo ebazan. Andik ez urrun, zenbait arri arteko itzaletan galdurik, Errubi'k zulo bat ikusten eban. Ezustean, musker baten irudi urduria zuloko erraietatik erdizka agertu zan, alde guztietara begikada ikaratiak botaten ebazala, eta agian nasaituta, urten eta sigi-saga asi zan. Tximista lakoa Uriñe'k eraso eutsan, eta muskerra iges egin aal baiño len, agiñen artean artutako muskerrari igurdi bat emon, eta onen lepo-azurra ausita, illik geratu zan. Amak oparia kumeai erakutsi eutsen arro-arro, eta gero

zaunka leunaz okela aretatik jan egien eragin eutsen. Errubi'ri muskerkia atsegin yakon benetan.

Egun aretan bertan, sugeak naiago dabezan lekuak non aurkitzen diran Uriñe'k erakutsi eutsen, baita muskerrak lez arrapatzen dirala be. Gau aretan nekearen-nekez lo aztun batek Errubi artu eban, amesetan txori baten txio maitagarriak entzuten ebazala.

Olan ziarduen kumeek amaren irakaskintzapean, eta egunen bidean, janaria lortzeko gai izaten asi ziran. Bein baten, arratsalde berotsua zala, Uriñe'k latsaz araindian zetzan baso bateraiño eroan ebazan, eta lurrera jausitako enbor baten gaiñean, atzaparrakaz joten asi zan. Errubi'k, an-emenka eguratsean zear egan joiazan urre antzeko mamorroak ekusazan. Uztaroa laster amaituko litzakien buru-belarri ziarduen erleak ziran. Azeri-amak egindako zartadakaz suminduta, erle-talde batek eraso eutsan, asarre bizian eztenak sartzen eutsoezala, baiña Uriñe lur-gaiñean iraulkatu zan, eta bere burua jarei ikusi ebanean, lengoari ekin eutsan, eta barriro erleen erasopean lurrean iraulkatu zan. Egiketa au zenbait bidar jazo zan, eta noizbait, gogait-eragindako erleek jarkiteari itzi eutsoen, eta basoan zear sakabanatu ziran. Errubi'ri ezta atsegin yakon benetan, baiña azeri-amarentzat garaipena mingarria azaldu yakon, egun oso batez gorputza erre-minduta izanik.

Onetara, irakaskintzak udean zear iraun eban eta ego-aizeak lagunduriko udagoi gardena asi zan, begientzat benetako edertasuna oroz gain edatzen zala. Aintzaz inguraturiko ilten joian izadiko betetasun goren eta igeskor onen pean, Uriñe'k barruan kezka ezkutuak sentitzen zituan, eta aldia igaro-ala, ez ebazan kumeak len baizen arduratsu jagoten. Odei gorritzko itsaso odolduan ilten ziran illunabarretan, Gipuzkoa'ko mendietarantz so egiten eban joran bakanaz uztarpeturik. Aginkor eta lilluragarri, dei urrundaria etorkion... Maitemiñez sorturiko lagun-arraren eskari garaiteziña, urrean... Eta iretargi beteko gau eder baten, kumeak lo egozala, azkenengo agurra bai'litzan, maitebera begiztatu ebazan, eta noizbait, gau isillean galduta, urrutian motelki marrazten ziran mendietarantz abiatu zan.

Biamonean, kumeak itzarri orduko eurekin ama ez egoala ikusirik, zergaitia jakiteke, aren laztanak betiko galdu izan ebezala konturatu ziran.

Izkio'ren jokabidea gero ta ezkibelagoa biurtu zan. Bein baten, Errubi'k aren erasoa jasan eban, eta burruka sumiñaren ostean, leku aretatik biok alde egin eben betiko, abian Mañe bakarrik geratzen zala.

Errubi, atxen naaspilla zan Gantzagaitz aldera joan zan, eta barruti onetan zulo oker estua abitzat aukeratu eban.

— II —

Urte bi ta erdi igaro ziran. Basadiko bakartasunean, Errubi ar joria biurtu izan zan. Egokion baiño andiagoa, aldiaren bidean, entzumen, ikusmen eta usainmenaren betetasuna jaritsi izan eban. Narruko bikaintasunagaitik, zabalduan zear eizaketan ziarduan, gorri biziko tximista zirudian.

Neguko sarrerea zan, eta Leizaga mendatea estaltzen eban orbelezko estalki-gaiñean, ozkorriari begira ta begira egoan Errubi. Arrats-beera aretan iñoizkorik bakartien sentitzen zan. Norbaiten maitasuna edo-ta berak zeozer maite aal izango ba'leu... Amaren laztan urrutiak aldiaren laiñoan ostendu izan ziran, eta bere bizi-tzean ez eban besterik ikusten, norabagetasun eta utsa baiño... Bein baten, Izkio ta Mañe'ren laguntza-billa joan zan, baiña oneik arrotza bai'litzan artu ta uxatu eben. Neguko gau baten, iretargiak edur-gaiñean izotzezko izpiak isurtzen ebazala, toki baketsuagoen billa joian basurde bat ikusi eban. Irrika bakanaz jabetuta, une batez bederik aren laguntasunaren billa urreratu yakon, baiña basurdeak aboa edegirik letagin zorrotzak erakutsi eutsazan, eta ikaraturiko Errubi'k basurdearen isla illuna gabeen zear galdu eban.

Errubi, Leizaga mendatean orbelaren gaiñean zetzan udagoiko arratsalde aretan, aize zakarrak zugaitzen osto nekatuak aidean zear zurrunbilloka eroiazan, pagoak billutsik geratzen zirala. Baso ituna lo-gura zan, eta laster eriotz-antzeko lo-zorro bateko egoak danaz jabetuko ziran. Txoriak be lo-gale sentitzen ziran, eta eguraldiaren kadentasunak eraginda, adaburu billutsetan kokaturik, isillik egozan. Ez zan besterik entzuten errekatxuko ur bizien suzmurrak baiño, iraduz jabeturik mendian beera apar zurietan joiana, goiko laiñoen ezkutuetan nonai aldarrikatzeko.

Onezkero, goiko tontorrak edurren apa-laztanak artu izan ebezan, eta artaldeek negutea irauteko, beeko arditegiak eta ibarreko larradiak billatzen ebezan.

Txakur azkar batek lagunduriko, amabi bat urteko mutil zolia mendian gora joian, Leizaga mendatea aalik lasterren zearkatzeko. Usartza basetxeko Xabier eta Ortze bere txakurra ziran, ibillera ariñaz gautu baiño len etxera eltzeko asmoz. Noizean bein, txakurrak ugazabari begiratzen eutsan, onen agintzai tximista lakoa men egiteko.

Bapatean, begiak ernai, lepoko uleak latz, eta belarriak zutunik, Ortze gelditu zan. Usainmenak arrotz baten zantzua ekarkion. Xabier'ek be, begiak zabalik aurrerantz begiratzen eban, eta ezustean... ikara bizian alde batera baztertu zan artalde-ondotik, zapart izugarria egiñez, azeri baten soin gorritzea atxen artetik ostendu zan. Une labur baten ikuspen igeskorra izan zan, baiña Xabier'ek ezin egikean gar bizi baten antzera ikusiriko azeriaren irudi ederra gogotik kendu, eta betseiñetan Errubi'ren suzko margoa marrazturik, Aramaiona'rantz jaisten asi zan, eta ordubete bat igarorik, etxera eldu zan.

Aitaren laguntzaz ardiak korta zabalera sartuta gero, eskaratze-ra igon zan, eta sutondoan jesarrita, une luze batez begirada galduaz garren dantzeari jarraitu eutsan. Semearen isiltasunaz oartuta,

—Xabier, esaidak zergaitik —amak eskatu eutsan—, gaur orren isillik...?

—Ezer ez, ama...

Au entzunik, etxekojaunak eskua semearen lepoan jarrita, auxe esan eutsan:

—Aizak, Xabier, esaiguk zer jazoten yatak, ama artega dok-eta.

Orduan, abots biziaz Xabier'ek Leizaga mendatean ikusiriko Errubi'ren irudi ta narruko edertasuna tximista antzera bitxi gartsua bai'litzan, artalde ondolik mendian gora ostendu zanean, edes-tu eban. Amaitzeko zorian zala, gurasoai auxe esan eutsen:

—Bai gauza ederra benetan, azeri ori nire laguna ba'litz, eta noizean bein mendiko txokoren baten agertuta urreratuko ba'litzakit, bere narru yaukala laztandu nengion, eta bide-zati batez lagundu egidan...

—Aizak, seme —etxejoaunak eten egin eutsan—, ori eziñezkoa dok, azeriak gizasemeen lagunak ez dozak-eta, aitzitik, etxejo egaztiak-eta arrapatu oi yautsoezak. Oba pizti orreik garbitu, ostantzean...

Etxekojoaunak une batez isillik iraun eban, eta,

—Egun batzuen buruan —emazteari esan eutsan— auzoko lagun batzuk alkartuko gara, eta txakurren laguntzaz, azeria jazartu ta il egingo dogu. Dirudiane, pizti orren zuloa Leizaga'tik ur dago.

Au entzutean, Xabier'ek zeozer esatearren aboa edegi eban, baiña azkenean isillik geratu zan, aurpegian zear keiñu illuna edatzen yakola.

Gau aretan, Xabier'ek biotz-biotzez Gure Aita sutsu ta bereizia esan eban, Errubi il ez egien.

— III —

Arrats-beerako ozkarbian zear eguzkia itsasalderantz makurtzen zan, onen ur kresaletan egarri kiskalgarria baretu gura izango bai'leuan. Atx-arteko zelai baten, Errubi etzanda jarrita egoan, zabal-diko edertasunak inguratutik. Alako baten, zirrara batek menperatuta, eiza-txakurren zaunkak eguratsean zear aditu ebazan. Tximista baiizen arin illabete batzuk lenago jazorikoa etorri yakon gogora: txakurtalde baten aurrean Izkioren soin malgua tximista gorria bai'litzan mendian gora aalik ariñen joian, baiña azken baten txaraka babesgarri batera sartzeko zorian zala, zizpa batzuen dunbotsak aditu ziran, eta anka baten zauriturik, azeria bedar-gaiñean iraulkatu zan. Gero, errenka, igesari jarraitu nai izan eutsan, baiña dana alperrik, txakurrek alde guztietatik inguratzen eben-eta. Bere burua galduta ikustean, Izkiu biurtu, eta aurre egin eutsen. Jarraian, zaunka ta txakurren naasi baten jazarturiko azeria ostendu zan. Gero, isiltasun betea Arangio-Anboto'ko zabaldian...

Arratsalde aretan mendian gora etozan eiza-txakurren zaunkak entzutean, sentipen ezkutuak bere billa etozala adierazo eutsan. Bapatean burura etorri yakon, bere atx-arteko zuloan ezkutatzeara, baiña asmo au bereala zapuztu eban, zulo baten arrapatu izan baiño len, zabaldian, bizitzaren alde ekitea naiago ebalako.

Txakurren zaunkak eta eiztarien uiak gero ta urrago aditzen ziran. Errubi, atx-arteko ikitika, Leizaga mendatetik Gantzagaitz'erantz abiatu zan. Andik laster, txapar usu bat ikusita, an bertan ezkutatzeara erabagi eban. Itsu egindako txakurrak albotik igaro yakozan, atx naasietan galtzen zirala. Errubi orduan, atzera egiñik barriro be Leizaga mendaterantz joan zan, baiña alako baten, igesara eragozten eutsoela, txakur bi zelatan ikusi ebazan. Len itzitako txaparrera biuriturik, emen babestu zan. Zaunkak urrutian galduta ziran, eta une batez azeriak uste izan eban, txakurra ziria sartu izan eutsela. Baiña oker egoan...

Luzaro barik arein zaunka sumiñak gero ta argiago aditu ziran. Oraingo onetan, baiña, ez eben len baiizen zoroki jokutzen, aitzitik, ezkutune guztiak zeatz usnatzen ebezan azeriaren azternen billa. Bapatean, areitariko bat gelditu, eta usaiña artuta, tximista lakoa Errubi'ren ezkutunerantz oldartu zan. Bere burua galduta ikusirik, azeria txakurren gaiñetik zapart egiñik, sigi-saga ariñaz mendian gora urundu zan. Txakur guztiak gar bizia zirudian azeriaren atzetik oldartu ziran, baiña Errubi txaraka lodi baten sartu zan, eta jazartzailleak atzean geratu ziran.

Txarakatik urten zanean, txakurren zaunkak ostendu izan ziran, eta mendian beera zugazti bateraiño jaisten zan troka batera jo eban. Axe zan bere aukeran eban bide bakarra, baiña zugaztira barik, urteera eragozten eutsoen txakur bik lagunduriko eiztari batzuk bere begira egozan.

Ezustean dunbots bat, eta saietsean erremin zorrotza oartu eban Errubi'k, baiña aalik ariñen biuriturik, ondo ezagutzen eban beste igesbide baten billa abiatu zan, baiña... latz-ikaraz lainoturiko begiakaz, andik be igesbiderik ez egoala egiztatu eban. An bertan jarrita, Txakurtalde bat bere begira egoan, azkenengoa zan urtenbidea eragotzirik. Orduan aurrean eban Anboto'ko zuzenbiderantz jo eban.

Errubi'k azken ordua eldu izan yakola uste izan eban, Gantzagaitz atxa amildegi ikaragarri baten amaitzen zan-eta. Arnas-estuka, eta saietseko zauritik odola eriola, ekiñaalean jarraitu eban. Lauso gorri batek begimena moteltzen eutsan, unerik-une makalago sentitzen zala. Amildegira elduta, egiztatu aal izan eban txakurrak ur etorkiozala abo edegietatik lerdea eriel. Orduan bertan, dizdir eraille gorritza begietan ebala, txakur batek eraso eutsan...

Eta orduantxe, gauza arrigarria jazo zan... Ikoti itzela egiñik, Errubi utsera oldartu, eta mako ikusgarria eratuz, beeko atxetara aidean zear jausten asi zan. Une batez, bazirudian atxetan ler egingo ebala, baiña ozta-ozta atx zorrotz bien artean zetzan orbelmeta baten gaiñean jausi zan. Asiera baten, kordebageturik geldigeldi geratu zan, baiña andik laster, bere senera etorrita, ikara bizipean Zabalandi zelaian zear, Anboto'ko atxetan ostendu zan.

Abo bete agiñakaz itzitako txakurrek, zaunka asarrea azaldu eben, baiña eizea amaitua zan. Atx baten gaiñetik, jazoera guztia ikusi izan eban Xabier'ek, eiztariekin batuta etxerakoa egiten asi zan. Nekez egikean bere poza menperatu. Egindako eskaria aintzakotzat artu izan zan.

— IV —

Negu miña zan, eta Anboto-Arangio'ko zabaldia edur lodipen zetzan, goseturiko Errubi janari-billa joiala. Illunabarko isiltasunean, Gantzagaitz'ko bitxi gorria iñoizkorik bakartien oartzen zan, bere barruan aspaldiz sorturiko sentipen bat gero ta biziago egiten yakola. Edurtea amaitu zeitenean, laguntasunaren billa beste iñora abiatuko zan, eroian bizikera bakartia jasan-eziña biurtu izan yakon-eta. Barruti aretan bizirik irauten eban azeri bakarra zan.

Gau baten, edur-gaiñean etzanda, aboan miñezko keiñua igarten yakola, Mañe'ren gorpu geldia ikusi eban. Onen ondoan, okel-zati bat egoan, eta beronetatik erion usain bereziak, zerbait ilgarria barruan ebala iragarri eutsan. Errubi'k ez baekian be, estrikinaz edenduriko okel-zatia zan, eta orduan gose bazan be, aragi aretatik ez eban jan gura. Ez leuke iñoiz eden aren usaiña aztu egingo. Ikara biziaz menperaturik, leku madarikatu aretatik iges egin eban iñoiz ez biurtzeko.

Negu miñeko illunabar otz aretan, gosez zirikatutako Errubi, beeko ibarrera abiatzen zan. Aspaldion, janari urriagaitik guztiz argal aurkitzen zan, eta ibilte isillaz bazirudian edur-gaiñean tatarrez joian iratxo gorrizka, goseak itxura basati ta zoroa emoten eutsala. Bost illabete lenago saietsean artutako zauria osatu izan

yakon, eta geraturiko aztarna, noiz edo noiz sentitzen eban ziztadea zan.

Gautu izan zan arrezkero, eta gosearen-gosez begi sarkorrakaz gabeko itzalak aztertzen ebazan, baiña dana alperrik. Azken egunetan, otzez ildako txori batzuk idoro izan ebazan, izan be, menperatzen eban gose gorria nekez itzungiteko. Basoko ertzera elduta, ibilte arin eta isillaz bazter guztiak begiz arakatu ebazan, baiña iñongo janariren aztarnarik ez. Andik urtetea, Olaeta'ko baserrietara abiatu zan, txokoren baten aztu egindako janari-ondakiñen bat idoroko ebalakoan, baiña auzo aretako bazterrak zezt aztertu arren, gauzarik ez, eta orduan mendian gora biurtu zan.

Iretargi betea agertu zan bazter guztietan lillura iratxokara jarririk, gaba goizalde amesgarri biurtu izan bai'litzan. Noizbait, ordubetea igarorik, Anboto ta Gantzagaitz arteko Zabalandi zelai eder-ederra aurkeztu yakon. Alako baten, atzerantz begiratzeko gelditu zanean, janariaren usaiña artu eban.

Zoroaldi itsuan, edur-gaiñean zetzan orban illun baterantz oldartu zan, eta araturik, alde guztietatik usaindu eban. Izan be, Mañe il eban amuzkiaren usaiña ez erion okel-zatiari. Barruko oarmen ezkutua, baiña, iruzurra izan leitekela iñotsan... baiña gose gorriak eraginda, zati aretan letagiñak untzatu ebazan bereganatu naiez, eta orduan... Zartada ikaragarriaz manturioa itxi egin zan. Zearretara zapart egiñez, Errubi'k manturio ilgarritik iges egin nai izan eban, baiña beranduegi... Igesa eragotzirik, altzairuzko beso anker bik anka bat atziten eutsoen...

Miñaren-miñez zoraturik, Errubi edurraren gaiñean iraulkatu zan altzairuari aginkatuz eta aalik indartsuen teink egiñez, baiña dana alperrik zala ikusirik, jarkiteari uko egin eutsan, eta aiuri etenak eriozala edurretan etzan zan. Ortzi garbian, izarrez lagunduriko iretargi betearen izpi otzek, bere narruaren edertasun odoldua agirian jarten eban.

— V —

Aramaiona'ko Usartza baserriko etxejoauna ta bere semea, Gantzagaitz'ko egitik mendian gora joiazan, aurregunean jarritako

iru manturioak ikertzearren. Zabalandi baiño len aurkitzen zan lenengo segadaraiño eldu ziran, baiña eurok itzita lez egoan. Gelditzeke, bideari jarraitu eutsoen, andik ez urrun egozan beste biak ikusteko. Bata, bideko ezkerretara jarri izan zan, eta bestea, barriz, Zabalandi'ko zelaian. Suzmo bakan batek jota, Xabier'ek aitari auxe esan eutsan:

—Aita, zuk arkaitzetan jarritako manturioa ikertzera zoazan bitartean, laga nagizu Zabalandi'n ipiñitakoari begiraldi bat emon dagiodala.

—Oa, ba, Xabier —aitak erantzun eutsan.

Etxekojaunak ezkerretara jo bitartean, mutilla Anboto aldera zuzendu zan. Zabalandi'ra elduta, begi zorrotzakaz irugarren manturioa jarri izan zan lekua aztertu eban... Irudikeri utsa izango ete...? bazirudian orban gorritzat bat edurretan zetzala, eta biotza taupada zorotan ebilkiola urreratu zan. Bere suzmoak egi biurtu ziran. Altzairuzko matxardatan atzituta, ikaraturik eta begietan so eskaritsua ebala, Errubi zetzan. Mutilla alboratu yakonean, basabere gaixoari aiuri eten, etsiak, iges egiten yakozan. Bultz bateri jarraituz, Xabier belaunikatu zan, eta bere adiskidea bai'litzan, itz egin bitartean, esku bigunakaz narrua laztandu eutsan. Bapatean, mutillak atzerantz begiratu eban; ez zan aitaren zantzurik ikusten ez entzuten... Biozkada bateri men egiñez, manturioa eskuetan artu, eta teinkada bat azabaldu eban.

Errubi jarei egoan, baiña igitzeke leku berean zirauan, maitasunezko itxuraz mutillari begira ta begira. Olan egoala, Errubi'k iretagirantz begiratu eban, eta ezustean, goizaldeko argi-itzaletan ostendu zan.

Andik laster, Usartza'ko etxekojauna semearekin batu zan. Ezin egikean ulertu, azeria zelan jareitu izan zeitekean, baiña noizbait semeak jarraituriko, etxera biurtu zan isillik. Aitaren bekokian agiri zan zimurragaitik mutillak ez eutsan bere poztasuna azaldu. Sortaldetik egunsentia asten zan.

Otsailla'ko arratsaldea janjki goibelaz estalita agertzen zan, odei-talde ariñek mendietako tontorrek miazkatzen ebezala. Olaeta'tik Leizaga mendatera edatzen zan gurdi-bidean gora, Xabier arintzen zan. Goizean ozkarbia zala ikustean, Olaeta'ko senitarte-koai aitaren mezu bat eroatearren, goizean urten izan zan, eta areikin bazkalduta gero, etxera biurtzen zan. Azken orduko agurrak eta goraintziak zirala-ta, berandutxu egin izan yakon, eta orain, galduriko aldia irabazi gura eban. Eskuan uretx-zigor illun-gorria eroian, eta ezpanetan txistu alaiak.

Arratsaldeak argitan galtzen ebana, ipar baltzak indarretan irabazten eban. Noizbait, edurra asi zan, eta mutillak txistu egiteari itzirik, ibillerea arindu eban, gautu baiño len etxera eltzeko asmoz. Illunabar itunean bazirudian zugaitzek sorgin-dantza zoro bateri emoten eutsoela.

Basotik urtetean, edurra lodiagotu zan aizearen ulu zakarrek lagunduta. Zurrunbillo itsutan edurra nonaitik etorkion, eguraldia gero ta illunago biurtzen zala. Bildur bakanak artuta, Xabier'ek ezin egikean bidea ezagutzen, dana estalki zuripean zetzalako. Andik laster, edurra belaunetaraiño etorkiola, nekearen-nekez mutillari indarrak makaltzen asi yakozan, eta etxera garaiz elduko ez litza-ken arrenkureak, adorea illundu eutsan. Laizaga'ko bordaraiño eldu aal izango ba'leu...! Baiña bordaren zantzurik ez, eta noizbait galduta joiala konturatu zan. Laguntzaren eske didar bizitan asi zan, baiña mendebal zoroak itoten ebazan bere oiua.

Xabier indarren mugan aurkitzen zan, eta unaturik, edur-gaiñean jausi zan belaunika. Baiña... zer izango ete, urreratzen yakon aurreko gar gorri a...? Zaunka adiskidetsua jaurtirik, urreratzen yakon irudi bat ekusan. Indarraldi andia egin, eta Xabier zutundu zan ikusten ebana siñistu eziñik.

Begikada maitekorraz so egiten eutsala, aurrean azeri bat ekusan, eta zaunka bigunakaz jarraitu egion adierazoten eutsan. Aste batzuk lenago Zabalandi'ko manturiotik jarei egiñiko azeri berbera zala oartu zan mutilla. Azeriari zerbait bakana igarten yakon, eta Errubi mendian gora asi zanean, mutillak jarraitu eutsan. Era one-

tan ordu-erdi igarorik, ezustean, edurrezko zurrunbillo baten artean, Leizaga'ko borda agertu zan, eta azkenengo indarraldia egiñik, barrura sartu, eta ira-meta baten gaiñean amildu zan.

Otzez dardar, lo indargarria egiteko asmotan, ira-metapean babestu zan, baiña azur-muiñetaraiño sartu izan yakon otzak loa uxatzen eutsan, eta oartzeke, soiña odol-gelditzen asi yakon, zentzumenen jabetasuna guztiz moteldu arte.

Alako baten, aurpegian arnas epela oartu eban, eta besoak luzaturik, Errubi'ren narru biguna ukutu eban. Azeria bereganatu ta aalik estuen besarkatuta, mutikoa berotzen asi zan, eta noizbait lo indargarriak artu eban.

Zorion bakanak menperatuta, Errubi'k burua mutillaren bular-gaiñean ipiñi eban, eta Xabier'ek lo egin bitartean, azeriak goizalderarte iraun eban igitu barik. Egunsentiko argi motela bordako atetik sartu zanean, Errubi zutundu, eta lo zirauan mutillagandik bananduta, tximista lakoa goizaldeko argi-itzalen artean ostendu zan.

— VII —

Krisaillu batez baliaturik, Usartza'ko etxejoauna mendiko zidorretan zear, gau osoa seme galduaren billa aalegindu izan zan. Aurregunean, senitarteai egiñiko ikerralditik Xabier ez etorrela ikusirik, arrenkura andipean gaberdararte itxon eban, eta orduan egorea jasan eziñik, krisaillu baten argi urripean, etxerakoan semeak erabilli bear izango ebazan bideak aztertu zituan alperrik. Orduan, suzmo bakanaz menperatuta, azken itxaropena zan Leizaga'ko borda abiatu zan.

Txabolara elduta, atadian gelditu zan, biotzaren taupada zoroak jabetu eziñik. Mutilla emen ez ba'lego, bere itxaropena amaituko litzake...

Sartu zan, eta argi makalari begimena oitu yakonean, bordako bazter guztiak begiz arakatu ebazan, eta... ara non semearen irudia ira-meta baten pean ikusi eban. Zoriona jabetu eziñik, oi u egin

eban, eta semea besarkaturik, bein eta barriro aurpegiari begiratu eutsan, auxe iñotsala:

—Xabier, maite ori, ondo al-az...?

—Bai, aita, ez larritu —mutillak irribarrez erantzun eutsan— siñistu aal izango ez daustazun gertakizun arrigarria jazo yat...

Aita-semeak pozez gaiñezka egiten dabe etxerakoa. Begi zoliak adorez piztuta, Xabier'ek aitari edesten dautso gabea jazotako guztia. Etxekojaunak irribarrez entzuten dau semeak dirautsana. Gero, ixillune baten ostein,

—Aita, gauza bat esan bear dautsut... Gau aretan, Zabalandi'n manturioa ikusteko bakarrik joan nintzanean, azeri berbera ori atzituta iges egin eziñik aurkitu neban, eta orduan barruko zauskada bateri jarraituz, jareitu neban.

—Bañekikan ori, Xabier...

—Zelan, baiña, aita, iñork ez ninduan ikusi-ta...

—Euk kentzeko asmoz, manturioari eratsiriko odola garbitu arren, edur-gaiñean odol tanto batzuk ikusi naiuazan. Manturio baten arrapaturiko azeriak, jareitzeko ez yok beste biderik, agiñakaz, atzituriko ankea ebagi baiño. Gau aretan, baiña, ez naiuan anka orren ondakiñik ikusi, odol-tanto batzuk baiño.

—Eta ori jakitean, zergaitik ez zeustan agirakarik egin...?

—Ara ba, seme... Asikeran asarratu ba'nintzoan be, gero Jaungoikoari eskertu naiutsakan... Ba al-yakik zergaitik, seme...?

—Zergaitik, aita...?

—Ara... Basabereak maite izaten yoezakanek, lagun-urkoa be maite izaten yaue, eta au giristiñok benetako agindutzat yoagu. Azaldu adi beti errukitsu, eta Zeruko Aitaren onespena irabaziko yok...

Eta Xabier'ek irribarre gozoa ebala ezpanetan, aitari maite-maite begiratu eutsan.

Urrundik, atx baten gaiñetik, Errubi'k bidean beera laster ostenduko diran aita-semeen irudiak begizatzen dauz. Azeriaren soin-ebakun bikaiña argi-argi bereizten da goizeko ortzi garbian.

Ez dau antxiñako so goseti ta ituna begietan... Urrengo udagoian garaia etorri dakionean, Naparra'rako bidean jagiten diran urrutiko mendietarantz abiatuko da, eta bear dauan eme-laguna idororik, arekin Anboto'ko barrutira biurtuko da, Orain, gizaseme guztiak etsaiak ez dituala badaki. An beeko ibarrean, Usartza baserrian, mutil zintzo baten adiskidetasuna betiko izango dau.

Mendian beera ostendu baiño len, eskua astinduz Xabier'ek azken agurra bialtzen dautso, eta zaunka leunaz erantzuna emonik, Errubi atxen artean ostentzen da...

INDIA'KO BITXIAK

Erriko alkatearen semeari Arroxo esaten eutsoen, arro-arro guztiai nagusikeriz begiratu, batetik bestera joialako. Guztitariko jostailuak bere aukeran ebazan, eta izan be, beste mutikoeak aberas-tasunetan ezin zeitekezan berarekin kidetu.

Bostarri-jolasaren sasoia etorri zanean, Arroxo'k guztitariko bostarriak eukazan, ots, altzairuzko andiak eta txikiak, leiarrezko margodunak ortzadarraren argiak baizen ederrak. Sabintxu'k, oste-ra, jokoan jarduteko irrika bizian baegoan be, txiro izanik, ezin egikean bostarririk erosi, eta lagunen jokaldiak ikustatzen ebazan, begiak bostarrien atzetik joiakiozala.

Bere buruari eragiten eutsan Sabintxu'k, bostarriok zelan jabe-tuko leukezan. Olan ba, bein baten bidetxigor batetik joiala, ardi-txirrien mordo andia idoro eban, eta bereala konturatu zan, biribillak izanik, alagala etorkiozala, eta urrengo egunean ara biur-tuta, txirriak jaso ebazan, sakelean sartu, eta ikastolara joan zan.

Ikastolan baiña, sakeleko berotasunaz ardi-txirriai usaiña andia-gotu yaken, eta alboko lagunak eta gero maisua bera, musturra okertzen asi ziran, eta apurka-apurka, ikasgelea ardi-usaiñaz bete zan. Noizbait, maisuak leioak zabaldu zeitezan agindu eban. Baiña olan eta guzti be, ardi-usaiña ostendu ez.

Maisuaren asarrea ikusirik, Arroxo jagi zan, eta irrilar, atza-marraz erakutsirik, Sabin salatu eban, auxe iñoala:

—Maisu Jauna, saskeltzar oneri dario ardi-sunda ori.

Maisuak Sabiñ'eri belarrietatik teink egin eutsan, eta ardi-usaiña kendu ekion, iru egunez ikastolara sartu barik zigortu eban.

Sabin gaixoa iru egunotan batetik bestera norabarik ibilli zan, eta irugarren egunean baso batetik joiala, areitz andi baten pean ezkur-pillo ederra ikusi eban. Onenak aukeraturik, sakelean sartu, eta pozaren-pozez txistuka, etxera biurtu zan.

Biaramonean, ikastolatik urtenda, enparantzako uztaipetan Arroxo'ekin bere biziko jokaldia egin eban. Sabin jokalaria bikain-bikaiña zan, baiña ezkur barrabasak biribil-biribillak ez izanik, bear dan lez txirrindolaka joan barik, alboka egiñez, mozkortien antzera bilin-bolaka joiazan, eta konturatu baiño len, ezkur guztiak galdu egin ebazan, Arroxo'k eta onen lagunek irri egiten eutsoela.

Baiña Sabintxu ez zan beste barik uko egiten dabenen orreitarikoa, eta buru-eragiteari jarraitu eutsan, baita noizbait urtenbidea idoro be. Olan uste izaten eban berak, beintzat.

Ogi-mamiñaren zati bat busti eta zapaldu ondoren, bostarri ederrak eratu, eta urrengo egunean leio-barrenean ipiñi ebazan eguzkitan legortu zeitezan. Arratsaldean ikastolatik biurtu zanean, leiora joan eta... an ez egoan bostarri bat bera be. Beeko baratzean ikondo bateko adarrik-adar, ormatxori lotsabakoek bostarri ederren azken apurak irusten ebazan.

Bostarriak jabetzeko itxaropena galtzeko zorian zala, andik egun batzutura kale batetik joiala, abo-zabalik bustinlari baten jarduna ikusi eban. Guztitariko lapiko ta erratilluak ate-ondoan erreskada bat eratuz, eguzkipean legortu zeitezan ikusten ziran. Gure Sabintxu'k bostarrien arazoa burutik kendu eziñik egoan ezker, buztinlari aren jardunak bapatean asmamena argitu eutsan, eta urrengo egunean ikastolara joiala, bidebatez, kalean buztin-mokil bat artu, eta ikastaldia amaituta, etxean buztina uraz oretu, eta ardurarik andienaz, guztitariko bostarri biribil-biribillak egin ebazan.

Iru egunez biribilkiok leio-barrenean eguzkitan egon ziran, eta laugarreneko goizean, gogortu izan zirala ikusirik, ikastolara eroan ebazan, eta mutikoen oi eben lez, arratsaldean etxera baiño len, lagunakaz inguratuta, berak eta Arroxo'k bostarri-jokaldi itzel bateri emon eutsoen.

Sabintxu jokalaria gain-gaiñekoa zan, eta asikerean irabazle azaldu zan, baiña Arroxo'ren altzairuzko bostarrien aurka ezin luzaro eutsi, eta berak egiñiko bostarriak lenengo arrakalatu, eta noizbait

birrintzen asi ziran, guztiak apurtu arte. Arroxo'ren eta onen lagunaren barre-santzoak erri osoan zear aditu ziran, eta Sabintxu lotsaz lur-jota, sakel-utsik etxera biurtu zan.

Gau aretan, oeratu aurretik besoak leio-barrenean kokatuta, naigabe bizi-biziari eutsi eziñik, zazpi negar-angulu lodi-lodiak isuri yakozan leio-barrenaren gaiñean. Gero oeratu zan, eta egun aretako nekeak eraginda, loak artu eban. Egunsentia baiño len ames urduri batek jazartuta, itzarri zan, eta didar bizietan leiora oldartu zan.

Leio-barrenean bertan, negar-angulu lodiak jausi izan yakozan leku berean, argiz beteriko bitxiak bai'litzazan, zazpi bostarri eder egozan. Diamante baizen ederrak ziran arri bikaiñek, ortzadarraren margo banaz dizdir egiten eben, mutillaren logelea argi bigunakaz ameseko lekua biurtuz. Gero, esku dardartsuz laztandu ta musu bana emon eutsen. Egunsentiaz batera bostarriok dizdira galdua, leiarrezko bostarri arruntak zirudien.

Baiña gaba barriro egin zanean, bostarri miraritsu areik inguru guztia argiz bete eben, eta Sabintxu'ren amesak argi areik edertuta billakatu ziran. Olan ba, gau guztietan mutikoa irrikan egoan ames-ludi zoragarri aretan murgiltzeko.

Gau baten, baiña, mutikoa larri ta estu itxartu zan. Logelea illunpetan egoan, eta leiora urreraturik, bostarriak ostendu izan zirala egiztatu eban. Negar bizietan etxeko bazter guztiak arakatu ebazan, baiña dana alperrik, bostarrien zantzurik be ez.

Mutikoa zorotu-agiñean egoan, eta urrengo gabean lo egin eziñik, nora ez ekiala erriko kaleetan zear abiatu zan. Eleiza-ondotik igarotean, otoitz egiten otu yakon, eta begiak zerura jasota, Gure Aita sutsu bat esan eban. Amaitu baiño ez, an goian, joaletegiari argi gozo biguna ekusala antz emon eutsan. Zelan, baiña, kanpai-dorrera igon...? Olan egoala, ustekabez burutapen galanta etorri yakon: tximist-orratza erabiliko leuke eta beste barik orratzean gora igoten asi zan.

Joaletegiari eldu zanean, eta begimena ango illuntasunari artarata, txoko batetik bere bostarrien argia motelduta bazan be, igarri eban. Urreratu, eta argia ontz andi bategandik etorrela egiztatu aal izan eban. Ontz arek, antza, gabean eizara emoten eutsala,

bere bostarriak ikusi, eta beingoan irunsi egin ebazan. Ontz ari oratu, eta gero zelan edo alan bostarriak bota-erazoko leuskiozala asmotan, Sabintxu urreratu ta atzitu gura izan eban, baiña ondorazten yakon bakotxean, egaztitzar arek mokoka ta erpeka erasoten eutsan.

Sabintxu etxera biurtu zan, eta amari ontzarena esan eutsan. Amak orduan, ontzek eleizako argi-ontzien orioa edan oi dabela, eta argi-ontziko orioan este-aringarri bat ipintekotan, ontzak bostarriak nai-ta-ez botako leukezala, esan eutsan.

Arratsalde aretan bertan, amak emondako este-aringarria, eleizako argi-katilluan isuri eban, eta gau aretan joaletegian begirari jarri zan. Andik laster, ontz barrabasa oiuka asi zan, eta bereala banan-banan bostarri guztiak jaurti ebazan. Jausi-ala, Sabintxu'k jaso, eta zazpi bitxiak sakelean sartuta, astirik galtzeke tximist-orratzean beera kaleraiño, eta emendik pozez gaiñezka etxera biur-tu zan. Arrezkero, mutikoaren amesak eder-ederrak billakatu ziran ostera be, eta iñondiko egaztiren batek kendu ez egiozan, leiarrez-ko kutxa baten gorde eroiazan.

Egunak igaro ziran, eta Lander, Sabintxu'ren adiskide kutu-nak, bostarri-jokoan ziarduan bein baten, beste lagunai Sabintxu'ren bostarrien argiari buruz esan eutsen. Entzun baiño ez, an egoan Arroxo'k egia izango ete zan itaundu eutsan bere buruari. Gau aretan, beraz, Sabin'en etxera abiatu zan, eta ikusi aal izan eban, leio-barrean jarritako bostarrien dizdir zoragarria.

Etxera biurtzean, erriko jauntxo ta alkatea zan bere aita, bostarriai buruz jakitun ipiñi eban, eta bera bostarriok barik zoribakoa izango litzakela, eta bere burua il egingo ebala.

—Ez orixe...! —aita ergelak esan eutsan—. Bostarriok jabetzeko erri onetan baten batek eskubiderik izatekotan, iñork ez zeuk beste, nire seme maite orrek.

Orduan alkateak su-amataillen buru zanari, dei egin, eta Sabin-txu'ren bostarriak jabetu zeiten agindu eutsan. Gau aretan, Sabintxu lotan egoala, zurubi luze baten bidez, su-amataillen buruak muti-koaren bostarriak ostu, eta alkateari eroan eutsazan.

Urrengo egunean Sabintxu itxartu, eta bere bostarri zoraga-riak ostu egin eutsoezala ikusi ebanean, naigabez zorotzeko zorian

billakatu zan. Egun zoribakoa igaro ondoren, gaba elduta, errian zear bideratu zan, bere bostarrien dizdir zoragarria non idoroko ete itxaropenaz, baiña dana alperrik zala ikusirik, etxerantz abiatu zan. Alako baten, baiña, suzmo bakan batek jota, Arroxo'ren etxera jo eban. Etxe eder au, burni-esi andi bataz inguratuta egoan, eta txakur ikaragarri batzuk zaintzen eben.

Mutikoa burni-esiko goikaldera igonda gero, barrandari jarri zan. Olan egoala, etxeko leio baten zear bere bostarrien dizdira gero ta argiako ikusten asi zan. Ezin egikean ezelan be, etxe aretara sartu, eta lur-jota berera biurtu zan.

Gau aretan lo egin eziñik, gogarte sakon bateri emon eutsan. Urrengo goizean, ikastolara joan orduko, bere egitekoa ondo aus-nartuta egoan, eta goizeko atsedendian, Lander'ekin alkarrizketa luze bateri emon eutsan, eta egitekoa ondo zeaztuta gero, banandu ziran.

Arratsaldean, ikasketak amaituta, Arroxo'k-eta bostarri jokoan ziarduean, Sabintxu urreratu yaken, eta,

—Ken adi zorritsu ori —Arroxo'k irri egin eutsan—, oraindiño ardi-korotzaren usaiña emoten yok-eta. Joan adi ortik eta ez azaldu beste iru egun igaro arte.

Une aretan bertan, Lander azaldu zan, eta,

—Aiko, Sabin —esan eutsan—, bart apalostean, aita mariñela zoanean munduan zear izaniko gora-beera batzuk azaldu yoazan, eta arein artean gauza arrigarri bat. Ba al-yaukazak oraindiño argia emoten yoen lengo eguneko ire bostarri eder areik...?

—Ez, Lander. Orain iru egun leio-barrean yeigozala, ez yakiat zelan, ostu-edo egin yaustiek...

—Ez yakik ba galdu yokana. Bostarri arein argia aitari aipatu naiutsanean, aita ez zoan bape arritu. Bostarri orrein antzekoak, India'n yagozak...

—Orduan —eten egin eutsan Sabin'e'ek—, zelan agertu zoazan nire leio-barrean...?

—Egaztiek bostarriok irusten ei'yoezak indarra artzeko, eta ezpaibarik India'tik onantzakoan areitarikoren bat bidegiteak neka-

tuta, antza, zeurean kokatu eta bostarri zoragarriok laga yoazan. Asia osoan India'ko bitxiak esaten yakek.

—Orduan nire bostarriok egaztiren batek jango yoazan...

—Olan yirudik, baiña galdu yokana jakingo ba'eu...

—Zer ba...?

—Aiko, Sabin, aitag esan yoan India'ko bitxi orreik arrigarriak dozakala, benetan. Ara... erreka ondoko arribilletan sartu ta urrengo egunean, inguruko arribillak India'ko bitxiak biurtzen dozak, eta bat eortzi zan lekutik, beste amar bat sortzen dozak. India'ko Ganjes ibai-ertzetan orixe egiten ei'yoek...

Ezin izan eban jarraitu. Negar egiten ebalakoa Sabintxu'k eskuakaz arpegia estaldu, eta andik alde egin eban negar baten auxe iñoala:

—Ai ene, India'ko bitxi miresgarriak galdu egin bear be...!

Autu onen bitartean, esandakoa adi-adi entzun izan eban Arroxko'k, pozaren-pozez jokoari ez eutsan jaramon andirik egin, eta iru altzairuzko bostarri eder galdu izan arren, arratsalde aretan etxera biurtzen zanean, eztitan joian.

Egun aretan illundu baiño ez, Alkatenea'ko atzeko atea edegita, itzal bat kalean beera abiatu zan. Iñork jarraitzen ez eutsala ziur eginda gero, ibillera ariñaz errekarantz bideratu zan. Urrundik, bera lako beste irudi bat kale-ertzeko babesa billatuz aren atzetik joian.

Errekako ertzera elduta, aitzur bataz Arroxko'k arribillen artean zazpi zulo sakondu ebazan, eta bertan India'ko bitxi bana lagata, arribillakaz estaldu, eta aldamenetan ikuslerik ez egoala egiztaturik, isillean etxera biurtu zan.

Andik laster, inguruko saratsetatik Sabintxu urte zan, eta beste aitzur baten bidez, bere argizko zazpi bostarriak arribilletatik atara, eta sakelean sartuta, poz baten txistuka etxera joan zan.

Urrengo egunean, eta barriro be bostarriak iñork ostu ez egiozan, etzeko zazpi argiontzietan bitxi bana sartu eban. Arrezkerro, illuntzen danean, Sabintxu'ren etxean India'ko bitxiak argi gozo-gozoak sakabanatzen dabez, ortzadarraren zazpi margo ede-

rrakaz etxe-barrukoa argituz. Oerutzen danean, bere gelako argi oztiñak Sabintxu'ren amesak zeruko dizdir zoragarriaz laztantzen dauz.

Gau guztietan be, aitzurraz baliaturik, Arroxko'k erreka ertzean gora ta beera aitzurka diardu, India'ko bitxiak idoro eziñik. Auxe da bere lapurketearen ordaiña. Berak gura ez badau be, illuntzea datorrenean, indar ezkutu batek erreka bultzaten dau, iñoiz jaritsiko ez dauzan India'ko bitxiak billa.

LUMATXUA

Udabarria margoz eta erne-miñaz leku guztietara eldu izan zan. Eguzkipean, ertzeko arrietan kokaturiko potxingoko igelek, kro-kro eresintsuakaz bazterrak alaitzen ebezan maitasun-aroa zala iragarriz. Urrezko txinpartak antzera erleak eguratsean zear ezti-gaiaren billa abiatzen ziran, arestian zabaldutako loreen artean billatuz, eta neguko loalditik iratzarrita, txoriek txio ta txioka aizea laztantzen eben.

Baiña Errotatxu'ko baratzak negu betean zirauan, udabarriko oztinez jantziriko andereiñoa ezagutu barik. Inguru aretan ez zan, igel, erle, lora ta txoririk ikusten ez entzuten. Loraila izan arren, isillik eta itun, Errotatxu'ko baratza ezin zeitekean iratzarri.

Errotatxu'ko leio-barrenean besoak ipiñita, Yokin, etxeko mutikoa naigabeturik aurkitzen zan, bere buruari auxe iñotsala:

—Biar nire jaioteguna da, baiña adore barik eta lur-jota nago, baratz au baizen murriz, alegia... Lengo urteetako nire sortegunek lore ta txoritan ez eben kidekorik ezagutzen, baiña aurten zergaitik ete...? Nire baratza geisorik dago, eta au dala-ta, biar gurean ez da jairik izango...

Eta barruko naigabeari eutsi eziñik, mutikoa negarrez asi zan, bere zotiñak arrastiko goibeltasunean galtzen zirala.

—Or berton, leiopean jagiten dan arkakarats ori —jarraitu eban Yokiñ'ek—, beti lora gorriakaz edertzen zan, eta erpiñean, Mantuliz'ko urretxindorra etorran larrosakaz inguraturik abesteari emoteko, eta nire jaiotegunean iñoizkorik ederren egiten eban... Izarretaraiño eldu ei'ziran bere txorrotxioak...

Egun aretan gautu zanean, ipurtargiz jantziriko izartxu bat ortzitik jatsi, eta Mantuliz'ko urretxindorraren billa asi zan. Areitz baten kokatuta aurkitu eban, eta txoriaren ondoan jarri zan. Bae-kian izartxuak gaberdian abesteari emoten eutsala urretxindorrek, eta augaitik itxaron eban.

Gaberdi-gaberdian, urretxindorra itxartu zan, eta bere ondoan ipurtargia ikusirik,

—Zer egiten dozu emen, gau-krisaillu orrek...? —esan eutsan txoriak.

—Zerutik jatsitako izartxua nozu.

—Zertarako, baiña...?

—Errotatxu'ko Yokin naigabeturik dozu, aurtengo udabarrian bere baratzean abestu ez dozulako, eta gaiñera, biar aren jaioteguna da. Augaitik, izarrek zugana igorri nabe mutikoaren alde zeozer egin dagizun mezuaz...

—Nik abestu dagidan, ondoan larrosa gorri eder bat izan bear dot. Bere usaiñak eta edertasunak neugan eresiak sortzen daustaz... Larrosa gorriek urretxindorren amesak laztantzen oi dabez. Errotatxu'ko baratza, baiña, illik dago, eta leiopeko arkakaratsa aurten zimeldu da. Au dala-ta an ez dago lorarik ez txoririk. Ara noan bakotxean bere isillak eta ituntasunak beste iñora eragiten nabe. Orain, abestu dagiken txoririk ez dago Errotatxu'n. Nire izar maite ori, biurtu zaitez zerura zure lagunakana, eta itzi nagizu bakean, lo-gura naz-eta...

—Zeuk jakingo dozu zelan, baiña izarrek, nire lagunek, zeuk Errotatxu'ko baratzean biar bertan abestu dagizun mezuaz igorri nabe.

—Ori eziña da, nire izartxu ori, ango baratza illik dago, eta larrosarik bage ezin dagiket abestu. Orain itzi nagizu bakarrik, lo-gura naz-eta...

Mantuliz'ko urretxindorrek begiak itxi ebazan, eta lo egiteko gertatu zan. Baiña ezin... betazalen artetik ipurtargiaren dizdir otzak lo-gura uxatzen eutsan, eta txori gaixoak burua saiestu arren, ezin egikean aren dizdir orlegixka begimenetik kendu.

Era onetan orduak igaro ziran, eta goizalde baiña len aize biguna sortu zan. Orduan ipurtargiak abopeko auxe esan eutsan urretxindorrari:

—Erauza egizu zure lumarik ederrena eta itzi aizeak eroan dagiala.

Aginduta lez egin eban urretxindorrek, baiña bere lumarik ederrena tinko-tinko sartuta egoan ezker, aalegindu bear izan eban. Noizbait indarraldi andi-andia egin ostean, lumatxua ataratea lortu eban, eta aizeari emon eutsan.

Baiña lumatxuaren sustraian errubi antzeko odolezko tantotxu bat eratsita egoan, eta aizearen besoetan lumatxuarekin batera joian.

Egungentia barik, goizaldeko aizea Errotatxu'ko baratzeratu eldu zan, eta lumatxua arkakarats zimelaren erpiñean bigun-bigun laga eban. Orduan bertan, zorionezko ikara batek arkakaratsa astindu eban, eta antxe bertan, urretxindorraren odola baizen gorria larrosa eder-eder bat sortu zan.

Egungentia egin zanean, Errotatxu'ko baratzean iñoiz ez ezaguturiko arnas bat jabetu izan zan. Eguzki-argiak iratzarrita, Yokintxu'k arin baten leioa zabaldu eban, eta arrituta geratu zan...

Arkakaratsaren erpiñean lora gorri eder-ederra ikusten zan, eta onen usaiñaz inguraturik, zoro biurtu izan bai'litzan, Mantuliz'ko urretxindorrari bere txorik yaukalenak isurtzen yakozan, eta baratze guztia adorez kutsututa, iñoizkorik bizien arnas egiten eban. Eta orduan,

—Oi, neure urretxindor maitia...! —esan eutsan Yokiñ'ek—. Uste izan neban, nire jaiotegunaz aztu izan zintzazala. Baiña ez, aurten be etorri zatxataz, eta izan be, zure abestiak ez dau munduan bardiñik.

Eta arrezker, udabarria datorrenean eta onekin batera Yokiñ'en jaioteguna, larrosa gorriak laztanduta, Mantuliz'ko urretxindorrek bere txintarik ederrenak aletzen oi dauz...

MENDIONDO'KO SAKRISTAU

Amantzi baiño gizaseme alperragorik ez ei'da jaio oraindiño. Gizon lodikote ta aurpegi gorriduna, ondo ezagutzen daben guztiek, iñoiz ariñeketan ikusi izan ez dala abo batez autortzen dabe. Baiña alperrak diran gizaki geienak lez, adimen argi-argikoa da, txokor lodi bat ezpanen artean eusten dauanean batez be. Orduan, bere irudimenak kea bai'litzan gorengo adimenaren gaillurreraiño egan egiten dau.

Mendiondo'ko sakristaua ezagutu nebanean, berrogei ta amar urte ingurukoa izango zan. Aurpegi gorrizka biribillean, begi txiki urdin biziak beti dizdiraka, barruko adimenaren indarra erakusten eben.

Beste arazoen artean, goizaldean, eguberdian eta illuntzean eleizako kanpaiak jo bear izaten ebazan. Eguberdi ta illuntzeko joaldiak ondo samar beteten ebazan, baiña goizaldekoa, arraioa...!

Aspaldi batez gure Amantzi oso artegatua bizi izan zan. Kristiñe'ren oillarra kukurruka asten zanean, arrapalada baten jantzi, etxetik urten, eta eleizako sarreran dingilizka egoan kanpai-dorreko sokeari ekin bearrak, gogait eragiten eutsan benetan. Arazoa arindu yakon, jantzita lo egitea erabagi ebanean, baiña olan eta guzti be, korapilloa askatu barik egoan.

Goizalde otz-otz baten joalei ekiten eutsela, bapatean goi-arnasaz eraginda gelditu zan; eta... Oiño! ozena urteten yakola, oera biurtu zan arazoa epeltasunean ondo ausnartzeko.

Andik iru edo lau egunetara, Amantzi'k bere asmamenaren ondorea burutu izan eban. Sakristauaren etxea ta eleizea albokoak

ziran ezkeru, eleizako orman, joale-sokaren ondoan txirritola bat tinkatu eban, eta sokea emetik igarota, soka-eraskin baten bidez, bere baratzeru begirutzen eban eleizako leirotik igaro, emen beste txirritola bat jarri, eta olan txirritolarik-txirritola, sokea oe-bururaino eroan eban.

Izan be, asmakizuna benetakoa billakatu zan. Kristiñe'ren oillarrek goizaldeko deia botaten ebanean, Amantzi'k oetik patxara andianean sokeari eragiten eutsan, eta txirritola guztiak ondo koi-petuta egozan ezkeru, aalegin andi barik goizaldeko joale-deia erri-tik sakabanatzen zan.

Andik laster goizeko arazo au ondu eban, bere emaztea gai zala sokeari eragiteko konturatu zanean. Olan ba, eguberdirarte lo egiteko gai izan zan, eta adimen andikoai dagokienez, astirik izan eban gaingaiñeko arazoai sarriago emoteko.

Astegunetan, eta oso goizetik ospatzen zalako, bere semetariko batek abadeari mezatan laguntzen eutsan, baiña jaiegunetan, Amantzi'k arazo garrantzitsu au bere gain artu oi dau. Jaiegunetan, eretirako soiñeko garbi ta dotoreaz jantzita, (orain ez dau soiñekoarekin lo egiten-eta), ikusgarria da. Abots bete ta irmoz abadearekin aldizkatzen da, eta bere igikunak begirune ta arduraz beterik azaltzen dira. Batzuen eritxiz, belaun egitean ez dau bear ainbat makurtzen, baiña au esamesatzat artu dagikegu, prakak estutxuak izan arren be, Amantzi'ren borondatea agiri-agirian dago-ta.

Baiña nire ustez, Amantzi'ren gaitasuna diru-eskea egitean nabarmentzen da. Asikeran, eleiza guztietan oi dan lez, txaliarekin aulkien artean ebillen, baiña lodia izanik bereak jasaten ebazan eske-batzea egiteko. Orduan, erdiko igarobidean zutunik egoala, aulki bakotxeko erreskadatik txalia eskuz-esku joian. Bide au guztiz eroso azaldu zan, baiña diruketea urritu zan, bera emoilleen artean ez egoalako, urrean. Egoera larri onetan, baiña, eleizearen onerako eraginda, urtenbidea laster idoro eban. Orain kaiñabera baten muturretik dingilizka ontzi bat jarten dau, eta erdiko igarobidetik, latontzia eleiztarren suurpetik egurastuten da. Latontzian jaustean, txanponek benetako ots atsegiña egiten dabe, eta eleiztarren bat sor eta gor egiten ba'da, Kaiñabereari eragiñez, txanponek zarata itzelaz dalako kristiñauari bere betekizuna oroiazoten dautso, eta aztukorra eleizeaz pakean geratuta gero, kaiñaberea ta latontziaren ibil-

kundeak aurrera darrai. Arazo onetan zekenenak, Amantziren ustez beintzat, atsoak izan oi dira.

Noizean bein, baiña, edur-maluta baten antzera, bigun eta anditasunaz beterik, euneko txartel bat latontziko txiñen gaiñean kokatzen da. Orduan, emoilleganako begirunaren-begirunez, eta ekintza onek jarritzaille asko lortu dagian, Amantzi'k osteratxua jarraitu baiño len, urruma bat egiten dau.

Azkenean, koruko eskea dator. Kaiñaberako asmakizuna sortu baiño len Amantzi'ren ogei ta bi erraldeek koruko eskillaran gora ta beera joan bearragaitik, neke andia emoten eutsoen. Orain baiña, eta kaiñabera miraritsuari esker, ez dau eskillara madarikatua erabilli bear. Beekaldeko sorutik, koruko eskudelaren gaiñetik latontzia agertzen da, eta emengo gizonetakoak euren eskuzabaltasuna erakutsita gero, diru-eskea amaitzen da.

Aurrera jarraitu baiño len bearrezkoa da emen aipatzea, gure Amantzi sakristaua izanez gaiñera, Mendiondo'ko karteru edo gutun-laria dala. Orain urte gitxi, erri onetakoek alboko errira joan bear izaten eben, ango bidalgo-etxean euren gutunak jasoteko. Arazo zuritzearren, Mendiondotarrek amaika lerren egin ezkeru, errirako gutunlaria lortu eben. Ezin bestez, izendatze au Amantzi'ri etorri yakon. Ez eban ezelan be betebear au artu izan gura, errian baserri asko egoanez, bazekian berak, asko ibilli bear zala. Baiña alkate ta abadearen aalegiñak batu ziran, eta gure gizonak ez eban beste biderik izan, Mendiondo'ko gutunlaria billakatzea baiño.

Ez eban, baiña, ogibide barrian izerdi andirik bota, bai zera...! Bere asmamen itzelari ekin eta ekin, urtenbidea idoro eban. Zorro bete gutun eroiala, auzoren baten sartzean, aldarrika onetaraxe asten zan:

—Joxepa...! Ona emen zure senarraren eskutitza...! Ameriketatik yatortzu estalki ederraren barruan. A bai gizon zindo ta adiskide ona...! Onezkero arek baietz ango ardanegi geienak ezagutu...! Oraingo onetan ia aztuten ez ba'yako zuk merezi dozun jantzitxua ekarte...

Edo-ta neskatil batentzat izanik, olan zirautsan:

—Ai Karmeletxu, zeruko zatitxu ori...! Emen dakartzut gudaritza beteten diarduan Alexander'en idazkia. Ori bai mutil zintzo ta

fiña, mundu zital onetan mutil fiñik ba'da...! Entzun egistazu ondo gero... ez itzi mutil orrek iges egin dagizun, ez orixe...!

Errian, esamesak iñoizkorik ugarien azaldu ziran, eta orduan gauzak bere zerera biurtzearren, erabagi izan zan, Amantzi'k gutunak etxean gorde egiazan, eta igandeetan mezea amaituta gero, banatzen eutsezan. Olan ba, arazoa guztien atsegiñerako atondu zan.

Baiña Amantzi'ren asmamen-indarra neurtzeko, itsasontziaren arazoa baiño ez da besterik aipatu bear.

Bein baten, Mendiondotik ez urrun, itsasaldeko erri anditxu baten, portura sartzerakoan, laiñoa zala-ta, itsasontzi bat kai-muturraren inguruko atxarrietan ondoratu zan. Itxasbeeratan, oskoleko luzee-
ran ontziak zirrikitu anditzarra ebala ikusi zeitekean. Lerrenak eginda be, ezin aal izan eben itsasontzia onik atara. Atoi-ontzi indartsua Bilbao'tik ekarri arren, dana alperrik, arraintontziak atxarrietan untzatuta zirudian. Egoera larria benetan: bereala zeozer egiten ez ba'zan, itsasoko zartadek ontzia apurtuko leukie, eta sendi batzuen bizibidea pikotara betiko.

Mendiondo'n, Amantzi'ren asmamena danek ederresten eben, eta izan be, aren gaitasunak erriari ospe andia emoten eutsan. Jaiegun baten, erritar batzuk Amantzi eurekin artuta, itsasaldeko erri orretara joan ziran, eta laster, kai-muturretik ontzi ondoratuari begira ta begira geratu ziran. Olan egozala, erriko urizain bat zertan ziarduen jakitearren urreratu yaken. Orduan areitariko batek Amantzi'ren gaitasunaren gora-beerak emon eutsazan, eta amaitzean ixil-mixilka auxe esan eutsan:

—Ekarri egiozu aulki bat eta txokor lodi luzea, arazoari bear dan lez ekin dagion...

Urizaiñak aulki ta txokor lodi luzea laster ekarri eutsazan, eta txokorra ixiotuta, ontziari begira ta begira jesarri zan. Izan be, ontziaren zirrikituak senda-eziñeko zauria emoten eban. Andik laster, txokorraren mutxikiña lurrean zapaltzen ebala, Amantzi'k urizaiñari auxe esan eutsan:

—Alkatearekin berba egin gura dot.

Orduan, udaletxera joanda, alkatearen laguntzaz Amantzi'k

urrengo eguneko gertu-lanai emon eutsen. Itsasbeera arratsaldeko iruretan izateko zan, eta orduko dana gerturik egon bear.

Biamroneko goizean, 5.000 plastikuzko bonbil uts bana eka-
rrezala, sei kamioi kai-muturrera urreratu ziran. Eguberdian, ontzia-
ren zirrikitua agertu zan, eta orduan kaitik ontziraiño kate luzea
eratuz, erriko 200 mutikok bonbil uts eta itxiak, oskolaren zirriki-
tutik arin baten sartzen asi ziran. Itxasgora asi zaneke, litro ta
erdiko 30.000 bonbillak ontzi-errietan egozan. Gero, baratxe-baratxe
itsasoa gora egiten asi zanean, atoi-ontzi bat portura atoian eroate-
ko gertutu zan. Arratsaldeko bostetan, 45.000 kiloko bonbil utsen
gorako indarraren laguntzaz, olatu andi batek ontzia besoetan artu,
eta gaiñaldera jaso eban.

Ontzi-atoiak eroanda, arraintontzia kai-muturrari inguraketea
emonda, portuan sartu zan, erritarren didarren eta ontzi-txistuen
artean. Ikusgai zauskagarria zan, eta gertakizuna bear dan lez ospa-
tzeko, erromeri andi ta ederra gertatu zan. Amantzi udaletxean
sartu bear izan eben, ostantzean ainbeste besarkadaz osteak itoko
leukean. Gau aretan, udaletxean aparti ederraz jazoera zorionsua
ospatu zan, eta maipurua zala, Amantzi'k amaitu-eziñeko zorionak
artu ebazan. Ikustekoa zan metro-erdiko txokorra aboan ebala,
ederrespen eta edari bizien txurrutada ugariak gorri-gorri egindako
Mendiondo'ko sakristaua.

Arrezkero, Amantzi'ren entzutea Euzkadi'ko mugetan zear zabal-
du da, eta ez ninduke arrituko atzerritik dei egin dagioen be ango
arazo zailen bat atontzeko.

Bitartean, gure Amantzi beti lez bizi da, lortutako ospe mere-
zia burura igoten ez yakola, oi lez sakristau ta gutunlaritzari ekin
eta ekin. Dana-dala, gure gizona ezagutzearren, inguruetatik Men-
diondo'ra lagun asko dator, erriko sakristaua urretik ezagutzeko.
Eta kaiñaberatik dingilizka latontzia euren suurpean ikusirik, ezin
dagikie ziltzari aurre egin, eta orduan, bigun, aunditasunaz beterik,
euneko txartela edur-maluta bai'litzan, atzamarretatik txiñen gai-
ñean kokatzen da, Amantzi'ren ederrespena oiko urrumatxuaren
bidez adierazoten dala.

Iñoiz jakin ez dodana, baiña, auxe da: alperrek lan ez egitea-
rren asmamena erabillaren-erabilliz adimen-argitasuna lortzen ete
daben, ala adimen argikoeak, argikoeak diralako lan ez egitea aukera-
tzen ez ete daben.

ADISKIDE MIÑAK

Mikel eta Ander adiskide miñak, beti alkarrekin ikusten ziran, bai ikastolarako joan-etorrietan, bai biurrikeritan ziarduela, baita ugeri egitean, itsasaldeko ibillaldietan, edo-ta eleizkizunetan. Biok adin eta goibe bardiñekoak ziran.

Ander, arrantzale-sendi aberats batekoa zan. Aita, Itsaso'ko Ama'ren nagusia ta erabatean jabea zan, eta irabazten ebanaz, erriko etxe txukun baten emazte ta seme-alabekin aisa bizi izaten zan, Ander lensemea izanik.

Mikel, ostera, umezurtza zan ezkerro, ez eban munduan besterik, guztien errukia, eta arrantzale-sendi txiro baten ogia baiño, munduan bakarrik geratu zanetik.

Bein baten, itsasaldetik ibilli ondoren, adiskide biok ertzeko atx baten jesarri ziran. Itsasoa bare-bare ta dizdiratsua agertzen zan, eta urek otzan-otzan atxak aparrez estaltzen ebezan, mutikoen aurpegi irribarretsua eta anka billutsik, tanto ikusteziñakaz bustiten zirala. Urrutian, itsasontzi baten isla motela ikusten zan, atzetik ke-lorratza izten ebala. Lilluraturiko Ander'ek ontziari adi-adi begiratzen eutsan.

—Andiagoa egin naitenean —esan eutsan adiskideari—, itsaslaria izango naz, urte batzuen buruan itsas-ikastolara bialduko nauala, aitak berba emon daust-eta. Gero, ontzi andi baten nagusia izango naz, eta an urrutian doan itsasontzi a baizen ederra aginduko dot. Ameriketa'ra ta Ingalanderra'ra joan-etorri ugariak egingo dodaz, eta diru asko irabaziko be aberastu arte. Bai al-da, Mikel, ondasunak baiño gauza obarik...?

Mikel'ek ez eutsan erantzunik emon. Urrutira be begiratzen eban, baiña berarentzat ez ziran itsasontziak, ez ondasunak. Aurte-mein, bere gogoan baziran beste amesak, adiskidearenak baiño askozaz indartsu ta iraunkoragoak.

—Mikel —oiu egin eutsan Ander'ek sorbaldatik astintzen eba-la—, amesetan ete zagoz...? Aspalditxu onetan beste munduan lez ikusten zaitut. Esan, zer izango zara anditu zaitezanean...?

—Nik... —erantzun eutsan Mikel'ek abopeka— abade izatea gura dot...

—Abadea... —soiñak goratuz Ander'ek— ez dago txarto baiña nik ontzi baten nagusia izatea naiago dot, lurbira osoa ikertzeko ta guztiek nire aginduak bete dagiezan. Legorrera elduta, janzki oztin apaiña ta kapela dotorea urrezko galartzuekin erabilliko dodaz. Igarotean, guztiak niri begira geldituko dira, eta ni arro-arro arein aurretik jaramonik egin bage igaroko naz. Esan, bai al-da dirua baiño geiago balio daiteken beste gauzarik...?

—Bai, Ander, badira dirua baiño geiago merezi diran gauzak.

—Ia ba, esan beteonbat.

—Ara ba... adiskidetasuna... norberaren eskintza...

—Adiskidetasuna... norberaren eskintza... —bein eta barrero Ander'ek bere buruari esaten eutsan, ikusmenetik galtzen zan itsasontziari begiratuz—. Benetan, Mikel, ez dausut ondo ulertzen.

Une batez adiskideak isildu ziran, bakotxak barrutik ames umekoi areik ausnartuz. Adiskidetasuna... norberaren eskintza... bein eta barrero Ander'ek berekiko iñoan, baiña ez eban ulertzen.

— II —

Gure mutillak andiagotzen ziran, eta amalau urtedun inguru, Itsaso'ko Ama'n ontzi-mutiltzat sartu ziran euren ikasgoa asteko. Alkarganako adiskidetasunak iñoizkorik sendoen zirauan, eta bata besteagandik aldentzea eziñezkoa zan ezkerro, Ander'en aitak ez

eban beste biderik izan, mutil biok bere ontzian artu baiño. Mikel'en elburua urrengo urtean abade-mintegian sartzea zan. Orretarako ez eban soster andirik aurkitu, ume-zurtza zan aldetik mundurako ez eban lokarri sendorik-eta. Berarentzat larriena, Ander'egandik aldentzea zan, baiña gogo-arazo au adiskidetasuna baiño indartsuagoa zan.

Atun-arraintzak Dagonilla'n aro betea izaten dau, orduan arraintalde ugariak agertzen dira gure itsasoan-eta. Urte aretan, egunak ederrak ziran, eta portutik goizetik urtenda, illuntzean, artutako arraiñekin legorreraten ziran.

Goiz baten, Itsaso'ko Ama ur zabaletara abiatu zan. Ontzi txikia izan arren, oso erabilkoia zan. Andik laster, itsasaldetik urrun aurkitu eta mendiak begimenetik ostendu ziranean, atun-sail baten erdian egozan. Eguraldia ederra zan zerbait sargoritsua bazan be, eta arrinketea oi baiño ugariagoa iragarten zan. Urrumaka antzera, ur geldiek ontzia otzan-otzan kulunkatzen eben. Goiz osoan arraintzari ekin eutsoen, eta eguberdia orduko, arrain-taldea ostendua zan ezkerro, atsedaldi bat artu eben, arratsaldean jarritzeko asmoz.

Arazoari barrero ekiteko zorian zirala, itsas-aizea ezustean eten egin zan, eta bake andia danatzaz jabetuta, lo-gura antzeko zerbaittek arraintzaleak menperatu ebazan. Itsaso'ko Ama'ren nagusiak, baiña, ez zirudian eguraldia baizen nasai, eta etenbarik ortzi-mugaraiño begiratzen eban, besterik ikusten ez zala eurek lez lanean ziardeen beste ontziak baiño. Alan eta guzti be, Ander'ren aitak kezka baten aztarna erakusten eban, noizbeinka legorrerantz begiratzen eba. Bapatean, urrutian iparralderantz, berunezkoa zirudian odei illuna zabaltzen asi zan, eguzkiaren argia amatau arte.

Astirik galtzeke, nagusiak arraintza-tresnak uretatik atara egiezan menpekoai agindu eutsen, eta aalik ariñen legorrerantz abiatu ziran. Azkar joian Itsaso'ko Ama gainalde baretik, baiña ariñago etorkion odei baltza, eta arratsaldeko seiretan inguru, enbata eldu yaken. Lenengo erasoak zartada baizen gogor ontziko saietsean jo egin eban, urren zipriztiñek gizonen janzkiak bustiten ebezala. Itsasoko oldarrak bata bestearen atzetik etorkiezan, ontzia lumatxu baten antzera gero ta zakarrago astintzen zala. Erabatean, ur apartsuek ontziko beekaldea beteten eben. Gero, inpernuko asarrea

etorri yaken. Endaitzari tinko eutsita, nagusiak ez eban begirik aurrerantz so egiteko baiño, ekaitz-uluen artean zuzenbiderik egokiena aurkitzeko saiatzeko zala. Soiñekoak urez blei-blei ebezala, Mikel'ek eta Ander'ek beste ontzikideekin batera, sartutako ura suillen bidez ataraten ziarduen.

Areitariko erasoren bat etorkien bakotxean, bazirudian beso indartsuek ontzia odeietaraiño goratzen ebela, eta aidean lez unetxu batez egonda gero, bapatean zulo sakon batera amiltzen eben, eta ozta-ozta urezko leize ta aparrezko amestxar aretatik urten baiño ez, orru izugarriaz lagunduta, lengoa baiño zakarragoa beste zartada batek barriro zigortzen eban. Odei arre, goibelak azkon alakoak ortzian zear igaroten ziran, eta ontziari erasoz aizearen txistu zorrotzak aditzen ziran.

Ander'en aitak ontzi-erabilteari erraikion, trebetasun andiz onen ibillerea ondoen eroaten saiatzeko zala, beragan guztien zoria zetzala baekian-eta. Orduko, legorraldea ez egoan urrun, baiña itxaropena bakantzen joiakien, ontziak burrukaren aztarnak gero ta agiria-go erakusten ebazalako.

Alako baten, uin izugarri bat urreratu yaken.

—Eutsi, mutillak —nagusiak didar egin eutsen—, eutsi gogor...! Orain itzela yatorku-ta. Jaungoikoarren ez itzi ur-atarateari, bestelarik gureak egin dau...!

Orruka, uinak artu ebazan urketa andia ontziratzeko zala. Beste andiago bat baetorkien, eta onen itxura zemaikorra ikustean, Ander'en aita urtenbiderik ez egoala konturatu zan, eta orduan bere oldozkun bakarra, unè aretan ur-ustuteari emoten eutsan bere semearentzat izan zan.

—Ander, nire mutilla, erdu neugana, urreratu zaitzez...!

Baiña ez eban amaitu aal. Uinak Itsaso'ko Ama saietsetik artu, eta zartada biziaz irauli eban, lagun guztiak uretara jaurtiz.

Ezustez, Mikel'ek itsaso zakar aretan bere burua itoten ikusi eban. Orruka, bata bestearen atzetik uin ikaragarriak gairera etorkiozan, noizbeinka arnasa ozta-ozta artu egikeala soillik. Gero, zerbait zuzpurtuta, ugeri egiteari emon eutsan. Olan joiala, ol-zati bat eskuetara etorri yakon, ontzitik galduriko puxka, aurki, eta betarik galtzeke, ari oratu eutsan.

Uinek bere soiña jasoten eben bakotxean, begi sarkorrakaz itsasoko gairaldea arakatzen eban, zerbaiten billa-edo. Luzaro barik, unetxu batez bazan be, andik eun besadara, itsasoaren aurka bere biziko burrukea ebala, Ander'en burua ikusi eban. Ol-zatiari eutsita, aalik ariñen ugeri egin eban, eta lagunagana urreratzean, Ander gaixoa urpetan ostentzeko zorian zala egiztatu eban.

—Aizu, Ander —oiu egin eutsan—, eutsi apur baten, banoatzu-ta...

Besokada bizkor bi egiñez urreratu yakon, eta Ander'ek nekez oratu aal izan eban ol-zatia eskiñi eutsan.

—Mikel...! —esan eutsan Ander'ek irribarre makalaz— banekian etorriko zintzakidazala, ez baigara iñoiz alkarregandik banandu, ezta Mikel...? Eta orain iñoizkorik lotuen egon bear...

Mikel'ek ez eutsan erantzunik emon. Beste irribarre aul batz erantzun eutsan soillik. Ondo ekusan, ol-zatia txikiegia zala biak uren gaireratik eusteko, ozta-ozta bion buruak urpetik atarateko, baiña ezin egikien era aretan luzaro iraun. Ander guztiz makal aurkitzen zan, eta uin bat etorkien bakotxean, bere burua urpean ostentzen zan, barriro be agertzeko Mikel'eri itxaropenezko irribarre bat zuzentzen eutsala, baiña bere aurpegia gero ta zurbillago azaltzen zan.

—Aizu, Ander —esan eutsan Mikel'ek ez-arian lez—, ol-zati au txikiegia da biontzat. Ni bizkor nago oraindiño, eta ugeri egin dagiket. Zu ordea, guztiz makal zagoz, artuizu ol-zatia...

—Ez, Mikel, ori ezelan be ez —negar-zotinka Ander'ek erantzun eutsan— biok edo iñor ez...!

—Ander, ez olakorik esan. Bion artetik bat gaizkatu daiteke, eta gurasoak, anai-arrebak dozuzan zuretzat izango da ol-zatia. Ni, ostera, bakarrik nago munduan, eta gairera zeruan dagozan nire gurasoen deia oartzen dot. Laster ikusiko dodaz, Jaungoikoak areikana bainaroa... Agur Ander...!

Mikel askatu zan, eta orduantxe orruka, gaillurra aparrez irakiten etorkion uin izugarri batek artu eban. Unetxu batez, uinaren saiets orlegizkatik igon... eta gero bitsezko zurrumbillo baten pean ostendu zan.

Gau osoan, Ander'ek ol-zatiari oratuta iraun eban, ames zoroen artean orduak alkarri erraikioela. Goizaldea barik, itsasoko asarrea

baretzen asi zan. Eguzkia urten orduko, argiz dizdiraka itsasoa lotan zirudian irribarretsu. Elantxobe alderantz, indargeturik eta urpean ostentzeko zorian zala, itsasoa aztertzen eban ontzi bateko begirariak mutilla ikusi eban. Astirik galtzeke, Ander uretatik jaso, eta zerbait zuzpertzuta aurkitu zanean, bere aita Itsaso'ko Ama'ri eutsita, bizirik atara izan ebela azaldu eutsoen.

— III —

Arrezkeroko arratsalde eder baten, bizkortuta jadanik, urte batzuk lenago bere adiskidearekin itz egiten jardun izan eban leku berean, Ander'ek uin'en eraso otzanaz inguratuta, itasoari begiratzeko eutsan. Orain ez zan gomutatzen itsasontzi andi bateko nagusia izatea, ezta janzki oztin eder urrezko galartzuakaz apainduta erabilli be... Zertarako ondasunak...? Begietatik malkoak mara-mara eriozan, eta gogo-biotza adiskide maitia zanaren atzetik joiakion.

—Bene-benetan, Mikel —itzok abopeka iges egiten yakozan Ander'eri—, badira dirua baiño geiago balio daben gauzak...

Une batez isildu zan, eta gero suzmurka, eskuen artean aurpegia estaltzen ebala, onetaraxe jarraitu eban:

—Mikel, maite ori, dirua baiño geiago dan zerbait bada benetan. Adiskidetasuna... norberaren eskintza... Orain, Mikel, argi-argi ulertzen dautsut. Abade izatea zure ames bizia izan zan, eta orain ori ezin dagikezu bete, zerura joan zaralako... baiña ziñez auxe diñotsut: zure orde abadea izango naz, eta zeu izango zintzakezan baizen abade ona izaten be aaleginduko naz...

Eta agintzaria bete eban. Andik urte batzutara Ander abadetu zan. Adiskidetasuna... bere buruaren eskintza... eskuzabal banandu ebazan, eta igaro zan leku guztietatik, bere buru-ukopena guztientzat onespen andia izan zan...

ESTALPEKO LAGUNAK

Gaba zan, eta sabaiko lasto-artetik izar batek argi motela edatzen eban barrura. Ordubetea zan erriko aroztegian lan egiten eban Yoseba biurtu izan zala. Laguntzailletzat an jarduten eban iruko sendia aurrera ataratearren, oso txiroak ziran-eta.

Apalduta gero, Yoseba, Birjiña ta seiña lotan asi ziran. Gau gordiña izanik, seintxua otzak eraginda askatxuan igitzen zan. Alboan egoan astoa aurrera otz zala konturatu zan, eta orduan idiari,

—Aizu idi —esan eutsan—, seiña otzez dardar dago, urreratu gakiozan ia berotzen dogun.

Lagun biok askara urreragotu ziran, eta arnasa seiñari jaurti eutsoen. Begi eder-ederrak zabalduta, seintxuak irribarre egin eutsen, eta bereala lo geratu zan.

—Gure aurtxua dan ederra...! —esan eban idiak asperen bat urteten yakola—. Egunen baten alorak goldetuko dodaz poz-pozik, berarentzat garia azi daiten.

—Neuk ba, —esan eban astoak—, bizkar-gaiñean zabaldian zear eroango dot txorien abestiak entzun eta lorak ikusi dagiazan.

Andik laster, ausnar egiteari itzi barik, idia lo geratu zan. Astoak, baiña, ezin egikean lorik egin, eta begi baltzaran, luze, ederrak seintxuagan josita ebazan. Ez ekian zergaitik, baiña aurtxuari begiratzeak iñondiko zoriona ekartson. Otzak eraginda, aurrera artega igitzen asi zan barrero. Orduan astoak burua aren burusi-gaiñean ipiñi eban berotu zeiten, eta Yosutxu lotan asi zan osterabe.

Alako baten, astoak idia iratzarri eban auxe zirautsala:

—Aizu, idi, ikusi al-dozu...?

Arrausi luze-luze eginda, idiak,

—Ikusi zer, baiña...? —erantzun eutsan—, nik ez dot gauzarik entzun ez ikusi.

—Zu beti or erdi lotan zabiz paparrari ekin eta ekin. Lengo egunean etorri yakuzan iru Erregeak be ez zenduzan ikusi...

—Bai, ikusi nebazan alde egiten ebenean.

—Arlote ori...!

—Zer ikusi dozu ba...?

—Oraintxe bertan aingeru bi emen egon dira, eta seintxuari gur egiten eutsoela, batak besteari auxe esan dautso: “Au bai sein ederra...! Amak neuk iñoiz ez ikusiriko aurpegirik zoriontsuena darakus”, eta orduan beste aingeruak auxe eratsi dau: “Itzi lo egin dagian, egunen baten gaixoari zazpi ezpata biotzean sartuko yakoz. Bitartean, zoriontsua bizi izan daítela, birjiña zoragarri au”.

Astoak emen eten egin eban asperen bat jaurtitearren, eta,

—Orduan —jarraitu eban—, aingeruek egoakaz seiñari laztan batzuk egin dautsoez, eta etorri baizen isillik urten dira.

—Au bai tamala...! —esan eban idiak erdi negarrez—. Ama Birjiña gazte orreri maitasuna alde guztietatik dario. Lengo egunean, buruan laztan bat egin eustan, eta zorionez ilteko zorian nintzala uste izan neban.

Eta biok seintxuari maite-maite begiratzen eutsoela, goizaldea barik lo geratu ziran.

Andik egun batzutara, gaberdian, astoak idia barriro iratzarri eban auxe zirautsala:

—Aizu, idi, lengo gabeko aingeruak emen izan dira barriro, eta batak besteari auxe esan dautso: “Munduko aurrik ederrena da. Bereala ezagutzen yako Jaungoikoaren semea dala”. Orduan besteak auxe irautsi dautso: “Itzi lo egin dagian. Gizonak salbatzera etorri da, baiña egunen baten oneik erailgo dabe, eta seintxuak

ondo bai ondo daki ori”. Eta lengo egunean lez, egoakaz aurrari laztanak eginda, alde egin dabe.

Eta aieneka, astoak negarrari emon eutsan idiarekin batera. Maitasunaren-maitasunez, abere biok musturrak seiñaren burusi-gaiñean jarri ebezan, otz izan ez zeiten, dardarrez asten zan-eta.

Urrengo gabeen, astoak idia barriro iratzarri eban onetaraxe:

—Aizu, aizu...! Aingeru bat izan da emen oraintxe bertan, eta Yoseba’ri esan dautso...

—Zer esan dautso...?

—Ara ba... Erodes’ek Jaungoikoaren semea jaió dala jakitean, lurralde onetako seintxu guztiak erailteko agindu dauala. Augaitik, aingeruak Yoseba’ri lenbailen Ama Birjiña ta aurra artuteko ta Ejito’ra joan daitezela esan dautso...

—Eta arako bidean —esan eutsan idiak—, nork berotuko dau gure seintxua gau luze ta otzetan...?

—Ez dakit, baiña geu barik seintxuak gabaz dardar egingo dau...

Gau aretan, egunsentia asteko zala, Yoseba’k jagita, emazteari auxe esan eutsan:

—Mirentxu, jagi zaitez, artu seiña ta joan gaitezen Ejito’ra, Jaunaren aingeru batek ori egiteko agindu daust-eta.

Orduan Birjiñak aurtxua biotzaren ondoan estu-estu artuta, eta Yoseba’k erraikiola, atera abiatu zan. Lekorera baiño len, seintxuak asto ta idiari irribarre bana egin eutsen, eta gero irurok urten egin ziran.

Egunsentia egin zanean, Belen’go errixka goizeko laiñoaren artean galdu izan zan. Alako baten, euren atzetik oiñoñtsak aditu ziran. Bildurrak jota, Yoseba’k atzera begiratu eban, eta,

—Aizu, Mirentxu, emen dagoz osterá be —esan eutsan—.

—Zeintzuk, baiña, Yoseba...?

—Idia ta astoa.

Egia zan. Idia ta astoa berberak ziran, eta bertaratuta, maitasu-

nez gainezka seintxuari begiratu eutsoen. Orduan Yoseba'k Birjiñari auxe esan eutsan:

—Mirentxu, oneik zerutik bialduta datozkigu.

Eta orduan, seintxua biotzaren ondoan barrero estu-estu besarkaturik, Birjiña astoaren gainean jesarri zan, eta atzetik idiak errai-kiela, Ejito'rantz abiatu ziran...

BASETXE ZAARRA

Anboto'tik egoalderantz edatzen dan zabaldian, Iraibar basetxe zaarra dago. Eusko leiñu baten abia izan da, baiña gaur aldiaren bide latzak ondaturiko etxe au azkenetan aurkitzen da, eta laster Iraibartarrek jaiotetxea itzi bear izango dabe. Poz eta lei anditako lekuko izan diran orma lodiak makaldu egin dira; areitzezko abe sendoak zerenak jota indargetu, eta teillatu zabala agure baten burua lez lurrerantz makurtu da.

Iraibar basetxe zaarra...! Biar azken eguna izango yatzu, eta etxekeok biotza urratuta alde egingo dabe, betiko lagata orain arte izandako euren ames eta itxaropenen abia.

Basetxetik erreka bateraiño jaisten dan aldapatik, Miren Zuriñe, etxekeo alaba maitagarria, ertzeko areitz bateraiño abiatzen da azkenengoz, ain sakonki maite dauan guztiari azken agurra esateko.

Neska lirain eta apala, Miren Zuriñe'gan ederrena, urre illun antzekoa txorta lodi bitan bildurik sorbaldan beera jausten yakon adatsa da. Areitzpean jesarrita, biotz larriaz auxe diño:

—Ai ene Jaungoikoa, arren, ez itzi maite-maite dodan basetxe zaarra betiko laga dagigun. Egun berotsuetan aren orma lodiek goizalde antzekoa dan ozkirri gozoa eskintzen dauste, eta neguan, ekaitzaren uluak aditzen diranean, sukalde epelean pago-makurrek epeltasun zuzpergarria. Txoko baten, aurtzaroko amesak gordeten dauzan nire seaskatxua dago... Gau oro, aingeru baten apa-laztanek begiak ixten eustazan, eta askotan berarekin zerura nindaroan, onen edertasuna ikusi nengian... Iraibar'ko etxe maitia...! Nire ames, itxaropen eta zorionaren lekuko izan zaran ori... ene biotza zure utzikiñetan besarkatuta betiko geratuko da.

Bizkai'ko mendien atzetik eguzkia ostentzeko zorian dago, eta onen azken dizdirak neskatilearen adatsean argi biguna ipinten dau. Arririk-arri jausten diran latsaren urak suzmurka aditzen dira... Alako baten, etxe zaarraren edestia neskeari jakiñerazoten dautso.

—Urte asko igaro dira, Miren Zuriñe, baiña ni betiko nazan ezkerero, zure jaiotetxearen sorpena ikusi neban... Ara, antxiña baten lur oneik baso amaibageak ziran. Mendi orrean atzean, neska eder-ederra bizi zan, zu baizen ederra, Miren Zuriñe. Baebazan zeuk lako begi andiak, bekoki garbi zuria, matrail zuri-gorriak, eta sor-baldan beera etorkion adats bardinbakoia. Zure irudikoa zan, eta lirain-liraiña zan ezkerero, neskeari Liraiña eritxan. Ez zan mutillik neskea ikustean, maitemindu ez zeitenik.

Bein baten, Liraiña'ren etxetik urrun samar bizi zan Lerden izenekoz gazte batek, neskatilea ikusi eban eta beingoan maitemindu zan. Arratsalde oro, Liraiña ikustearren mendiko zidorretatik jaisten zan, bere maitia unetxu batez bederik urrundik ikusteko, eta gero gaba elduta, iretargiak argituriko bidexkatik etxera biurtzen zan. Bein baten, oi eban antzera neskatilearen begira egoala, iturri-ra abiatzen zala ikusi eban, eta urreraturik, berba gartsuakaz bere maitasuna agertu eutsan. Neskeak ez eutsan ezer esan, baiña ordu-tik, mutillaganako maitasun itzalieziña sentitzen asi zan, eta illuntze baten, berak be maite ebala mutillari autortu eutsan. Gau aretan iretargipean etxera biurtzen zala, izarrak besarkatu egikeazala uste izan eban mutillak.

Neskatilearen gurasoak, baiña, gazte bien artu-emonak oartu ebezan, eta aberatsagoa zan beste mutil batekin alabea ezkondu gura eban ezkerero, Lerden'ekin artu-emonak izaten galerazo eutsoen Liraiña'ri. Gazteek, baiña, etxeko usoen bidez, alkarri barriak emoten eutsoezan. Bein baten eizean zala, Liraiña'ren aitak uts-egitez etxeko uso bat il egin eban, eta ankan lotuta eroian txartelaren bidez, egia jakin eban. Sumiñez eraginda, usategiko egazti guztiak erail ebazan. Ordu-tik, gazte biak itxaropen barik bizi izaten ziran.

Goizalde baten, Lerden etsia, neskearen etxe-inguruan zelataria egoala, bere maitia ikusirik, urreratu yakon, eta,

—Liraiña, maite ori —esan eutsan mutillak—, ezin dot au luza-roagorik jasan. Agur esatera etorri naiatzu, biar betiko alde egingo dot-eta. Baiña joan aurretik, maite nozula barriro entzun gura dot.

—Bai, Lerden, ez zaitut iñoiz be aztuko, bene-benetan maite zaitut-eta. Esan, maite orrek, nora joango zara...?

—Ez dakit... Urrun...

—Eta ez al-zara iñoiz biurtuko...? —itaundu eutsan Liraiñ'ak negarrez—. Ez al-zaitut ikusiko barriro...?

—Liraiña, oba izango da alkar ez ikustea. Zorionsua izan zaitezala, nire gurari biziena da. Zure oroitzeta betiko neugan edo-nora eroango dot, maite ori.

—Esan, Lerden, orrenbeste maite al-nozu...?

—Maite ete zaitudan, diñozu...? Illunabarko itzalek eta gau-izarrek soillik dakie nire maitasunaren anditasuna. Ene gogoa zuga-na egan doanean, iñontzeko malkoek dardar egiten dabe, eta aizea-ren asperenak nonai zabaltzen dira...

—Orduan eroan nagizu zurekin. Noranai joateko gerturik naukazu. Geugan maitasuna jarri dauan Jaungoikoak ez gaitu itziko...

Eta unerik galtzeke, gazte biak joan ziran alkarganako maitasuna bakarrik eroiela. Eguberdia aurretik, Aramaiona'ra eldu ziran, eta abade zaarrari ezkondu egien eskatu eutsoen, eta gero abade-nean bazkari arrunt bat aztegia ospatu eban.

Arratsaldean, abade zaarraren onespina artuta, mendian gora abiatu ziran Otxandiano'n gaba emoteko asmotan. Arangio'ko atxa atzean itzita, baso usu baten zear ibilteari ekin eutsoen, bitartean gautzen zala. Alako baten, ekaitzaren uluak abaroaren artean entzuten asi ziran, eta andik laster, illuntasunak inguratuta, galdu egin ziran. Orduko, Liraiña guztiz nekatuta joan, eta besoetan artuta Lerden'ek bideari jarraitu eutsan, nora ez ekiala. Sasi ta arantzek soin eta janzkia arramaskatzen eutsoezan, baiña emaztearen besarkadeak indar barriak emotsazan.

Orduan bertan, Anboto'ko egoitzara abiatzen zan Maitagarria'k gazteak ikusi ebazan, eta onein maitasun bizia oartzean, basoan zear barruratzen zala abesten asi zan. Maitagarria'ren eresia entzutean, abi-zuloak itzirik, otso, azeri, artz eta basurdeek jarraitu eutsoen. Nik ez dakit zer esango eutsen Maitagarria'k, baiña oi-ane-ko sakonenera elduta, enborretan agiñak untzatuz, otso ta azeriek zozpal andiak erauzi ebezan. Jarraian, basurdeek enborrai eraso

eutsien lurreratu arte, eta orduan artzak enborrak artu ta metak egiten asi ziran.

Era onetan, baso-soil bat eratu zan, eta gero artzek arriketeari emon eutsoen, etxe baten ormak jasoten ebezala. Naikoa andiak ziranean, Maitagarria'k baso-lorakaz teillatua egin eban, eta une aretan odei-soil baten zear iretargia agerturik, etxea zuriztatu eban. Orduantxe, nire poza jabetu eziñik, ikotika asi nintzan, eta nire aparrezko laztanak artzean, etxe-inguruko zabalune guztia bedar bigunaz estaldu zan.

Onetaraxe, Miren Zuriñe, Iraibar basetxea sortu zan. Etxeko eraikintza amaitu zanean, Maitagarria barrura sartu, eta bere eskuz sutondoan su alaia piztu eban. Gero, bere eresia abestuz, urten zan, eta aditu eutsoenean, basabereak euren abi-zuloetara biurtu ziran.

Gaberdia zan arrezkero, eta Maitagarria Yarinto'tik jaisten dan errekatxu batera joan zan. Ertzeko areitz baten kokatuta, urretxindor bat lotan egoan.

—Aizu, Txurintxu —Maitagarria'k csan eutsan—, ekaitz-uluen artean ezkonbarri bi ibilli dabiltz. Joan zaitez areikana ta abestu egizu jarraitu dagizuen, eta neuk barri egiñiko etxe bateraiño zuzenduko dozuz. Gaur, iñoizkorik ederren abestu dagizun gura dot. Abiatu zaitez astirik galtzeke.

Au esanik, Maitagarria'k Anboto'ko bere egoitzarantz jo eban, eta azkon baizen arin urretxindorra gabeen ostendu zan.

Bitartean, Lerden ibilli ebillen lotan zirauan bere emazte zoragarria besoetan artuta. Estalperen bat idoroteko itxaropena galdu izan eban orduko... Baiña orra or, ekaitzaren orruen artean txori baten txinta gozoak aditu zirala. Txoria adarrik-adar joiala, eresiarren edertasunak lilluratuta, Lerden'ek basetxe eder bateraiño jarraitu eutsan. Alako baten, atadiko goikaldean kokatuta, urretxindorra bere txorik ederrenak abesten asi zan. Urrezko ugolde antzekoa zan txoriaren eresiakaz inguraturik, eta emaztea besoetan eroiala, Lerden etxe aretara sartu zan.

Gau oso aretan, urretxindorraren txio garbiek Iraibar basetxe eraiki barria laztandu eban, ekaitza baretu ta Arangio alderantza goizalde eder baten argia agertu arte.

Olan sortu zan Iraibar basetxea, Miren Zuriñe. Lerden eta Liraiña'k seme-alaba ugariak izan ebezan, eta urteak igarorik aspal-diko edertasuna galdu arren, senar-emazteak alkarri gero ta maiteago eutsoen. Eta egun baten, maitasun-saritzat biok batera il egin ziran...

Onetaraxe amaitu eban errekek Iraibar etxeko edestia. Miren Zuriñe'k begiak itxita zirauan, antxiñako gertaeratzaz ames egiten ebal. Gau betea zan orduko, eta orra or gau-aizeñoa sortu zala zugaitzen ostoak esku ikusteziñaz dardar jarten ebazala. Neskearen adats jori-ondotik igaroetan, auxe esan eutsan suzmurka:

—Badakit zergaitik zagozan orren naigabeturik, baiña isilpeko bat esango dautsut, Miren Zuriñe. Etxeko osabidea zure eskuetan dago. Eta bere salneurria zure adats eder-ederra da. Gau onetan bertan, iretargia agertu daitenean, zatoz leku onetara. Gau-txoriek zure begira izango dozuz, eta adatsetik banan-banan billoak erauziko dautsuez, aidean txorta ederra eratu arte. Gero, eskuan artuta, mendien atzetik iretargia ostendu baiño len, etxeko orma baten ondoan lurperatuko dozu, eta biar bizi barri batek indartuta bai'litzan, antxiñako sendotasun eta irauntasuna birrartuko dauz.

Errekea une batez isildu zan, eta gero onetaraxe jarraitu eban:

—Orain, Miren Zuriñe, zoaz etxera, eta gauleneko gentzan, zein yatzun maiteena erabagiko dozu: zure adatsa ala basetxea.

— II —

Gabeko isiltasuna danaz jabetu da. Goian, Anboto'ko erpin zorrotzak, bere izar kutunaren billa ortzia aztertzen dau. Mendien atzetik iretargi ederra agertzen da, oro amesezko itsaso zuraila biurtuz.

Irudi gazte bat errekarantz abiatzen da, eta onen ertzera elduta, une batez ezpaitsu areitz-ondoan gelditzen da. Gero, esku irmoz, adatsaren txibistak askatu, eta billo gaztainakara ederrak sorbalдан beera gerriraiño jausten yakoz. Iretargiaren izpiek, dizdir biguna ataraten dautsie, neskearen irudi maitagarria azkenegoz agirian

ipiñi naiean lez. Inguruan, suzko begiak dabezan gabeko txori baltzek egan egiten dabe.

—Gau-txoriok —Miren Zuriñe'k diñotse—, gerturik nozue, asi zaitkeze...

—Oi, Miren Zuriñe...! —gau-txoriek dirautsoe—, benetan tama-la dogu astea, guk iñoiz ez ikusiriko adatsik ederrena baidozu...

—Neuk be maite dot, baiña areago nire basetxe kutuna...

—Zure billoak oianeko ostoak baiño ugariagoak dira, eta dizdir bigunaz ederturik agertzen dira.

—Bai, baiña egunen baten dizdira ta edertasuna galdu egingo dabez. Iraibar etxeak, ostera, orain arte iraun dauan beste, gero be iraun egingo dau.

—Neska eder ori...! —naigabeturiko gau-txoriek barriro—, zure adatsaren biguntasunak, bekaitzezko asperenak baso-loreai ataraten dautsez, eta aren dizdirak loreena zurbiltzen dau.

—Larriagoak izango dira nire asperenak eta bizitza margulago-rik etxe maitetik urrun.

—Miren Zuriñe —atsekabez diñotsoe gau-txoriek—, negar egite-raiñoko miña artuko dozu...

—Txori maiteok —latz-ikaturik dirautse Iraibar'ko alabeak— arindu ta asi zaitzeze, iretargia ortzian beera makurtzen da-ta, Biz-kai'ko mendien atzetik ditxarokion intzaren besarkada gozoa artzeko.

Adarrak itzita, txoriek neskearen inguruan egan egiten dabe, baiña bere adatsaren edertasun bardinabakoa ondatzen ez dira ausartzen.

—Arren...! —negarrez dirautse Miren Zuriñe'k— asi zaitzeze beran-uegi izan baiño len...!

Gau txoriek orduan, azkon baizen ariñak, neskatillearen ada-tsaren aurka oldartzen dira, eta bere ondotik igarotean, mokoaz billo bana artuta, teinkada batez erauzten dautsoe. Billo bakotxa-ren sustraian, errubi antzekoa dan odol-tantotxu dardarti bat ager-tzen da, eta uleak mokoetan eutsita, aidean txorta bat eratzen dabe.

—Arindu zaitzeze txori maiteok —diñotse neskatillak antzika—. Ez al-dozue ikusten iretargia laster ostenduko danik...?

Txoriek ariñago be egan egiten dabe, txortea ederragotzen dala. Neskeari miña be andiagotzen yako, eta aurpegi maitagarria eskuen artean ezkutaturik, oiñazezko asperenak jaurtiten dauz.

Gau-txoriek noizbait, lana amaitzen dabe, eta neskearen eskue-tan argi biziz dizdiratzen dan Txorta ederra ipinten dautsoe.

—Egiña da, Miren Zuriñe —Gau-txoriek diñotsoe—. Zure ada-tsa lodia dan ezkeru, naikoa izan da aren erdiaz. Gorde geratzen yatzun enparaua eta zaindu egizu, olan eta guzti be eder-ederra dalako.

Txortea bularrean estaturik, eta malkoakaz bustiten dauala, Miren Zuriñe etxera doa. Mendien atzetik iretargia ostentzeko zorian dago, baiña oraindiño garaiz da. Atzekaldako ormaren ondoan zulo bat egin, eta txortea lurperatzen dau. Aldi berean, iretargiko azken izpiak ostentzen dira.

— III —

Goizaldeko argia Naparra'ko mendien atzetik dager. Barruko zauskadea jabetu eziñik, Irabiar'ko alabea zurubian beera oldartzen da, eta atadira elduta, begi ederrak zabal-zabalik eta biotza taupada-ka dabilkiola, amesetan lez une batez gelditzen da.

Aurreko gabeen txortea obiratu eban lekutik, arkakarats baten adarrek etxe zaarraren ormak besarkatzen dabez, eta landare bikai-ñaren guna ormetan sartuta bai'litzan, atzo amiltzeko zorian egoe-na, gaur etxe sendo, errime biurtu da, basoan deslai ebiltzala Lerden eta Liraiña'k antziñako gau aretan aurkitu eben lez. Miren Zuriñe'ren billoetan agerturiko odol-tanto bakotxa, larrosa gorri bizi biurtu da, eta begietatik isuritako malkoak ostoetan dardarrez, argiz beterik agertzen dira.

Goizeko aize bigunak neskatxaren aurpegi maitagarrian zorio-nezko irribarre bat ipinten dau, adatsa laztantzen dautsala.

—Oi Iraibar'ko nire basetxe maitia...! —diño pozaren-pozez—. Iñoizkorik errime ta sendoen ikusten zaitut... Zure ormetan, eusko sendi baten ekanduak gordeko dozuz, eta gizaldi askoen maitasun eta itxaropenak zugan abia izango dabe...

AMELU'REN OROITZAK

Nire umetarotzaz ez naz ondo gomutaten. Ez daukat amaren oroitza be, txikia nintzala il edo saldua izan zalako, urrean. Baiña auxe ondo bai ondo gomutaten dot, ara...

Bein baten, astakumea nintzala, jabetzen ninduan "Pitos" ize-neko ijito argi ta azkarrak ni saltzea erabagi eban, aurreztutako diruari nire sal-saria eratsirik, bere sendiak bear izaten eban zaldia erostearren. Salketearen aurregunean, baiña, Txutxi'k, Pitos'en seme ernaiak, bizkarrean zorne-zorro itzela sortu izan yatala oartu eban. Aitari esanda, onek makurra ardura andiz aztertu eustan, eta onen ondorioz, labanaz epai andia egin eta zornea urten zanean, zauria garbitu eustan.

Zauria, baiña, andiegia zan, eta arekin ez egoan saltzerik. Pitos'ek gogoeta sakon bateri emon eutsan, eta ijito argia zan ezker, urtenbidea laster idoro eban. Oartu izan eban, nire ulea ameluaren itxurakoa zala, eta burutapen bikaiñak jota, bere emaz-teari dei egin, eta nire uleekin naastuta amelu-eskukada bat txortateko agindu eutsan, eta emakumea arazo oneitan gain-gaiñekoa zanez, nire saldar itsusia ezkutatua billakatu zan.

Biamonean, egunsentia agertzeko zorian zala, Pitos, Txutxi ta irurok, Gernika'rako bidea artu, eta andik ordubetera-edo, erri ospetsu onen azokara elduta, astoen lerroan utsik egoan lekune baten jarri ninduen. Eldu baiño ez, Pitos'ek eretirako gerturik ekarren zorro garbi bat bizkar-gaiñean apaingarritzat, edo obeto esateko, estalgarrizat ipiñi eustan. Jarraian, Txutxi'ri onetaraxe berba egin eutsan:

—Ecúchame bien, Txutxito. Pon güena cara a tóo er mundo, a ve si vendemo eta chapusa e jumento a argún páparo incauto.

—Si, padre, y además ya me encargo yo de que no se mueva la etopa.

Orduak igaroten ziran, baiña ez zan iñondiko eroslerik agertzen. Eguberdian, eta ni saltzeko aukerea galdu izan zala aita-semeak uste izaten ebenean, ara non urreratu yakun baserritar bat.

—Txutxito —ijitoak semeari esan eutsan— por ahí viene un julai hasia nosotros. A ve si le sacamo er parné a ese payo sin perdé er tiempo, pué en mi peluco son ya la dose y media. Y mucho ojo con la etopa.

—Pierda cuidao, padre, entavía no se ha movío.

Gugana urreraturik, baserritarra adi-adi niri begira geratu zan. Orduan, Pitos'ek auxe esan eutsan:

—Güen ojo tié uté compadre. Se ha parao jutito ante er mejó jumento e la feria.

—¿Que tiene este burro pues...?

—¿Que qué tiene...? Pué nada meno que er mejó linaje der mundo. Ete animalio que uté pué apesiá ahora, porque ya se ve que uté e de lo que saben apesiá lo güeno, e nada meno que un desendiente direto der gran "Barrabá" er manífico campeón de Nabarni, que no tuvo jamá rivá en er arratre de piedra. Ete animalio no tié presio, compañero. Si no fuese porque necesitamos parné pa comprá er manró e la familia, er pan quiero desíle, no lo vendería por toíto er parné der mundo.

Orduan baserritarrak, anakak, apatxak, burua, begiak, eta azke-nean nire aboa zabaldua agiñak aztertu eustazan.

—Fijese bien compadre —Pitos'ek barriro—, que piño, digo que diente tié eta maraviya. Na má que velo se apesia que clase e joya me veo obligao a vendé. ¡Si no fuese por er manró e la familia...!

Gora-beera oneik gertatzen zirala, baserritarrak isillik zirauan. Noizbait, bizkar-gaiñeko zorroa kendu eustan, eta lepotik buztanera-riño astiro ta zeatz aztatu ninduan. Pitos'en zorionerako, azterketa onetan amelua ez zan ukutu. Amaitu ebanean, nasaituta, antza,

Pitos'eri zenbatean salduko ninduke eskatu eutsan, eta nire sal-saria jakinda, baserritarra gangaillenez asi yakon, eta azkenean bat etorrita, saldu izan nintzan. Baserritarra edeari eusteko zorian zala, Pitos'ek bizkarrean txalo indartsua doi-doi ameluaren gaiñean emon eustan. Miñaren-miñez ikotika ta ariñeketan asi nintzan, ijitoak nire ugazaba barriari auxe iñotsala:

—Ete jumento si que tié sangre. Ya se conoce que su agüelo fué er gran Barrabá, er fenómeno de Nabarni.

Eta gero, auxe eratsi eban:

—Compañero, como uté me cae muy bien, le regalo er saco, ea...!

Noizbait, txaloak zaurian egiñiko miña baretu yatan, eta edeari oratuta, nire ugazaba barriak eta biok, azokea itzi genduan, eta ordubete bi igarorik, Arizgoiti eritxan basetxera eldu gintzazan.

Ni ikustearren etxeko guztiak atadian azaldu ziran. Etxekojau-na ta etxekonadreaz gaiñera, bost seme-alabak osotzen eben Arizgoiti'ko sendia.

Danak ederretsi eben nire itxura ta jasa, mutilletako batek zorroa kendu eustan arte... Bai, Pitos'ek emondako txaloak eta bidean zear izandako zorro-igurtziak, zauri-gaiñeko amelua alde batera eragin, eta an agertu zan nire zauri itsusia. Au ikustean, danak abo-zabalik geratu ziran, eta buruari atz egiñez, etxekojau-nak arrituta, auxe bakarrik esan aal izan eban:

—Arraioa...!

—Bai, iñusente ori —mintzo ospintsuaz esan eutsan etxekoandreak—, orain zure arraiook ez dabe ezer konponduko, kokolo, besteren kokolo... Bai, astoa erosteko be, neronek azokara joan bear izango dot...

—Ez dot uste —pipertua ebagi eutsan senarrak —azokara eldu zintzakezanik, bidean edozein atsorekin txutxumuka gaberarte jardungo zenduke-ta.

—Zergaitik ez zara biurtzen azokara, eta ijitoari beartu dirua atzera emon dagitsun...?

—Baiña noiz arraioa ikusi da, ijito batek salduriko astoa atzera

artu dagian...? Onezkero, anka eginda, Markiña'n-edo egongo da, eta gaiñera ordu biko ibillaldia dogu emetik azokaraño.

Autua olan amaitu zan. Etxekojaunak gantzuki batatzauria igurtzi eustan. Gero, kortara eroan, eta soka batatzaskabateri lotuta, an itzi ninduan nire egoerea ausnartu nengian.

Korta zabala zan. Ormaren luzerean gogoeta sakonai emonda, bost bei eder ikusi zeitekezan, eta txoko baten oilloentzako lo-agak. Neu be txoko baten nengoan. Ez dakit zergaitik, baiña arratsalde aretan itun eta lur-jota aurkitu nintzan. Gauzak biribiltzeko, gantzuki madarikatuak zaurian erremin itzela eragiten eustan. Aurreko askan lastoketa andia nire begira egoan, baiña neuk iruntsi ezin.

Aldiaren bidean jakin neban, esne-pegarrak errira lepoan eroateko Arizgoiti'koek erosi ninduela, baiña oraindiño astakumea baiño ez izanik, ezin nengikean olako lorketarik egin, eta jardun ori ni azi ta indartu arte laga bear izan eben. Olan ba, bitartean aspaldi zoragarria igaro neban nire gogora bizi izaten nintzala. Goizean goizik askatzen ninduen, eta beiekin larra zabal batera eroan oi ninduen, zenbat gura bedar jan nengian. Asetu arte artzen neban, baiña ala ta guztiz be, nire urdaillak baben txera gozoa irrikatzen eban. Sarri askotan, nire buruari auxe itaundu dauzat: astoak baba jateko jaio ete garean, ala babak sortu ete diran geurok jan dagiguzan. Edozelan be, ziur nago asto bateri benetako duintasuna emoteko, baba lakorik ez dagola. Alan eta guzti be esan bear dot, anditu ta indartu nintzala.

Bein baten, oi lez bedarrari ekiten neutsala, alboko bedardian segari emoten eutsoen ugazabea ta seme nagusiaren arteko autu au entzun aal izan neban:

—Aita —iñoan semeak—, inguru oneitako asto guztiak izenakaz ezagutzen dira. Zein ipiñiko dauzagu ba, or berton bazkatzen diarduan geureari...?

—Ez dakit ba, seme...

Alako baten, isillune laburraren ostean, mutillak bekokiari txalo bat emon, eta auxe esan eban:

—Aita, ijito arek ameluaeren bidez ziria sartu euskun. Zer deritxazu gure astoarentzat "Amelu" izena...?

—Oba ez...!

Eta jarraian aita-semeak barre-santzoka asi ziran. Arrezkero, Arizgoiti'ko astoari Amelu esaten dauzoe, eta izen onekin ospearen gaillureraño eldu naz, baita egunkarietan agertu be. Baiña laga dagigun gertaerok euren garaian esateko.

Arrezkero, aspaldi batez biziera zoragarria iraun neban. Lorke-teari emoteko gazteeegia nintzan ezketiño, goizetik gaberarte nire aukerean bizi izaten nintzan, etxeko aldamenetatik jarei nenbillela. Neuk babatarako beti zaletasun garaiteziña somatu dot, baiña areik txastatzeko eretirik ez neban ezker, Arizgoiti'n ugaria zan bedarraz ase bear izaten neban. Egunsentia ta gero, etxeko abelgorriarekin lekorerata araten ninduen, eta larrean zenbat-gura bedar jateko eskubidea emoten euskuen. Eguraldi ederreko egunetan zoriontsua sentitzen nintzan, batetik bestera ariñeketan nenbillela. Ez neban artu-emon andirik etxeko beiekin izaten; oneik eureari emoten eutsoen, au da, aalik eta bedar geien iruntsi, gero, kortan etzanda jarrita, artutakoa ausnartzeko.

Olan ba, ni neuretara konpontzen nintzan zabaldiko edertasuna ertilariaren senaz gozatuz. Sarri askotan, oilloak-eta laguntzen eusten lurra atzaparkatuz nik ez dakit zer arraioaren billa, baiña ez neutsen jaramon andirik egiten. Illuntzean, etxeko txakurra gure billa etorten zan, eta zaunka bizitan batetik bestera lasterka, abelgorria, oilloak, eta zuen zerbitzari nazan nerau, koratara sartuerazo ginduzan. Oilloak betiko iskanbilla egiñez, mailladi aldapatsuan gora joaten ziran agetan egokitzeko. Abelgorria, oster, askatan kateakaz lotu izaten zan, jandako bedarketea ausnartzeko, eta ni soka batatztxokoan, nire amesak ausnartu nengizan be.

Egunek ba, nasai ta zoriontsuak alkarri erraikioen anditzen eta sendotzen nintzala. Bein baten, baiña, patuak iñondiko ikaraldia ekarri eustan. Ona emen jazo yatana:

Irailla zan, eta goizalde lainotsuetan, usapal gaixoak itsasotik gure lurraldera janari-billa sartzen ziran, onetan eiztarien erasoak jasan bear izaten ebezala. Areitariko goiz baten, sasi lodi baten atzetik bazkatzen niarduala, beste aldetik oiñots motelak etorri yatazan entzumenera. Zer izango zan, eta oi neban lez belarriak astinduz burua jaso neban, eta... eztanda izugarria aditzen zala, berun-txirrikada batek belarriak zulotu eustazan. Miñaren-miñez

ikotika asi nintzan, arrantza egiteari emoten neutsala. Andik laster, zizpa bat eskuan eroiala, Kokolotxu izeneko mutilla urreratu yatan. Morroi au, beste auzunekoak zan, eta ikusmen urrikoa izanik, ondo ikusteko edontzi-epertiak baiño lodiagoak ziran betaurrekoak erabillean. Gaiñera, erdi-iñusentea ei'zan.

Noizbait, ur egoala Kokolotxu'k ikusi ninduan, eta abopetik tartailloka, ozta-ozta auxe esateko gai izan zan:

—Baiña... baiña... non dago usoa ba...? Neronek ikusi egin dot ikusi, egoak astintzen ebazala kokatzeko zorian-edo...

Eta abo-zabalik ikustatzen ninduan, asto biurturiko uso bai'nintzan. Gero, eta belarriak erreminduta nebazala, Kokolotxu'k alde egin eban, beste iñon uso biurturiko asto bat ikusteko-edo...

Laster aztu egin neban lengo ezbearra, eta (barkatu egistazue) jas onekoa nazan ezker, belarrietako erremiña joan yatan, oiko biziera atsegiñari emoten neutsala. Ez luzaro baiña...

Orduko, zaldarra ostendu izan yatan eta asto sendo ta ernai billakatu nintzan. Etxekoek abo batez nire garaia etorri izan yatala erabagi eben, au da, lorketeari emoteko sasoi. Orduan, zertarako erosi izan nintzan jakin neban. Esne-pegarren lorketarako, ain zuzen be. Egiteko au, alogeran itzitako auzuneko asto batek egiten eban, baiña orretarako dirutxuak ordaindu bear, eta orain orixe egiteko gai nintzan ezker...

Olan ba, errian saltzeko zan egunoroko esnea, pegarretan sartu, eta nire lepo-gaiñeko zaranetan ipiñita, goiz guztietan etxekoandrea ta biok errira jaisten gintzazan, eta emen etxerik-etxe bezeroakana esnea banatzeko. Betekizun au eginda gero, etxerako bearrezkoak ziran gauzak eta pegar utsak zaranetan jarrita, etxerako egiten genduan. Biurpena aldatz-gora zan, Arizgoiti, mendian egoalako, baiña pegar utsekin, tira...! Etxera elduta, nire buruaren jabe izan oi nintzan bedar-jateari emoteko, urrengo egunerako bearrezko indarrak irabaztearren.

Errirako bidea egitean, erreka bat zearkatu bear, eta orretarako arrizko zubi bat erabilten zan, baiña ubide bat ustiatuz bidea laburtzen zan ezker, geienetan auxe erabilten genduan, urak bare joiazanean batez be. Olan ba, anak uretan sartuta ubidea zearkatzen neban, etxekoandrea berariz jarritako arririk-arri busti barik uretan zear joiala.

Baiña zoritxarreko egun baten, neke gorriak jasaten asi nintzan. Gero ta lodiago biurtzen zan etxekoandrea, Arizgoiti'ko aldapa igotean, arnas-estuka ta pafa bizitan joian, etenaldi ugariak egin bear izaten ebazala. Bein baten, atso madarikatuari (barkatu atsoarena baiña ezin dagiket bestetara esan), bere zortzi arroak nire lepo-gaiñean ipintea otu yakon, eta egun aretatik, zaranak, pegar utsak, eta atsoaren zortzi arroak nire bizkarrean jarrita, erritik etxerako egiten asi nintzan lerrenak eginda. Era onetan ba, atsoa gero ta lodiago, eta ni gero ta argalago. Gaiñera, iñarkun ezaren ondorioz atsoaren arroak gorakada itzela artzen asi ziran.

Gose gorria jasaten neban, eta arratsalde osoan bedar-jateari emoten baneutsan be, ez zan naikorik gorputzaren indarrak birribazteko, eta gabean kortako txokoan askeari lotuta, goseak akuillatzen ninduan, urrengo goizean egiteko zana buruan nerabilleta. Esne geiago emon egien, gabaz beien askatan bedar-ondua ipinten eben. Nirean izpi bat bera be ez, ezer emotekorik ez neban-eta. Argi gorritza makal bat gabaz piztu eroien abelgorriak jan egian, nire gau luzeak ganora gitxiko argiontzi aren pean igaroten zirala.

Gau baten, bedar-ondua jateko be eskubide nebala otu yatan, eta nire buruari ekin eta ekin, noizbait bide bitxi bat idoro neban. Askeari liza-soka bat az lotzen ninduen, nire agin zorrotzakaz ebagitea gauza erraza zala burura etorri yatan, eta olan beste barik, askarik-aska joanez, beiai euren betekizuna arintzeko gai izan nintzan. ~~tasu~~ nengoanean nire txokora barriro, etxekoak konturatu ez zeitezen. Ain zuzen be, areik igarri be ez, eta beste sokarik ezean, antza, arrezkeron nire aukerean ibilli neiten laga ninduen.

Baiña olan eta guzti be, lur-jota aurkitzen nintzan, eta bizitzarako atsegiña galdu neban zearo. "Barrabas" Nabarniz'ko asto bikaiñaren ondorengo bat ezin zeitekean axe baiño egoera negargarri-gora jausi izan.

Bein baten, itun eta oi lez lur-jota errian zear niñoala, kale baten zaldi eder gorria errenka joiala ikusi neban. Edeari eutsita mutil gazte bat joian, noizean bein azkazal mindua aztertzen eutsala, adorezko berba maitekorak esaten eutsazala. Niri beintzat, zaldi aren ibillerea guztiz dotorea iruditu yatan, eta anditasungurariz kutsututa, neu be errenarena egiten asi nintzan. Erritik urtetean, atsoa oi lez gaiñean jarri yatan, eta edu onetan ubidera eldu gintzazan, arriuriko atsoak bere buruari auxe iñotsala:

—Baiña zer demoniño jazo yako gaur gure Amelu'ri...?

Errenarena egiteari laga barik, uretan sartu nintzan, eta ubidearen erditik niñoala, burutapen zantar, zitala, otu yatan... Bai, zergaitik ez...? Orduan, tximista jota lez jausitakoa egin neban, eta atsoa, pegarrak eta guzti uretara jausi ziran. Atsoak didar egiteari emon eutsan, nire aurka gorriak botaten eustazala. Nik apal-apal eta geldideldi ertzean itxaroten neban, zer jazoko zanaren begira...

Baiña ez zan oi-ez-lako gauzarik jazo. Iñon diran iñondikoak esanez, eta inpernuko zigorrakaz zemaitzen ninduala, atsoa urreratu yatan, eta alde guztietatik ura erradaka eriola, pegar utsak zarantetan barrero sartu, eta aldatz-gora nerrakiola, Arizgoiti'ko bidean gora oiñez abiatu zan, lotu barik nire aurka mormoxetan ziarduala.

Etxera elduta, atsoak didar bizitan etxejoaunari dei egin eutsan, eta au atadian agertu zanean,

—Ai, Martin —negaragiñean asi zan—, Amelu madarikatu onek ubidea zearkatzean, uretara jaurti egin nau, eta ez dakit apropos bota ez ete nauan be... Erritik gengoza, errenka ibilli ebillen, eta doi-doi ubidearen erdian gengoza, plaust! egin, eta errekearen arribillen gaiñera, pegarrak eta guzti, ankaz gora jaurti egin nau. Nik ez dakit asto barrabas onen makurra egizkoa dan ala ez, baiña doi-doi errekearen erdian jausi bear be...!

Nire errentasuna aztertzeo, etxejoaunak aurreko sasi-mindutako apatxa jaso eustan, eta oneri zeatz-meatz begiratuta gero,

—Ez dot uste —esan eutsan emazteari— benetako makurra izan daitekenik...

—Orduan...?

—Agiri-agiri dagoana, baiña, asto onen makaltasuna da, eta ortik letorkioke erren ibilte ori. Etxetik erriraiño pegarrakaz zamata joan, gero etxerik-etxe ordubete bi emon, eta etxerakoan aldapa gogorraz gaiñera, zu lepoan artuta etorri, nire ustez larregia da. Beituzuz saietsak zein agirian ikusten yakoza... Bai, gure Amelu makaltasunaz lertu-agiñean aurkitzen da, eta olan jarritzekotan, astorik ez luzarorako. Bide bi baiño ez dodaz ikusten: bigunago erabilli, au da, etxera utsik biurtu, edo bestelan zenbat gura babak emon...

—Gure etxeo babatxu ederrak emon...? —atso zekentzarrak eten egin eutsan—. Urte guztian zear geuk lan eta lan, demoniño onek kendu dagiskuzan...? Ez orixe...!

Orduan, autu laburraren ostean, egunoroko biurpena utsik egin nengiala ebatzi eben senar-emazteak. Era onetan babatxuak etxeoentzat izango ziran, eta onezaz gaiñera, etxerakoa oiñez egitea, ondo bai ondo letorkioke atsoari.

Au zala-ta, ugazabarekiko nire begirunea mailla gorenetaiño igon egin zan, guztitariko bedeinkapenakaz inguratzen nebala. Arrezkero, nire bizikerea lengoa biurtu zan, eta barruko dendu ta adorea birrirabazi nebazan.

Babak uts emoten nebazan benetan, baiña bein baten bideertzeo bedarra alatzten niarduala, usain jarkieziñak erakarri ninduan. Eldubako artaburuarena zan, eta abokada bat az erazuta, areitariko bat irunsi neban. Artaburuaren gozoa...! Onekin munduan kideu daitekenik oraiñarte ez da ezagutzen. Bigarrena garbitzeo zorian nintzala, egokirik ez ete litzakela izango egunoro bat baiño geiago ez jatea, barruko zerbaitek esan eustan. Zer-eta etxeoek arto-soloa ondatuta ikusiko ba'lebe...? Orduan egunoro artaburu bat baiño ez jatea erabagi neban, eta gaiñera arto-lasto ta guzti, ekintzearen aztarnak azaldu ez zeitezan. Olan ba, abo-sabairako bitxia dan artaburu bat egunoro garbitzen neban. Zoritxarrez, baiña, egun baten, artoa elduta, etxeoek artaburuak batu, eta ganbarara sartu ebezan, nire maukea amaitzen yatala.

Baziran urtebete bi ugazabak Arizgoiti'ra ekarri ninduanetik, eta egunak gora-beera andirik bage alkarri erraikioen. Orduko, etxeotzat nindarabilen Arizgoiti'n eta ez neuke nire auzo ta inguruak munduko urte guztiagaitik be aldatu.

Arratsalde baten, oi neban lez nasai-nasai larrean bedarrari ekiten neutsala, eta ugazabak bigarren segaldian ziarduala, Irailla zan-eta, etxeo mutil nagusia urreratu yakun eskuan iragarki bat ekarrela.

—Zer yakark or, mutil...? —itaundu eutsan aitak.

—Ikastolatik nentorrela, berebil batetik jaurtitako iragarki auxe artu dot.

—Eta...?

—Aurten, Gernika'ko Aste Nagusian asto-probak izango dirala, diño, eta ango udaletxean izenak emoteko tartekoak gura izango dabenek. Txapeldunarentzat bost milla ogerlekoko saria izango dala, diño. Bigarrenarentzat iru milla, eta bi milla irugarrenarentzat. Izen-emotea il onen ogei ta bostgarrenean amaituko da.

—Arraioa...! —buruari atz egiñez, esan eban ugazabak.

Bedar-mozketeari emon eutsan barriro, baiña begitartean eratu izan yakon zimurak, gogarte sakon baten murgilduta egoala emoten eban. Ebataldia amaituta gero, kortara eroan ninduan, bidetik isil-misilka berbetan ziarduala. Oiko nire txokoan itzi ninduanean, eta bizkarra eskuaz aztertzen eustala, auxe entzun aal izan neutsan:

—Ez eustan Pitos ijito madarikatu arek esan ba, gure Amelu Nabarniz'ko "Barrabas" aren senitartekoa zala...? Olan izatekotan, zergaitik ez...?

Ez dakit zer demoniño erabillen ugazabak bere buruan, baiña apalorduan, kortako atez bestaldean, abotsen zurrumuru andia aditu neban, ugazabarena indartsuen aditzen zala.

Biamonean, ugazabak oi eban lez nire txokora nindaroala, askan suil bete baba ipiñi eustan, eta nire lepoa igurtziz auxe esan eustan:

—Bart erabagi gaienduan i Gernika'ko asto-proban aurkeztutea, gauza andirik ez yoagu galduko-ta. Aurrerantzean zenbat gura baba ire aukerean egongo dozak, Amelu. Ia eure alde geuk egiñikoa ordaintzen yauskukan...

Egia esateko, benetan zor eustenak eurak ziran. Esne-pegarrak errira jatsi, emen erositako gaiak etxera ekarri, bedar eta egurketak egin, umeak lepo-gaiñean poztu zeitezan eroan etab... Orren ordaiñez bide-ertzetan sortzen zan bedarra jateko eskubidea emon. Ez dot uste ainbeste zor neutsenik, arraioa...!

Dana-dala, babarena egia billakatu zan, eta egunik-egun sendoago sentitzen nintzan. Babaren gozotasuna...! Onezaz gaiñera, narrua igurtziten eusten, arduratsu ta palaguz erabilten ninduela.

Babakaz asi ta urrengo egunetik, arratsalde guztietan illunztean ugazabak errira nindaroan emen aspalditik aztuta egoan proba-
arri baten bidez jardun nengian. Udalari baimena eskatu eutsan

iñarkunok egiteko, eta baietz esan eutsoen. Olan ba, egunoroko illunabarrean, antxiña baten erabillitako arribillezko proba-lekuan nire iñarkunak asi ziran. Zazpireun kilokoa zan dema-arri au, eta ekiñaldiak ordu-erdi inguru irauten eban. Iñarkunok asi baiño len, perra barriak ipiñi eustezen, eta arribilletan laban egitean tximistak ataraten ebezan.

Erritarrek nire saioai buruz jakin ebenean, gu ikustera etorten asi ziran, ugazaba ta bion lepotik guztitariko eztenkadak egiñez. Iñarkun oneitan, baiña, edetik artuta ugazabak nire bultzadea eragozten eustan ezinduaren itxuratuz. Ikusleek ito egiteraiñoiko barre egiten eben, guztiek batera onetaraxe didarka:

—Amelu, ganbelu...! Amelu, ganbelu...! Amelu, ganbelu...!

Errian zear bala-bala ebillen, asto kankailua nintzala, eta guztien barregarria billakatuko nintzakela edozein dematan. Baiña laster ederretsi aal izan neban nire ugazabaren zuertasuna. Ikusleak laster aspertu eta andik alde egiten asi ziran. Azkenean ez zan iñor azaltzen, ugazaba ta biok bakarrik lagaten ginduezala. Orduan benetako iñarkunari emoten asi gintzazan. Gaba zan orduko, eta iñork ikusi barik untze egiteari emoten geutsan.

Astiro baiña etenbarik nire ekitaldiak obaten ziran, eta amar egun barik, ogeitik gorako untze egiteko gai billakatu nintzan. Ugazaba oso pozik azaltzen zan, eta proba-lekutik etxera biurtzean, sarri askotan abopeka auxe entzuten neutsan:

—Bene-benetan, Amelu, Nabarniz'ko Barrabasa'ren ondorengo zaitugula gero ta ziurragotzat daukat.

Izan be, egindakoaren meritua ez zan neurea ezta ugazabarena be, babak emoten eusten indarrarena baiño. Oneri esker, Gernika'ko jaietan orren barregarri azalduko nintzakelaren arrenkurea ostentzen asi yatan. Eta noizbait, epea amaitu baiño len, ugazabak nire izena emon eban. Geroago jakin nebanez, udaletxean izenak artzen ebazanak, nire ugazabari auxe esan ei'eutsan:

—Amelu, ala Ganbelu jarriko al-dogu...?

Agiri zan nire kankailtasunaren barria Gernikalde osoan bala-bala ebillela, eta egunen bidean, au ugazabaren onerako azalduko zan, azaldu be. Etxekoek, baiña, gero ta eregu andiagok nindarabi-

llen, eta sarri askotan, atso berberak be, burua ta bizkarra laztan-tzen eustazan, auxe ziraustala:

—Amelu, Amelutxu, babatan ainbeste dirutxu gastau ondoren, ia ordaintzen yeuskukan... Zeozer egitekotan, ubidean emon yeus-tan bustialdia ta guzti barkatuko ñeuskik, demoniño ori...!

Iñarkunak amaitu ziran, eta azkenengoz etxera biurtzen gin-tzazala, ugazabak auxe esan eustan:

—Amelu, Nabarniz'ko Barrabas IV'gna, ire lengusua, dematan tartekoa izango dokala jakin barria nok. Irurogeitik gorako untze egiteko gai ei'dok, eta eu ozta-ozta berrogei ta amar egiteko gauza ez. Bayakiat Gernika'ko probalekua gure errikoa baiño askozaz erosoagoa dokala, baiña...

Andik laster, au da, Urrillako Aste Nagusiko Larunbatean, aurre-leiaketak edo eliminatoriak gertatzeko ziran, eta oneitan ondoen jarduniko astoak, urrengo egunean, au da, Igandean, Txapelketa Nagusian tartekoak izango ziran.

Noizbait, aurre-leiaketako larunbata eldu zan, eta bazkalduta gero, nire billa berariz etorritako kamioi txiki baten sartu ninduen, eta ugazaba ta etxeko mutil nagusiarekin, Gernika'rantz bideratu nintzan. Urten baiño len, ugazabak burutik baba-zorrotxu bat eskegi eustan, eta jateari emoten neutsala, berebillea iradu barik bideari ekin eutsan. Ordubete bat-edo igarorik, probalekura eldu gintzazan.

Udaleko gazte batek nire aurkezpena idatziz artu eban, eta azkenengo babak birrindu bitartean, aldamenak begiz aztertu neba-zan. Zortzi asto izango gintzazan tartekoak, eta auxegaitik, ordu-erdiko ekitaldi bi ospatzeko ziran, bakotxa lau astorentzat izanik. Ekitaldi bakotxeko bi onenak, urrengo egunean, Igandean, azken eta benetako txapelketean jardungo leukie, lau arteko leiaketa iza-nik, beraz.

Nire zazpi lagunek itxura bikaiña erakusten eban, eta arein sendotasuna ederrestean, bildurrezko kili-kili batek astindu nin-duan. Gure artean gaillena, Nabarniz'ko Barrabas IV'gna bereizten zan. Geldi ta oldozkor egoan, eta ez eutsan ezeri ez iñori jaramo-nik egiten. Nabarniz'ko nire lengusua, txapeldun-jasekoa zala agiri zan, eta aren bikaintasuna ikustean, begirunezko sentipen batek

atzitu ninduan. Enparauak be ederrak ziran, arteko indartusenak, itxuraz beintzat, oneixek izanik: Busturia'ko "Txolin", Arratzua'ko "Iñusturi", Luno'ko "Zenteilla", eta Kanala'ko "Ostikada". Aibeste lagun sendo ta oituen artean, zer egingo leuke Amelu gaixoak...? Oldozkun itun onek larrituta, ezinbestez azken baba-birrintzeari emon neutsan, gure begira egoan zazpireun kiloko arria begizta-tzen nebala.

Zotzak egiñik, Busturia'ko Txolin, Kanala'ko Ostikada, eta orain gomutaten ez dodan beste asto batekin lenengo aurre-ekitaldian jarduteko nintzan, eta ain zuzen be, azkenengo txandan.

Asi aurretik, gidari bakotxari abarketen azpikoa maiko batek aztertu eutsan. Bein baten, gidari barrabas batek azpikoak koipetu ei'ebazan arriari bidea leuntzearren, eta ordutik, marrokeri au barri-ro jazo ez zeiten, abarketen azterpena egin oi eban.

Lenengo lagunak, bere ordu-erdiko ekitaldian berrogei ta bat untze egin ebazan. Entzuteko ta ikusteko ziran ikusleen didarrak eta postura edo dema-bitartekoen oiua ta keiñuak, onetaraxe aldarri-katuz: "Berrogei ta bost untze baietz...!" edo "Berrogei ta bost ezetz...!" Gizon areik burutik eginda zirudien. Bigarren txandea Busturia'ko Txoliñ'eri etorri yakon, eta nik neuk aurretik epaituta-ko lez azaldu zan, berrogei ta amazapi untze egiñez. Amaitzean, txalokada itzela artu eban. Jarraian, Kanala'ko Ostikada'k arri-narrazketeari emon eutsan, baiña aalik ondoen saiatu bazan be, ozta-ozta berrogei ta amar untze egin aal izan ebazan. Gero, nire ekitaldia etorri zan, eta edetik nindaroala, adorez beterik ugazaba-ren atzetik narrazteari emon neutsan. Erriko arriaz ainbeste iñar-kun egin ondoren, ugazabak edeari emoten eutsan atezuagaitik, banekian zelan jokatu, bera ta biok ezin obarik alkar ulertzen genduan-eta. Asi baiño ez, ikusleen artetik gero ta ozenago biur-tzen zan didar auxe entzun neban:

—Amelu, Ganbelu...! Amelu, Ganbelu...! Amelu, Ganbelu...!

Gure erriko ergel batzuenak ziran, eta kutsuturiko beste ikus-leek leloari jarraitu eutsoen, trumoia biurtzeraiño. Nire ugazaba asarrez irakiten egoan, abopetik itzelak botaten ebazala. Edearen atezuak arin joateko egintzen eustan, ez larregi, baiña, eta aginduta lez jokatu neban.

Ekitaldiaren lenengo erdian ogei ta bost untze egin nebazan, eta trumoien antzera "Berrogei ta amar ezetz eta baietz" dema-bitartekoen didarrak aditzen ziran. Orduantxe, edearen atezuak arintzeko agindu eustan, eta Arizgoitiko babak emoten eusten indarraz, narrazteari gero ta indartsuago emon neutsan. Amaitu baiño len, ugazabak astiroago joan neinten agindu eustan, eta esku-zartada itzelaren artean, berrogei ta amabost untze egiñik, ekitaldia amaitu neban, urrengo eguneko Txapelketa Nagusirako Busturia'ko Txoliñ'ekin jarduteko eskubidea lortuta. Orduko, ez zan "Amelu, Gabelu...!" didar ganorabakoa entzuten, eta nire ustez jendeak begirunez erabilten asi ninduan.

Jarraian, beste laukotearen ekitaldia asi zan. Bigarrena jarduteko zan Barrabas IV'gna, plazaratu zanean, esku-zartada trumoitsua aditu zan, eta izan be, Nabarniz'ko nire lengusuak ondo merezi eban.

Edozeiñentzat atsegin andia zan nire senitarte narrazte-ekintzan ikustea. Bazirudian otzara utsa batetik bestera eroiala neke andi barik, eta ekitaldia burutu zanean, irurogei untze jaritsi izan ebazan, txalokada andi-andia aditzen zala. Bigarrena, Arratzua'ko Inusturi berrogei ta amalau untzez txapelketarako eskubidea be lortu eban.

Aurre-proba au amaitu zanean, nire ugazabak askoen zorionak artu ebazan, eta gero Axangiz'ko ezagun baten kortara eroan ninduan gaba emoteko. Aska bete baba nire aurrean egokituta gero, auxe esan eustan:

—Barrabas IV'gn ori aparteko leikidea dok, eu baiño andiagoa izan be, baiña ez yoat uste ire adore ta kiriokoa izan yaitekanik. Biar irurogetak untze egingo yozak, Amelu, eta nor nor dan ikusi-ko yoagu...

Urrengo eguneko arratsaldean, ugazabak probalekura eroan ninduan barriro. Tokia mukurru bete egoan, eta txanden zozketa ta beste gorabeerak zirala-ta, ugazabak asto-aterpean lotu ninduan. Ekitaldien zozketa onetaraxe azaldu zan: 1'goa Arratzua'ko Inusturi, 2'gna Busturia'ko Txolin, 3'gna neu, eta 4'gna Nabarniz'ko Barrabas IV'gna.

Ugazaba urreratu yatanean, abopean,

—Barrabas ori —esan eustan— 4'gn txandan jardun bear be... Zeu izan ba'zintzaz...!

Txapelketea oiua ta zurrumurru bizien artean asi zan. Arratzua'ko Inusturi'k berrogei ta amasei untze bete ebazan. Gero, Busturia'ko Txoliñ'ek berrogei ta amabost untze egiteraiño eldu zan. Jarraian nire txandea asi zan.

Asi baiño ez, "Amelu, Amelu...!" didarrak erritar batzuk jaurti ebezan ni adoretzeko-edo. Ugazabaren esku-agintzeari men egiten neutsan, eta ekitaldiaren erdia burutu zanean, ogei ta bederatzi untze jaritsi izan nebazan. Onaiño elduta, eta ego-aizeko arratsalde sargaritsua zan ezkerro, ugazabak unetxu batez geldi-erazo ninduan, suil bete ur edan nengian. Edaterakoan usain berezia eriola oartu neban... Bai, erriko ardanegiari erion usain berbera zan, eta ain zuzen be, ardao zuriarena. Egarri nintzan ezkerro, erdia baiño geiago ustu neban, eta bereala narrazketeari jarraitu neutsan...

Nik ez dakit edari arek len birrindutako babakaz zelango naste egingo eban, baiña bapatean neugan indar itzela sortu zan, ugazabaren eskuak nekez menperatzen ninduala. Orduan, posturen oiua mailla goreneraiño igon ziran, bitartekoek onetaraxe aldarrikatzen ebela: "Irurogei untze baietz... Ezetz...! Irabazle baietz... ezetz...!"

Orduan, seme nagusiaren aurretik igarotean, ugazabak eskua jaso eban, bost atzamarrak erakusten eutsazala. Geroago jakin nebanez, semeari bost milla ogerleko "Irurogei baietz" bere izenean artzeko agindu eustan. Jarraian, ugazabak aalik eta ariñen aalegindu neinten adierazo eustan, eta azken goraldi baten untzeak irusten nebazala, batetik bestera zenteilla alakoa jardun neban. Noizbait, ekitaldia amaitu zanean, irurogei ta bost untze jaritsi izan nebazala azaldu zan, iñon diran iñongo didar eta esku-zartadak aditzen zirala. Bitartean, ugazabak edeari gogor eutsirik geldi-erazo ninduan, bestelan Busturi'raiño joango nintzakean.

Azkenean, Barrabas IV'gna txalokada itzelaren artean plazaratu zan, eta jarraian ekitaldiari emon eustan, dema-bitartekoen aldarriek probalekua beteten ebela.

Asikereatik, Barrabas IV'gna nire lengusua, aparteko astoa zala azaldu zan, eta aurregunean lez, narraztarria eroso ta aske eroian.

Ekitaldiaren erdirantza, ogei ta amaika untze egiñik, niri lez suil bete edari eskiñi eutsoen. Jo ta ke narrazteari jarraitu eutsan ikusleen oiuen artean, eta dema-bitartekoen aldarriak gero ta ozenago biurtzen zirala. Irurogei untzeak atzean laga ebazanean, ikusleen adore-oiuak gortugarriak biurtu ziran, baiña... ekitaldia amaitu zanean, ozta-ozta irurogei ta bi untze burutu izan ebazan. Neu, beraz, irabazlea nintzan, eta gure erritarren poz-didarren eta txaloen artean, nire ugazabak saritzat bost millako diru-agiri bat artu eban, eta niri lepo-gaiñean deduzko burusi apain-apaiña jarri eusten.

Probalekutik urtetean, bere ondapena duintasunez beterik jasaten eban nire lengusua Barrabas IV'gna ikusi neban. Urreratu nintzakion, eta musturraz txera bat egin neutsan. Berak beste musturkada anaikorrak erantzun eustan, adierazoteko, urrean, jazorikoa kiroltasun beteaz artzen ebala, olan bere jasaren bikaintasuna erakutsirik, ain zuzen be, Nabarniz'ko Barrabas 1'goaren ondorengo bateri zegokionez.

Jarraian, ugazabak zugaitz baten lotu ninduan, eta antxe nengoala zarrastada andia nitzaz jabetu zan, eta izan be ez zan gitxiagorako. Zuzen-zuzen, Pitos eta bere seme Txutxi urreratzen yatazan. Neugana elduta gelditu ziran, eta orduan,

—Mira, Txutxito —esan eutsan Pitos'ek semeari—, mira hata onde ha yegao aquel jumento que vendimo con lobaniyo y tóo a aquel payo. Luego dirán que er género que vendemo lo calé no e güeno.

—Padre, é verdá que ete e primo del de Nabarni...?

—Mira, Txutxi, no lo sé. A la madre de ete la encontramos a la entrá de Gizaburuaga, solita y trite, y como yo no podía aguantá aqueya tragedia, la invité a vení con nosotros. Luego nasió eta joya de jumento.

—Entonse e mentira lo del primo de Nabarni...?

—Mira, hijo; hay do cosa que no debe jamá hasé un güen gitano: robá y mentí. Uno dise mentira cuando sabe que lo que dise no e verdá. Y yo no sé si ete jumento é o no é desediente de Barrabá el de Nabarni, luego cuando digo que lo é no etoy mintiendo. Además, Gizaburuaga no etá muy lejo de Nabarni.

Une batez ijito argia isillik egon zan, eta gero,

—En cuanto a robá-robá, un güen gitano nunca lo debe hasé. Agora mesmito yo podía llevame a ete jumento con manta y tóo, pero como yo se lo vendí a aquel páparo incauto, pué...

—Padre —eten egin eutsan Txutxito'k—, tan incauto no será cuando se ha enfardao un premio de cinco mil duro...

—Si, hijo, y además otro cinco mil má de la apueta. Y a lo que íbamo, hijo, ahora mesmo yo podía afaná ete jumento y plantame má ayá de Birbao en naíta de tiempo, pero como sé a quien pertene-se pué lo tengo que repetá...

—Padre, y er saco e maí que encontramos antayé a la puerta de aquél molino de Munitiba...?

—Eso e otra cosa hijo. No había costansia de que er saco fuese del molino, porque en ete caso debía habé etao adrento bien guardaíto. Al no ser así había que pensá que no tenía dueño, y toíto aqueyo que no tié dueño pué pertene-se a quien lo encuentra. Y ahora, hijo, déjate ya de monserga y vámono pa casa...

Gero, Pitos'ek laztandu ninduan, eta jarraian aita-semeak joan ziran. Nabarniz'koa, nire lengusua ez zala jakiteak atsekabez bete ninduan, eta buru-makur geratu nintzan. Olan nengoala, zerbaitek zur eta lur jarri ninduan... Nire aurreko eskumako apatxaren gaiñean, orban zuri bat neukala oartu nintzan, eta orduantxe biotza taupada zorotan asi yatan... Bai, Nabarniz'ko laguna neurea lako orbantxu zuria eukan, eta onek bera ta biok sendi bardiñekoa gintzazala erakusten eban, eta sentipen onek arrotasunez bete ninduan.

Andik ordubete bi-edo, irabaziriko amar milla ogerlekotxuek emotsoen poztasunaz, eta begiak adorez piztuta ekarrezala, azaldu zan nire ugazaba. Bazirudian, lagunartean edandakoagaitik be zeo-zer txolinduta etorrela, zuzen-zuzen ez joian-eta.

Kamioian sartuta, etxerakoa egin genduan. Nire garaipeña jakitean, atsoak palaguz bete ninduan, "Amelu, Amelutxu" iñostala. Gero, kortako nire txokora eroan ninduen, iñoiz ez ikusiriko baba-keta itzelaren aurrean aurkitzen nintzala. Gau aretan, sukaldetik iñolako jai baten astrapala eldu yatan.

Biaramonean, oi lez esne-pegarrak lepoan artuta, errira etxerik-etxe banaketea egiteko. Baiña nire garaipen-egunetik atsoak ereguz narabil, Amelutxu gora ta Amelutxu beera diraustala. Ez dakit, baiña olan jarraitzekotan, etxekoandrea barriro esan bearko dautsat, prakerre andirik ez naz-eta...

Onaiño elduta, irakurle maite orrek zure buruari itaunduko dautsazu, zergaitik neu lako asto bateri bere gora-beerak idazten otu izan yakon. Ara ba... Txakur, egazti ta zaldiai buruz asko ta asko idatzi da, eta geu astoai buruz, zer...? Badakit jendeak zaldien aide ezaintzat joten gaituala, baiña bene-benetan gure ekintzak zaldienak baizen zudugarriak dira, eta orra or zergaitik gure sendia dagokion lekuan ipinteko, nire edo obeto esateko, Amelu'ren oroi-tzak argitara emoten azartu nazan...

ASPERENA

Basoko etxola baten bizi zan Amale alarguna, arrenkura bizi-pean aurkitzen zan. Urtebete bat igaroa zan bere seme mixiolariagandik idazkirik artzen ez ebal, eta onek kezkatzen eban benetan. Eskolabakoa zan ezkerro, ezin egikean semeari idatzi, ezta onen eskutitzak irakurri be. Au zala-ta, erriko abadearen zerbitzuak ustiatzen ebazan semeari idazteko, eta onen barriak jakiteko. Baiña urtebete bat igaroa zan aregandiko azken idazkia erriko abadeak irakurri eutsanetik.

Amale gaixoak ez eban mundu onetan bere semea baiño, eta onen gora-beerak amaren bizitzari argitasuna ekarkioen. Azken urte aretan, beraz, Amale'ri bizitza garratza billakatu izan yakon, irrika bizian semearen barriak alperrik itxaroten ebazala, ulertu ezin zergaitik eten egin ziran aren idazkiak.

Udako gau eder baten, besoak leio-barrenean ipiñita, oi eban lez seme mixiolaria ezin egikean kendu burutik. Olan egoala, basoko areitz baten ontz bat kokatu zan, eta Amale'k jaurtiten ebazan asperenek erakarrita, auxe itaundu eutsan:

—Aizu, basoko alargun ori, zergaitik ainbeste asperen, geisorik al-zagoz...?

—Ez, ontz maite ori, seme-miña dot oñazetzen nauan gatxa. Bada urtebete bat aren barriak ez dodazala artzen...

—Zergaitik ez dautsazu idazten...?

—Erriko abadearen bidez idazkiak bialtzen dautsadaz, baiña nire semearen barririk ez.

—Egon apur baten... begira, unetxu batez jarri egizu zure sentipen guztia seme urrutiagan, eta jaurti egizu asperen bat. Luza-ro barik zure semeak artuko dau mezu ori.

—Baiña nire ontz naite orrek, ez ete dakizu jaurti baiño ez, asperenak ilten dirala...?

—Ama baten maitasunezko sentipenaz jaiotakoak ez dira ilten, eta aizearen besoetan eguratsean zear noranai doaz.

Lipar batez Amale'k semearen oroitzean jarri eban bere maitasuna, eta jarraian, biotzetik bularrean gora ezpanetatik asperen sakon bat urten yakon.

Unetxu batez asperena geldirik egon zan eguratsean, eta gero lur-aizearen altzoan artuta sartalderantz abiatu zan. Goizaldea orduko, bajoian asperena itsas-gaiñean, eta edu onetan gaberarte jarraitu eban. Ortzia izarrakaz bete zanean, lo-gura astun batek artuta, itsas-aizeari oe bat atondu egiou eskatu eutsan. Iretargiaren argi ameskorpean oial-ontzi batek itsas-gaiñaldea ildokatzen eban, eta a ikusita, aizeak masta nagusiko erpiñean jarri eban, eta itsasoaren bilin-bolakak eraginda, asperena lo geratu zan.

Biamonean, asperena itxartu zanean, aizeari dei egin eutsan, ontzia baiño ariñagoa zalako, eta edu onetan bidaiari jarraitu eutsan. Egunez, aizeak laztanduta egan joian, baiña gaba urreratzen zanean, nekaturiko aizeak geldi-aldia egin oi eban atsedean artzeko, eta orduan asperenak aalik ariñen Amale'ren semeagana joan nai eban ezkerro, kaioai dei egitsen, eta onen egoetan artuta bidaiari jarraitzen eutsan urrengo goizalderarte.

Egun batzuk igaro ziran, eta noizbait, arratsalde baten urrutian lurralde andi ta oiantsua agertu zan. Oi eban lez, aize-altzoan lurralde ez-ezagun aren zear barruratu zan. Gautu zanean, aizea lo egiteko gelditu zan, baiña eremu areitan kaiorik ez egoanez, asperena une batez ezpaitsu gelditu zan, aurrera zelan jo jakin barik. Olan egoala, izarren pean norabage joian orbel bat igaro yakon ondotik, eta onetan kokaturik, aurrera joan aal izan eban. Itsasoan emondako beste egun lurralde zabal eder aren zear egan egiñik, goiz baten edurrez estalitako mendi-kate garaia aurkeztu yakon, eta orduan aize-putz idartsu batek artuta beste aldera igaro zan. Lurralde barri au mendi andiek eta arru sakonek ebagita egoan, eta

zerbaitek esan eutsan bere elburutik ur egoala, eta ain zuzen be, olan jazo zan.

Egun aretako illuntzean, orbelak egurrezko gurutz baten gaiñean itzi eban asperena, auxe zirautsala:

—Agur, maitasunezko mezu ori, banoatzu beste iñora, alderrai dabiltzan zeu lako asperenai laguntzearren.

—Agur, orbel maite ori. Milla txorien abestiak bedeinkatu zagizala.

Zabaldia bake osoan egoan. Asperena kokatu izan zan gurutz, zugaitz tantaiek inguraturiko zelai eder baten erdian egoan, eta illuntze aretako bikaintasuna agirian jarteko, urrundik ostentzen zan eguzkiak gorrimañez laztantzen eban oro. Sartaldeko itsaso urrutian, egunak bere egarri-miña itzungi ebanean, gurutzean kokatuta, asperena lo geratu zan. Andik laster, ames gozo batek artu eban, eta alako baten, saguzaar bat urreratu yakon, eta auxe esan eutsan:

—Zer zabiz or, edur-maluta ori; ango mendi garaitsuetatik etorri al-zara...?

—Ni ez naz iñongo malutarik.

—Nor zaitut, ba...?

—Amale'ren antzia naz. Aren biotzean jaiou nintzan, eta ezpanetara orduko, bere semearen billa joan neinten eskatu eustan, eta andik ona aizearen egoetan etorri natzaizu. Arrats-beeran orbel batek gurutz onen erpiñean itzi ninduan, eta gero izarrak besarkatzeraz joan zan.

—Amale dalako orrek, zer nai dau...?

—Begira, aren seme bakarra lurralde onetara etorri zan. Illero-illero aregandiko idazki bat etorkion, baiña orain urtebete bat-edo, ez dau aren barririk artu, eta augaitik guztiz kezkatua bizi da. Alargun gaixo ori, an, basoan dauan etxolan bakarrik bizi da, eta joan yakon semearentzat baiño ez da bizi izaten. Esan egistazu, arren, non idoro dagikedan mixiolaria...

—Nor da Amale orren semea...?

—Ona, Ekuador'eko lurralde onetara etorri zan eusko mixiolaria.

—Lurralde au andiegia da. Ez aal daustazu esan, zein barrutian bizi zan...?

—Egon pixka bat... Orain gogoratzen naz... Begira, kaioen lepo-gaiñean onantza nentorrean, itsas-uirien artean egan nindakarrela, auxe abesten eben: Itarapé, Itarapé, Itarapé...!

—Ai ene...! —erostaka eten egin eutsan saguzarrak—. Auxe da Itarapé. Ango mendi garaiaek, inguratzen gaituan basoak, eta orko ibai zabal eta baketsu orrek, Itarapé barrutia osotzen dabe... Eta gurutz au... Ai ene...! Eusko mixiolariaren obiarena da. Bai, kokatuta zagozan gurutz orren pean mixiolariaren gorpua datza.

Aurrera jarraitu eziñik, saguzaarra isildu zan une batez, eta gero,

—Itarapé'ko inditarrak laguntzeko ta Kristo'ren bidea erakusteko etorri zan leku basati onetara, baiña Jaunaren maitasunezko aitorpena emoteko batez be. Eta benetan Itarapé barrutian maitasuna parrastaka erein eban. Begira, or zelai onen ertzean inditarren artean txabola ezain baten bizi zan, eta arein umeak eskolatuz gaiñera, jende elduai esku-lanak eta lurgintza irakasten eutsezan, eta Euzkadi'tik mixioetara bialdutako diruaz, lanabesak-eta erosten eutsezan. Itarapé'ko inditarrak aitatatzat eben, eta euren izkuntzaz "Taita" esaten eutsoen, maite-maite eben-eta. Jardun onetan urte batzuk emon ebazan Itarapé'tarren bizierea obatur.

Une batez isildu zan saguzaarra, eta oroi-miñaz mixiolaria gogoan ebalá,

—Bein baten —jarraitu eban—, gaillurren edurrak eurite epelak lagunduta, gesaldu ziran arin eta Itarapé'ko ibaia arrotuta etorren ezkerro, orko ibia urek estalduta billakatu zan. Ibiaren zear soka lodi bat lotuta egoan ertzerik-ertze euskarrizat, urak arrotuta etorri zeitezenerako. Egun aretan buru-gaiñean egur-soin bat ekarrela, inditar emakume bat semearekin ubidea zearkatzen ebanean, alako baten sostor egin, eta umea uretara jausi yakon. Didar bizitan ama onen atzetik uretara oldartu zan. Ertzetik, inditar batzuk eta mixiolariak berak jazorikoa ikusi eben. Zalantzetan ibilteke, "Taita" uretara sartu, eta umea ertzera ekarri eban. Jarraian, amari laguntzeko aregana uger egin eban, eta lerrenak eginda legorrera ekarten jaritsi eban. Azken unean, baiña, nekearen-nekez inditarrak uts egin yakozan, eta tiraiñean beera ostendu zan...

Aiene bat jaurtirik, saguzaarra isildu zan. Gero, mendien atzetik iretargiaren talo zurizka jagi zan zabaldi guztia argi esnetsuz, zurbillaz, apaintzen zala, eta latz-ikara batek menperatuta, saguzaarrak onetaraxe jarraitu eban:

—Emendik ez urrun, ertzeko sastraka baten idoro eben mixiolariaren gorpua. Erriko guztiek negar baten, emen bertan aren gorpuzkiñak eortzi, eta obi-buruan, zu kokatzen zaran gurutz ori ipiñi eben. Emengo inditarrek ez dabe aztuko, ez, betiko gordeko dabe bizirik eusko mixiolariaren oroitza ta irakaspenak. Sarri askotan, ona datoz, eta arek irakatsi eutsezan otoitzakaz bere alde erregutzen dabe.

Ona elduta, saguzaarra isildu zan, begi illun, urtenetatik mallo lodi bi eriozala. Eta gero,

—Orain beste eusko mixiolari bat eskatu dautsoe gotzaiñari, eta onako bidean e' da. Izango al da lengo "Taita" baizen ona ta maitekorra...!

—Non dago orain —itaundu eutsan asperenak— Amale'ren semea...?

—Non dagoan itauntzen daustazu...? Nora joan daiteke, aberria, ama, eta munduko gauza guztiak itzita bere buruari ukatuz, Jaungoikoaren maitasun utsaz, Itarapé'ko inditarrak laguntzearen bere burua eriotzeraiño opaltzen dauana...? Jaungoikoaren altzora zuzen-zuzen joan zan Amale'ren seme emonkorra. Orain, asperen ori, biurtu zaitez amagana, eta esaiozu Itarapé'ko bazter onetan semeari jazo yakona.

—Zelan biurutu, baiña, mixiolariaren amagana aizea aurka izanik? Onantzakoan nire alde egoan, baiña biurtzeko eragozpen andia dot.

—Ez larritu, nire maite ori. Neronek lepoan artuta eroango zaitut gabaz, gau-txoria naz-eta. Egunez ezin dagikizut laguntzarik emon, baiña uñeren aparrak eroango zaitue kulunka.

Asperenak gurutz apa-laztandu eban, eta saguzaarraren lepoari eutsita, gau isillean zear, Itarapé lurraldea itzi, eta mendi-baso-zelaietan zear aberrirantz biurtu zan. Goizaldeko, itsas-ertzera eldu ziran, eta emen uin baten gaillur apartsuan kokatu zan aspere-

na, saguzaarra txoko illun baten billa urruntzen zala. Gau orduko, saguzaarra etorri yakon barriro, eta onen lepo-gaiñean bidaiari jarraitu eutsan asperenak.

Edu onetan gau ta egun batzuk igaro ziran, eta bein baten, egunsentia asi-agiñean zala, asperena Amale'ren etxolara eldu, eta leio-barrenean kokatu zan, saguzaarra goizaldeko argi makalaren artean ezabatzen zala.

Une aretan bertan, Amale itxartu zan, eta goizaldeko argiak erakarrita, leiora joan, eta oi eban lez otoitzari emon eutsan. Amaitu ebanean, ezpanetatik auxe iges egin yakon:

—Seme, seme, non zagoz, baiña, amari zuen albisteak ez bialtzeko? Urtebete batez nagotzu zure barriak alperrik itxaroten. Non zagoz, baiña...?

Amale'ri malko lodiak eriozan aurpegian beera, eta oneik ikustean, samurtasun andi-andia asperenaz jabetu zan, eta semeari jazorikoa amari esatea erabagi eban. Zelan, baiña...? Ezin egikion esan semea il egin zala. Alako baten, goi-arnasak eraginda,

—Aizu, Amale, ez negarrik egin —esan eutsan—, zure semea ondo dago-ta.

—Zelan dakizu ori, baiña...? Bada urtebete bat aren idazkiak ez dodazala artzen. Zergaitik ete...?

—Begira, Amale: zure seme mixiolari egoan Itarapé'tik nator-tzu. Itzi egin dau lengo lurraldea, eta beste batera joan da. Leku barriaren edertasuna...! Zoriontsu bizi da oraingo tokian, eta besarkada andi bat bere alde z emon dagizudan esan daust...

—Baiña zergaitik beste iñor baten bidez niri goraintziak bialdu, eta ez berak artez-arte idatzi...?

—Siñisten ez badaustazu be, Amale, leku barrian ez dira idazkirik erabilten.

—Orren ezeukiak ete dira...?

—Ez, baiña oraingo tokian olako gauzak ez dira bearrezkoak.

—Baiña bidezkoa dala uste al-do zu, seme batek amari idatzi ez dagiola...?

—Ez ete da zuretzat naikoa, semea ondo dagoala jakitea...? Zer besterik gura dozu ba...?

—Zer nai dodan? Semearekin batzea baiño ez dot besterik gura. Orren ondo ba'dago, zergaitik ez nau beregana eroaten...? Iñork ez bera ni baizen ondo jagon...

—Zure semeak leku barriaren Nagusiari, ekarri zagizan gau ta egun eskatzen dautso.

—Eta...?

—Badirudi, Amale, luzaro barik zure billa etorriko dirala.

—Au nire poza...! Jakingo ba'zendu zein bakar eta nekatuta aurkitzen nazan...!

Isildu zan Amale une batez, eta gero,

—Aizu, nor zaitut nire seme mixiolariaren barriak dakarstazu-zan ori...?

Amale'k, baiña ez eban erantzunik izan. Asperena goizaldeko argitan nekearen-nekez itzungi izan zan, joan-etorriko bidai luzea egin ondoren. Iñork erantzuten ez eutsala ikusirik, Amale'k bere buruari auxe esan eutsan:

—Ai ene... barriro be amesetan izan naz...!

Gutziz nekatuta aurkitzen zan ezker, Amale oeratu zan, eta sukarrak jota, amestxarren artean semearekin izketan jardun eban egun osoan illuntzerarte.

Eta gau aretan, izarren krisailluak banan-banan ixiotzen ziran, oster a be Amale'ren semeak egunoro oi eban lez, bizi izaten zan lurralde zoragarriaren Nagusiari, ama berarekin bizi izateko ekarri egian eskatu eutsan. Gau aretan, ordua zala Amale'ren zintzotasun eta nekeak ordaintzeko, erabagi eban Nagusiak, eta ama bakartia itxartu zanean, Jaungoikoaren magalean bere seme mixiolaria besarkatu eban betikotasunean.

AURGAI-ERAILKETEA

Arratsalde aretan, leio-ondoan jesarrita josten ziarduala, Aidane ez zan aurkitzen aldarterik onenean. Baziran illabete batzuk, azur barrietan egoala, eta gogapen onek gogait-eragiten eban benetan.

Bazituan ume bi; sei urteko mutikoa, eta lau urteko neskatoa, ikastolatik laster etorteko ziranak. Orain beste ume bat... Oldozkun au jasangatxa egiten yakon Aidane'ri. Aurrek dakarrezan buruauste, ardurak eta larritasunak gogora etorri yakozan. Barriro be etxe-ari lotu bear, bizi izaten zan uri ederraren erakarpenak gozatu barik, eta onezaz gainera, diruaren aldetik estuago bizi bear izango leuke... Urteen bidean iru seme-alaba bakotxari ikasketa egokiak emon ogi-bide eroak izan egiezan, eta au urte-mordo luzean zear...

Paul'ek, Aidane'ren senarrak, polito irabazten eban, bai, irugarren umea jasan aal izateko beste, baiña dana-dala, gizarteko bizi-modu dizdikorrari aspaldi luze batez uko egin bear izango leukie, eta oldozkun au jasaneziña gertatzen yakon Aidane'ri.

Gau aretan, apalostean, senar-emazteak oiko autuari emoten outsoela, Aidane onetaraxe mintzatu zan:

—Paul, gauza bat esan bear dautsut...

—Bai, Aidane.

—Begira, aspertuta nago irugarren umea izango dodala oldozten dodan bakotxean. Gauza bat jakingo ba'zendu...

—Zer, Aindane...?

—Begira, Paul, aspaldi onetan ez naz ondo sentitzen —guzur esan eutsan emazteak— eta ez dakit ume egiteko garaian onik urtengo ete nazan...

—Zergaitik diñostazu ori...?

—Orain illabete bi-edo, biotza uts egiten asi yat, gero ta txar-toago sentitzen nazala.

—Zoaz ba, osagille bategana, ia zer esaten dautsuan...

—Bai, biar bertan joango naz.

Aidane'k ondo asmatuta eban arazo guztia, eta urrengo egunean, barrubako osagille bategana jo eban, eta oneri bere guraria azalduta gero, bien artean egitekoa erabagi eban.

Gau aretan bertan, Aidane'k osagilleari egindako ikerraldiari buruz bere senarrari esan eutsan. Paul oldozkor geratu zan, eta gero,

—Baiña, Aidane, ez ete dan bideren bat izango, umea ta zeu onik atarateko, umegai-galtze izan barik...?

—Ez, Paul, nire biotzaz jolasterik ez dagoala esan daust osagilleak, eta beraz, aurra ala ni bizi izatea erabagi bear dala, baita aaliki ariñen be. Badira illabeteak umea sentitzen dodala, eta ona ezkerok, ez dogu txantxetan ibilli bear...

Paul une luze batez oldozkor geratu zan, eta gogo txarraz bazan be, azkenean auxe esan eutsan:

—Arazo ori zure eskuetan lagaten dot. Egia esateko, zu barik ez dot bizi gura, baiña bestetik semegaia maite izaten asi naz...

Jakiña, bere guraria lortuta, Aidane'k osagille zital aregan arazo guztia laga eban, eta andik egun batzutura ume-galtzea jazo zan. Luzaro barik, Aidane birrindartu, eta oiko bizimoduari emon eutsan. Gaiñera, eta azur barritan barriro be ez billakatzearren, etxera joan baiño len, osagilleak turuten lotuerea egin izan eutsan. Aurrerantzean, Aidane'k ezin egikean umerik sortu.

Egunak aurrera joiazan, eta adu txarreko egun baten, Aidane'ren seme nagusia zan mutikoa, ume-elbarriak jota billakatu, eta aalegin guztiak erabilli arren, mutikoa il egin zan. Aspaldi izugarria jasan bear izan eban senar-emazteak, Aidane'rentzat batez be. Onen baitan, astiro baiña uxa-eziña kezka baten arrak gogoaz zulotzen eutsan.

Baiña askotan ezbeharak kateatuak etorri oi dira, eta aize zakarreko arratsalde baten, alabea ikastetxetik etxerantz etorrela, aizearen zartada batek, ormatzar luzea bide-gaiñera lurreratu eban, doidoi neskatoa andik igaroten zanean. Andik laster, illik atara eban.

Arrezkero, Aidane ta Paul'en etxeak ez eban barriro alaitasunik ezagutu, eta jaio-aurretik eraildako umearen mamua bazirudian etxeoko bazter guztietatik zelatari ebillela. Paul'ek ezin egikean etxe-ko giro ituna jasan, Aidane'k beste umerik emongo ez leuskiola jakinda gero batez be.

Gaiñera, ume-galtze aretan, Aidane'k iruzur egin izan eutsalaren suzmoa artu ebanean, etxe aretako giroa gero ta jasangatzago billakatu yakon. Bein baten, emazteganako eraspina galduta, Paul'ek etxe gorrotagarri aretatik iges egin eban, beste iñon biziera barria asteko.

Aidane zorotu-agiñean billakatu zan. Zorionez, lan bat idoro eban, onek bere bizitza autsiari aringarria ekarriko leuskiolakoan. Baiña etxeak espetxe baten antzeko izaten jarraitu eban berarentzat. Bein baten, umegaia erailea erabagi eban leio-ondoko aulkia, sumiñezko erasopean, autsi, eta beronen zatiak sutara jaurti ebazan.

Kaleetan zear joiala, mutiko guztiak irrikan begiztutzen ebazan, bere buruari itauntzen eutsala, zelakoa izango zan bizirik jaio ez zan bere semea. Bai, osagille zital arek ume-galtzea gertatuta gero, mutilla zala esan eutsan... Eta egunen baten zer billakatuko litzakean...? Maisua, ereslari ospetsua, abade ongillea, idazle argia, legegizona...? Ezin egikean eraildakoa bere gogoetatik uxatu, eta aldiaren bidean urbillago sentitzen eban. Ai, orain bera bizi izango ba'litz...!

Gau baten, Yosu (Aidane'k olan esaten eutsan eraildako seme-gaiari), agertu yakon, eta onetaraxe mintzatu yakon:

—Ama... ama... zergaitik erail ninduzun...? Nik maite-maite zindudazan, zeuk ni maite izan ez arren be. Begira, ama, bizi izango ba'nintz osagille izango nintzakean, eta aaleginduko be aurgaiak ondò ta osasuntsu jaio zeitezan. Zu eta aita maite-maite zinduedazan. Aita gaixoa...! Or dabil munduan zear bakea idoro eziñik. Egunen baten zugana etorriko al da...!

Ikuskizun au jasan-eziña izan zan Aidane'rentzat. Mutikoaren

aurpegia laino-errezel baten ostean ezkutatzen yakon, baiña ziur egoan maitekorra izango litzakela. Beste gau baten, Yosu barriro agertu yakon, eta,

—Ama... ama... —esan eutsan— Jakin ba'zendu jasan neban nekaldia erail ninduzunean...! Arnas artu nai, eta ezin... Izugarria izan zan nire eriotza, soin guztia zatikatzen yatala oartzean... Baiña orain ez nago illik, ostera, Jaunagan bizi naz, sortu izan nintzane-tik Aren arnasa neugan egon da-ta. Ama, orain zorionsua naz, baiña zeu ta aitarekin etxe onetan bizi izaten, bai atsegin izango litzakidala zuek biok zorionsuagoak egitearren...! Bai al-dakizu gauza bat...? Aita zugana barriro etorri daiten, Jaungoikoari eska-tzen dausat...

Era onetan, eraildako semearen agerpenak amesen artean ger-tatzen ziran. Mingarri egiten yakozan Aidane'ri ikuskizun oneik, eta onezaz gaiñera, jasandako lengo ezbearrak zirala-ta, gaixoa bere barruko dendua galtzen asi zan.

Olan ba, eta irauten eban bakartasunak areago eraginda, bere burua iltea erabagi eban. Gau baten, neurritz gaiñeko lo-eragingarriak artu ebazan, eta lotara joan zan, iñoiz ez itxartuteko asmotan. Au egin baiño len, albo-bizitegiko atean, idazki labur bat laga eban, erabagitakoa jakiñerazoz.

Biamonean, albokoek idazkia irakurri baiño ez, arin baten Aidane'ren etxera oldartu ziran, eta konortea galduta aurkitu eben. Oraindiño bizirik egoan, eta eri-berebil baten erriko geisotegira eroan eben. Emen, osagille batek ok-eragingarri bat artu-erazo eta zaintza bereiziko gelara eroan egiela agindu eban.

Zenbait egunez kinka larrian aurkitu zan, eta noizbait, galtzo-ria uxatuta, oiko gela batera eroan eben. Egun gitxien buruan, etxera joateko zan. Aidane'k, baiña, ezin egikean bakerik idoro, eta etsipenak artuta, urrengoan uts egin barik zelan ilgo leuken bere burua gogoan erabillen, jangar eta nakar oean etzanda zirauala begiak sabaian josita.

Andik urteteko zan aurregunean, osagilleak ango kapelluari auxe esan eutsan:

—Dalako gelan, neurea baiño zeure zaintza bear dauan emaku-me zoribako bar aurkitzen da. Gogo-geisotasuna da jazarten dauan

gatxa, ia zeuk zeozer egin dagikezun. Etsipenak jota, ez dau bizi gura.

Egun aretan bertan, bazkal-osteko lo-kuma urduritik itxartu zanean, bere aurrean itxura maitekorreko gizaki bat ikusi eban. Abadeen paparrekoa erabillen onek.

—Zer nai dozu...? —itaundu eutsan asarrez Aidane'k—. Ez zai-tut ikusi gura.

—Alabatxu, gelen ikertaldia dot orain, eta augaitik sartu naz. Biar etxera zoazala esan dauste.

—Oba il ba'nintz...! Nire etxe gorrotagarriera ez dot biurtu nai. Itzi nagizu bakean, eta joan zaitez.

—Agiri da oiñaze bizipean zagozala. Zure alde zeozer egin aal izango ba'neu...!

—Ezin dagikezu gauzarik egin... Nire semea jaió baiño len, neronek erail neban, eta gero ezbear izugarriak etorri yatazan. Orain ez dot besterik gura, il baiño.

—Zure eriotzak ez leuke ezer atonduko. Zergaitik ez daustazu dana esaten...? Orrek zelanbait zure lorra arinduko leuskizu.

Abade aren begikotasunak irabazita, Aidane'k dana azaldu eutsan, eta amaitzean,

—Orain badakizu jazorikoa —esan eutsan—, baita ulertu be egingo dozu, niretzat barkapenik ez dagoala.

—Zeuk nai baldin ba'dozu, neuk barkatu dagikizut Jaungoi-koaren izenean, egindakoaren damu izatekotan.

—Benetan damu dot egindakoa, baiña uste al-dozu ori naikoa danik...?

—Ez, ez da naikorik. Orrezaz gaiñera ordaindu bear dozu.

—Zelako ordaintza, baiña...?

—Begira, Aidane, nire abade lagun batek aalik eta aurgaltze geienak eragozteko, aurtemein erakunde bat sortu dau. Laguntzai-lleak bear dauz, baiña. Lagunduko zeunskio ainbat eta ainbat nai izandako aurgaltze jazo ez daiten...? Auxe da, Aidane, jarten dau-

tsudan ordaintza. Au beteten ba'dozu, zure gogoz galdu zenduan semea, zugandik bertago oartuko dozu, eta zeuri aurrera joaten lagunduko be bai...

Gau aretan lenengo aldiz, Aidane'ren loa baketsuagoa izan zan, eta urrengo egunean, kapelluaren abade lagunagana joanda, onek betekizunaren zeatzak emon eutsazan, eta oneik entzunda, Aidane'k erakunde barrian jarduteko, izena emon eban.

Arrezkero, beste biziera bat asi zan berarentzat, eta jardun barriari buru-belarri emon eutsan. Erakundearen ezaguerari badaezpadako argaltze bat jazoteko zorian zala, edo-ta aurdunak eurak laguntza billa erakundegana joanda, egiñalak abiadan jarten ziran argaia onik atarateko.

Asiereatik, Aidane lankide bikaiña azaldu zan, aurdunai guztitariko laguntzak emotsezala, bai diruz, bai maitasunez, baita berak bizi izandakoa gaixo arei jakiñerazoz be. Eta olan, egun eta urteen bidean, Aidane'k ume-gaizkatzeari emon eutsan, eta aspaldi baten illun izaniko etxea, argiz betetzen asi zan, baiña argi geien artu ebana, bere itxaropena izan zan.

Bein baten, oi eban lez amesetan, Yosu, berak il egin eban umegaia agertu yakon. Iñoizkorik pozen emoten eban auxe iñotsala:

—Ama... ama... gauza arrigarria jazo yat. Ara... lengo baten, bizi nazan zabalduan zear niñoala, ogei larrosa gorri yaukal zituan lorategi bikain-bikaiña ikusi neban. Zeuk eriotzetik irabaziriko ume ainbat ziran, ama... Ogei bizitza itxaropentsuak eriotz baltzaren atzaparretatik zerorrek atarata. Maite-maite izan zaitut beti, ama, baiña orduan zukanako maitasun-zarrastada batek menperatu ninduan. Gero ta bertago oartzen zaitut, ama, eta orain badakit egunen baten alkar besarkatuko dogula. Nire anai-arrebak be orixe bera diño. Ez al-dakizu irurok toki bat zuretzat gertatzen diardugula...?

Beste urrengo baten Yosu barriro agertu yakon, eta oi eban lez,

—Ama... ama...! —esan eutsan— Badakit guztiz bakarrik sentitzen zala etxe uts andi orretan... Begira: zugaitik beste, aitaren alde eskatzen dot, bera be bakar-bakarrik nonbait sentitzen da. Egunen baten zurekin batuko al-da...!

Aidane'ren bizitzak itxaropenaz beterik jarraitzen dau, eta Yosu'ren lorategian, larrosa gorri ederrak etenbarik sortzen dira, baiña bere biotzean, bete-eziñeko utsa sortu zan, Paul, bere senarra, etxetik nazkatuta joan zanetik. Aidane'k senarra ekarri dagiola Yosu'ri egunoro eskatzen dautso.

Sarri askotan, zurubian gora Aidane'k oiñotsak aditzen bide dauz. Egunen baten ez al-dira ate-ondoan geldituko, eta atea zabal-duta, Paul bere besoetara ez al-yako oldartuko, eta besarkada andi-andia emon, antxiña baten oi eban antzera...?

ARLOTETXU

Berba laburrakaz eta apaintasun andi barik, bizi izandako gora-beerak edesten noatzue, nire jakintasuna urria da-ta. Ez itxaron nigandik ekintza arrigarriak, nire biziereak basetxe zaar eta baketsu baten dirau-ta. Itz egingo dautsuet areago, inguratzen nauen gauza ta izakietzaz, eta argi ta garbi saiatuko naz, nire arate-ikuspegiak areitzaz dauzan eritxiak azaltzen.

Txori-erriko Goietxe basetxean ludi onetara etorri nintzakizuen, eta Bizkai'ko aran eder onen basetxearen izenak adierazoten dauanez, muru polit baten jagiten da. Ama-oilloa'ren luma bigunen pean amabi txita ziran nire anai-arrebekin jaio nintzan. Txitak eta ni oso bestelakoak izan gara beti, eta jaio baiño len bereiztasun ori agirian jarri zan. Nire anai-arrebak jaiota gero, zirkin egin barik oskol-barruan nasai-nasai nirauan. Egun batzuk olan igaro ziran, eta noizbait luzapenez gogait-eraginda, Ama-oilloa nire azalean mokoka asi zan, eta andik laster lumatxu bellegi ta bigunakaz apainduta, agertu nintzakizuen.

Andik laster, abitik urten eta gure lenengo agerpena egin genduan. Inguratzen ginduzan edertasuna ikustean, lelotuta antzera geratu nintzan. Ama-oilloa, argi betean ikusi ninduanean, arrituta geratu zan. Begiak txapela baizen andiak ipiñita, goitik-beera ta alde batetik bestera begiratu ninduan, abopeka berekiko auxe iñoala:

—Ene Jaungoikoa, semetxu au ez da beste iñorena izango...? Ez dot egundo be gauza itsusiagorik ikusi... Arlote au, nondik urtengo zan...?

Neuk badakit arlote ta itsusia nazala, baita batzuen eritxiz zeozer barregarria be, baiña Ama-oilloa'k iñoan beste, ez dot uste.

Laster aztu yakon Ama-oilloa'ri nire itsusitasuna, urrezko biotzekoa da-ta, eta beste txitak ainbat maite izan ninduan beti.

Lenengo egun aretan, jaten erakutsi euskun. Lurretik atzarpa joian, (nire ustez oitura negargarria benetan), eta zeozer ikusten ebanean, didar bizitan onetaraxe asten zan: "Klo-klo, Klo-klo..." Ikusgarria zan orduantxe txitak egiten eben astrapala, Ama-oilloa'k lurrean erakusten euskun gauzatxuari erasoz. An, ar edo arto-garau bat egoan, eta orduko burrukea...! Noizbait txitaren batek arrapakiña mokoan artuta, igesari emoten eutsan. Izan be, ezin dot Ama-oilla'ren jokabidea ulertu, janariren bat aurkitzen danean norberarentzat gordetea oso onuragarria da-ta.

Baiña geroago jakingo dozuenez, gauza asko dira iñoiz ulertu ez dodazanak. Ama-oilloa'ren turutotsa aditzen nebaneko, arinke-teari emoten neutsan, baiña dana alperrik, beti nintzan azkena, janari-erakusketea amaitu izan zanean. Nik ez dakit zer daukadan oiñarretan, baiña txitak ni baiño askozaz ariñago dabiz. Beatzen artean edatzen yatan azaltxua izango da urrean.

Lenengo egun aretan, nireak eta asto baltzarenak jasan neban. Gose gorria nintzan, baiña illuntzea barik, gauzak aldatu ziran, aldatu. Idoi baten ertzetik giñoazala, barruko eragintza ezkutu bateri jarraituz ezustean uretara sartu nintzan, eta mokoia urpean erabili beeko lupetza eragiñez. Benetako asebeta izan neban orduan. Ezin dagikezu ulertu zein ederra dan urpetan ibiltea, eta gauzarik gozoenak diran ar eta zizarak mokoaz arrapatzea. Ez okertu aurpegia iguiñezko keiñuakaz, zeuek be neuk lez txastatu ba'zenduez, burua beti urpetan izango zendukie-ta.

Baiña goazen arira. Ama-oilloa'k ikusi ninduean, asarratuta urreratu yatan auxe ziraustala:

—Ai, seme ugerdo ori...! Ez dot egundo be olakorik ikusi...! Begira zelan loitu yatzuzan mokoia, anak eta lumak...! Ez gero ortik esan ama nozula, arlote baiño arlote ori...!

Gaixoa...! Ona emen egun batzuk geroago emon neutsan ikaraldia. Benetan damu dot orain egindakoa. Erreka baten ertzetik giñoazan, eta bapatean nire griña menperatu eziñik, plaust...! uretara murgildu nintzan. Olan ikusi ninduean, Ama-oilloa'k jausi izan nintzala uste izan eban, eta zoro antzera ertzetik gora ta beera joian didar bizitan:

—Klo-klo, Klo-klo...! Nire semetxu ori, urten zaitez lenbailen, bestelan ito egingo zara...! Ai, Arlotetxu neuria, zu uretan ito bear be...!

Baiña egin nebazan barreak...! Burua uretan sartu, eta anak aidean astinduz, ur-tantoak alde guztietara zipiztintzen nebazan, eta gero, batetik bestera ugeri egiñez, mokoia beekaldera luzaturik, arraintzetan asi nintzan janariz asetu arte.

Onetaraxe luzaro samar ibillita gero, legorrera urten nintzanean, Ama-oilloa kordebagetzeko zorian egoan. Orain, baiña, oitu da orretara.

—Etxeko ardi baltza zara, arlote ori...! —diñost askotan.

Baiña benetan, barrutik oso pozik sentitzen da. Ni uretan ikusi-ala, beste olloakana ariñeketan doa, ugeri ta murgil egiten ikusi nagien, eta orduan arro-arro auxe diñotse:

—Auxe bai benetako semea...! Zuen semetariko batek be ezetz olako arrigarriak egin...!

Arritutako beste oilloek, benetan gauza arrigarria nazala abo batez diñoie.

Orain zeozer anditu garan ezkerro, jatekoa txitak eurek billatu oi dabe. Ama-oilloa'k erakutsiriko ekanduari jarraituz, orkaitzakaz lurra atzaparkatuz legar txikiak-eta jan oi dabez. Gaixoak...! Urdaila larrukia baiño legorrakoa euki bear dabe. Izan be, noizean bein ur pixka bat artuta gero, arein keiñuak ikustean barrez ito-agiñean sentitzen naz. Ara... erreka ertzera urreratuta, mokoia uretan sartzen dabe ur-tantoren bat artzeko asmoz, eta gero iduneak odeietaraiño luzatuz, ordu-erdi batez keiñuka an diardue, burua gora ta beera. Azkenean baiña, au poza...! Tantoren pixka bat asmatu-rik lekura eltzen yake. Ekintza arrigarri au amaituta gero, errekatik aldentzen dira, garailleen itxuraz. Bai barregarriak dirala txita barrabasak...!

Niri dagokidan aldetik, banoa apurka-apurka bizitzaren ezkutuak ikasten, baiña ez uste, ikaspene utsaren truk artzen dodanik, bai zera...! Badira gauza asko Ama-oilloa'k irakatsi ez dagikidanik.

Ona emen aurtemein jazo yatana. Aal izaten dogunean, etxe-

koandrearen ezusteren bat ustiatuz, sukaldera sartzen gara ikuska arrigarriak egitearren.

Egun aretan, sukaldeko atea zabalik egoan ezkerero, talde osoa ara sartu gintzazan. Oi daberen antzera, txitek mota guztitariko kaikukeritan ziarduen, au da, mai ta arasen gaiñera zapart egin, baita aulki-bizkarretan kokatu be. Ni barriz, bazterrak ikuskatuz sorutik nenbillen, eta alako baten suil bete ur ikusi neban. Axe bai nire poza...! Beste barik, burua suillaren barrura sartu, eta arraintzetan asi nintzan. Billaketeari izteko zorian nintzala, ustekabez mokora zeozer etorri yatan, eta astirik galtzeke, zanpa...! arrapakiña barrura yatan...

Bai, ergel utsa nazala uste izango dozue... Irunsi baiño ez, areik ziran urdailleko miñak...! Ez neban beste biderik izan, suillaren urketa erdia edan baiño. Ura zintzurrean beera joiakidala, mokotik biribilkiak urtetan asi yatazan. Ni olan ikustean, txitak barrez itotzer begizatzen ninduen, narritariren bat bai'nintzan-edo. Izan be, zenbat eta ur geiago edan, ainbat eta biribilki geiago mokotik kanpora. Egun osoan olan iraun neban, ura zintzurrean beera eta biribilkiak mokoan gora. Ama-oilloa'k gero azaldu eustanez, xaboi-zati bat irunsi izan neban. Arrezkero, xaboa ta biok alkarteziñak billakatu gara.

Baiña egun batzuk geroago jazo yatana, are txarragoa da. Oitutako billaketa baten, sukaldean zear giñoazala, sutondoan lapi-ko eder, lilluragarria, ikusi neban. Inusentea nazala uste izango dozue barriro be, urrean, baiña nik ziltzari ezin aurre egin, eta beste barik nire intxaurra (burua esan gura dot) barrura sartu neban, eta... ezin esan alako erremin izugarria artu neban, didar bizitan asten nintzala.

Ilteko zorian sentitzen nintzan, eta txakur makilkatua baiño ariñago urten egin nintzan eskaratzetik, txoko guztietan soster egiñez, etxeko aurrean dagoan idoi bateraiño eldu arte. An burua uretara sartu neban, eta apurka-apurka oztu nintzan. Ama-oilloa'k azaldu eustan gero, nire intxaurra indiabakaz beteriko lapiko batera sartu izan nebala.

Orren ondorioz, eta au bai benetako ondapena, buruko lumak jausi egin yataz, eta intxaurra arrautz baizen soilla eta idunea untze zaarra baiño ugerdoagoa biurtu yataz. Eta au gitxi bai'litzan, ni

ikustean, txita zoroek barre egiteari emoten dautsoe, aurrean beste munduko gauza bat agertu izan bai'litzakien. Nik, ordea, ez dot uste ori orren barregarria danik. Somatzen dot lapikoarena be niri bakarrik ez yatala jazo, gizon buru-soil asko eta urtetan ondo sartuta bazterretan ikusten dot-eta...

Orain, buruko lumak sortzen asi yataz, eta nik uste, aspalditxu baten barruan itxura dotoreagoa izango dot.

— II —

Etxe-inguruko zugaitzetan kokatuta, txori asko ikusten dira. Oneik egun osoan zarata andia egiten dabe. Abesten diarduenean, bularra ta lumak arrotzen dabez, iñoiz ez entzuniko gauza bai'litzan. Neronek be, badakit abesten baita txistu egiten be, baiña orregaitik nire burua ez dot orren aintzakotzat jotzen. Txoriek aidean zear egan egiten ei'dabe lurra ukutu barik, baiña ni ez nago orren ziur. Nire uste apalez, iñondik eskegita doaz.

Zugaitzak aitatu dodazan ezkerero, aitortu bear dautsuet zertarako gauza diranik be ez dodala ulertzen. Badaiteke txoriak kokatu daitezen, eta enborretan laban eta aterkin-zardaiakaz egiñiko azkonakaz, mutikoen jaurti-ekiñaldiak izan dagiezan, urrean. Ama-oilloa'k aurtemein esan eustan, lauazka igon eta jatsiz mutillai prakak urratzen yakezala, eta olan, mutikoen prakak adabatzeko atxakiaz, andrazkoek erriko esamesak alkarri esaten dautsoez. Orra or ba, zugaitzak zertarako diran.

Illuntzean, kortan dogun gure lo-gelara sartzen gara. Asiera baten, Ama-oilloa'ren lumapetan lur-gaiñean lo egiten genduan, baiña andituta gero, leku naikorik ezean, txitek astrapala itzelak egiten ebezan, eta au ikusirik, gure arteko bakea lortzearren, lurretik goi samar dagozan aga batzutara Ama-oilloa'k gure lo-gelea aldatzea erabagi eban. Illunabar orduko, ara doa txiten aurretik ol zotzdun aldapatsu baten gora, eta agatara elduta, oi daberen antzera, txita barrabasek euren biziko iskanbilla zaratsua egin oi dabe, zein baiño zein zorakeri geiago erakutsiz. Baiña niri bost ardura, gorako indarraldia alperrik ez egiteko, eta aidean beera nire burua lurrean barriro ez ikustearren, beean geratzen naz eta kitto.

Kortan, beiak esaten dautsien abere andi-andiak dagoz. Askan ipiñitako bedarretik jan eta jaten diardue. Noizean bein buztana jaso ta plaust... plaust...! zeozer jausten yake lurrera. Egunsentian, gauza andi ta biribillak, iretargi betea lakoa baiña illunak ikusi daitezke. Olako gauzaren bat gainean jausi daitekidalda bururatzen yatanean, ikara larri batek artzen nau. Siñistu egidazue: ikuskizun onek bedarra jateko gogoia kendu egin daust.

Txakurrak lagun aspergarriak dira, benetan. Sarri askotan gure atzetik dabiltz zaunka bizitan, ni ikustean batez be, eta ur doguzanean, eizeari itzi egiten dautsoe, andik laster jazarkuntzari barriro be ekiteko, gu nekatuta ikusi arte. Nire ibillerea barregarritzat-edo joten dabe, nik dotoretzat badaukat be, gizon asko neu lez dabiltz-eta. Jakiña, txakurren xederik garrantzitsuena etxeko ondakiñak jatea da, Ama-oilloa'k txitak eta neronek, barau osasungarria igaro dagigun. Asebetez ler egiteko zorian dagozanean, orra or euren ondorengoak, etxeko katu maltzurak, itzitako gudakiñai adore barriaz erasoteko. Pizti onei buruz oba dot ez jardutea, bestelan gorriak esan bearko neukez.

— III —

Bizi nazan etxean, badira gizakiak be, eta benetan nekez idoroko litzake areik baiño gauza ergelagorik. Ona emen zer egiten daben... Lurrean zuloak eta zuloak egiten dabez, eta gero, txorko baktotxean lursagar bana ereinda gero, lurrar estaltzen dabez. Andik illabete batzutara, leku berera datoz, eta aitzurrakaz, eortzi ebezan lursagarrak ataraten dabez, eta pozaren-pozez etxera biurtzen dira. Lagun andi-andia dodan auzoko arate jakintsu batek, lengo baten lursagarraren ezkutua azaldu eustan. Aren eritxiz, eginkizun orren zergaitia, lursagar zaar ta erdoitsu bat ereintzea da, gero, onen orde bestez gazte bat jasotearren, eta era onetan urrengo urtean jolasari jarraitzen dautsoe. Olan ei'diraue etxeko gizonak aguretu arte.

Onezaz gainera, gizonak oso zekenak dira. Etxean arto-alez beteriko otzarakada andiak sartzen dabez, baiña gure sabelak gur-

gur egin arren, ez dauskue garau bat bera be emoten. Nire ustez, beintzat, erdia be emongo ba'leuskue, lursagarren jokoa lez egiteko lain izango leukie. Baiña ez uste, bai zera...! gauzak olan geratzen diranik.

Orain esango dautsuedana arei ez esan, Jaungoikoarren...! bestelan gure mauka amaituko litzakigu. Gari-bildumea eltzen danean, nik ez dakit nondik, arkondara zaar-zaar eta altzitua ganbaratik ataraten dabe, eta itsuski au, txapel zarpailla dauan aga baten gainean ipinten dabe. Txapel ori nik neuk iñoiz ez ikusiriko gauzarik zikiñena da. Ene Jaungoikoa...! Izan be, txapelaren margoa zelakoa dan adierazotea, eziñezkoa yat. Ama-oilloa'k diñoanez eun bat urtedun izango da, eta auzoko nire adiskidea arate zuurraren eritxiz, Aitor'en aldietatik datorkigu. Patxi errotariaren galbaia baiño zulo ugariagoak erakusten dauz. Eta daukan koipea...! Ene...! Jakin dagizuen zelako itxurea dauan txorimaloak alorretan ipiñita gero, ez da besterik esan bear auxe baiño: ni nozuen arlote andi au, aren ondoan Edur-Zuriñe'ren itxura dodala.

Baiña gaiari ekiogun. Uztarua datorrenean, goizean goizik gurekin kortatik urtetea, eskillarako goikaldetik Ama-oilloa'k alor guztiak aztertzen dauz, eta areitariko txorimalo bat ikustean, berealaxe asten da: "Klo-klo, Klo-klo...!", au da, "Goazen mutillak geurea da-ta" Eta ara goaz danok amaren atzetik txorimaloagana, eta ara elduta, sentella...! areik bai gure asebateak...! Sabelkada arein ostean, ezin nabilke. Aalik eta geien iruntsita gero, jaialdia bear dan lez amaitzeko, txitak txorimaloaren burura igoten dira, eta txapelaren gainean itzulipurdika asten dira. Ene... egiten doguzan barreak...!

Arazo onein ondoan badira txarrak be. Nire ustez, txarrenetarikoa mutillak oi dira. Irrikan nagotzue mutikoa gizonak noiz biurtuko diran begira, baiña Ama-oilloa'k bein eta barriro badiño areik ez dirala iñoiz amaitzen. Mutiko barrabasak ikusi baiño ez, igesari emoten dausat sasiaren artean nire burua ezkutatzearren, bestelan intxaur soilla ikusten badauste, nireak egin dau...!

Goizero, ikastolara joan baiño len, amak banan-banan aurpegi garbitu oi dautse, eta au, antza, gauza ikaragarria izan bear da, amaren deiak entzunik, mutikoa igesari emoten dautsoelako. Orduan, iñarra bat artuta, etxekoandreak aurrean darabillez, eta azkenean, zartada itzelak banandu ostean, sukaldera sartzen dauz. Jarraian

uleak laztu arteraiñoko astrapala entzuten da, eta noizbait, mutikoak arin baten urtetan dira aurpegi ta belarriak gorri-gorri ta dizdiratsuak dabezala, baiña tamalez, arrigarri au laster amaitzen da, eta ostera, betiko zikin eta ugerdoak biurtzen dira. Ikastolara-koan, danari arrikadak botaten dautsoez, txakur eta katuai batez be, baiña sarri askotan erriko argiontziak eta etxeetako leiarrak be dagokiena artzen dabe. Eta jolas osasungarri onetan diarduela, ikastolara eltzen dira. Emen, jaun benatsu ta zentzudun batek mutikoak areto andi baten giltzapean gorde egiten dauz.

Auxe bai, benetan, gizonek egindako asmakizunik txalogarri-
netakoa. Zer jazoko ete ikastolarik ez balego bururutzen yatan bakotxean, dardarrez asten naz. Ez dakit zer egiten daben toki orren barruan, baiña etxera biurtzean, belarriak piperrak baiño gorriagoak daukiez.

Biurrikeriak alde batera itzita, mutikoak oso errukitsuak dira, Manu bizargiñari egin eutsoenak adierazoten dauanez. Manu dala-ko ori, bizargin izanez gaiñera, erriko oiñetako-adabatzaillea dogu. Gure Manu gixajoari irabazteak urriagotzen yakozanez, aldiaren bidean gure oillotegiko agak baiño argal eta zimelago biurtzen asi yakun, eta era onetan ikustean, gure mutiko errukitsuek ez dakit nondik pelota bat atara eben, eta ostikoka euren biziko leiaketak izaten dabez. Ainbeste jo ta lurrari igurtziaz abarketak bizpairu egun irauten yakez, eta oiñetako azpikaldeek txorimaloaren txapela baiño zulo ugariagoak erakusten dabez. Manu'ren biotz samurra-
ren zoriona...! Aurpegiko lengo zimurrak zorion utsaz ostendu egin yakoz, eta lengo soiñekoan leku naikorik ezean, beste janzki barri bat egiten agindu dau.

Mutikoek esku-pelotan badiardue sarritan be, ormea ala eskuak zeintzuk apurtzen diran lenago jakiteko. Noizean bein pelotakada-
ren bat sare-gaiñetik joaten yake, eta atzekaldeko baratzean jausten da. Onen ormatik lauazka igon, eta laster agertzen dira irabaziriko pelotaz. Baiña... ai goizean amak ipiñitako arkondara garbia...! Nork ezagutu...? Ain zuzen be, au bearrezkoa da, ostantzean zegaz jantzi txorimaloa...?

Baiña asmatu daiteken gauzarik barregarriena aurrak dira. Gurean bada ni baiño zaaragoa dan bat, eta oraindiño ibiltzen ez daki. Janaria zali baten bidez abora emoten dautsoe. Ai, gure Ama-oilloa gaixoa, txitak etxeko seiña baizen ergelak izan ba'gintzaz...

Gure aurre, aldiaren erdia lotan dirau, eta beste erdia negar eta orruka. Negar eginda gero, suurrean beera kandela deritxen apain-
garri bi darioz. Etxekoandreak itxura onetan ikusten dauanean, "Gure potxolo, gure moñoño" esanez, zapiño bataz suurra igurtzi oi dautso, eta gero, altxorra bai'litzan, zapiñoa, mukiak eta guzti sakelera sartzen dau. Eta gero Ama-oilloa'k niri arlote esango daust... Ai, zelako gauzak entzun bear diran, entzun be...!

Baiña seiñaren arrigarriak ez dira onezaz amaitzen, bai zera...! Ots esangatxa leku sakon batetik bai'letorren aditzen da. Au oso larria izan bear da, eta etxekoandrea ariñeketan urez beteriko ontzi ta belakiaren billa joanda, gero jazoten dana... arraioa...! Dana-dala, onaiño elduta oba dot isiltzea, bestelan lotsatu egingo zintzakeze.

Ordua da, nik uste, nire gora-beerai amaierea emon dagiedan. Zein ergelak diran gizonek ba'lekie, alkatetzat autuko nindukie, baiña nik, ordea, idoi eta errekatik ugeri egiten askozaz naiago dot...

AITITA AUZITEGIAN

Berrogei ta amar urte izango ebazan edesti onen asieran. Kaxi esaten eutsoen erriko guztiek, baiña aren benetako izena Kaximiro zan. Urteak ziran gizon aparteko au errira bizi izateko etorri izan zala. Ez eban iñongo ogibiderik, ezta onetariko bateri lotzeko gogorik be, eta or-emenka ebillen bere aukeran, txoriak baizen jarei.

Sei urte lenago, billobatzat Txo artu izan eban. Txo dalako mutikoak ez eban gurasorik ezagutu, eta batetik bestera gosez beterik alderrai ebillen, arrapaturikoaz bizirik irauten ebala. Bein baten, erriko gozotegi nagusiaren aurrean ikusi eban Kaxi'k, erakusleioke leiarra miazkatzen ebala, bestaldeko gozopillak jaten ebalkoa egiñez.

Mutikoaren itxura gosetia ta erabillezan aparramantarrak ziralata, Kaxi'ren biotza bigundu zan, eta sakeletik okondo ta sagar bat atarata, mutikoari eskiñi eutsazan, baita onek gose gorriak eraginda, aida baten iruntsi be. Kaxi berez biozpera zan, eta Txo'ren bearrizana ikusirik, arratsalde euritsu aretan bere txabolara eroan eban.

Arrezkero beti alkarrekin bizi ziran. Txo'k aitita esaten eutsan Kaxi'ri, eta gure gizonak mutikoa billoba maite-maitetzat eban. Bizi izaten ziran txabola, landerra zan eta ol zaar eta latontziakaz egiña izanik, euria zanean itogin ugariak ebazan. Egoitza ezain arek ez eban suterik ez lo-gelarik. Zati bakarrekoa zan, eta emen zorropillo bana oetzat eben, eta aizeak txabola eroan ez egian benetako miraria zan.

Kaxi'k, Txo ikastolara egunoro joan zeiten beartzen eban. Askotan billobeari auxe zirautsan:

—Txo, ikastola duan dokan ezker, joan egin bear yok. Anditu aitenean, diru ezagaitik ikasteari uko egin bearko yautsak-eta.

Mutikoa ikastolan egoan bitartean, Kaxi batetik bestera errian zear ibilli ebillen, bera ta billobatxuarentzat bearrezko janaria batzearren. Au zala-ta, arrapatari trebea billakatu zan. Dendetako ateen aurretik igarotean, eskura etorkiona iñork oartu barik bere sakelera irrist egiten eban. Bene-benetan, egunerako bear ebana baiño ez eban besterik arrapatzen. Onezaz gaiñera, Kaxi arraintzale gain-gaiñekoa izanik, baekian erreka arrainkari onenak zein lekutan aurkitzeko ziran. Sagar eta madarien sasoiari be, motarik onenek sakelako arrera maitekorra billatzen eban.

Kaxi errezale porrokatua zan, eta dirurik ez eban ezker, mutxikiñakaz bere biziko zigarrotxuak egin, eta atsegiñik andienaz erre oi ebazan. Baiña Txo izan ezik, ez egoan lagunik arei erien sundea jasan egikeanik.

Mutikoak be, baeban bere zaletasuna: futbola edo ostikolaritza ain zuzen be. Joera au bere naimena baiño sendoagoa zan, eta bidetik aurkitzen eban edozein gauzari, ostikada bizitan erasoten eutsan.

Bein baten, negar egiteko zorian eldu zan txabolara. Aititak orduan, zer zala-ta egoan orren naigabeturik itaundu eutsan. Jarraian Txo'k onetaraxe itz egin eutsan:

—Begira, aitita, ikastolako laguneren artean ostiko-talde bat sortu da, eta baloirik ez daukadalako ez nabe onartu. Taldean jarritako legeari jarraituz, ostikolari bakotzak taldekoa izateko, baloi bat ekarri bear dau, eta guztiek nik izan ezik, dalako baloi ori erosi egin dabe...

—Ez adi larritu, mutil, orreitariko baloi bat neronek egingo yauat, eta biar bertan ain zuzen be.

Urrengo egunean Txo ikastolan egoala, Kaxi urten, eta erriko sastegian azterturik, piltzar batzuk eta zuloz beteriko txapela idoro ebazan. Txabolara biurtuta, ardurarik andienaz gai orreikaz pelota andi bat eratu eban. Gabean, billobeari erakutsi eutsan, eta mutikoa zorionez gaiñezka oeratu zan, baloia estu-estu besarkaturik.

Biamonean, baiña, Txo iñoizkorik naigabetuen biurtu zan aititagana oster, auxe esaten eutsala:

—Aitita, nire lagunek ez nabe taldekotzat artu gura. Baloi au benetakoa ez dala esanez gaiñera, irri egin dauste. Gero, “Paradisua”n saltzen diranetakoa izan bear dala esanda gero, jolasten asi dira ni kanpoan itzita.

Une batez Kaxi oldozkor geratu zan, eta,

—Biar bertan —esan eutsan— dalako baloi ori ekarriko yauat.

Urrengo egunean, Kaxi “Paradisua” denda ederrera joan zan. Erriko saltokirik andiena izanik, emen guztitariko gaiak saltzen ziran. Kaxi'k bear izanikoa laster ikusi eban kirol-saillean. Saltokia jendez mukuru bete egoan, eta iñoren suzmo txarrik iratzarri bage, sartu ta sail aretan aurkitu zan. Ezker-eskumatara ardura andiz begiratu, eta iñork ikusten ez ebala ziurtaturik, baloi bat artu, eta soingaiñekopean ezkutauta, urteerantz abiatu zan.

Baloi barrabasak, baiña, konkor andi-andia eratzen eban, eta suzmo txarrik jota, dendako jabeak urteera barik geldierazo eban, eta lapurtzat salatuta, kalean egoan ertzain batek, jabeak eskatuta, erriko espetxera eroan, eta gora-beera batzuk agiri baten idatzita gero, giltzapetu eban. Espetxea txikia baiña txukuna zan, eta udaletxeko beekaldean egoan.

Gau aretan, Txo jakiñaren gaiñean ipiñita, negar baten espetxera joan zan, eta udaletxeko ertzain bateri aititagaz giltzapetu egian eskatu eutsan. Errukituta, ertzaiñak azkenean amor emon eban, eta atea edegirik, aitita-billobak alkar besarkatu eban, eta lastamarraga bana egoan ezker, antxe bertan etzan, eta lo egin eban.

Aitita-billobak egun zoragarri batzuk igaro ebezan. Goizean, ertzain batek erriko espetxea edegi, eta Txo ikastolara joan, Kaxi giltzapean geratzen zala. Eguberdian, billobea biurtuta, udaleko zaintzapean egoan ezker, erriari egokion aitita-billobak janaritza, eta augaitik erriko tabernatik bazkari gozo-gozoa ekarten eutsien, eta gabean bardin apaiteko. Maister barriek ezagutzen ez eban lastamarraga banatan etzanda, artulezko oatze bigun aretan iñoizkorik ondoen lo egiten eban. Gauoro oeratzekoan, ostatu aretan betirako irautea Kaxi'k Jaungoikoari eskatzen eutsan. Izan be, aurgiegian agiri eban biok jasandako obakuntzea. Mutikoa loditzen asi zan, eta aititari bere oiko ijito-itxurea galtzen asi yakon.

Baiña boskarren egunean-edo, ertzain batek aitita-billobak berebil batera sarrerazo, eta Gernika'ra abiatu ziran. Aitita bakarrik eroan nai izan eban ertzaiñak, baiña Kaxi ta Txo arteko bereizterik ez egoan ezkerro, ertzaiñak ez eban beste biderik, biok eroan baiño. Bidean zear joiazala, epaitegian azaldu bear zirala ertzaiñak jakiñerazo eutsen. "Paradisua"ko jabeak baloiaren auzia Gernika'n aurkeztu izan eban, eta egun aretan bertan epaiketea gertatzeko zan. Kaxi'ri bost ardura eutsan epaiarena, eta ordurarte berebillik ezagutu ez eban ezkerro, eztitan joian.

Gernika'ko epaitegira elduta, epaiketearen asiareari itxaron bitartean, aulki baten jesarri ziran. Kaxi'k bereala oartu eban sorua zigarro-mutxikiñakaz beterik egoala, eta betiko joereari jarraituz, jaso ebazan batzuk, eta zigarrotxu lodi eder bat eratu eban. Su emoteko gertatzen zanean, baiña, epai-aretoa sartzeko agindu eutsien, eta sakelean gerorako gorde eban.

Epai-aretoa andi ta dotorea zan. Alde baten, "Paradisua"ko jabea ogipeko batekin egoan, eta bestean aitita-billobak erriko ertzaiñarekin. Atzeko aulkietan baegozan non-ze-barri batzuk be. Ormetan eratsita, "Erre-debekua"ren iragarki batzuk ikusten ziran, eta Kaxi'k arein esangurea eratzaiñaren abotik jakin ebanean, asarratu zan, bere zigarrotxua erretoko irrikan egoan-eta.

Andik laster, epaikari Jauna agertu, eta mai ederraren ondoan jesarri zan. Epaikari Jauna guztiz burusoilla izanez gaiñera, suur kakodun eta okotz txikikoa zan. Au zala-ta, garbantzu baten aurrean egoala Kaxi'ri iruditu yakon.

Urruma batzuk egin ondoren, eta aurrean paper batzuk ebazala, epaikaria abots arranditsuaz onetaraxe asi zan:

—"Paradisua"ren jabeak salatuta, aurrean dogu Kaximiro Jauna. Salakuntzaren arauz, Kaximiro dalakoak lengo asteko barikuan, salatariaren dendara sartu, eta baloi bat artuta, soingaiñekopean ezkutaturik, atera abiatzen zan, ordaindu barik eroateko asmotan.

Une batez epaikaria isildu zan, eta,

—Onaiño salakuntzeak diñoana —jarraitu eban—. Zutundu bedi salataria.

"Paradisua"ren jabea agindutakoa egin, eta epaikariak Kaxi atzamarras erakutsirik,

—Salatariak ezagutzen al-dau gizon ori...? —itaundu eban.

—Bai, Jauna.

—Nor da berau...? —epaikariak atzamarras Kaxi erakutsiz—.

—Baloia ostu eustana, eta...

—Kontuz esaten dozunaz —epaikariak eten egin eutsan—. Ostu eutsun ala ez, neronek erabagiko dot. Eta orain, esan, zelakoa zan baloia...

—Biribilla, Jauna.

—Egia izango ete...? Bene-benetan, oraindiño ez dot lauki erako baloirik ezagutu. Anditasunari buruz nagokio. Zelakoa zan, beraz...?

—Andia, ostikolariek darabillezan orreitarikoa.

—Eta zelan dakizu, salatua dendatik urteteko gertatzen zala, dalako baloi ori ordaindu barik...?

—Kaxi dalako ori arlote arrapatari itzela dalako.

—Kontuz esaten dozunaz. Bere itxuraz agiri da arlote dogula, baiña arrapataria dala esatea eritxi ariña da, eta etxe onetan eritxikeririk ez da onartzen. Zeuk bein edo bein lelokeriren bat esango zenduan, eta orrek lelotzarra zareanik ez dau esan gura.

Jarraian, epaikariak zeozer idatzi eban, eta "Paradisua"ren jabeari jesarri zeiten agindu eutsan.

—Orain zutundu bedi salatua —esan eban epaikariak.

Kaxi zutundu zan, eta orduan epaikariak,

—Esan egistazu zure izena.

—Kaxi edo Kaximiro.

—Eta abizena...?

—Goikoetxea.

Epaikari Jauna adar-jotzaille porrokatua zan, eta irribarreka auxe esan eutsan:

—Arrituta nozu, Goikoetxea Jauna. Zeu lako ijito itxurako

batek abizen ain euskalduna dagianik, ez dot egundo be ezagutu.

—Jaunak barkatu beist, baiña berorrek len esan dauan lez, itxuretarik ez dogu juzgau bear. Begira, eta berorrek barkatu beist barriro, baiña berori lako garbantzu itxurako gizonik ez dot iñoiz ezagutu, eta orrek berori garbantzua daitekenik ez dau esan gura...

Epaikaria eta aretoan egozan guztiak barre-santzoka asi ziran. Astrapalea baretu zanean, epaikariak barriro:

—Aizu, Goikoetxea Jauna, zertarako nai zenduan baloia...?

—Nire billobarentzat, emen dagoan mutiko onentzat —esan eutsan Txo atzamarras erakutsirik.

Epaikariak baekiazan, antza, Kaxi'ren gora-beera batzuk, eta orduan,

—Goikoetxea Jauna —esan eutsan—, mutil ori bene-benetan billoba al-dözu...?

—Ori niri bost ardura, Jauna. Nik maite-maite dot eta billobatztat daukat, baita berak ni aititatzat.

—Noiztik artu dozu mutiko ori zure zaintzapean...?

—Orain zazpi urte, Jauna.

—Eta mutilla janaritu ta jagoteagaitik, erriko udalak zenbat emoten dautsu...?

—Ezer ez, Jauna.

—Zelako ogibiderik dozu zuek biok iraun-erazoteko...?

—Ez dot bearrrik egiten, Jauna.

—Jardun barik al-zagoz...? Baiña zelan daiteke ori...?

—Begira, Jauna, izan be, ori Jaungoikoaren borondatea da.

—Ez niri esan gero, Jaungoikoarekin artu-emonak daukazuzala.

—Ez, baiña arazoa niretzat argi dago. Lan egiteko gogorik bage jaio ta azi nintzan, eta beraz, Jaungoikoak neugan bokaziño ori jarri ez ba'eban, ba... lan ez egiteko bokaziñoari jarraitu dautsat beti, eta emen nau berorrek, burua lengo lepotik.

Au entzutean, epaikariak nekez menperatu aal izan eban barre-gurea. Izan be, Kaxi begirune andiz begiztatzen asi zan. Jarraian, auxe itaundu eutsan:

—Goikoetxea Jauna, zertarako artu zenduan “Paradisua”ko baloia...?

—Ara... oso kezkatuta nago nire billobatxu onen etorkiaz. Mutikoari goi-maillako ikasketak emoteko dirurik ez dot, ezta iñoiz izango be. Zorionez, baiña, badirudi Txo dalako onek baloiari ekiteko erraztasun itzela dauala, eta bideak emoten ba'yakoz, osti-kolari bene-benetakoa billakatuko dalakoan nago...

Ona elduta, epaikariak eten egin eutsan onetaraxe:

—Dirudienez, emen be Jaungoikoaren borondatea argi-argi azaltzen da, ezta...?

Au entzutean, “Paradisua”ren jabea ta onen ogipeko izan ezik, danek barre egin eben goz.

Isiltasuna barriro egin zanean, epaikariak,

—Entzun egistazu ondo, Goikoetxea Jauna —esan eutsan astiro-astiro—. Baloia artuta gero, eta urteerarantza ziñoazanean, zure asmoa axe ostutea zan ala ez...?

—Ez dakit ba...

Kaxi'k ez eutsan epaikariaren itaunari jaramon andirik egin. Une batzuk baziran ondo aurkitzen ez zala, eta ereti oneitan jazoten yakon lez, eztulka asi zan. Eztul madarikatua kentzeko bide bakarra, berak egiñiko areitariko zigarrotxu bat zan, eta goiz osoa erre barik iraun izan eban ezkerro, eztulak iñoizkorik garratzen erasoten eutsan.

Kaxi'ri eztula gero ta zakarrago biurtzen yakon ezkerro, ia zer egin zeitekean itaundu eutsan epaikariak. Kaxi ondo ezagutzen eban erriko ertzaiñak, zigarrotxu bat erretzekotan joango litzakiola esan eutsan, eta epaikariak orretarako baimena emonda, goizetik sakelean gordetako zigarrotxua atara ta erretzen asi zan.

Ondorioak, baiña, itzelak izan ziran. Zigarrotxuari demoniñoak eriozan, eta aretoko leio guztiak edegi arren, barruko giroa jasangatxa billakatu zan. “Paradisua”ko ogipekoak konortea galdu

eban, eta au ikusirik, epaikariak be eztul itzelak jota, auzialdia etentzat jo, eta arratsaldean erabagia emongo zala iragarri eban.

Aldarterik onenean, Kaxi lengora biurtu izan zan-eta, aitita-billobak eta ertzañak udalaren lepotik, euren biziko bazkari ederra izan eben, eta gero poz-pozik arratsaldeko bostetan epaitegira barriro, erabagia entzuteko.

Epaikaria agertu zanean, danok isildu ziran, eta betarik galtzeke onetaraxe asi zan:

—Jaun-andreok, goizean emen esandakoari arretarik andiena emonez, ona emen gertatukoaren gure ikuspegia...: argi dago Goikoetxea'tar Kaximiro'k dalako "Paradisua"n baloi bat artu ebala, baita soingaiñekopean ezkutauta urteerarentza abiatzen zala. Argi dago baita be, dalako Kaxi orrek, ogibiderik ez daula, eta onen ondorioz nekez ordainduko leukean dalako baloia, bere asmoa billobeari laguntzea bazan be.

Argi dago ain zuzen be, lapurketa izan dan ala ez, iñork ezin dagikela egiztatu, oraindiño denda-barruan egoan-eta. Kanean eta ordaindu barik arrapatu ba'lebe, ezpaibarik erruduna izango litzakean. Itxuren arauz, beraz, gertaerak Goikoetxea Jaunaren aurka azaltzen badira be, ziurtasunik ez da agertzen benetako erruduna dala baiezteko. Gure erabagia, beraz, auxe da:

Goikoetxea Jauna, erriko espetxean bost egunez giltzapetu izan daitela. Dirudienez, baiña, bost egun orreik atxillo jadanik iraun dauzan ezkerro, jarei joan daitela agintzen dogu.

Salataria dan "Paradisua"ren jabeari buruz, eta kontuan arturik olako ezerezkeri bategaitik auzi bat jartea iñondiko ergelkeria dala, auxe da gure erabagia:

"Paradisua"ren jabeak, bere gain artuko dau auzi onen eralguntza guztia. Au ontzat ez emotekotan, aske da jaun orrek gorajote bat egiteko Bilbao'ko auzitegian.

Berari egokion erabagia entzun ebanean, Kaxi lur-jota geratu zan. Berak uste izan eban, erriko espetxe erosoan oraindiño aspaldi luze bat emongo leukela. Baiña barriro be lengo txabola ezaiñera biurtzeko zala jakin ebanean, atsekabe itzelak artu eban. Epaia amaitu zanean, beraz, Kaxi jagi ta auxe itaundu eban:

—Epaikari Jauna, esan al-dagiket zeozer...?

—Bai, esan.

—Barkatu beist epaikari Jaun orrek, baiña nire benetako asmoa baloia ostutea izan zan.

Orduantxe bertan, epaikariak maillukada bat mai-gaiñean emonez,

—Auzia epaitua da —esan eban— eta ez dago atzera egiterik. Auzialdia amaitutzat joten dot. Ustu bedi aretoa.

Epaikaria, baiña, arrenkuraz erasota aurkitzen zan, eta bere barrukoa nasaitzearren, Kaxi aurkeztu ekiola agindu eban. Txo'k lagunduta, gure Kaxi epaikariaren gelara sartu zanean, jesarri zeitezana agindu eutsen, eta aititari tinko-tinko begiratzen eutsala,

—Ain zuzen be, Kaxi —asi zan epaikaria—, ez zaitut ulertzen. Nik aalegin guztiak erabilli dodaz, naaste onetatik aalik ondoen urten zaitezana, baiña zeu zure burua zuritu bearrean, zigor andia jaristeko aalegindu zara. Zer dala-ta, Kaxi, orren zentzunbako jokatze...? Emendik ez zara urtengo azalpen egokia niri emon barik.

—Begira, Jauna, nire billobea ta biok espetxeratuak izan arte, txabola zikin eta ezegoki baten bizi izan gara. Lo egiteko zorropillo bana genduan, eta gabaz saguak-eta, gure gaiñetik ebiltzan ezeren bildur barik. Baloiarena jazota gero, erriko espetxera eroan ginduezanean, jauregi eder baten bizi izaten gintzazala iruditu yatan. Artulezko lastamarraga bana, irola ta ur garbi-garbia, tximistargia, janari ugaria, leio eder bat kanean jazoten zanari begiratzeko, mai ederra aulki sendoekin, eta gaiñera ez itogiñik ez sagurik. Bai, Jauna, niretzat lau izarreko ostatu bikaiña izan da. Illabete baterako espetxaldia, besterik ezean berorrek emon ba'leust... Orain biurtuko garan txabolea ez da leku egokia, nire billobatxuarentzat batez be. Ni beti arlote andia izan naz, baita beti olan izaten jarraituko be, baiña nire Txo gaixo onek beste gauza bat merezi dau...

—Ezin dagiket ulertu —eten egin eutsan epaikariak—, espetxe baten, urrezko kaiola izaiñik be, gizaki bat pozik bizi izan daitela, andik urten eziñik. Askatasuna gauzarik ederrena da, Kaxi.

—Egia diño berorrek, Jauna. Eta orregaitik badaukat nire aukuran urteteko giltza.

Au esanik, Kaxi'k sakeletik koillara bat atara eban. Onen kirtena biurrituta egoan, eta epaikariaren arritasuna ikusirik, gure gizonak auxe esan eutsan:

—Espetxeko morroilloa andia ta zaarra da, eta koillara onen kirtena morroilloari egokitu dauzat. Ez dot egun bat bera be andik urten barik irau. Illuntzea asten zanean anka egiten neban, eta gaberdi-inguruan, espetxera barriro.

Epaikariak barre egin eban, eta une batzuk isillik egon ondoren,

—Egia al-da —itaundu eutsan—, mutiko onen alde ez dauala iñork ezer egiten...?

—Egia da, Jauna. Gaixo onek ez dau bere alde aalegindu daiten senitartekorik. Sarri askotan, umezurtz-etxe batera sartutea burura yatort, baiña orain ez dakit, maite-maite dot eta...

—Ez, aitita, ez...! —Txo'k erdi negarrez eten egin eutsan— ori egiten ba'dozu andik iges egingo dot, eta zeugana barriro etorriko naz.

Epaikariak aitita-billobak maitero begiztatu ebazan, eta gero, besterik esan bage, auzitegiko ateraiño lagundu eutsen.

Arratsalde aretan Gernika'tik errira biuritzen zirala, Kaxi'k ezin egikeen barruko samintasuna menperatu, eta txabolara eldu ziranean, zigarrotxu bat bera be erre barik, etzan zan.

Andik egun batzutara, Kaxi txabolan egoala, ertzain bat azaldu zan, idazki bat ekarrela.

—Aizu, Kaxi —esan eutsan—, udalbatzaren alde natortzu zeuri auxe jakiñerazoteko: atzoko batzarrean erabagi izan dala, zeuri ta Txo'ri erriko espetxean bizi izateko eskubide osoa emoten yatzuela. Onezaz gaiñera, eta udalaren lepotik, erriko tabernatik gosari, bazkari ta aparria egunoro emongo yatzue, zure billobeak bizibide bat jaritsi arte. Emen doatzu espetxeko, barkatu, ostatu barriko giltza, baita Gernika'ko epaikari Jaunak bialtzen dauzun idazki au be.

Au esanik, ertzaiñak idazkia ta baloi bat emon eutsazan alde egin baiño len. Irakurten ez ekianez, Kaxi'k billobearen etorrerari itxaron bear izan eutsan. Txo eldu zanean, idazkia edegi, eta auxe irakurri eban:

“Gernika'tik.

Agur, Kaxi maite ori:

Araiñegun, orko udalbatzarekin zueri buruz autu bat izan neban. Onen ondorioz, eta udalbatzari bere eginkizunak azalduta gero, badirudi gauzak euren zerera etorriko dirala, eta zeuk erriko seme baten alde egiñikoa aintzakotzat artuko dala.

Zeuri bioi eskubide osoa emoten yatzue, eperik bage udaletxeko espetxean bizi zaitez. Azkenez, zeuk orren biziro irrikaturiko lau izarreko ostatua jaritsi dozu. Zorionak.

Garbantzu epaikariak.

Idaztondoa: onekin batera badoatzue baloi bat, Txo, zure billobak bere joerari jarraitu dagian. Jaungoikoaren borondatea izatekotan, eta au ez dot zalantzan ipinten, ostikolari gain-gaiñekoa billakatuko da. Goraintziak”.

Arrezkero, Kaxi ta Txo'rentzat biziera zoragarria asi zan. Mutikoak benetako ostikolari baten joera ta jasa ebazan, eta andik bost urtera, erriko taldean jardun eban, eta gain-gaiñeko kirolaria azaldu zan ezker, Bilbao'ko “Athletic” Club'ekoek eurentzat artu eben. Luzaro barik, Txo'k itun onuragarria izenpetu, eta dirua parrastaka irabazten asi zan.

Egoera barrian, lau izarrekoa bazan be, erriko espetxea laga egin bear izan eben aitita-billobak, et etxe eder bat erosita, onetara aldatu ziran. Kaxi'ren itxurea dotoretu zan zearo, eta errikideek On Kaximiro esaten asi yakozan. Baiña ospea ta dana, gure Kaxi'k mutxikiñakaz egiñiko oiko zirragotxuak erretzen jarraitu eban.

Jakiña, Txo'k San Mames'en jokutzen dauan guztietan, ara doa Kaxi bere billobearen jarduna txalotzearren, eta gizon ospetsuari dagokionez, onetariko jarlekua bere aukeran dago. Ondoan, ostikozale porrokatua dan ezker, Gernika'ko Garbantzu Epaikari Jauna jesarri oi da, Txo'ren erti gorena ederresteko. Ereti oneitan, gogo txarrez bada be, Kaxi'k bere zigarrotxuen erretari uko egin bear izan dautso. Lenengotan, erreten asi zanean, inguruko guztiak eztulka asi eta alde egin bear izan eben. Au ikusita, On Garbantzu Epaikari Jaunak, olako erregaia debekatu egin eutsan, baiña gizon arteza izanik, orain, leiaketea asi baiño ez, “Montecristo” dalako bi ataraten dauz, eta biok girorik onenean erretari emoten dautsoe.

Astegunetan, baiña, Kaxi bere aukeran bizi oi da, eta jancki, kapel eta kaiñaberazko makilla dotoreak darabillezala, errian zear egurastu bat artzen dau. Kaxi'k, orraitino, "Burua lengo lepotik", eta bere zigarrortxuekiko joera biziari jarki eziñik, kalean zear doala, mutxikiñen bat ikusita, makillea jausten yakolakoa egiñez, maki-llarekin batera mutxikiña jasoten dau. Bere pilosopiaren arauz, eta jokaera ori jaiotzetik yatorkola jakinda gero, Jaungoikoaren boron-dateari jarraitu egiten dautsala esan bearko dogu...

ATERKINZALEA

Gizon txikia zan bera, baiña begi bizi sakonetan, alako adore garaiteziña igarten yakon. Aren begiai ertilari goren baten gar kiskalgarria erien, alegia. Lenengo ta bein, baiña, azaldu dagidan Maixi eritxan gizona zelan ezagutu neban.

Bein baten, nire emazteak aterkin italiar oso ederretsia galdu egin eban, eta bidai zoriontsu baten gomutagarria izanik, ezbear onek atsekabetu eban benetan. Beiñola, arazo oneri buruz giñar-duala, gure uriko enparantza baten jaiegun guztietan piltzar-zeia egiten zala, esan euskun lagun batek, eta sarri askotan aterkin dotoreak salgai zirala.

Urrengo jaiegunean, emazte ta biok zeia aretara joan gintzazan, eta araturik, astiro-astiro salgai guztiak aztertu genduzan. Gure azterraldia amaitu-agiñean zala, ara non azkenengo saltunean, gal-duriko aterkin ber-bera ikusi genduan. Irudi bikaiñakaz apainduri-ko aterkiña ezagutzean, nire emaztea saltune aretara oldartu zan, eta euritakoaz jabetzen zala, saltzailleari auxe esan neutsan:

—Zelan eldu yatzu aterkin au eskuetara...? Lengo astean akeite-txe baten gengozala, urtetean, sarrerako aterkin-ontzian lagatako euritakoa uts emon genduan. Ez dakizu zelango atsekabea artu eban nire emazteak...

Nik uste izan neban, gizontxu arek aterkiña arrapatariren bate-ri erosi izango eutsala-edo, eta orregaitik auxe geitu neban:

—Aizu, ostutako euritako bat saldu dautsue.

Gizon arek, baiña, aterkiñari maitekiro begiratuz, auxe jardetsi eustan:

—Maisu-lana dogu aterkin ori. Neu lako ertilaria bat, ezin da olako bitxiaren ondotik igaro ezer egin barik. Bai, zeuk diñozun akeitetxetik urteten nintzala, begiz jo baiño ez, nire eskura zan. Artu egizu nire zorionik egizkoena —esan eutsan nire emazteari—, olako maisu-lana erosten dakiana benetako ertilaria da-ta. Auxe nire bildumarako gura neban, baiña bearrian gorriak eraginda, saldu egin bear dot. Eutsi bitxi au eta barkatu.

Zelako nasaitasunaz autortzen eban bere lapurketea gizon ari entzutean, zur eta lur geratu nintzan.

Joan baiño len, besotik oratzen ninduala, eta begiak dizdiratzen yakozala, auxe esan eustan:

—Olako bitxiren bat arrapatzea, Jauna, ez da pekatua. Maixi'k benetan diñotsu, oben barkaeziña litzakela maisu-lanak ez ederrestea.

Izan be, ereti aretan lenengoz, arrapatari bat begikoa billakatu yatan.

Arrezkero, jaiegun askotan piltzar-zei aretara oiko egurasketea egiten neban, eta ez-arian lez Maixi ta bion arteko adiskidetasuna estuago egiten zan. Begi sutsu sarkorreko gizontxu arek erakarten ninduan benetan, eta egunen bidean, egokiozan gora-beera guztiak ezagutu nebazan. Txikitarik umezurtz izanik, bere aukeran bizi izan zan, eta azkenean bizibidetzat arrapaketeari emon eutsan. Baiña bere baitan ertilaria baten sena kokatuta egoan, eta edertasun-sen orrek erakarrita, bere kabuz, aterkiñen ertilaritza-saillean, ezagulari bikaiña gertatu zan. Sarri askotan, bereiztasun orretan eban ezaguerak arritzen ninduan. Bizitzak beste alde baterantza eroan ba'leu, irizlari bikaiñenetakoa billakatuko litzakean. Bein baten, auxe esan eustan:

—Bizitzak arrapaketeari beartu ninduan ezker, eta uri onetan eurite luzea dogunez, euritakoen arrapaketea jardun ona izango litzakidala uste izan neban. Buruauste gitxikoa izanez gaiñera, leiki-de askorik ez. Baiña au ziñez diñotsut: ez dot egundo be edozein aterkin arrapatu, ez orixe...! Nik ostutako aterkiñak, gorengo mailakoak izan dira beti. Arazo onetan ez naz ezertan lotsatu bear...

Maixi'ren zoritxarra, baiña, bizitzaren garraztasunari aurre egiteko, maisu-lan areik saldu bearra zan. Bein baten etxera eroan ninduan. Egoitza drangala baten bizi izaten zan, ganbaran, alegia.

Gela bakarreko bizileku aretan, oe bat txokoan eta suetea leiatilla baten pean ikusten ziran. Beste txoko baten arasa andi bat jagiten zan.

—Auxe dozu nire etxe guztia —esan eustan—. Ez da zeu lango jauna etorri daiten egokia, baiña begiraizu emen...

Au esanik, arasea zabaldu eban, eta barrukoa ikustean arrituta geratu nintzan. Lerro baten, neuk iñoiz ez ikusiriko aterkin-bildumarik ederrena agertu yatan. Amabitsu ale zein baiño zein ederragoa ikusi aal izan nebazan. Bakotxa bere taiuan maisu-lana zan. Marfillezko, ebanozko, kareizko kirtenak agertzen ziran antzerik andienaz landuak. Areitariko batzuk abere-buruak itxuratzen ebezan, eta pizti arein begiak errubi ta diamantezkoak ziran.

Aterkin areik antze-lan bikain-bikaiñak ziran, eta amesetan bai'nintzan ezin nengikeazan neure begiak bilduma aretatik kendu. Olan nengoala,

—Zer deritxazu aterkin onei...? —itaundu eustan Maixi'k— Ogei urte bear izan dodaz bilduma ori egiteko.

—Benetan txorta ederra da, Maixi. Ez dot egundo olakorik ikusi. Ain zuzen be, bilduma augaitik diruketa itzela emongo leuskizue...

—Gosez il naiago neuke, oneitariko bat saldu baiño len.

Arrezkero, Maixi ta biok sarri askotan alkar ikusten genduan. Noizean bein, eguraldia eguzkitsua zanean (izan be, lan egiteko giro txarra), idaztegira yatordan, bere gora-beerak jakiñerazoteko. Atsegiña zan berarekin autuan jardutea, baiña gizon zentzuduna izanik, ez zan iñoiz aspergarria billakatzen. Arazopetuta ikusten ba'ninduan, andik laster agurtzen zan. Bein baten, kalean alkar topo egin genduan, eta akeitetxe batera sartu gintzazan amaiketako egiteko. Eguraldi euritsua izanik, Maixi'k, begikadak sarrerako aterkin-ontzian josita ebazan. Eretia ustiatuz, bere laneraren zeatzak eskatu neutsazan.

—Begira, Jauna —esan eustan katilluan gozopilla bustiten eba—, berez doa, nire betebearra egun euritsuetan egin bear dodala, eta orretarako, lekurik egokienak akeitetxeak edo arandegiak dira. Uri onetan orreitariko asko diran ezker, bakotxean urtean bein

bakarrik jardun bear dot. Ez dot, beraz, iñon suzmo txarrik sortzen. Gaur lako eguraldia izatekotan, amabi bat aterkin irabazten dodaz. Goizeko osteratxuan sei bat, eta arrastikoan beste ainbeste. Jasotako aterkiñak, soingaiñeko barrukaldetik josiriko dagozan eres-tunetan eskegiten dodaz, eta olan urtenaldi baktotxean arrapatutako aterkiñak, etxera, iñoren suzmoak iratzarri barik. Gero, igandeetan zeuk dakizun zeian saltzen dodaz, maisun-lan izan ezik. Oneitari-koak nire bildumarako gorde oi dodaz.

Oztoporik izaten ete eban bere eginkizunetan, itaundu neutsan.

—Ezelan be ez, Jauna. Akeitetxe edo ardanegi batera sartzen nazanean, begirada bat azterkin-ontziko ederrena aukeratzeko dot, eta kafesnea artuta, urten orduko dalako aterkiña jaso, ta gero soingaiñeko barruko erestunetan eskegi. Jasoten dodanaz polito kon-pontzen naz. Lanean diardudan egunetan, akeitesneaz, eta eguraldi txarra danean, au da, egun eguzkitsuetan, ogi-tartekoakaz janaritzen naz. Izan be, ez dot diru andirik egiten, baiña tira...! bat az beste bizi naz, eta txin batzuk enparautzen yatazenean, auzoko emaku-ma zaar batek gelea garbitzen daust, baita batzutan antzokira be banoatzu.

—Lanagaitik, iñoiz espetxera sartu ete zaitue...?

—Ez, Jauna. Aterkiñaren jabea konturatzen baldin ba'da (oso gitxitan jazoten dana), orduan benetasunaz diñotsat: “barkatu adis-kide, izan be, zure euritakoa neurea lako da”. Eta arazoa or amaitzen da.

Bein baten, idaztegian nengoala, andrazko bat Maixi geisorik egoala esanez etorri yatan, eta lenbailen aregana joateko. Astirik galtzeke joan nintzakion, eta atsanka oean aurkitu neban. Ikusi ninduean, irribarre gozo bat az argitu yakon aurpegia, eta izketan asi gintzazan. Alako baten, aurreko txokoan egoan aterkiña atza-marraz erakutsirik,

—Ori da nire azkenengo lana —esan eustan—. Aurrerantzean, Maixi'k ez dau iñoren aterkiñik jaso aal izango...

Latz-ikara batek astindu ninduan itzok entzutean. Maixi, nire bizitzaren zati bat billakatu izan zan, eta neuk igarri barik biotzean sartu izan yatan. Andik laster lo geratu zan, eta naigabeturik urten nintzan.

Illuntzero niñoakion ikustera. Bein baten, goizean, auzoko andrazkoa, Maixi oso txarto egoalaren mezuaz etorri yatan. Bertan-beera dana lagata, arrapalada baten nire adiskidearen etxera joan nintzan. Il-agiñean baegoan be, irribarretsu agurtu ninduan, eta gero lo-zorro batek artu eban. Illuntzea barik, ezustean itxartu zan, eta eskua estutu eustan ezpanak igituz zerbait esan naiean lez. Gero, baretu zan, eta begiak urrunera zuzenduak, geldi-geldi geratu zan betiko.

Gelatik urtetan nintzanean, txoko baten, Maixi'ren azkenengo lana zan aterkiña ikusi neban. Zurubian beera niñoala malkoak mara-mara eridazan.

Urrengo egunean, neuk aginduriko elizkizunak auzo aretako eleiza txiroan gertatu ziran. Iru meza-entzule izan gintzazan: nire emaztea, auzoko andrazkoa, eta irurok. Maixi'ren alde bein eta barriro eskatu neutsan Jaunari. Mezea amaitzen zanean, aldare-argien artean, neure adiskidearen irribarrea ikusten eta organu-soiñuaren artean bere abotsa entzuten nebala iruditu yatan.

Urteeran, auzoko andrazkoak idazki bat emon eustan auxe iñostala:

—Au, Maixi'ren oe-buruko azpian idoro neban atzo.

Niri zuzenduriko eskutitza zan. Maixi'ren azken-naia azaltzen eban, eta an iñoanez, bizitza osoan izandako adiskide bakar eta onari bere bildumea lagaten eustan. Eta olan, neuk igarri barik, aterkin-bilduma bikaiñaren jabea billakatu natzaizue. Ederra da benetan, baiña eun bidar geiago emongo neuke, Maixi'ren berba tolesbageak eta aren irribarre umekoia oraindiño entzutearren...

JAUNARTZE-JANZKIA

Gau aretan, Alazne lur-jota aurkitzen zan. Mirentxu, bere alaba bakarra, biaramonean Lenengo Jaunartzea egiteko zan, eta oraindiño ospakizun onetarako jantzirik ez. Guztiz ezeukiak ziran ama-alabak, eta gau aretan euren aberastasun bakarra, arto-uruneko eskukada bat zan, besterik ez, urrengo egunerako ozta-ozta talo bat egiteko lain.

Naigabez asperenka, Alazne leiora urreratu, eta aulki baten jesarrita, leio-barrenean ipiñi ebazan besoak. Andik laster nekearen-kekez loak artu eban. Lotan egoala, amesetan igel bat agertu yakon, eta,

—Kro-kro, kro-kro, Alazne —esan eutsan—, Basozabal'go alar-gun ori, zer dala orren itunik egoteko...?

—Ai, igel, igeltxu maite ori...! Biar bertan Mirentxu lenengo Jaunartzea egiteko da, eta jai andi orretarako janzkirik ez, au bai nire samin andia...!

—Aizu, Alazne, gaur Alkatenera alabearentzat sedazko paper zuri baten bilduta, Lenengo Jaunartzea egiteko, janzki bikain-bikaiña eldu da, eta paper ori kartoizko kutxa baten barruan sastegian idoroko dozu. Zoaz aren billa, eta josi egizu Mirentxu'k bear dauan janzkia.

—Baiña nire igeltxu maite ori, orretarako, ari, titare, jostorraz eta artaziak bear dodaz, eta nik ez daukat orreitakorik. Gaiñera, botoiak eta maukak eta jantzi-barrenak edertzeko mendelik ez...

—Ez larritu, Alazne. Sastegiko paperaren ondoan urretx baten eskola dago, eta auxe titaretzat erabiliko dozu. Gero, zotz-zati

bikaz artaziak egingo dozuz, eta etxerakoan, Abadenea'ko baratze-
tik idar-leka bat artuko dozu.

—Eta aria ta jostorratza...?

—Ler-osto edo piñu-orratz batzoi soñekoa josiko dozu. Ariari
buruz ez larritu, amaraun batek bear dozuna emongo dautsu-ta.

—Eta janzkia edertzeko mendela...?

—Au azkenerako laga egizu, eta zeozer otuko yatzu...

Itxartu zanean, eta Mirentxu lotan egoala, Alazne etxetik urten
eta sastegira joan zan. Emen, agindutako sedazko papaera idoro
eban, baita urretx-oskola be. Etxerakoan, Abadenean idar-lekea jaso
eban, eta erriko enparantzan zear joiala, zotz-zatiak eta lerrostoia.

Etxera eldu zanean, sedazko papera mai-gaiñean jarrita, arta-
ziak egin eta lerrostoari begia zulotu eutsan. Alazne'k, baiña, ez
ekian jantziari zelan eldu, aririk ez eban-eta. Orduan gau betean
igelaren kro-kroa aditu zan barriro...

Leiora urreratu zan, eta igelaren eresia aditzen zala, leioko
goikaldean amarau batek ari me-meaz sare bat euntzen ziarduala
ikusirik, orduantxe ulertu eban Alazne'k. Non a baiña ari bikaiña-
gorik...?

Eta amarauak eundu-ala, ari orregaz Alazne'k artaziakaz taiu-
tutako janzkia josten eban, eta eleizako joaleak gabeko amabiak jo
ebazanean, soñekoa josita egoan. Orduan idar-lekea edegi, eta
barruko bost garau atararik, bost botoi orlegi, eder, janzki-kolkoan
josi ebazan. Baiña soñekoa bear zan lez amaitzeko, mauka ta
gona-barrenetan zulaketak egin bear ebazan, baiña zelan...?

Olan kezkatu rik egoala, burutapen bat etorri yakon... Bai,
suetean piztutako illenti batzoi zulaketea egingo leuke... Jagi, eta
suetetik, bear izandako illentia artuta, zulaketea egiteko gertatu
zan. Ezin baiña... eskuak dardarikatzen yakozan, eta bildur zan
janzkia ondatu ekion...

Alazne leioara joan zan barriro, eta,

—Igel, igeltxu neuria —esan eban negarrez—, ezin dot, baiña,
bear dan egalun bikaiña egin, ikara bizitan nagotzu-ta...

Berba oneik esanda, saguzaar bat leiotik sartu zan, eta illentia
aboan artuta, iru zulaketa-lan ederreko mendelak paperean eratu
ebazan, mauka baktotxean bana, eta irugarrena gonako beekaldean.

Janzkia amaituta geratu zan mai-gaiñean, baiña bere alaba-
txuak eraski bat bear eban, burestuna, ain zuzen be. Orraitiño,
Alazne'k ez ekian zerez ezta zelan egin, eta negarrez leiora biurtu
zan ostera, auxe iñoala:

—Igel, igeltxu neuria... Mirentxu'k burestuna bear izango dau,
eta nik ez dakit nondik atarako dodan...!

—Ez zaitetz larritu, Alazne, ore-maian eskukada arto-uruna dozu,
eta onen bidez burestuna egin dagikezu.

—Ai, igel, igeltxu neuria, eskukada urun ori biarko janaria
atontzeko da. Erestuna orregaz egiten ba'dot, zerez janarituko gara
biar...?

—Egin neuk agindutakoa, eta ez dozu damurik izango, Alazne.

Orduan, ore-maira joanda, uruna ta uraz alargunak burestun
bat taiutu eban, eta gero talo-burdiñean txingarren gaiñean ipiñi
eban. Egosi zanean, leio-barrenean egoan janzki-ondoan jarri eban,
eta gero, aurpegia malkoz bustita lotan zirauan alabatxuari apa-
lattan bat emonik, oeratu zan.

Gau osoan zear igelak abesten iraun eban, eta goizaldean urre-
ratzen zala, janzkia iñontzezko tantotxu garbiakaz estaldu zan, eta
egunsentia agertzeko zorian zala, leiopeko arkakaratsari erpin-erpiñean,
larrosa gorri ederra sortu yakon, eta paperezko jantzia usain zorga-
rriaz laztandu eban.

Biamamonean, eguzkia leiotik parrastaka sartzen zala, iratzarri
zan Mirentxu, eta janzkia ikusirik,

—Ama, amatxu —didar egin eban—, norik ekarriko eban soñe-
ko eder au...? Ez dot egundo be olako janzki ederrik ikusi. Ama,
zerutik ekarritakoa izango ete...?

Zuzen egoan Mirentxu, eta Alazne leiora urreratu zanean,
arritasunezko didar bat jaurtiki eban.

Izan be, aurreko gabeen josiriko paperezko janzkia, ziriko edo
sedazkoa biurtu izan zan. Amaraun-ariz egiñiko orrazkadak zida-

rrezko ari me-meak eta jositako bost idarrak esmeralezko bitxiak ziran, eta mauka ta gona-barrenak egalun bikain-bikainak. Gabeari isuritako inontzezko tantotxuak diamanteak biurtuta dizdir egiten eben, eta gabeen sortu zan lorearen usain-laztanak nonai barreiatzen ziran.

Zorionezko oiu bat jaurtita, Mirentxu soñezko zoragarriaz jantzi zan, eta burestuna ikustean,

—Ama, burestun ori —esan eutsan—, nireztat izango al-da...? Aizu, ama, urrezkoa emoten dau...

Egia zan. Arto-urunaz egiñiko burestuna urrezkoa zan, eta goizeko argipean eguzki bizi bat zirudian. Buruan ipiñita gero, ama-alabak kalera urten, eta eleizara abiatu ziran. Bidean zear joiazala, adar batetik zorotuta bai'litzan, txindor bat abesten asi zan onetaraxe:

—Mirentxu benetako bitxia da, eta darabillan janzkia, zerukoa. Aingeru batek igel biurturik, soñeko ori egiteko agindu dau, txio... txio... txio...! Baiña janzkiaren benetako egillea, ama baten maitasuna izan da, txio... txio... txio...

Egun zoragarria billakatu zan, eta Mirentxu'k Jauna lenengoz artzen ebanean, arima-barruan zeozer eder-ederra oartu eban, eta zorionezko negarrari eutsi eziñik, Alazne'ri aurpegian beera malakoak isuri yakozan.

Ama-alabak etxera sartu ziranean, arrituta geratu ziran. Mairerdian intxaur-saltzaz inguratuta arrainkari bat egoan, eta mai-azkentzat, urretx-opil, ezti ta basaran gozoak jan ebezan. Alazne ta Mirentxu eleizean egozala, igelak aginduriko katamixar-talde batek maia atondu izan eban.

Bazkaldu bitartean, igel baten kro-kro eresintsuak aditu ziran, eta isildu zanean, idoi-ondotik aingeru bat zerura biurtu zan.

Egun aretako gomutagarritzat, ama-alabai urrezko ertestuna geratu yaken, eta aurrerantzean ez leukie bearrianik ezagutuko.

ZELAIGANE'KO ERROTARIA

Erroteak utsik zirudian. Aurrekaldea aspalditik ez zan zurizkatzan, eta amaika kare-orbanen artetik, leioak itsu baten begiak bai'litzazan utsari zuzenduak agertzen ziran, batzuk edegiak, besteak, ostera, erdiz ustelduriko olakaz ozta-ozta estalita. Ibarretik etorren bidetik, teillatua ez zan ikusten, baiña ezpairik bage, teilla askoren bearrean aurkitzen zan.

Mendiko trokatik jaisten zan errekatxua anteparan baretzen zan, eta gero, beste aldeko oroldioz jantzitako orman beera suzumurka, barrero abeslari ta alai aldapan beera ostentzen zan. Baiña eragin bear ebazan turtukoia ta errotarriak, aspalditik isillik eta amaraunez lotuta egozan, geisotasun ilgarriak Zelaigane'ko errota zaarra abailtzen ebala.

Oraindiño, baiña, errota aretan bazan zeozer bizirik. Egunsentia egin zanean, erdiz edegiriko kortako atetik, oillar arro batek agindutako seitsu oilloko saldoak, zelaian zear etenbako aztarriketari emon eutsan, or-emenka ebillen oillarraren begitada zorrotzpean. Andik laster, ate ber-beratik begi otzan eta apatx astiroduneko bei zaar gorri bat agertu zan, eta eguratsean zear bere oiko murruka goiztarra jaurtita, zelaian gora oillo-saldotik ez urrun, larratzeari emon eutsan.

Eguzkiaren txirrindola gorritzeta, urruneko mendien besarkadatik jareitu zanean, errotako ateazpian egiñiko utsune batetik txakur zurizka bat agertu zan, eta atalondotik urrats batzuk egiñik ozta-ozta, utsunetik barrero ostenduta, zaunka biziari emon eutsan, norbaiten adikunea erakarri gura bai'leuan. Luzaro barik, oiñots astunak aditu ziran, eta atea zabalduta, agure baten irudia agertu

zan. Ibillera neketsuz, Mikel errotaria, orain irurogei ta amabost urteko Zelaigane'ko nagusia, errota baizen bakar eta itzia, atalasean gelditu zan. Antxiñako oroitzen ogiaz janaritzen zan, errotako biztanle bakarra...

Bere aitagandik etorkion errota aretan jaio izan zan, eta maite be maite eban bere jaiotetxea, baita onen erraietan zetzan errota maitea. Mikel'entzat ez zan beste eresi maiteagorik, errotako eiotsa ta uren suzmur eta palastada baiño. Bere aita, zaarra billakatu zanean, seme nagusia zan ezkeru, etxeko jabetasuna etorri yakon. Andik laster, Maiñasi albo-erriko neska maratza emaztetzat artu eban, eta arrezkeru, errotea iñoizkorik garbien eta txukunen erabilli izan zan.

Zelaigane'ko etxejoaun zaarra, baiña, errotako nagusitasuna semeagan itzita laster, eritasun ankerrak erasoia izan zan. Il aurretik, semeari dei egiñik, auxe irautsi eutsan:

—Banoa, Mikel. Zaindu egizu neronek eraikitako errota au. Gazte nintzala, Zelaigane'n, nire arbasoen etxe onetan, neronen eskuz errotea eraiki neban, eta nire betseiñak baiño maiteago dot. Badakit, maite be maite dozula, eta egunen baten zeuk orain lez, zure semetariko batek errotea erabilliko dauala, eta orregaitik nasai ta pozik Jaunagana noa.

Izan be, errotea maite izan egian nagusi zaarrak ez eutsan semeari esan bearrik, Mikel'ek Zelaigane'ko errotea bizitza beste maite eban-eta. Jaio izan zanetik, errotearen burrunbeak, zanetako odola lez, bere izaki osoa beteten eban.

Udako sarreran, ur eta artoaren urritasunagaitik errotea gelditzen zanean, Mikel'eri beragan utsune bat sortua zala iruditzen yakon, eta lotan ziarduala iratzarri oi zan artega, zeozer uts egingo bai'leuan, eta orduan udagoirarte peitzen ziran asteak ainbatzen ebazan. Udea amaitu-agiñean zala Mikel'ek anteparea ustu oi eban, eta baturiko lupetza atarata, metatu eroian soloetarako bizigarri bikaiña zan-eta. Gero, ugateari begiraten eutsan, ugerra karrakatu, eta ardatzaren eustuneak koipetuz. Ondo ozkatu ta atonduriko errotarri astunak, auzokoen laguntzaz turtukoiaeren ardatzean goiko gelan jarri; otabaltza baezpadakoan aztertu; arto-baiaren sarea barritu bearrezkoa izatekotan; txaramelaren lokarria egokitu ta abar. Azkenean, anteparatik turtukoiaraiño joian urbideari azkenengo

begiraldia emonik, Deunoro inguruan sortu oi diran uriolaren zain geratzen zan.

Errotatik ibarreraiño jaisten zan gurdibidea ondo ikusten zan, eta baserriz zipriztindutako andiko ikuspegia eder-ederra zan. Eio-taroan, barruti aretako baserritarrek, arto-gurdikadak Zelaigane'ko errotara ia egunero ekarrezan, eta Mikel gizon zuzen eta txeratsua izanik, leku urruntsuetatik be, artoa ekartsoen. Onezaz gaiñera, etxe-inguruko baratz, esne-bei, oillo ta txarrien ekarriaz, errotako bizikerea bare ta nasaia zan.

Urteen bidean, Maiñasi'k iru seme emon eutsazan, errotearen jarraipen-ziurtasuna sendotuz. Mikel, baiña, alde betetik pozik aurkitzen ba'zan, bestetik alaba baten irrikan egoan, egunen baten etxeak neska gazte baten erabilpen laztangarria izango leuke-ta.

Ames au be, egi biurtu zan. Irugarren mutillak sei urte ozta-ozta bete ondoren, irrikaturiko alabatxua jaio zan. Egun a, izan be, Zelaigane'ko egunik zorionsuena billakatu zan. Jaiobarriari Libe izena emon eutsoen.

Urteen jarraigo geldieziña bajoian aurrera, mutillak anditzen eta Libe neskato zoragarria biurtzen zala.

Seme nagusia gudaritzatik etorrita gero, Mikel'en aburuz, ezkonduko zan etxera, eta olan Zelaigane'ko erroteari iraupena emongo leuskio. Asmo au baiña, Mikel'eri ustel urten yakon. Gudaritzatik etxera eldu zanean, seme onek uri nagusien lillurak jota, ez eban ezelan be errotan bizi gura, eta etxean lagun asko zirala atxakiz, araneke erriburuan lantegi baten lana idoro, eta jaiotetxea betiko laga eban.

Bigarren mutillak, txikitarik joera andia abadetzarako erakusten eban, eta bere garaia eldurik, jaiotetxea be itzi, eta deiari jarraituz, abadetzeari emon eutsan.

Mikel'ek orduan, itxaropen guztia irugarren semeagan jarri eban. Langille ta esanekoa, mutil au eginkizunak ondo be ondo beteten ekiana zan. Ezkontzeko garaia etorri yakonean, baiña, araneke neska baserritar bat az maitemindu, eta barriro be oztopo bat aurkeztu zan: neskearen gurasoak beste seme-alabarik ez izanda, alaba bakarra etxerako gura eben, bestelan ez zan ezkontzarik izango. Mikel'entzat aspaldi latz eta mingotsa billakatu zan, berak

be semea etxerako bear eban-eta. Oraingo onetan baiña, auzia biotzak erabagi eban, eta irugarren itxaropen au be, ustel urten yakon Mikel'eri.

Andik laster, semeek itzitako zauriek-edo, Maiñasi'ri bizitzea laburtu eutsuen, eta udabarriko arrats-beera baketsu baten il egin zan.

Aspaldi luze batez, Mikel norabarik eta erdi-zoro ibilli zan, semeek eta emazteak lagatako utsunea bete eziñik. Betebearrak, baiña, etxeko egoereari antolabidea ekarri eutsan, berak eta Libe'k aalegin guztiakaz lanari ekiñez. Mikel'ek ez eban orain bizitzarako lotura andirik, baiña erroteari jarraipena emon bear izaten yakon, eta arbasoakandik yarauntsiriko etxea iraun-erazoteko, gure baserritarrak oartu oi daben eginbear aginkorraz, Mikel'ek bere jardunari bete-bete emon eutsan.

Orduko, Libe'k amasei urte ebazan, eta aal eban giñoan aitari lagundu eutsan, baita ondo be. Etxeko kinka larria ikusirik, Libe'k errotearen erabilpena bere gain artu eban, eta aitak soloetako lanari ta abere-zaintzari emoten eutsela, berak bakarrik eio-eginkizun guztiak zarata andi barik, ezin obeto bete ebazan.

Olan ba, oartzeke, Mikel'ek bizitzarako jorana astiro-astiro irabazi eban, eta oiko gurdiak Zelaigane'ko bidean gora ta beera etenbarik ikusten ziran, errotako burrunba nasaigarriak Mikel'en biotzean itxaropen barriak sortu-erazoten eutsazala. Eta egunen bidean, errota ta alaba kutuna gero ta maiteago ebazan.

Igarri barik, Mikel'en biotzean ames laztangarriak sortzen asi ziran, Libe etxerako ezkondata ikusten ebala. Eguneko lanak amaituta, eta aita-alabak sutondoan jesarrita egozan bitartean, Mikel'ek, errotarekiko ta alabaganako maitasunak eraginda, bere amesak Libe'ri azaldu oi eutsazan.

Bene-benetan maite ebazan Libe'k aita ta errota, baiña adu txarreko egun baten, aspaldi baterako etxera etorri yaken urrutiko ister-lengusu bat ezagutu eban, baita zoroki maitemindu be. Biotzaren legerari makurtuz, istar-lengusuak alde egin ebanean, Libe aren alde dana lagateko gerturik egoan. Bere maitasun zorientzua zala-ta, aitaren naigabe sakona ezta errotearen azkena ez ebazan ikusten... Eta olan egun baten ezkondata, bere senarrarekin etxetik urrun bizi izatera joan zan.

Jorana galduta, Mikel'ek zoro baten antzera etxe guztia ibilkatzen eban, emazte ta seme-alabai dei ta deika, baiñan bere aieneka atsekabatuentzat, ez eban beste erantzunik izaten, errotako burrunbea baiño.

Arrezkero, naigabeak jotako Zelaigane'ko nagusiak, aranera jaiten zan bideari begi utsakaz begiratu oi eutsan isil eta itun, eriotzaren begira. Ez etozan jadanik arto-gurdiak bidean gora, urrezko garauak Zelaigane'ko errotan ustutzeko. Amaraunakaz loturiko turtukoia ta errotarriak geldi egozan, eta uren palasta antepara-gaiñetik isurika entzuten zan.

Egapeko usoe, isiltasunak izuturiko ta janarien bearrizanak eragindako, alde egin eben toki alaiagoren baten urruma egiteko. Etxeko abereak zaindaritza barik euren aukeran or-emenka ebiltzan, eta kortako ate edegitik, bei zaar bakarrak eta oillo-saldoak, eguzkiaz batera sar-urteerak egin oi ebezan...

Urteak igaro ziran. Uri urruntsu baten, aspaldiz alargundutako Libe, seme bakarrarekin bizi izaten zan, eta bien iraupena ziurtatzeko, lanari emon bear izan eutsan. Errotan itzitako aitaren gomutaz, semeari, Mikel izena jarri eutsan. Izan be, ezin eban bere aita ta jaiotetxea burutik kendu; gaiñera, ezkondu zanean aitari egindakoak, gero ta geiago kezkatzen eban, eta sarri askotan burura etorkion Zelaigane'n izandako zoriona.

Aitari egindako naigabeak ez eban bakean izten, eta errusentipen onek etenbarik zirikatzen eban. Semeak adimena irabazten eban giñoan, erroteaz itz egiten eutsan, eta leku aretako edertasuna, semearen ulermenean margo biziakaz itxuratzen eban. Mutillaren irudimenean, Zelaigane'ko errotea ta onen inguruak ames maite-maiteen erakarpenaz jazten ziran, eta aititaren irudia erraldoi baten antzera aurkezten yakon. Ez ekian zergaitik, baiña arbasoen erroteak paradisu baten lillura jarkieziñaz erakarten eban.

Urteak igaro ziran. Mikeltxu'k amazortzi urte bete ebazanean, Libe geisotu zan, eta bere azkena igarririk, semeari dei egin eta auxe esan eutsan:

—Begira, Mikel, nire azkena ur dago ta bakarrik geratuko zara. Orain arte, neuk irabazitakoaz biok bizi aal izan dogu, baita zu ikastetxean ezi be. Ni ilda gero, ez dozu zeri eutsi, eta elburu barik

ibilli zaitezala gura ez dodan ezker, joan zaitez Zelaigane'ra, eta nire aita bizirik aurkituko ba'litz, esaiozu nire semea zarala, eta nik emondako samintasuna barkatu dagistala. An geratuko ba'zintzaz, Mikeltxu...! Aitaren etxea ta aldamenak zerua baizen ederrak dira... eta gaiñera, nire aitari mingostasuna arinduko ba'zeitso...

Udabarriko goizalde aretan, beiak eta oilloek zelaian zear bazkatzen ziarduela, errotako nagusiak oi eban lez, txakurrak lagunduriko etxaurreko jesarlekutik, begi neketsuakaz bideari begiratzen eutsan. Baekian bidean gora ez litzakela iñor etorriko, lats-gaiñeko zubitxua ondatuta egoan-eta. Gaiñera, uger eta amaraunez elbarritutako errotara, nor etorri...?

Egunak joan egunak etorri, mirari baten begira leku berean jesarri oi zan. Aspalditik baiña, itxaropena galduta, eriotza baiño besterik ez eban leaiatzen. Semeek itzitako errotea zauri ilgarriaz jota egoan; arbasoakandik berak arturiko etxaguntza ezin egikean ondapenetik atara; nekatu ta lur-jota oartzen zan. Alaba kutun maitagarria joan izan yakonetik, egunak amaibakoak, jasaneziñak, illunak, biurtu izan ziran, eta ez eban besterik nai, ain maite izaten eban errotea, berak be betiko iztea...

Udabarriko egun argitsu aretan, Zelaigane'ko errotariak begiak aldameneko edertasunean josita ebazan. Bidean gora, irudi txairo bat urreratzen zan ibillera malguz. Nor izango ete...? Mendigoizaleren bat, urrean... Noiz edo noiz oneitarikoren bat errota-aurretik igarotean, mendiko bidetzaz itaundu oi eutsan... Irudi a urreratu yakonean, gazte batena zala konturatu zan, eta zerbait ezaguna lez emoten ebala be. Noizbait, mutilla etxe-aurreko zelaira eldu zan, eta orduan Mikel'ek zauskada batek eraginda, jagi ta begiai negar-anpuluak eriezala, zorotzeko zorian egoala uste izan eban.

Bere aurrean, mutil itxuratua lez, Libe'ren aurpegi zoragarria ikusten eban... Orduan dana aztuta, besoak zabalik aregana oldartu zan.

—Aitita, aitita —esan eutsan Mikeltxu'k aititaren besarkada estuari erantzunez—, amak zugana bialtzen nau. Il baiño len, zu orren eskerga erabilteagaitik, barkatu zengion eskatu eban...

—Neure Libe maite kutuna...!

Zelaigane'ko nagusiak ezin egikean besterik esan, eta billobea barriro besarkatzen ebala, malkoak mara-mara eriozan.

Alako baten, Mikeltxu'k auxe esan eutsan:

—Aitita, gure errotea zerua langoa zała, esan eustan beti amak, baiña bene-benetan nik neuk iñoiz ez ikusitako txokorik ederrena da...

Gero, adorez jabetuta, onetaraxe jarraitu eban:

—Aitita, lats-gaiñeko zubitxua atonduko dogu, baita bideko zuloak be. Gero etxeo kalteai begiratuko dautsegu. Orain, aitita, erakutsi egistazu errotea...

Atsekabez, baita zorion bakanaz era berean be, billobeari errotea ta onen aldamenak erakutsi eutsazan. Mikeltxu'k ikusguraz menperatuta, dana adi-adi begiztutzen eban. Ikerraldia amaituta, aititari auxe esan eutsan:

—Aitita, bion artean errotea abidan barriro jarriko dogu, ezta...?

Eta olan jazo zan. Bidea, zubia ta etxea barrituak izan ziran, baita kortako atea atonduta be. Gero, anteparako lupetza ustuta, errotako ugerra ta amaraunak kendu ebezan. Andik egun batzutara, antxiña baten lez, gurdiak bidean gora ta beera joiazan urrezko arto-aleak urun biurtzeko. Barriro be, gau ta egun errotako burrunba atsedengarriak Zelaigane'ko nagusiaren amesak laztandu ebazan.

Bein baten, beste iñondik usoak biurtuta, kabia egapean egin eben, eta euren urrumak errotearen burrunbeaz alkartu ziran.

Illunabar baten, etxaurreko jesarlekuan egoala, Zelaigane'ko nagusiari, otoi au urten yakon:

—Jauna, bialdu egiskuzu errotaren iraupenerako bearrezkoa dan etxeoandre gazte maratza, eta gero, zugana eroan nagizu...

Urte asko igaro baiño len, etxeoandre lirain eta maratza Zelaigane'ko errotara ezkondu zan, eta nagusi zaarrak ezagutu aal izan ebazan erroteari jarraipena emongo leuskioen kimu barriak...

ITURBURUA

Naparra'ko Aztobizkar alderantz eguzkia ostentzeko zan laster, ozkarbiko arratsbeera ederra urrez janzten ebala. Irati ibaiaren ondoan, amabitsu urteko mutiko batek pago-enbor bat aizkoraz ebaten ziarduan. Alboan, begi bizitako artzanora batek ez ebazan ugazabagandik begiak kentzen. Enborra zatitu bitartean, mutillak txakurrari berba egiten eutsan onetaraxe:

—Bai, Kirru, amatxu aspalditik geisorik dago. Zer izango ete...? Bein baten Otxagabi'ko osagillea etxera etorri yakun, eta ama ondo aztertuta gero, osakai batzuk ekarteko agindu eustan. Gomutaten al-zara...? Bere zaldi gorriaren gaiñean errira biurtzen zala, burua alde batetik bestera astintzen eban, ulertzen ez bai'leuan amatxuren gatxa...

Une batez mutikoa isildu zan, eta gero,

—Nire ustez txarto dago —jarraitu eban mutikoak enborraren gaiñean jesarten zala—. Gabean, lotan nagoalakooan, ama aieneka asten da, eta zer dala-ta itauntzen dautsadanean, amesetan izan dala esaten daust. Bestetan oean iraulkatzen dala dantzut, baita zelan dei egiten daustan be, barruko min batek artuta-edo, eta orduan, isillik, bera konturatu ez daiten, negarrez asten naz...

Mutikoak begiak baso-gaiñetik jaso ebazan. Urrutian, ikusmenaren muga, illuntzeko lenengo artizarrak, gabaren begira maitasun-keiñuak jaurtiten ebazan. Martxintxu eritxan mutikoaren begiai malkoak eriezan, eta aurpegia eskuen artean ezkutatua ebala ikus-tean, ugazabaren oldozkun itunak uxatu naiez, txakurrak eskuak miazkatu eutsazan.

—Esaidazu, Kirru maite orrek, zer billakatuko gara ama joaten ba'yaku...? Zuk ez dakizu zelan maite nauan... zelan zaintzen ninduan geisorik nengoanean. Basoko ibillaldietatik nentorrenean, sutondoa izioturik aurkitzen neban berotu ta legortu neinten, eta etxekorik onena beti niretzat... Banindaroan biotz-sakonenean, eta akar egiten eustanean, itz gogorren atzetik ezin egikean gorde niganako maitasun bizia...

Une batez Martintxu isildu zan, eta gero,

—Aspaldi onetan, Kirru —jarraitu eban—, Yosu Aurrari ta Andra Mari'ri otoi eta otoi egiten dautset osatu daiten, baiña gero ta txartoago ikusten dot. Eurekin eroan gura izango ete, an goian zoriontsu bizi izateko...? Ai ene, Kirru...! Zer egingo dogu biok bera barik...?

Orreaga'ko mendien atzetik eguzkia itzali zan, eta ortzian zear izarak dizdir motelaz agertu ziran. Martintxu'k egurra batu eban, eta txakurrari dei egiñik, amarekin bizi izaten zan etxolara bideratu zan.

Alako baten, baiña, urrats ariñen ibillierea aditu eban, eta arrituta, basoan sakontzen zan biderantz begiratu eban. Begiak urduri ta kurrinka, txakurrak ugazabaren ondoan jarraitzen eban. Ezustean, zuriz jantziriko irudi lerden bat agertu zan, eta mutikoak edertasun andiko andrea zala oartu eban. Sorbaldan beera adats jori urrezkoa jausten yakon. Esku luze zuriak eta ibilte ariñeko oiñak ebazan. Zergaitia jakin barik, irudi areganako erakarpen andia oartu eban Martintxu'k.

—Arrastion, Martintxu —esan eutsan Andreak irribarrez—, berandu da onezkero, eta amatxu kezkatu dozu zure begira.

—Esaidazu, Andra orrek —esan eutsan mutikoak abots ikarati—, nor zaitut, lamiñaren bat al-zara...?

—Ez, Martintxu. Maitagarria, gure Aberriko mendi ta basoen jagolea nozu. Anboto'n daukat egoitza, baiña orain Auñamendi Goikoan lenengo edurtza jausi dan ezkerro, arako bidean nozu, an bizi diran abere guztiai jakiñerazoteko, bazter garaiak itzi ta beekaldekoetan babestu daitezen. Olan, mendirik-mendi aberri guztia zearkatuz, Araba'ko Yoar mendi-katetik Anboto'ko nire egoitzara abiatuko naz azkenean, neguko loaldia emoteko.

Maitagarria une batez isildu zan, eta,

—Baiña gero, Martintxu —jarraitu eban—, udabarria etorriko da, eta nire soiñekorik ederrenaz jantzita, mendi-baso-zelaietan zear abere ta landare guztiai udabarria eldu dala iragarriko dautset. Orduan dana berpiztuko da, Martintxu, eta gau ondoren argia iñoizkorik ederren agertzen danez, indar barriaz bizitza nonai itxartuko da... Ez al-dozu ikusi bein edo bein ortzi oztiñean zear, urrez jantziriko odei bat...? Nerau nozu soiñeko zuri ta urrezko adatsarekin noala, izadi osoari bizitza eldu dala jakiñerazoteko...

Itzok amaitzean, urrutiarri begira Maitagarria isildu zan. Alako baten, bultz indartsuaz, Martintxu'ri burutapen bat etorri yakon, eta,

—Esaidazu Maitagarri orrek —esan eutsan—, ainbeste aalmen dozun ezkerro, ez ete dagikezu amatxu osatu...?

—Ezin dagiket olakorik. Ez dot beste aalmenik, basabereak eta landareak jagoteko baiño...

Itz oneik entzutean, aurpegia illundu yakon mutikoari, eta malko batzuk isuri yakozan. Orduan errukituta, Maitagarriak auxe esan eutsan:

—Aizu, Martintxu, ama bene-benetan maite ba'dozu, badago osatu dagiken bide bat. Entzun egistazu ondo... Irati ibaiaren iturburuan edo sorlekuan, urrezko oroldio bat sortzen da. Landare oneri estu-estu zapalduz isuriko yakozan tantoak zure amak edango ba'leuz, osatuko litzake, baiña ez aztu auxe: zazpi buruko suge batek oroldioa zaintzen dau gau-egunez, eta suge oneri banan-banan zazpi buruok moztu bear izango dautsazuz, landareaz jabetzeko. Sei buru oneiek dira: ibaiaren indarra, nekea, gaba, otza, Abodi'ko otsoa, eta gosea. Buru oneik moztuta gero, sugeari zazpi-garrena geratuko yako, bere burua, alegia. Onekin burrukan egin bear izango dozu, eta garaille gertatzekotan, urrezko oroldioa zurea izango da, baiña kontuz, gero...! Suge ori beti atzari dago ezuste baten ez jaustearren. Eta orain entzun egistazu ondo... Edozein estualdian otoitz egizu; galtzen ba'zara oroitu zaitez urretxindorraz, eta ibaiaren sorlekura eldutakoan, ez aztu auxe: aizea, txakurra, eta zigorra. Orain, Martintxu, agur, eta Jaungoikoak lagun dagizula...

Au esanik, Maitagarria itzalen artean ostendu zan eresi zoragarria aditzen zala.

Bere poza jabetu eziñik, egur-sointxua eroiala, andik laster Martintxu etxolara eldu zan.

— II —

Gaberdia zan, eta lo egin eziñik Martintxu'k amari auxe zirautsan:

—Biar bertan ibaiaren iturburura joango naz, eta urrezko oroldia ekarriko dautsut osatu zaitez. Egunez eguzkiak zuzenduko nau, eta gabaz izarrek.

—Zure gurari bizia dan ezker, joan zaitez, seme laztan ori, baiña eroan zurekin txakurra, gazte izan arren oso zangarra dalako. Orain gabon, Martintxu, izarrek badiñoste onezkero berandu dala. Emon egistazu musu bat, seme.

Etxola illunpetan murgildu zan, eta oe-ondoan etzanda, bere ugazabaren loa jagoten, txakurra lo geratu zan.

Egunsentian mutikoa itxartu zan, eta zorrotxu baten bidairako janaria sartuta, amari besarkada estu-estua emonda, txakurrari txistu egin, eta urten egin zan.

Etxola-aurrean zetzan zelaia laster zearkatu eben, eta pagobasotik barrendu ziran. Andik laster, ibai-ondoko bide batetik aldatz gora abiatu ziran. Martintxu ez zan iñoiz egon iturburuan, baiña ibaiak berak sorlekura zuzenduko leuke.

Andik laster, ibaia estuago biurtu zan ertzeak malkartzen zira-la. Ibai-ertzetik ibiltea zailla biurtzen asi zan. Noizbait, uren ondolik joatea eziñezkoa izanik, zorrotxua agiñetan eutsi, eta txakurra lepoan artuta, Martintxu'k ibaian gora jarraitu eban. Geroago, ertzak ormak biurtu ziran, eta ibaiaren ur-lasterrak biziagotu ziran aurre-rapena eragotziz.

Aurrera joatea gero ta zaillagoa biurtzen zan, urak zurrunbilloka, apartsu ta zemaikorak igaroten ziralako. Tiraiña bularreraiño laster eldu yakon, eta mutikoari atzera egitea bururatu yakon, une-

txu batez ezpaitsu geratzen zala. Orduan bertan, oinpeko euspena galdu eban, eta tiraiñak eroateko zorian zala, urretxindor baten txioak aditu ziran, eta begiak gorantz jasoten ebazala txoria ikusteko, atx batetik uren ertzeraiño jaisten zan sasi lodi bat agertu yakon. Tximista baizen arin sasiari eutsita, indarraldi itzelaz uretatik urtetan asi zan, baiña... aalegin oneitan bide-zorrotxua agiñetatik askatu, eta ibaian beera ostendu zan.

Edu onetan, eta txakurra lepoan eroiala, sasia gora apurka-apurka igoten asi zan, izerdia aurpegian beera mara-mara eriola. Kirru'k ugazabaren nekaldia ikusirik, aurpegia ta eskuak miazkatu eutsazan, adorea emon naiean lez. Martintxu'k ez ekian zein luzaro iraun izan eban aalegin oneitan, baiña noizbait atxaren aldatza biguntzen asi zan, eta oiñek euspena aurkitu eben. Andik laster, zelai txiki aldapatsu baten aurkitu zan, eta nekearen-nekez bedargaiñean amildu zan arnas-estuka. Bere ondoan, Kirru'k zauriz beteriko esku ta anak miazkatu eutsazan. Arkondarea ta prakak urrututa eukazan, eta soiña bustita, baiña ori danatzaz aztu zan. Eguzkia ortzian beera makurtzen zan arrats-beera iragarritz. Bapatean, mutikoaren ezpanetan irribarre bat agertu zan.

—Aizu, Kirru —esan eutsan txakurrari—, gogoan ete dozu Maitagarriak esana...? Ibaiaren indarra, nekea... biok garaitu doguz, eta orain sugeari ez yakoz bost buru baiño geratzen. Goazen aurrera...! Basoko orbelaren artean gaba emongo dogu. Janaria galdu egin yaku ibaian beera, baiña zelan edo alan konponduko gara. Aurrera, Kirru...!

Bideari jarraitu eutsoen, eta basoan sartu ta bereala gautu zan. Orduan, orbel-meta baten gaiñean etzan zan, eta ondoan txakurra estutu yakon ugazabari berotzearren, mutikoa otzez dar-dar egoan-eta. Baiña lo egiteko saiatu bazan be, dana alperrik. Latz-ikara batek jabetuta, Martintxu'k ezin egikean atsedetik artu. Barruko dei bakan batek aurrera jarraitzeko eragiten eban, gau-izotzezko estalki bat danaz jabetzen zala.

—Goazen, Kirru —txakurra iratzarten ebala esan eutsan mutikoak—, darraigun aurrera otzez elbarritu baiño len. Izarrek, aurki, lo geratu naiten ez dabe gura. Ibilliaren-ibilliz berotuko gara, eta bidebatez gure elburuari urreratuko gatzazkio.

Iratxoak antzera jagiten ziran tantaien artean jarraitzeari ekin

eutsoen. Martintxu'k ez ekian non egoan, baiña adaburuen artetik, noizbeinka edurrez estalitako Ori mendiaren tontorra agertzen zan, eta au gidaritzat artuta aurrera joiazan.

Olan ibilli ebiltzala, aize zakarra putz egiten asi zan, eta basoa asperen eta intzirikaz bete egin zan. Mutikoa bildur bakanpean joian, Kirru'ren laguntasunak zeozer nasaitzen baeban be. Alako baten, eskumako alderantz begiak kendu barik, txakurra kurrinka asi zan, baten batek erraikiela konturatu zanean... Ain zuzen be, arin eta isillik, itzal narraztari batek jarraitzen eutsen. Gose gorriak eraginda, bere zulotik arrapagaien billa urtendako Abodi'ko otso bakartia zan. Artzanorak otsoaren jazarpena ugazabari iragarri gura eutsan, baiña oarmena motelduta, Martintxu ezin zeitekean ezertaz konturatu, eta otsoaren uluak abarrotsak eta orbelen kirriek itoten ebezan.

Era onetan biok ibiltzari jarraitu eutsoen. Alako baten, baso-sarriaren aurkitzen zirala, otsoa sasien artetik ostendu zan, barriro be ez agertzeko, baiña artzanorak zidorra inguratzen eben zugaitzai, ez eutsen begitadea kentzen.

Gaberdia zan orduko, eta aizearen erasoaldiak baretu izan ziran, baiña basosari artean, Martintxu'k norabidea galdu izan eban. Onezkero, janzkia legortuta, ez zan otzik, baiña geien zirikatzen ebana, gosea ta nekea ziran.

Zer izango ete, baiña, argitxu bi areik bide-erdian geldi-geldi...? Bai, gero ta biziagoak egiten ziran txingar alako bi urreratzen yakozan, mutikoaren begietatik aldendu barik. Bapatean, aurrean egoanaren nortasuna ezagutzean, Martintxu lurtean untzatuta lez gelditu zan. Abotik lerdea eriola, Abodi'ko otsotzarrak aurrera jotzen eragozten eutsan, ulu ikaragarriak jaurtiten ebazala. Beean, oiñen artean Martintxu'k pago batetik jausiriko adar sendoa somatzen eban, baiña artzeko makurtzen zan bakotxean, otsoak ulu zemaikorak jaurtirik eragozten eutsan... Eta Kirru, non egongo ete zan artzanora zintzo ta zangarra...? Baiña txakurraren zantzurik ez.

Otsoaren itxuraz, laster erasoko eutsala igarten eban mutillak. Alako baten, otsoa makurturik, zapart egiteko gertatu zan... baiña orduan bertan piztiaren atzetik beste begien dizdira agertu zan, eta eraso bizian otsoari saietsean usigi egin eutsan. Ustekabez artutako otsoa lurtean iraulkatu zan, eta bien artean burruka itzela sortu

zan. Alako baten, otsoak artzanora azpian ebala, idunetik artu, teinkada indartsuz ankaz gora bota, eta pago-enbor baten jo egiñik, kordebage geratu zan.

Au dana, begi-keiñu baizen arin jazo zan, baiña naikoa Martintxu'k oiñen arteko adarra artu egian. Bere txakurra il egin zalakoan, mutikoaren sumiña itzela izan zan, eta itsu antzera otsoari makillaka asi yakon. Ezustez erasoriko otsoak, miñaren-miñez aiurika, txaparren artetik iges egin eban.

Txakurragana urreraturik, Martintxu'k egiztatu aal izan eban odola mara-mara isuri arren, txakurra bizirik egoala. Leun-leun berba egin eutsan, eta zapiñoaz odola txukatu. Zorionez, lepokoak bizitza gaizkatu izan eutsan, eta belaunika jarrita, zauria lotu ondoren artzanora bere senetara biurtu zan.

Bideari jarraitu orduko, sorkaldeko argi gorritzata batek egun-sentia iragarri eban. Laster urten ziran basotik, eta andik ez urrun, zelai batek inguraturik, Irati ibaia barriro begiztatu eben baketsu ta nagizozoki suzmurka. Mutikoa, baiña, indarren azkenetan egoan, eta alboka ta soster egiñez, ibaira urreratu, eta ur-esi baten ondoan nekearen-nekez amildu zan, txakurrari auxe zirautsala:

—Kirru, ibaiak gure jatekoak irunsi egin dauskuz, eta au itzela da, iturburua ur dagoala jakin ezker batez be...! Laster urrezko oroldioaren ondoan egon gintzakez... Nik ez dot ezertarako indarrik, baiña, zu zaunka egiteko bazara gauzarik. Egin aalik indartsuen, ia baten batek entzuten zaituan...!

Kirru'k aalik indartsuen zaunka egin eban etenbarik, baiña ezetariko erantzunik ez...

Orduan, Martintxu'ri Maitagarriaren itzok oroimenera etorri yakozan: "Edozein estualdian zure burua ikusten ba'dozu, otoi'tz egin". Eta mutikoak Muskilde'ko Andra Mari'ri eskaera bat egin eutsan.

— III —

Erroka Deunak, txakurren jagoleak, goizalde aretan mutiko batek lagunduriko artzanora bat ur-esi baten ondoan ikusi eban.

Txakurrak zaunka bizitan ziarduan; alperrik baiña, iñork ez eutsan entzuten-eta...

Erroka Deuna zeruetako bazter zoragarrietan zear abiatu zan, eta aingeruakaz inguraturiko edertasun bardinbako Andra bat ikusi eban.

—Andrea —esan eutsan belaunikaturik—, an Naparra'n, Irati ondoan, nekez eta gosez jabetuta, mutiko bat bere txakurrarekin oraintxe bertan ikusi dot. Mutikoa, Larraintzar'tar Martintxu da, eta txakurra, Kirru artzanorakume zangarra. Aalmen andi-andia dozun Andra orrek, ez al-dozu zeozer arein alde egingo...?

—Badakit ori, Erroka maitia. Oraintxe bertan mutikoaren otoitz xaloe eldu yat, bera ta txakurra larriunetik atara dagidazan ezkatuz, geisorik dagoan bere amaren alde batez be, eta berandu barik laguntza emongo dautsegu.

Andra Mari'k orduan, eskuak zabaldu ta uso-talde zuri-zuria urreratu yakon. Saldoko gidariari onetaraxe esan eutsan:

—Usozuria, neure edurrezko usoa, abiatu zaitzeze ludira, eta Aralar mendi-katean, Irumugarrieta ta Altzuetan artean, mallukiz estalitako zabalune bat ikusiko dozue. Zuetariko bakotxak garau bana mokoan artu, eta Irati basoraiño egan egiñez, ibaiko gorengo ur-esian mutiko bat bere txakurrarekin ikusiko dozue, eta an bertan mallukiak jaurtiko dozuez. Joan zaitzeze lenbailen, Usozuria...

Uso-taldea abiatu zan, baiña Erroka Deunak Andra Mari'ren ondoan zirauan alde egin eziñik, zeozer esateko guarariz, baiña azartu ez.

—Badakit zer darabiltzun, Erroka. Martintxu'ren ama osatu dagidan, ezta...?

—Bai, Andrea...

—Nik osatu dagiket beste barik, baiña semearen aalegiñak osatu dagian naiago dot, Erroka. Mutiko orren amaganako ekintzea argi-izpi antzekoa da, eta munduan orren antzeko izpi asko bear dira. Ez zaitzez larritu, neuk bialdu neutsan Maitagarria, zer egiteko jakin egian, eta ez dot mutil zintzo ori laguntza barik itziko.

— IV —

Ames urduritan murgildurik, Martintxu ta Kirru ibai-ertzean etzazan. Alako baten, mutikoa iratzarri zan, eta,

—Aizu, Kirru —esan eban—, begiraizu geugana urreratzen dan odei zuri andia...! Zer izango ete...? Begira, usotalde ederra da, eta bakotxak errubi antzeko aletxu bana dakar... Aizu, Kirru, orain mokoak zabaldu, eta aletxu gorriak inguruan jausten yakuz... Mallukiak dira, Kirru, basoko malluki gozoak...!

Usoak ortzian zear ostendu ziran, eta gosez eraginda, Martintxu'k eta txakurrak jan ebezan.

—Begira, Kirru —mutikoak txakurrari—, au bai gauza arrigarria...! Orain basoan ez da uso zuririk ikusten, pagausoak baiño, eta gaiñera, mallukiak aspalditik ostendu egin dira. Nik esango neuke zerutik datozela...

Asetu arte jan ondoren, enparauko mallukiak zapiñoan gorde, eta indarturik, aurrera jo eben.

Geroxeago, muru bat igarota gero, apar zurizko ari bi eratuz, erreka bardintsu bi aurkeztu yakezan. Nondik joan bear, baiña...? Mutikoa ezpaitsu egoala, bapatean Maitagarriaren itzok gomutara etorri yakozan: "Galtzen ba'zara urretxindorraz oroitu zaitzez". Orduantxe gora begiraturik, ezkerreko errekarantz egan egiñez txori bat ikusi eban.

Kemen barrituaz aurrera bideratu ziran, zugaitzak amaiturik aldatza gero ta gogorrago biurtzen zala. Alako baten, muru-bizkar bat zearkaturik, eta Ori mendiko irudi zorrotza ezkerrean ikusten zala, iturburura eltzeko zorian egoala somatu eban... eta bertanbera txistu zorrotza aditu zan. Martintxu iñar baten atzetik begirari jarri zan, eta orduan ezin izan ebazan biotzaren taupadak menperatu...

An bertan, aurrez-aurre, amabost bat oinkadara, ibaiaren iturburua agertzen yakon, eta onen ondoan, urre itxurako oroldio ikusgarria... Bai, antxe egoan amak bear izaten eban osagarria. Landare-inguruan arilduta, burua jasorik, eta abotik lerdea eriola, miin bi-zatitua eban suge anditzarra ikusten zan. Txistu sumiñen artean eta begiai txinpartak eriezala, pizti arek ingurura so egiten eban.

Igitzeke, Martintxu'k ausnartzeari emon eutsan. Bapatean, amesetan lez Maitagarriaren itzok etorri yakozan: "Ibaiaren iturburura eldutakoan, gomutau auxe: txakurra ta zigorra..." Zer ete adierazoko itz oneik...? Ezustean, baiña, dana argi-argi agertu yakon. Narrazka, atzera egin eta txapar batera eldurik, arbazta mee ta malgu bat erauzi, eta lengo lekura biurtu zan. Bere kemena ozta-ozta menperaturik, Kirru gerturik egoan sugeari erasoteko.

—Entzun ondo, Kirru —esan eutsan abopeka mutikoak—, aizea aurretik yatorkun ezkeru, sugeak ez gaitu usaindu. Zoaz ba, eta jarri zaitez sugearen atzetik usnatu ez zagizan, eta gero arazoa nire kontura itzi...

Artzanora sugearen atzetik agertu zanean, Martintxu'k aurrera jo eban. Sugeak, txakurraren usaiña laster artu eban, eta aren aurka oldartu zan, mutikoa gero ta bertago etorkiola.

Alako baten, sugeak atzetik etorkion mutilla entzun eban, eta tximista baizen arin eraso eutsan... baiña txistu zorrotzaz Martintxu'k erabillitako arbazta jatsi, eta zaurituriko sugea iraulka bizitan iturriko uretan betiko ostendu zan.

Betarik galtzeke, teinkada bat az Martintxu'k landare ikusgarria sustraitik erauzi, eta zorionez gaiñezka tinko-tinko besarkatu eban. Gero, Musikilde'ko Andra Mari'ri eskerrik sutsuenak emonda, aalik ariñen, txakurrak lagunduriko, mendian beera abiatu zan.

Ez ziran ibaiaren ertz aldapatsuetatik biurtu, Abodi'ko bizkarretik baiño. Eguberdia zan, eta illuntze orduko Irabia'ko intzirara eldu ziran, bidetik enparauko maillukiak jaten ebezala.

Andik laster, zelai ederrak inguraturiko etxola agertu yaken, eta ate-ondoan amak besarkada estu-estua emon eutsan semeari.

—Amatxu, amatxu —esan eutsan mutikoak—, ona emen urrezko oroldioa. Zuretzat da, eta gaur bertan osatuko zara...

Eta basoko etxeoandreak, Martintxu'ren aurpegia bein eta bariro mosuz estaldu eban, danatzaz aztuta semea ikustean.

Gau eder-ederrak zabaldia laztantzen dau. Urrundik, abere basati baten aiuria aditzen da, eta gero danak isil-isillik darrai.

Basoko etxolan, igarotako nekeak aztuta, ama-semeak lotan dagoz, eta txakur zintzo batek euren atsedena jagoten dau...

MENDIBURU'KO ARTZAIÑA

Udako oporrak ziran, eta nengoan erritxuak inguru ederrak izanik, egunero ibillaldi atsegiñak izaten nebazan. Ango ezagun batek sarri askotan Mendiburu'ko artzaiñaz itz egiten eustan, eta noizbait ikusgurak jabetuta, aren ezaguera egitea ebatzi neban.

Olan ba, bide-zorroan jan-edariak sartu, eta beste barik Mendiburu'rako bidetik abiatu nintzan. Eguraldi ederra zan, eta goiz aretako edertasuna gozatzearren, iradu barik aldatz-gorari ekin neutsan. Ordu bete bi igarorik, zelai baten aurkitu nintzan, eta andik laster, pago eder baten gerizpean, artzain bat ikusi neban. Urreratu nintzakion, eta bidezorroa lurrean itzita, bere ondoan jesarri nintzan.

Agurtu ondoren, ez-arian ez-arian, alkarrizketa bateri emon geutsan oiko gaiak erabilliz. Alako baten, auxe esan neutsan:

—Dirudienez, zuk mundu-zati andi bat ikusi dozu.

—Bai benetan —erantzun eustan irribarrez—, luzaro samar munduko bazterrak ikusia nozu. Ipar Amerika batez be...

—Zelan otu yatzun, baiña, bazter zoragarri au lagatea...?

—Begira, Jauna, amabi urtetik artzaintzari emon neutsan, eta ogei urteak bete-agiñean nintzala, nire buruari auxe esan neutsan: "Ordua dok, Martin, mundu apur bat ikusteko, eta bidebatez soldaduzkatik iges egitea be". Olan ba, Prantzia'ko muga igaro, eta neukazan dirutxuakaz Bordel'en Ipar Amerika'rantz itsasoratu nintzakizun.

Une batez isildu zan, txakurrari urrundutako ardiak bildu ta ekarri egiazala agintzearren.

—Ara elduta —jarraitu eban—, Idaho'ko mendietan artzain sartu nintzan, eta amar urtez ia inor ikusi barik egon be. Orduan neure buruari auxe esan neutsan: “Mendiburu'n artzain eta emen be artzain, Martin ganorabako ori, zertarako etorri az ba...? Orduan artzaintzeari itzi, eta batutako diruakaz lurralde anditzar a ezagutzen asi nintzan. Baiña diruak urritzen yatazan, eta lan baten billa asi bear izan neban...

—Orduko —ebagi neutsan—, ango berbetea ondo ezagutuko zenduan, urrean.

—Ez nekian tutik be, amar urtez mendian bakarrik bizi izan nintzan-eta. Eskolan ikasi izan nebazan gaztelerazko apurrak kenduta, ez nekian besterik, euskeraz baiño.

Olan ba, artzaintzari itzita gero, bein baten euskaldun bat topo egin neban, eta nire kezak azaldu ondoren, jardun bat eskiñi eustan eta nik pozik onartu be.

Aldi areitan, Laterri Alkartuetan alkolezko edariak galerazota egozan, eta augaitik, lege orren ausle-talde asko sortu izan zan, gizakideai edarien zerbitzua emoteko.

Aberkide arek eskiñitako zeregiña, edariak alde batetik bestera kamioietan eroatea zan. Nik izkuntzaren apur batzuk baiño ez nekiazan ezkerro, eta egitekoak patxada andiz beteten nebazalako, beste lagunak inuzentetzat artu ninduen, baiña indartsu izanik, gaiak jaso ta jaisteko egokia nintzan, eta alkar oso ondo konpon-tzen genduan. Lanbide arek irabazte andiak ekarskuezan, eta nire diruak gorakada polita artzen eben. Zeregiñok beti gabaz gertatzen ziran.

Bein baten, sei kamioien errenkadea basamortu batetik geroiala, goizaldean autsez beteriko bidea itzi, eta atx batzuen atzetik ezkutatu gintzazan. An bertan, zaldi batzuk gure begira genduzan, gabaz mendietatik guiskia (whisky) erri andi batera eroateko.

Lotan gengozala, gure begirariak iratzarri ginduzan, urrutian ertziñen berebillak ikusten zirala-ta. Laster oartu gintzazan artez-arte gure kapardira etozala. Orduan, nire lagunak zaldiak arturik urrundu ziran, edariak-eta zaintzeko ni bakarrik lagaten ninduela, berba emon ezkerro, ertziñak aldenduta, atzera etorriko litzakezala.

Etorri be, etorri ziran... baiña ertziñek atzituta. Niganantz etozala ikusirik, nire buruari auxe esan neutsan: “Uste yauat, Martin, onena anka egitea izango dokala”. Bildur nintzan, baiña, nire aztarnen atzetik joanda, laster atzituko nindukiela. Olan nengoala, larri-une aretan burutapen itzela otu yatan. Oiñetakoak atzekoz aurrera jarri, eta ara joan zan basamortuan gora Mendiburu'ko inuzentea. Andik laster, atx baten atzetik kpardirantz begiratu neban, baita ikusi be, artzain batek neuk itzitako oinkadak aztertzen ebazala, baiña azkenean besteakana biurtu zan. Luzaro samar ibilli ondoren, illuntzean erri andi batera eldu, eta egun batzuk an bertan emon nebazan.

Bitartean, gogoeta sakon bateri emon neutsan, eta onen ondorioz, alkohol-arazoari uko egitea ebatzi neban. Egon be, beti egongo litzakez gizartearen onerako alkohol-salerosketan jardungo leukien beste lagun ongilleak, eta gogoeta onen bidez nire zalantzak bareturik, sartalderantz abiatu nintzan. Olan ba, andik aste batzutara Kalifornia'ra eldu nintzan.

Orduko, diruketa polita batu izan neban, eta San Franzisko'ko akeitetxe baten nire dirutxuari zein erabilte emongo neuskion ausnartzen nengoala, nire ondoan egoan ungaritar batekin izketan asi nintzan, eta lan baten atzetik nenbillela esan neutsanean, auxe esan eustan:

—Neu nozu, gizona, bear dozuna.

Eta jarraian zapa-lapikoen egillea zala esan eustan, eta erriz-erri joanda, lapikoai onura elegantea atarako neuskiela. Urrengo egunean, bere lantegira eroan ninduan eta lapikoak erakutsi eustazan. Lapikoak burdin lodizkoa ziran, eta estalki sendo batz ixten ziran biurri lodi bikaz. Estalkia ta lapikoaren aboa ondo egokitze-ko, ingi-zati lodia bitartetzat erabilten zan. Estalkian zapa-neurkin bat eratsita egoan, eta onezaz gaiñera ziurtasun-oartzaillea. Lapiko-ko gerturik egoanean, oartzaillea txistuka asten zan, eta orduan lapikoa sutatik kendu ta otzituta gero, indiak edo zana-zala, jateko gerturik egozan.

Olan ba, aste bete bat lapiko arein lantegian emon neban, arazoa ondo menperatu arte. Lapikoen erabilteaz ondo jabetu nintzanean, zalpuri ta zegokion zaldia erosi nebazan, eta zapa-lapikoz kareleraiño zamaturik, ordainduta gero urteteko gertutu nintzan. Orduan ungaritar argi arek, auxe esan eustan:

—Aizu, nire burubidea egorantz joan zaitezala da. Mexiko'ko mugaren ondoan, txikano edo mexikotar jatorrizko lagun asko dago. Oneik, garbantuzale porrokatuak dira, eta ez dago munduan gure lapikoa baiño gauza obarik garbantzuok egosteko. Lapikoak amaitu dakizuzanean, erri andi guztietan dagozan nire ordeztetxeetan erosi dagikezuz.

Olan ba, nire gurdiarekin astiro-astiro egorantz abiatu nintzan. Laster oartu neban nire aukerea. erri txikietan egoala. Olako erri batera elduta, turuta-otsaz kalerik-kale etxeoandrai jakiñerazoten neutsen, lapiko miresgarri baten erakusketa bat arratsaldeko ordu onetan egingo neukela. Esandako ordutan, sua piztu, lapikoan ura ta gatza sartu, andrazko bateri garbantzuak eskatu, eta lapikoaren estalkia garrangatu ondoren, saio-aldia asten zan txikanoen artean. Txistu oartzailleak, benetan, ots atsegiña egiten eban, eta nire ustez txistuaren soiñua lapikoaren arrakasta zan. Txistuka asi baiño ez, entzuleek txalo egiteari emoten eutsoen, eta lapikoa sutatik kenduta, otzitu ondoren edegiten neban, eta barruko garbantzuak an egozan etxeoandreai banatzen yakezan. Garbantzuak gozoak azaltzen ziran, eta ondoretzat lapiko asko saltzen neban.

Bein baten, erriko jaiak ziran garaian, uri polit batera eldu nintzan. Oiko turutaldiaren bidez, arratsalde aretako deia egin neban. Ereti aretan erriko jaiak zirala-ta, enparantzea jendetzaz beterik egoan nire azalpenak entzutearren. Udalbatza, ertzaintza, eta uritar ospetsuenak aurreko errenkadetan egozan. Egun aretan ez eben katuak be nire erakusketa galdu izan gura.

Berbazko azalpenak egin bitartean, sua piztu, ura ta gatza sartu, garbantzuak-eta geitu, eta estalkia oiko giltzaz garrangatu ezker, danok lapiko-txistuaren begira jesarri ziran. Jaiegun izanik, erriko erestalde josten asi zan bitartean. Txikanoek buru-belarri lapikoari begiratzen eutsoen. Aldia igaro zan, baiña abagune aretan txistuaren zantzurik ez. Ni gero ta kezkatigo sentitzen nintzan, txistua joteko garaia zan-eta...

Alako baten, eztanda ikaragarria aditu zan, eta estalkia ta txikanoen garbantzuak eguratsean gora azkonak baizen azkar, begimenetik galdu ziran. Aida baten enparantzea ustu zan, an geratzen zan bakarra lapiko zangarra izanik. Neuk be uste izan neban, nire onerako alde egitea burubiderik zuurrena zala, eta ango astrapalea

ustiatuz, anka egin neban. Txistuaren txaramilla, antza, matxuratu-ta egoan, eta barruko zapea goraegi joanda, estalkiak ler egin izan eban.

Arrezkero, txikanoen eskuetan nire azken arnasa emon gura ez neban ezker, lapiko miresgarrien saltzeari uko egin neutsan. Orduko, ogerlekotxu edo dolarretxutan pillo bat baneukan, eta erri-miñak jota, Euzkadi'ra biurtzea erabagi neban. Andik laster, Santander'era joian itsasontzi baten bizargille sartu nintzan, eta...

—Baiña —eten egin neutsan—, bizargille be zaitut...? Non ikasi zenduan ba antze ori...?

—Uste al-do zu, Mendiburu'n zortzi urte, eta Idaho'n beste amar urte ardi-mozketan emonda gero, lagun bateri ulea moztuteko ez nintzala gauzarik...? Edozelan be, sail orretan ez nintzan makala.

Barre egin genduan, eta gero Martiñ'ek ariari onetaraxe jarraitu eutsan:

—Olan ba, Santander'era eldu nintzan, eta etxera biurtu baiño len, itsasontzia itzita osteratxu bat egin neban. Kaleetan zear niño-ala, alako baten agiñetako min itzela etorri yatan, eta ezinbestez aginlari baten billa asi nintzan, eta azkenean bear izandakoa idoro neban.

Aginlariak, zelan nai neban itaundu eustan: "Miñez ala min barik". Miñez ogerleko bat, eta min barik ogerleko bitan izango litzakela.

—Atara egistazu ba, miñez —esan neutsan—.

Jesarri nintzan, beraz, besaulkian, baiña zoritxarrez aginlariari gorrikeak laban egiñik, uts egin eban. Atarateari bigarrenez ekin eutsan, eta orain be uts egin. Jagi nintzan, eta aginlaria besotik artuta, leiora eroan neban. Arratsalde euritsua zan, eta beeko enparantzea euritakoakaz beterik ikusten zan. Orduan auxe esan neutsan:

—Urrengoan agiñari uts egiten ba'dautsazu, ara beeko eurita-koen artera botako zaitut...! Miñez atarateko esan dautsut, baiña min batez, ez amaikaz.

Urrengoan ez eutsan agiñari uts egin, bai zera...! Agiri zan,

arek beste ogerleko bat emon nengion gura ebala, min barik atarateko...

—Baiña —eten egin neutsan Mendiburu'ko artzaiñari—, nire ustez ez da eziñezkoa gorrikak agiñari uts egin dagikion...

—Bai zera...! —erantzun eustan—, amaika agin atara dodaz nik neuk, artzaiña nintzanean...

—Ori be bai...?

—Ori...? Goizean goizik Mendiburu'rantz abiatu-agiñean nintzala, askotan auzuneko lagunak nire begira egozan, agiñak kendu nengiezan, eta ez dot iñoiz be utsik egin...

—Oiu itzelak botako ebezan —esan neutsan—. Nire amama zanari askotan entzuna neban, Bilbao'ko jaietan kanpoko aginataratzailleak etozala, eta agiñak atara bitartean, didarrak entzun ez zeitezkan, erestalde batek jotzen ebala...

—Olako erestaldirik ez da bear, zabalkundea egiteko baiño —erantzun eustan aratzaiñak—. Ori bezeroak erakarteko zan, urrean. Begira, abo zabal-zabalik eta gorrikoa barruan sartuta daukanak ezin dau oiuririk egin. Ori ondo dakit neronek. Auzuneko lagunak, etxeko arrizko mailladian jesarri-erazo, goiko beste mailla baten burua ipiñi, eta oratu orduko, agiña kanpora. Ez eben ez, didar andiak botateko eretirik. Ori ondo jakiña daukat.

Aria ez galtzarren artzaiñari auxe itaundu neutsan:

—Eta Santander'ekoa igarota gero, zer jazo zan...?

—Andik egun batzutara etxera eldu nintzan. Anai nagusia zan etxekojauna, eta ni mutilzarra izanik, neuk etxean egoteko eskubidea neban. Olan ba, nire egoeratzaz ondo ausnartuta gero, artalde bat erosi, eta barriro be Mendiburu'ra artzaintzeari emoteko. Bazter naikoa ikusia naz, eta ez dot besterik gura, jarei ta bakean bizitea baiño.

Isillune bat egin eta gero, artzaiña jagi, eta berarekin bazkaltzera dei egin eustan, baita nik pozik onartu be. Txabolako bazter baten, bustiñezko lapiko bat ikusi neban astiro irakiten, indiaben lurrin gozoa barreatzen ebala.

—Aizu —esan neutsan—, dirudianez txoko onetan ez da txikanoen lapiko miresgarririk ezagutzen...

Barreari emon eutsan auxe esaten eustala:

—Txabolaren teillatua ez dot eguratsean zear ikusi gura...

Areik izan ziran, nenkarren ardaoaz bustita, iñoiz jandako indiararik gozoenak. Gero, nire bide-zorroko lebatza jan genduan, eta maiazkentzat, Mendiburu'ko gaztai gozo-gozoa eta nik ekarrirako okaran batzuk.

Gero, urten gintzazan, eta pago baten pean, akeita ta arrabete-ko txokor bana gozatu genduzan, Mendiburu'ko artzaiñak bere jardunari buruz amaika gauza jakingarri edesten eustazala. Orduak, baiña, aurrera joiazan, eta biurtzeko garaia egin zan.

Urten aurretik, gaztai bat eskiñi eustan, eta ordaiñez nik eskubete txokor emon neutsan. Abiatzeko zorian nintzala, Martiñ'ek irribarreka auxe esan eustan:

—Aizu, Jauna, agiñen batek min egingo ba'leutsu, zatoz ona, eta min bataz atarako dautsut...

Eskerrik beroena emon neutsan, eta mendian beera abiatu nintzan, Mendiburu'ko artzaiña gogotik kendu eziñik.

Alako baten, eta erritik ur samar nintzala, ezustean gelditu nintzan. Egia izango ete...? Agin bat min emoten asten yatan...

ZERURAKO JANTZIA

Lontxu ta bere ama basoko etxol baten bizi izaten ziran. Oso txiroak izanik, bizi aal izateko basoan lurreraturiko abarrak batu oi ebezan. Bildumea arratsaldeetan egiten eben, eta zeregiña amaituta, lokarriakaz sendorrek egiten ebezan etxean, eta urrengo egunean, amak esku-orgatxu baten errira eroan oi ebazan etxerik-etxe saltzeko.

Goiz guztietan, ama errira joana zala, Lontxu'ri etorkion janaria atontzea. Oso ezeukiak ziran ezker, ez eben gauza andirik jateko, egurketeak diru gitxi ekartsen-eta. Lontxu'k egunoro zorro batetik baba bi artzen ebazan, eta burnizko lapikotxu baten, errekatxuko uraz egosten ziran. Ama erritik biurtzen zaneke, babak egosita egozan, eta orduan biek baba bana astiro-astiro jan oi eben. Arratsaldean barriro egurketeari ekiten eutsoen, eta abarrak bilduta, etxera biurtzen ziran. Jakiña, egurrak aizeak zugaitzai erauzitako ondakiñak ziran.

Gau guztietan oeratu aurretik, Lontxu'k zorro-piltzar batz lapikotxua garbitzen eban, eta emotsan ainbeste igurtziketaz zidarrezkoa emoten eban. Bearrizan utsaz, txabolan ez egoan krisaillurik, baiña illuntzen zanean, Lontxu'k kutxatxu batetik epertargi batzuk ataraten ebazan, eta onein argipean, lapikotxuaren garbike-teari emoten eutsan. Gero, oetzat eukan olezko kutxan sartu aurretik, epertargiak barriro gordeta, artamalutazko lastamarragan etzanda, lo geratzen zan, amak maitekiro zorro batzukaz estalduta gero.

Bein baten, txabolaren atean txakur bat agertu yaken, eta txakurra uxatu nai eben, arentzat janaririk ez eukiela-ta. Baiña txakurrak ez eban gura ezelan be andik joan, eta azkenean aspertuta, txabolan sartzen itzi eben. Begi andi eder gozoak ebazan, eta augaitik, Lontxu'k "Ezti" izena jarri eutsan.

Urrengo egunean, ama errira joana zala, Lontxu'k lapikotxuan iru baba sartu bear izan ebazan, eta olan bakotxak baba bana jaten jarraitu aal izan eban.

Egurketan laguntzen eutsen Ezti'k, eta arrezkero, onen laguntza zala-ta, sendor geiago batzen eben eta irugarren baba erosteko lain lortu be.

Bein baten, Lontxu geisotu ta andik iru egunera il egin zan. Oatzean etzanda zala aingerutxu bat emoten eban, eta basoko epertargi guztiek, gau aretan argi orlegi zoragarriaz beila egin eutsoen.

Negar egin bitartean, mutikoak lokarri bataz eutsita erabillen praktaxua ez zala janzki egokia, otu yakon amari, eta kutxa bateko sakonenean gordeta eroian eztegu-janzkia atara, eta onetan Lontxu bildu, eta areitz tantai baten pean obiratu eban. Izan be, umearentzat janzkia andiegia zan, baiña beste aukerarik ez egoan.

Urrengo gabea, amak ainbeste negar egiteagaitik nekatuta, lotan ziarduala, Lontxu agertu yakon, eta,

—Ama, amatxu —esan eutsan—, zerura ez dot sartzerik. Atean dagoan giltz anditzarra darabillan bizardun batek, ezin nazala sartu esan daust. Janzkie andiegia dan ezker, zeruetatik ezin nabilke egokiro, eta nire neurrira egokitu arte ez dala sartzerik izango.

Orduan ama tantaipera joan, semearen gorpua lurpetik atara, eta epertargien argipean il-jantzia mutillaren neurrira egokitu eban. Gero, arrapalada baten lurperatu eban barriro.

Bigarren gabea, bardin, ama lotan zala Lontxu agertu yakon auxe iñotsala:

—Ama, amatxu, giltzadunak zeruan sartzen oster a be galazo egiten daust; janzkiaren maukak luzeegiak izanda, zeruetako barre-garria izango nintzakela diño, eta egokitu arte ez dodala sartzerik izango.

Amak orduan, Lontxu'ren gorpua barriro lurpetik atara, eta aurreko gabea lez artaziak artuta, mauken enparaua ebagi ta oster a be, obiratu eban.

Baiña irugarren gabea, Lontxu barriro be agertu yakon auxe esaten eutsala:

—Ama, amatxu, giltzari bizardunak badiñost barriro, ezin nazala sartu, nire janzkiak botoirik ez ditualako...

Urrengo egunean, amak areitz tantaipen iru ezkur batu ebazan, eta oi lez epertargien argia ustiatuz, janzkiaren begitei egokitu eutsezan. Izan be, botoi ederrak billakatu ziran, eta gau aretan bertan, Lontxu zeruetara sartu zan.

Ama, baiña, semea barik naigabez geisotu, eta andik egun batzutara il egin zan. Biaramonean, basoko aizkolariek txabolan ilda ikusi eben, eta tantaipen obian seme-ondoan lurperatu izan zan.

Bere burua bakarrik ikusi ebanean, Ezti basoko obiaren gainean etzanda jarri zan, ugazabatxuari dei egiten eutsala etsi-etsian. Baiña Lontxu agertu ez, eta oiñazearen-oiñazez bera be il zan.

Aizkolariek aberearen maitasun bizia ikusirik, ugazabatxuaren obian sartu eben. Gero, etxola aztertuta, lapikotxuaren dizdirak erakarririk, artu ta tantaipen obi-gaiñean ipiñi eben.

Gau ta egunez lapikotxua dizdira bizitan agertzen zan. Egunez zidarrezkoa emoten eban, eta gabaz epertargiek euren argi orlegiaz esmerale baten itxura emoten eutsoen.

Udabarri guztietan, lapikotxutik baba-landare bat sortzen da, eta baba-lorek tantaiari besarkatuz, basoko obiari iñolako edertasuna emoten dautsoe...

GABONETAKO MIRARIA

Baziran urteak itsu billakatu nintzanetik. Gogo-biotzean ludi-ko edertasun yaukalak, galduriko oroitzapenak lez gomutan neroia-zan. Zabaldia bene-benetan maite izaten neban, eta orain aren zoragarriak ikusi aal ez izateak barruko illuntasuna anditzen eustan.

Bein baten, oi neban lez kalea zearkatzearren oin-bideko ertza makillaz aztertzen nebala, neskato baten mintzo eztitsua aditu neban, auxe ziraustala:

—Jauna, nai ba'dozu beste aldera lagunduko dautsut.

Eskutik artuta beste aldera eroan ninduan, eta gero nire eskua-ri oratuta, bide-zati luzean zear lagundu eustan. Alako baten, kon-turatu zan, antza, etxera biurtu bear ebala, eta auxe esan eustan:

—Jauna, barkatu baiña etxera amamagana joan bear dot, beran-du samar da-ta.

—Goazen ba —erantzun neutsan—, niri bardin daust naiz bate-ra naiz bestera joan, eta olan zure etxea ta amama ezagutuko dodaz.

Uriko egaletan egoan etxetxu txiro baten bizi ziran amama ta neskatoa. Izketaren arabera, bereala konturatu nintzan amamak umea bizi-bizi maite ebala, baita umeak amama be. Agiri zan, biak egoera larrian aurkitzen zirala. Ezustean, burutapen bat etorri yatan, eta astirik galtzeke, amamari auxe esan neutsan:

—Begira, andrea. Nik maite-maite dodaz egurasketak, baiña itsu izanik, zaila egiten yat bidai luzeak egitea. Zure billobatxua

itsu-mutil izango ba'litzakit, mesede andia egingo leuskit, eta orren ordaiñez egunean ainbat emongo neuskizue.

Amamari eskintzea atsegin yakon, baita Anetxu eritxan neska-toari be. Olan ba, Anetxu egunoro etxera etorkidan, eta uri-inguru-ko zabalditik egurasten gintzazan.

Umea txoriak baizen alai zan, eta inguratzen ginduzanaren barri zeatzak emostazan. Laster oartu zan, zabalduko margoak maite izaten nebazala, eta bere mintzo kantaritsuaz ikusten ebanaren barria ertilaria bai'litzan azaltzen eustan. Niketz gauza askoen ezku-tuak irakasten neutsazan, adi-adi entzuten eustazala, eta nik esanikoak atsegin andia emoten eutsanean, pozaren-pozez eskua mosu-katzen eustan. Anetxu neskato zoragarria zan benetan.

Eguraldi txarra zanean, bere etxeraiño egurasten gintzazan, eta an, amamak, Anetxu'k eta irurok, alkarrizketa atsegin bateri emoten geutsan. Solasa makaltzen zanean, Anetxu'ri lutelizia ta iza-diztia irakasten neutsazan, eta izan be, umeak entzuten ebana, lur agortuak euria artzen dauan antzera, berekautan gorde eroian.

Udagoiko egun baten, zabalduko egurasten giñoazala, umeak emoten eustazan zeazketa zoragarriak entzutean, nire barruko zarrastadea jabetu eziñik,

—Anetxu, maite ori —esan neutsan billoak laztantzen neutsazala—, batzutan, zure begiak emon daustazuzala iruditzen yat... Ezin dagiket zure aurpegiñoa ikusi, baiña baietz aingeru batena baizen ederra izan...

—Eta zuk —jardetsi eustan nire eskuan mosu bat jarriz—, gogo-begiak zabaltzen dustazuz egunoro. Neuk be ezin dagikizut barrukoa ikusi, baiña bai ederra izan bear dala...!

Egunen jarraigo isilla bajoian aurrera, Anetxu ta bion arteko maitasun-lokarria sendotzen zala. Itsu billakatu nintzanetik, iñoizkorik zoriontsuen nintzan, eta izan be, ume arek neure biziera larrian argi bat piztu izan eban.

Udazkeneko erdi-alderantz, neskatoa makaltzen asi zan, eta noizbait, kalera urten eziñik etxean geratu zan. Egunoro joaten nintzakion, eta ni ikustean mintzoa ta begiak alaitzen yakozan. Nire eskuari eutsita, berak ain maite izaten ebazan gaiak azaltzen

neutsazan, eta loak artzen ebanean naigabeturiko amamak oean sartzen eban, eta orduan ni etxera biurtzen nintzan.

Giroa, Gabonetako gai ta oiturakaz beteten zan, eta eguratsen, sasoi orrek dakarkigun usain berezia oartzen zan. Eleiza guztietan Jaiotzak gertutzen ziran, eta areitariko egun baten, parrokiko jaiotza ikustera lagundu nengion, arren eta arren eskatu eustan Anetxu'k. Ezin neintekion umearen gurariari jarki, eta gaiñera egun aretan obetotxu aurkitzen zala zirudianez, amamak soingaiñekoa ipiñi eutsan, eta Anetxu ta biok baratxe-baratxe eleizara joan gintzazan. Arratsalde aretan Anetxu bizi barri batz piztuta zirudian, eta ikusten eban guztiaren azalpen zeatzak emon eustazan, eta bitartean nik gauza batzuen zergaitia jakiñerazoten neutsan.

Eleizatik urten baiño len, une batez otoi sakon bateri emon neutsan, eta gero kalera urten gintzazan. Etxerako bidean zear giñoazala, umea nekatzen asi zan, eta besoetan artuta aren begiek zuentzen ninduela, etxera eroan neban. Eltzean oso nekatuta emoten eban, eta lengo alaitasuna, auleri andiz ordeztu izan zan. Ikusi baiño ez, amamak oean sartu eban. Urten baiño len, Anetxu'k dei egin eta mintzo aulaz auxe esan eustan:

—Ez al-dakizu gauza bat...? Eleizatik urten aurretik, ikusmena emon dagizula Yosu maitiari eskatu dausat...!

Zarrastada andiak meperatuta makurtu nintzan, eta apa-laztan luze bat emon neutsan bekokian. Oi neban lez, taxi baten etxera biurtzen nintzala, ezin nengikean zapaltzen ninduan oiñazea uxatu.

Arrezkero, egunoro ikertzen neban, eta aalegin andienakaz saiatzen nintzan ume laztana pozerazoten. Uste dot nire elburua lortu nebala, askotan irribarreka ikusten baineban. Baiña neskatoaren osasuna aldatz-beera amiltzen zan, eta etsita, bere azkena antz emoten neutsan. Gaiñera, ezin nengikion nerekoizateari laga. Nire itsu-mutillak aspalditik ez ezagaturiko zorion andia ekarri izan eustan. Joaten ba'zan zelan oituko nintzake bera barik...?

Arratsalde baten, oi lez Anetxu ikertzearen etxetxuan sartzen nintzala, obeto egoala iruditu yatan. Umea adorez beterik aurkitzen zan, eta ikerraldi osoan beste lurraldetako arrigarriak edesten jardun neban. Etxera biurtzeko agurtu nebanean, Anetxu'k besarkada bakan estu-estu batz agurtu ninduan...

Urrengo goizean eguraldi eguzkitsua zala-ta, Anetxu ikustea erabagi neban. Atetik sartzen nintzan une berean, amamaren negarrrak aditu nebazan, eta suzmo txar batek biotza iraulkatu eustan. Aulki baten gaiñean jesarrita, amamak negarrez esan eustan:

—Gure Anetxu joan yaku betiko... ai ene...! Nire umetxu laztana...!

Baretu zanean, jarraitu eban:

—Atzo, zu joanda, lo geratu zan. Aigerutxu bat zirudian. Alako baten amesetan asi zan, itz bakanak esanez... Ezustean, dei egin eustan.

Oian jesarrita egoan, eta,

—Amama, Jaiotzeko aurra agertu yat. Esan daust ni eroateko etorrela... Au nire poza amama...! Orduan ni joan baiño len mese-de bat eskatu bear neuskiola esan neutsan... Jaun itsuari ikusmena emon egiola. Au entzunik, Yosutxu'k esan daust ni joatean emen itzi nengikiozala nire begiak... Badakizu amama, joan naitenean, nire begiak Jaun itsuarentzat izango dira...

—Gero —jarraitu eban amamak—, lo antzean geratu da, eta nire laztantxua joan da betiko... Jauna, berorrek gura dagianean eroan beiz Anetxu'ren begiak. Berorri esker, umeak noizbait ezagutu eban zoriona... Ez larritu, Jauna, Anetxu gatx sendaezin batek jota egoan. Bai, nik neuk ondo nekian ori, eta berorrek aren azken aldiotan zoriona ezaguerazo eutsan...

Negarrez umeagana joan, eta bekoki otzean musu luzea jarri neutsan. Gero... ni ez naz gogoratzen zer egin neban, gomutaten dodan gauza bakarra izanik, egun osoa oiñaze bizipean iraun nebala.

Urrengo egunean, illobi txukun baten Anetxu obiratu izan zan. Neuk ez neutsan lagundu. Une aretan bertan, begilari batek umearen begiak menduten eustazan. Ez nintzan ezertaz konturatu, Anetxu soillik gogoan neban, eta iñoizkorik naigabetuen aurkitzen nintzan.

Noizbait, egun zoragarri baten ikusmena irabazi neban, eta bizitza begietatik barrura borborka isuri yatan... Nire lenengo urteera Anetxu'ren obirako izan zan. Leku aretako bake ta isillean, biotzetik dei egin neutsan, eta umeak niri emondako begiakaz negar egin neban...

Bai, Gabonetako mirari bat izan zan...

IRU LORA

Udabarri-miñaz, eguzkia urrezko oatzetik jagi zanean, arkakarratsak pozaren-pozez dardar egiten eban. Goiko adarñoan, larrosa gorri bizi bat jaiio barria zan. Larrosaren edertasuna...! Eguzkiak une batez bere suzko gurdia geldierazo, eta musu maitekorra bialdu eutsan.

Gabeko besarkada baltzaran, isillak, iru bitxi jarri ebazan larrosaren lora-ostoetan. Bata gardena diamantezkoa bai'litzan, bestea oztiña, ortziko arnasa lez illunabarretan, eta irugarrena, orlegia, esmeralezko asperen baten antzera.

Larrosaren usain yaukala...! Tximeletak urrundik datorkioz taldeka, bere atson bardinbakoa artzeko, eta orduan lilluraturik, dantzan egiteko, larrosak aizeari dei egiten dautso, zoraturiko tximele-tek dantza txairo orretan laguntzen dautsoela.

Larrosaren ondoan, aurregunean krabelin kementsua jaiota, laster betetasun osoan zabaldu zan. Ontzi orlegi batetik antzera, aren lora-osto gorrimiñak toles lerdenetan zabaltzen ziran parrastaka, eta kukulu orlegia zorion utsaz urratu zan. Goizaldean, krabeliñaren usain samurra etenbarik barreiatzen zala, goian egoan larrosa laztantzen eban.

Larrosa ikusi baiño ez, krabeliña maitemindu zan, eta ez eban beste elbururik, larrosarentzat bizi baiño, azpitik so egiten eutsala eta bere atsonik samurrenaz inguratzen ebala. Arroturiko larrosak, baiña, maitemindu sutsuari jaramonik egiteke, tximele-tek inguraturiko bere dantzari jarraitzen eutsan.

Arestian, gau-aizeak briolet baten azitxua zabaldian zear besarkatuta eroian, urrun egoan areitz baten pean obiratzeko, antxe

bertan abia eban urretxindor baten txio maitagarriak beti-beti entzun egiazan. Aizearen besoetan lo-itzarrik joiala, usain amesgarri batek jota, begiak edegi, eta iretargipean krabelin ederra ikusi eban, eta maitasunak jota, gau-aizeari,

—Itzi nagizu krabelin orren ondoan —arrenkatu eutsan—. Bizi nai izango neuke bera zorionsua egiteko.

—Ez, kutun ori —suzmurkatu eutsan gau-aizeak—, zuretzat bedi zabaldi onetako tokirik ederrena. An, basoan, oroldio bigunaz inguraturiko areitz tantaia zure begira dozu. Gauoro, ur gardenetako errekatxu batek urrumatuko zaitu, eta gaberdian urretxindorra- ren txio maitagarriek lagundutako, ames egingo dozu...

Baiña brioletxuak asperenari emon eutsan, eta olan ikustean, gau-aizeak krabeliñaren ondoan laga eban, eta biaramonean, larrosaz batera, brioletxua jaio zan. Loratxu onek gero ta maiteago eban krabelin bikaiña, eta augaitik, aurki, aren ostoeak biotz baten irudia artu eban, bedar-artetik ozta-ozta ikusten zirala. Ez da iñork aren usain bardinbakoa oartzean, ezkutaturiko loratxua ikusi dagikean. Brioletxuak bere ostoa jagoleai krabeliña ikusten itzi dagioen eskatu eutsen, eta orduan lau biotzen arteko zabalunetik, gora begira egoan asperen eta asperenka.

— II —

Goizalde aretan bertan, zabaldiko lurriñek iratzarrita, erlea, basoko bere egoitzatik alde egiteko gertutu zan. Unetxu batez erlauntzeko atean nagiak ataraten egon zan, eta buruko galparra orrazturik, egoak zabaldu, eta tximista lez eguratsean zear ostendu zan. Erleak lore guztiak maite-maite ebazan, eta onein artean laz- tankiro ibilliz, euren ezkutu guztiak ezagutu be.

Basotik urtenda, eta zelai bat zearkatuta gero, Brioletxu ikus- tean onen kukuluan kokatu zan. Erlearen goizoroko lenengo ike- rraldia, danen artean kutunena eban loratxu orrentzat zan. Briole- tak erlearen laztanak oartzean, eukan ezti-gai guztia eskiñi eutsan eskuzabal.

—Brioletxu maitia —esan eutsan erleak—, ezagutzen dodaz zure maitasun-amesak, eta iñork ederresten ez badauz be, zu zara lore- etan zoragarriena. Esaiezu ingurutzen zaituen biotz-ostoi apur bat zabaldu daitezten, eta orduan munduari zein maitagarria zaran aldarrikatuko dautsat, eta alde guztietatik etorrita, zu ikustean arri- tuko dira. Orain krabeliñagana joango naz eta oneri lenen esango dautsat.

—Ez, erle —larri esan eutsan Brioletxu—, ori egiten ba' dozu, lotsaren-lotsaz ilgo naz, eta biar goizean ikertzera etorri zatza- zkidanean, ez nozu aurkituko emen. Gau-aizeak betiko lo egitera basora eroango nau-ta.

—Ez larritu nire kutun ori. Ez dautsat ezer esango, baiña zu olan ikustea jasaneziña yat benetan.

Au esanda, krabeliñagana joan zan, eta ezti-gaia zurrut egin bitartean, naigabetuta egoala egiztatu eban. Baekian erleak atsekabe orren zergaitia, baiña isildu egin zan. Alako baten, krabeliñak auxe eskatu eutsan:

—Aizu, erle, larrosaganaiño joango al-zara nire maitasunaren barria emotearren...? Gau ta egun asperenka nauka... Begikadatu bat botako ba'leust besterik ez arren...

Erlea larrosagana joan zan, baiña ezti-gaiaren emoteaz bere edertasuna ondatuko zalakoan, lora-ostoeak tolestu ebazan, erlea urrezko lekan kokatu ez ekion.

Ingurutik burrunbaka ebilkiola, erleak krabeliñaren maitasuna azaldu eutsan, baiña larrosa arroak ez eutsan erantzunik emon gura.

Orduan erlea krabeliñagana biurtu zan, eta beronek, esango ba'leutso jaramon egingo leuskiola uste izan eban. Goian jagiten zan larrosagana eldu aal izango ba'leu...

Eguberdiko eguzki sutuari indartu egian eskatu eutsan naiga- berturiko maitaleak, eta arek orduan izpirik gartsuenak bialdu eutsa- zan, eta maitemindua gora egiten asi zan. Oraindiño, baiña, naiko- rik ez, eta geiago indartu egian eskatu eutsan. Bariro be, eguzki emonkorak izpi indargarriak igorri eutsazan baiña ez lengo beste sendoak, bere begira egoan itsasorantz makurtzen asten baizan, egun aretako egarmin bizia baretzearren... Une aretan, krabelin

maitalearen larritasuna ikustean, Brioletak bere sustraietako guna emon eutsan.

Noizbait, krabeliña larrosagana eldu zan. Lorearen edertasuna...! Maitasunez gaiñezka laztandu nai izan eban, baiña larrosa arroak arantz bat maitale sutsuari sartzen eutsala, auxe esan eutsan:

—Nor zara zu, krabelin arlote ori niganaiño azartzeko...? Eguzkia ni agurtzarren agertzen da, txoriek nire edertasunak eraginda abesten dabe, beste lorak nire usaiña artzearren zabaltzen dira, aize ibiltariak dantzan egin dagidan putz egiten dau, tximeletak nire zerbitzariak dira. Zelan azartu zara, lora barregarri ori, nire maitasuna eskatzen...?

Buru-makur, alde egin eban minduriko krabeliñak, eta orduan brioletxuak bere lurriñik gozoena igorri eutsan. Biotz-ostoen arteik iñontzaren tantotxu baten eguzkiaren azken izpia dardar egiten eban zoragarriro, eta bere usaiñarekin batera bialdu eutsan brioletak, baiña krabeliñak ezin egikean ikusi norenak ziran emoitz areik.

Itsasoaren ostetik, eguzkia itzali zan, eta andiagotzen ziran odei gorritzat batzuk legorrerantz abiatzen ziran.

— III —

Gabak bere edertasuna zimeldu ekion bildurrez, larrosak lore-ostoa bildu ebazan, biaramonean are ederragorik azaldu zeitezan.

Buru-makur, krabelin oldozkun itunetan murgilduta egoan. Alako baten, usain zoragarriak inguratu eban, eta astiro-astiro, arantzak sorturiko zauria osatzen asi yakon. Brioletak gero ta usain gozoago igorten eutsan, eta lilluraturiko krabeliñak ez ekian nondik etorkion. Iretargia, orepil andi baten antzera brioletaren billa agertu zan, biziro maite eban-eta. Biotz-ostoen artetik igazirik, lora kutunaren iru malko dizdiratsu bai'litzazan iñontzeko tantoak agertu ziran. Bata, oztin-zuraila, egunsentian ortziak erakusten dauan antzera. Bestea odol-tanto baizen gorria, eta irugarrena dizdir biziz diamante garbia zirudian, loratxuaren ontasunaren antzekoa.

Gau aretan, itsas-aizea putz egiten asi zan. Asieran bigun, lotan egoan ibarreko isiltasunak aspertu eraginda-edo, eta gaba sakondu-ala indartsuago. Baiña ibarrak lotan zirauan izarren urrumak eta kilkerren eresiek lagunduriko. Aizeak, baiña, sumiñago putz egiten eban. Zergaitik ete...? Txindor barritsu batek lotan asi baiño len, aizeak iretargiari iñartsi eutsala, argiduna zalako, azaltzen eban.

Burestun batek iretargia inguratu eban, eta olan apainduta ikustean, sumiñez orruka, aizeak odei-taldeak bialdu ebazan aren aurpegi gorrotagarria estaltzearren, baiña bitargietan iretargia iñozkorik ederren agertzen zan ostera be. Orduan, aize zakarrak uluka odei lodiak iretargiaren aurka bialdu ebazan, atzetik zigorkatzen ebazala. Orduan izuturiko odeiak negarrez asi ziran zelaietan idoia eratzeariño. Alako baten, bitargi baten atzetik iretargia ostera agertu zan irribarretsu, eta idoiek onen aurpegia millaka izpillutzen eben.

Orduan aizearen asarreak gaiñez egin eban, zugaitzen adaburuak makurtu-erazoz eta zelaietako bedarra zapalduz. Elar eta sasiek beso zimelak luzaturik, aizea madarikatzen eben txistu zorrotzakaz, zorotu egin izan zalako.

Alako baten, aizeak arkakaratsa ikusi, eta basati jotzen asi yakon bere apentza asetu naiez... iretargia eldu-eziña zan-eta. Arkakaratsa lurrera iñon makurtu egin zan lora-ostoa biltzen ebazala, baiña dana alperrik, banan-banan lora arroak danak galdu ebazan, bere aiene mingotsak aize-zurrunbilloen artean galtzen zirala. Noizbait, janzki ederra galduta, lora-lekea bakarrik geratu yakon, eta auxe be teinkada zoroaz aizeak kendu eutsan. Goizalde barik larrosa ederra galduta, arkakaratsari ez yakozan geratu osto bakar batzuk baiño adar zimelai eutsita, galduriko larrosagaitik negar-uluka.

Aize zakarraren sumiñak krabeliñari be ez eutsan barkatu. Autsi eutsan kider lerdana, eta lurrera jausita zurrunbillo basatien artean ostentzeko zorian zala, briolet xaloe agertu yakon, eta zaurituriko kdrabeliña artu eban iñork ostu ez egion, usain zoragarri bere biotz erako ostoetan seaskatzen ebala...

Bitargi zabal baten artetik iretargia agertu zan, eta maiteminduak ikustean, zidarrezko irribarre bat bialdu eutsen, eta gero odeien artetik ostendu zan.

YOSU AURRAREN BILLA

Gau aretan Kepatxu'k ez eban lo egin gura, eta amaren aalegiñak alperrik ziran lo-erazoteko.

—Aizu, Kepatxu, geldi ta isillik ba'zagoz —esan eutsan amak— ipuin polita esango dautsut.

—Esan, amatxu, zer da ipuin ori-edo...?

—Ipuiña, umeai esaten dautsen jazoera polita da, lotan asi daitezten. Ara ba... Bein baten, Kutuntxu eritxan zeu lako ume bat bizi zan...

—Eta zergaitik eritxan Kutuntxu...? —Kepatxu'k barriro—.

—Bere gurasoai izen ori atsegin yakelako.

—Eta zergaitik atsegin yaken izen ori...?

—Oi, Kepatxu...! Ainbeste itaun egiten ba'daustazu ez da ipuiñik izango. Zagoz isillik unetxu batez.

Isillune baten ostean, amak barriro,

—Bein baten, Kutuntxu izeneko ume bat bizi ei'zan, zeu baiño anditxuagoa, baiña gaixoa naigabeturik bizi zan, iñork maite ez ebalako...

—Zergaitik ez eban iñork maite izaten...? Ni guztiek maite izaten nabe...

—Ez eban iñork maite izaten —erantzun eutsan amak asperenka— bere gurasoak zerura joan yakozalako, eta anai-arrebarik ez izanik erriko umezurtetxean bizi izaten zan, itzi baiño itziagoa. Bein baten, umeakanako Yosutxu aurraren maitasuna zein andia

dan entzun eban. Orduan, bururatu yakon Kutuntxu'ri, zoriontsua izango litzakela, baita laguntxu bat jolas egiteko izango leukela be, Yosutxu aurkituko ba'leu.

Gau baten, beste guztiak lotan egozala umezurtetxea itzi, eta Yosu Maitearen billa munduan zear asi zan. Bidetik idoroten ebazan etxe guztietako ateetan kox-kox egiñez, auxe itauntzen eban:

—Ikusi al-dozone Yosutxu Maitia...?

Batzuk bere lepotik barre egiten eban, baita anker atea itxi be. Beste batuzk, ordea, umezurtzaz errukiturik, barrura sartu-erazotzen eban jateko ta atsedena artu egian, baiña iñork ez egikion esan, non idoro legikien Yosutxu.

Olan ba, egunak joan egunak etorri, Kutuntxu munduan zear norabarik ebillen, Yosutxu aurkitzeko asmo bakarrak, aurrera jarraitzeko bear eban indarra emotsala. Bideak estuagotzen ziran, eta ertzetako etxeak urriagotzen be. Azkenean, ez eban etxola bat bera be idoro aal, baiña Kutuntxu aurrera beti... Beiñola ibai baten ondoan lo geratu zan, eta ames eder-ederra izan eban. Baso andiko zugaitz baten pean Yosutxu bere begira egoan, eta ikusi ebanean, urreratu yakon, musu bat emon, eskutik artu, eta berarekin jauregi zoragarri batera eroan eban alkarrekin bizi izateko.

Urrengo egunean, itxartu orduko bakar-bakarrak aurkitu zanean, malko mingotsak aurpegian beera isuri yakozan. Alako baten, begiak gorantz jasorik, mendi goitar batzuen artean oian andi bat ikusi eban. An bertan egongo zan, urrean, ain leiatsu billaturikoa, eta ara jo eban. Illuntzean oianera eldu zan, eta gosez makaldurik, oroldioz jantziriko zugaitz baten ondoan jesarri zan.

Zugaitz aretan erle-multzo batek egoitza eban. Negua laster etorriko litzakie, eta lo-guraz menperaturiko erleak etxea ixteko zorian egozan lo egiteko, eta udan baturiko ezta nasai-nasai jateko. Atezaiñak eultzeko sarrerea ixteko zorian zala, enbor-ondoan jesarrita gure Kutuntxu ikusi, eta biozpera zan ezker, auxe itaundu eutsan:

—Zer dala, umetxu, emen egoteko...? Zelan eldu zara onaiño...?

—Kutuntxu, umezurtza nozu. Baso andi onetara etorri naz, Yosutxu idoroko neukelakoan. Esan, emen aurkituko aal izango dot...?

—Siñismena daben umeek Yosutxu beti idoroko dabe. Baiña nekatuta deritxazu, gose al-zara...?

—Bai, guztiz goseturik nagotzu, erletxua. Egun osoan ez dot ezer jan.

Errukituriko erleak ezta ezta beteriko abaraska bat emon eutsan. Gero, "Gabon" esan, atea itxi, eta lo egiteko gertatu zan.

Gose utsaz, emondako ezta iruntsi eban, eta jarraian orbelen artean etzanda jarrita, urrengo goizalderarte lotan iraun eban. Itxartu baizen laster, biderei ekin eutsan barriro, eta olan ibilli... ibilli... basoan zear barruratu zan. Illunabar orduko, guztiz makal aurkitu zan aurrerago joan eziñik. Alako baten, bidetik joian iñurritxu batek umea ikusi, eta errikututa auxe itaundu eutsan:

—Zer jazoten yatzu, umetxua...? Gose al-zara...?

—Benetan gose naz, iñurritxu ori, egun osoan ez dot gauzarik jan-eta. Baiña, esan egistazu: Yosutxu Maitia non dagoan, ba al-dakizu...?

—Itxaropenaz bizi diranek Yosutxu idoroko dabe.

—Orixe baiño ez dot beste itxaropenik, iñurritxu neuria.

Au entzunik, bere etxea zan lur-meta bateraiño lagundu eutsan iñurriak, eta elduta, bigun-bigun txistuka asi zan. Bereala, bakotxak aboan intxaur-zati bana ekarren iñurri-talde ugaritsua agertu zan, eta Kutuntxu'ren eskuetan intxaur-zati asko ipiñi ebezan. Gose gorriak eraginda, Kutuntxu'k egundoko leiaz puxka areik jan eban. Amaitzean, iñurriak eskerrak emonda, andik ur egoan bedarmeta baten gaiñean etzanda jarri zan.

Biamonean, goizetik, aize otz zakarrak iratzarri eban. Edurra zan, eta ume gaixoa otzez dardar, oiñetakorik ez eban-eta, aurrera jo eban. Arratsaldea zaneko, oianean galduta ebillen itzalen artean. Orduan oiuka asi zan, eta edurraren gaiñean amiltzeko zorian zala, Artzagorri'k, atxen artean abia eban artzatxuak, umearen didarrak entzunda, urreratu yakon, eta jakin-naiez auxe itaundu eutsan:

—Zertan zabiltz, umetxu ori...? Otz al-zara...? Nor zaitut...?

—Kutuntxu nozu. Otzez ezin narraike aurrerago, eta gaiñera galduta noa.

—Zatoz nirekin, laztan ori —esan eutsan Artzagorri'k eskuari elduz—. Gure abia ez dago urrun, eta an izango dozu bearrezko atsedena.

Eskuai oratuta, aurrera joan ziran, baiña umea ezin ebilkenez, Artzagorri'k besoetan artu, eta sorbaldan ipiñi eban, auxe inñotsala:

—Nasaitu zaitetz, Kutuntxu, laster izango gara gurean.

Luzaro barik, atxen artean eraturiko zulo bateraiño eldu ziran. Sarreran, Artzagorri'ren gurasoak ziran artz eder bi semearen begira egozan, orduko gautu izan zanez, bildur ziran Artzagorri galdu izango ez ete zan.

—Ona emen —esan eutsen Artzagorri'k—, gosez eta otzez makal-duriko, oianean idoro dodan laguna. Gurekin gaba emon dagian dakart.

Artzek euren kumea besarkatu eban, baita Kutuntxu be, eta jarraian barrura sartu zeitezala agindu eutsien, barruko bero epelean bizkortzeko. Orduan, txoko batetik intxaur batzuk atara, eta bakotxari eskukada bana eskiñi eutsien. Bere laguna zein goseturik egoan ikustean, Artzagorri'k bereak emon eutsazan auxe inñotsala:

—Eutsi, lagun ori, zeuk benetan bear dozuz, baiña esan: zelan eldu zara onaiño...?

—Yosutxu Maitearen billa nabiltzu.

—Nik uste —erantzun eutsan Artzagorri'k—, emen aurkituko dozula, baso au eder-ederra da-ta. Bai, zeru-zati baten antzekoa.

—Uste al-dozu, benetan, emen aurkituko dodala, Artzagorri...?

—Bai, nire lagun ori. Zeugan maitasunik ba'dago, egunen baten ikusiko dozu.

—Oi, Artzagorri...! Nire biotzak ez dau beste maitasunik eza-gutzen. Bera barik ez dot bizi gura.

—Orduan idoroko dozu. Orain lo egin, biar indar barriak izan dagizuzan.

Au esanik, Artzagorri'k orbel-besokada bat emon eutsan, eta bere adiskidearen narru luze ta gozoaren ondoan, Kutuntxu etzan zan, eta lekorean edurra mara-mara jausi arren lo atsedengarriak artu eban.

Biamonean, goizetik, adore barrituaz basoan zear jarraitzeko gertatu zan. Urten aurretik, artzek sakelak intxaurrekakaz bete eutsoezan, eta agurtzat Artzagorri'k besarkada luze-luzea emon eutsan.

Zabaldia edurrez estalduta egoan ezker, ibiltea neketsu egin yakon, baiña alan eta guzti be, arin joian. Eguberdi orduko, atsedan artzeko gelditu zan, baita bidebatez artzek emondako itxaurrekak jateko be. Ikara larriaz oartu zan, baiña, intxaurrekak galdu izan yakozala. Jankia zaarra eta sakelak zulututa izanik, ibilli ebillela intxaurrekak jausi egin ziran. Naigabez jota, negarrari emon eutsan.

Olan egoala, gaiñetik abar-otsak aditu, eta gorantz so egitean, berari adi-adi begiratzen eutsan katamixar txiki bat ikusi eban.

—Zergaitik negar egin, ume...? —itaundu eutsan katamixarrak—. Txukatu egizuz malkook, umeak negarrez ikustea ezin dagiket jasan-eta. Esan, zer jazo yatzu...?

—Gaur goizean artzek niri emondako intxaurrekak galdu egin dodaz, eta orain ezin noake Yosutxu'ren billa.

—Ez larritu, lagun —esan eutsan katamixarrak—, neronek aurkituko dautsudaz.

Tximista baizen azkar, adaburuetan zear ikotika ta oiuka katamixarra ostendu zan. Aurrera joiala, alde guztietatik beste katamixarrak batu yakozan, eta alkarrekin, edurraren gaiñean Kutuntxu'k marraturiko aztarnai jarraitu eutsien.

Andik laster, Kutuntxu'k oi alaiak entzun ebazan, eta bapatean, inguruko zugaitzen artean suzkoak zirudien katamixarren sointxuak agertu yakozan, eta galduriko intxaurrekak bota eutsoezan. Asetu arte jan ostean, umeak enparauak zapiño baten gorde ebazan. Jarraian, katamixarrai agur egin eutsen eskerronez, eta barriero be bideari ekin eutsan.

Illuntzean, baso-soil baten aiene batzuk entzun ebazan. Urretzean, bere adiñeko ume bat erdi billutsik ikusi eban. Otzez dardar, gaixoak negar egiten eban.

—Zertan zabiltz emen, basoan...? —itaundu eutsan Kutuntxu'k beso bat umearen sorbalda-gaiñean ipiñita.

—Ni Txikitxu nozu —erantzun eutsan besteak negarrez—. Nire

gurasoek egurketara igorri nabe, baiña galdu egin naz eta ezin naiteke biurtu etxera. Gose ta otz naz.

—Ez negarrik egin, Txikitxu. Gaba alkarrekin igaroko dogu. Begira, emen, zapiño au artz batzuk emondako intxaurrez beterik dago. Eutsi, jan egizuz zenbat gura.

Gose andia zanez, arrapalada baten Txikitxu'k intxaur guztiak irunsi ebazan. Goseturik bazan be, Kutuntxu'ri ez yakon ardurarik barau egitea, bestea bera baiño beartsuagoa ikustean. Jarraian, Txikitxu'k dardar egiten ebala ikusirik, bere jakea kendu ta emon eutsan auxe iñotsala:

—Eutsi jake au ta berotu zaitetz. Jesarri nire ondoan, gaur gabean lei andia izango da-ta.

Txikitxu bere lagunaren soñekoaz estaldu zan, eta begiak lo egiteko itxi baiño len, auxe itaundu eutsan:

—Nor zara, eta zertan zabiltz baso onetan...?

—Kutunxu umezurtza naz. Yosutxu maitiaren billa noatzu. Oian andi baten aurkituko neukela ames egin neban, eta ibilli ta ibilli onaiño eldu naz. Esan, ba al-dakizu non dagoan, ezagutzen ete dozu...?

—Bai benetan —irriparez erantzun eutsan Txikitxu'k— biar bertan, bera idoroko dagikezun leku batera eroango zaitut.

Pozez gaiñezka, Kutuntxu'k bere laguna besarkatu eban, eta alkarren ondoan lotan asi ziran.

Urrengo egunean Kutuntxu iratzarri zanean, bakarrik egoan. Aurreguneko lagunaren zantzurik ez. Naigabeturik, deika asi yakon:

—Txikitxu, erdu... erdu... eroan nagizu Yosutxu'gana...!

Baiña bere didarrai erantzunik ez. Edur-gaiñean marrazturiko Txikitxu'ren oiñatzak baiño ez zan besterik ikusten, eta arein atzetik zorotuta bai'litzan oldartu zan. Noizean bein, bere lagunari dei egiteko gelditzen zan, baiña dana alperrik: basoa isillik egoan. Ezustean, ibai zabal baten ertzera eldu zan. Urak sakon eta biziak joiazan, eta ezin beste aldera igaro bere lagunaren aztarnai jarraitzeko. Orduan, etsia, ertzean jesarri zan negarrez, ibaiaren ur sakon eta gardenak begizatzen ebazala atsekabez beterik. Bapatean, zidar

itxurako arrain bat ondotik ugeri egiten ikusi eban, eta onetaraxe asi yakon:

—Zidarrezko arraintxu orrek, eroango al-nozu beste aldera...? Yosutxu Maitiaren billa nabiltzu...

Itz oneik esan baiño ez, zapart egiñez arraiña uretatik urten egin zan zisne ederra biurturik. Onen gaiñean tximista baizen arin beste aldera igaro zan. Orduan jatsi, eta egazti ederrari musu bat emonda, aurrera bideratu zan.

Gero, zugaitzak bakantzen asi ziran, eta bapatean amildegi baten aurrean aurkitu zan. Txikitxu'k edur-gaiñean marrazturiko aztaranak an bertan amaitzen ziran, eta bera ezin zeitekean beste aldera joan. Etsia, edurraren gaiñean jesarri zan aurpegian beera malko lodiak eriozala, eta barruko larritasunari eutsi eziñik, aurreguneko laguntxuari deika si yakon:

—Txikitxu, Txikitxu... Zergaitik itzi nozu bakarrik...? Orain ezin dagiket Yosutxu Maitia idoro...

Alako baten, iñoiz ames ez egindako eresirik ederrena entzun eban, eta begiak jasota, ezpanetan irribarre dizdiratsua ebala, Txikitxu berbera ikusi eban amildegiz bestaldean.

—Erdi, Txikitxu —didar egin eutsan Kutuntxu'k besoak zabalik—, ez zaitetz ostendu barriro be, erdu neugana...!

Txikitxu ez zan orain aurreguneko ume zarpailla. Egundoko jantzi ederra, dizdiratsua, eta oiñetan Kutuntxu'k iñoiz ez ikusirik oiñetakorik politenak erabillezan. Billo joriak eguzkiaren izpiz egindakoak zirudien, eta aurpegia irribarretsua zan. Gero, eguratsean zear, egoduna bai'litzan urreratu yakon.

—Neu nozu Yosutxu —esan eutsan besarkada bat emonez—. Siñismena izan dozu ta nire billa abiatu zara. Itxaropen utsaz ainbeste neke igaro arren, dana jasan dozu ni aurkitzearren. Gosez eta billutsik ikusi ninduzun, eta neu baiño beartsuago izan arren, Jantzki ta janaria emon zeustazan. Ori da benetako maitasuna, Kutuntxu, eta auxegaitik idoro nozu. Zatoz, zatoz nirekin zerura, an baidozuz guarasoak zure begira. Erdi ningana, Kutuntxu, aurretzean ez zara munduan zear bakarrik ibilliko, beti zurekin izango nozu-ta...

Biamonean, egurketara joian aizkolari batek, abozgora etzanda, ume bat ikusi eban edur-gaiñean. Umearen aurpegi zurbillean, begi oztin illunak izartxuak antzera ortzi sakonerantz begiratzen eban, eta ezpan samurretan irribarre baketsua ikusten yakon. Aizkolariak umearen bekoki garbian musu maitetsua ipiñi eban. Umearen bekokia edurra baizen otza zan...!

Aurreko gabean, munduko umeen loa zaintzeko zerutik jais-ten diran aingeruek, ikuspen zoragarria begiztatu eban. Ume baten arima ederra Yosu'rekin egan joian zerurantz... Bai, gosea, otza, eta nekea betiko joanak ziran, eta egan eta egan egiñez, izarrak atzean itzirik, Kutuntxu zerura sartu zan...

TXAKUR BASATIA

Atsedenaldea izateko, Gipuzkoa'ko errixka baten ostatua neban. Beiñola, zabaldira urten eta mendian gora abiatu nintzan. Andik ordubete batera-edo, lats batek zearkaturiko zelai eder batera eldu nintzan. Arratsaldea berotsua izanik, areitz baten gerizpean jesarri nintzan.

Luzaro barik, oiñots batzuk iratzarri ninduen, eta txakur andi batek lagundutako neskato oso polita ondotik igaro yatan, onetara-ge agurtzen ninduala:

—Arratsaldeon, Jauna.

—Baita zeuri be —erantzun neutsan.

Nire berbok entzutean, une batez txakurrak tinko-tinko begiratu eustan. Neskatoak itz samurrakaz baretu eban, eta laster urrundu ziran.

Gero, nik ez dakit zelan jazo zan, baiña amesen artean nengoala, karnaba batek abesteari emon eutsan, eta arratsaldeko bakean, Arin, txakur basatiaren gora-beerak edestu eustazan...

Arin, txakur basatia zan. Aita otso, eta ama artzanora izan ebazan. Kumea baiño ez zala, jagoten eban artzaiñari, katea ipiñi gura eutsan bein baten, esku baten usigi egin eutsan. Asarraturiko jagoleak bere biziko astiñaldia emon eutsan. Ordutik, Arin zelatari egoan, eta bein baten, ezuste batez baliaturik, igesari emon eutsan.

Arrezkero, mendi garaiak eta baso usuak bizilekutat aukeratu ebazan, eta otsoen oiturak artuta, gabaz eizean ziarduan, bizidunen artean sarraski itzelak egiñez.

Ariñ'ek baeban akats bat: usainmen urrikoa izatea. Batek baki, au jaiotzez ala artzaiñak emondako astiñadiaren ondorioz izango ete litzaken. Ordaiñez, baiña, ikusmen eta entzumen bikaiñak ebazan.

Edurte-aroa etorri zanean, Ariñ'ek, toki basatiak itzi bear izan ebazan, eta janariaren billa gizonen etxeetaraiño jatsi. Gabaz, itzal narrastaria antzera, oillotegi ta untxitegiak ikertzen ebazan, eta agiñakaz burdin-sareak zulotuz, elmenera etorkion arrapagaia artu, eta igesari emoten eutsan. Inguru areitako baserritarrek otsotzat eben, eta eiza-taldeak atondu arren, arrapagaitza azaldu zan. Lakioz eta okela edenduaz Arin arrapatzea saiatu baziran be, dana alpe-riik, txakur basatiak ez eban besterik jaten, berak artutako arrapagaiak baiño. Biziera oneri emonda, gizasemeari gero ta gorroto andiago eutsan.

Bein baten, guztiz makal egoala, basetxe bakarti bat aurkeztu yakon. Gaba elduta, oi eban lez oillotegiko burdin-sarea agin indartsuakaz zulotu eban. Ekintza au, baiña, amaitzeko zorian zala, Lau, etxeko txakur indartsua oldartu yakon, eta orduan burruka itzela jazo zan. Baiña ereti aretan, gora-beerak Ariñ'en aurka jokatu eben, guztiz makal aurkitzen zalako. Etsaiaren aginkadek sarraski itzela egin eutsoen, eta noizbait konortea galduta, lurrean etzanda geratu zan.

Bere senetara etorri zanean, Arin bakarrik egoan. Il-urren, narrazka, leku aretatik iges egin eban. Zorionez, urrengo egunean, eiztariren batek zaurituriko erbi bat edurraren gaiñean ilda idoro, eta oneri esker, bizirik iraun aal izan eban.

Andik egun batzutara zauriak osatu yakozanean, mendietako biziera latzari uko egin, eta urietakoa artzea erabagi eban, janaria errazagoa izango zalakoan. Olan ba, Donostia uri ederrera eldu zan, eta kaleetan zear, ugazababako txakurrak egin oi daben antzera, bera baizen erkiñak ziran beste txakurrekin zabor-metatan janaria billatzen asi zan, asmo bakar batek eraginda: negua zelanbait iraun, gero mendietako biziera askeari emoteko barrero.

Egunak igaro-ala, bere txakur-lagunak bakantzen asten zirala oartu eban Ariñ'ek, baita zergaitia laster jakin be. Gau baten, kaleetan zear joiala, txistu bat entzun eban. Bere oldearen eragintzari jarraituz, zelan ez ekiala, aboa zabaldu eban, eta orduantxe

lakio batek beeko matraila, atzitu eutsan. Lakioen beste aldetik gizon indartsua urreratzen yakon, eta laster udaltzain arek eroanda, udaletxeko gela itun baten edenduta ilgo litzake.

Larritasunak eraginda, Ariñ'ek egin-karraska indartsuaz edea ebagi eban, udaltzaiñak musturreko bat abo-inguruan ipiñi nai eutsanean. Zoratuta, Ariñ'ek igesari emon eutsan, eta luzaro barik, zabaldian zear uri aretatik urrundu zan, astirik galtzeke mendietarantz abiatzen zala.

Egun batzuk igarota, bein baten, mendi garaiek inguraturik aran eder batera eldu zan, eta indarrak irabaztearren leku aretan egun batzuk emotea erabagi eban, orretarako txapar lodi, usu bat egonlekutat aukeraturik. Barrero be, lengo lapurketai emon eutsan, etxe bakartietan batez be arrapakiñak billatzen ebazala. Areitariko basetxe urruti bat iker-lekutat aukeratu eban. Etxe aretako ate zaarrak beekaldean zirritu andi samar bat eukan, eta bere argaltasuna ustiatuz, bazan gai barrura sartzeko. Sabaitik eskegita guztitariko txarrikiak ikusten ziran. Orduan, ikoti itzelak egiñez, zati bat agiñakaz atzitu, eta etorria baizen isillik alde egiten eban.

Asieran etxekoek ez ziran oartu, baiña noizbait txarrikiak bakan-tzen yakiezala ikusirik, gabeen zeozer ez-oitua gertatzen zala somatu eben, eta augaitik euren neurriak artu be.

Areitariko gau baten, illuntasunak dana estaltzen ebala, basad-ian ikasitako ibilte isil arekaz arrapagai baten billa basetxe zaarrantz abiatu zan. Ur samar egoala, sasi baten babesean une batzutan irauñ eban. Suzko begiakaz inguruak aztertuta, ateraiño joan, eta atepeko zirritutik sukaldera sartu zan. Oi eban lez, leku aretako bazterrak aztertu ebazan...

Alako baten, zirrara itzelak menperatu eban... Iru itzal ormetan eratsiak ikusten ziran. Lepoko ulea latz-ikaraturik, aterantz biurtu zan, baiña eskuetan makilla indartsua ebala, areitariko irudi batek urteera eragozten eutsan. Orduan, iru mutil sendo oldartu yakozan aalik indartsuen joten ebela, baiña sukaldeta illunpetan egoan ezkerro, Ariñ'ek arein makilladak alderatzen ebazan. Orduan, areitariko batek krisaillu bat piztu, eta iru gazte sendo ikusi ebazan. Arrezkerro, arazoa gainbeera aldatu zan. Alde guztietatik inguratuta, zapart itzelak egin arren, azurrak eta saietsak ausi eutsoezan zartada ikaragarriak artu ebazan. Odola abotik isurtzen yakola,

txakur gaixoa batetik bestera joian etsaiakandik iges egitearren.

Gero, gauza siñisteziña jazo zan... Iretargi-izpi bat leioan zear sartu zan, eta au ikustean, amiltzeko zorian zan txakurra, azken indarrak batuta, ikoti arrigarriaz, amaika zatitan apurtu zan leio bateko leiarretan zear, lekorean aurkitu zan. Une batez zorabiotuta geratu zan, eta gero, narraz, lurrean odolezko ari bat itzirik, aalik lasterren iges egin eban.

Goizalde orduko, oiko abi-zuloan aurkitu zan, eta orbel-meta baten gainean etzanda, ukaldiek eta leiar-puxkek egiñiko zauriak miazkatu ebazan. Iru saiets eta anka bi ausita ebazan.

Ortzi-mugan, egunsentiko ozkorri ederra agertu zan. Zorotuta bai'litzan, elorri bateko adarrean kokatuta, zorion utsaz txori batek bere alaitasuna nonai barreatzen eban... Udabarria eldu izan zan.

— II —

An goian, abi zuriaren antzera kokatuta, Ibargane basetxea zetzan. Izan be, etxe ederra zan, erriko ederrenetariko bat, eta abelgorri ta alorretan aberatsa. Baiña geien goratzen eban bitxia, Neretxu, Ibargane'ko alabea zan. Neskato polit oneri, kanpoko ta barruko edertasuna parrastaka erion. Batetik bestera joiala, bazirudian argi-izpi batek bazterrak alaitzen ebazala. Etxeko alaba bakarra izanik, gurasoek maite-maite eben.

Udabarria etorten zanean, Neretxu erriko ikastolara jaisten zan zugaitzez eta txoriz inguraturiko gurdibide batetik, eta bera igaroten zanean, bzirudian zorionezko arnas batek dana edertzen ebala.

Oi eban lez, egun baten etxetik errira joiala, txapar lodi baten atzetik, begi sutsu bik jarraitu eutsoen biurgune batetik ostendu arte. Ordutik, begi zorrotz areik egunoro jarraitzen eutsoen, eta igaro baiño len, neskatoaren begira egozan ikusmiñaz gainezka, eta Neretxu ostendu arte ez ziran bere iruditik kentzen. Gertaera au egunero jazoten zan, baiña noizbait arratsalde baten, Neretxu'k begi kiskalgarri areik ikusi ebazan, eta arrituta, astiro-astiro urreratu zan. Gosez eta zauriz narru utsa baiño ez zan txakur bat ikusi

eban. Baiña neskatoa ondoratzen yakon giñoan, txakurrak atzera egiten eban. Abere gaixoaganako errukiz eraginda, bere askaritik zati bat bide-ertzean laga, eta gero-mendian beera joan zan. Ostendu zanean, soillik, gose gorriak eraginda, sasi-ondoan itzitako janaria txakurrak iruntsi eban.

Ekintza au egunoro jazoten zan, baiña Neretxu gero ta urrago txakurragandik. Noizbait, bein baten, Ariñ'ek neskatoa urreratu ekion onartu eban, eta onek berba samurrakaz mintzatzen yakola, laztandu eban. Txera oneik artzean, zorionez gainezka txakurrak begiak itxi ebazan, iñoiz ez ezagaturiko zauskada oartzen ebala. Gero, Neretxu, Iñarramendi'tik jaisten zan errekatxura joan zan, txakurrak bildots baten antzera erraikiola. An bertan txakurra idu-netik artuta, neskatoa belaunikatu zan, auxe iñotsala:

—Ez larritu, maite ori, narrua ta zauriak garbituko dautsudaz.

Eta banan-banan zaurietan eratsiriko zoldak eta narrua bera, garbitu eutsazan. Amaitzean, neskatoak burutzar latza eskuetan artu ta laztandu eutsan auxe zirautsala:

—Aizu, Arin, zatoz nirekin ikastolaraiño, eta ikasketak amaituta gero, biurto gara.

Txakurrak jarraitu eutsan erriko aurreneko etxeak agertu arte, baiña emendik ez eban aurrerago joan gura, eta sasi baten babestuta umearen begira geratu zan.

Arrezkero, biok lagun miñak billakatu ziran. Egunoro, txakurra Neretxu'ren begira oiko lekuan egoan, eta erriraiño laguntzen eutsan. Etxerakoa alkarrekin egiten eben. Neskatoak, baiña, ezin egikean, Arin, Ibargane'n bizi izatera geratu zeiten.

Bein baten, baiña, Neretxu geisotu zan, eta egun batzuk etxetik urten barik iraun bear izan eban. Neskatoa ez ikustean, Arin zoro baten antzera an-emenka ebillen ia non edo non ikusiko ete, baiña egunak aurrera joiazan, eta neskatoaren zantzurik ez. Goiz baten, noizbait, zorotzeko zorian zala, Ibargane'raiño azartu zan, eta etxe-aurreko langatik begira ta begira geratu zar. Biaramonean bardin, baiña irugarren egunean, neskatoa geiso-oste egiteko eguzkitara urten zan. Ikusi ebanean, txakurra zaunka bizitan oldartu yakon. Pozaren pozez, Neretxu'k besarkatu eban, auxe iñotsala:

—Arin, neure maitia, bazakust noizbait. Non ibilli zara aspaldi onetan...? Ziur naz gose izango zarala, argal-argal ikusten zaitut-eta... Itxaron apur baten, eta zeozer ekarriko dautsut jateko.

Ariñ'ek asetu arte jan eban, eta bizkorturik, Neretxu'ren alboan etzanda jarri zan, ugazabaiñoak begiratzen eutsala.

—Aizu, Arin —alako baten esan eutsan neskatoak—, geratu zaitetz gurean bizi izateko. Ez eroan orain arte jasan dozun biziera basati ori. Gaiñera, bear zaitugu, gurean txakurrik ez dogu-ta... Geratu zaitetz...!

Eta bildots baizen esanekoa, Arin, etxe aretan bizi izateko geratu zan. Baiña oso basatia izanik, egunez kate baten bidez lotu bear izaten eben, etxera urreratzen ziran arrotzak eraso ez egien. Gabaz aske izten eben, baita ikastolarakoan be, Neretxu'ri lagundu egion.

Olan ba, neskatoarekiko maitasunaz, txakur basati a otzana biurtu zan, barrutik otso baten oldea baeban be.

— III —

Iñarramendi'ko atxetan, Iburgane'tik ordu betera-edo, leize edo koba ikusgarria aurkitzen zan. Iburgane'ko etxejoaunak leizearen bikaintasunak erakarrita, sarri askotan ikertu izan eban, eta beraz, ango igarobide naasiak ondotxu ezagutzen ebazan.

Neretxu'k aitari sarritan entzun izan eutsazan ango arritasunak, eta leize ospetsua ikertzeko gurari andia eban ezkeru, bein baten bere eskaerai jaramon egiñez, ara eroango leukela agindu eutsan aitak.

Olan ba, Irailla'ko egun argitsu baten, bazkalduta gero, etxe-koandreari Landa Orlegi'n zear osteratxu bat egitera joiazala esanez, Iñarramendi'ko atxetarantz abiatu ziran. Emazteari ez eutsan egia esan gura etxejoaunak, arek leizeari bildurra eutsalako.

Etxetik urteteko zorian, eurekin txakurra eroateko eskatu eutsan Neretxu'k aitari.

—Ez Neretxu, ama etxean bakarrik geratzen da, eta beraz, oba dogu txakurra emen lagatea.

Au entzutean, Neskatoa txakurragana joan, eta,

—Aizu, Arin —esan eutsan—, gaur ezin zaitেকেz etorri nirekin, ama bakarrik dago-ta, baiña ez larritu, laster biurtuko gara.

Begietan naigabezko itzala agertzen yakola, txakurra lurrean etzanda jarri zan, aita-alabak mendian gora joiazala.

Andik laster, Landa Orlegi'ko zelaian zear abiatu ziran, eta au amaitu zanean, atxen artean leizeko sarrerea agertu yaken.

Zuzi bat piztuta gero, sarreratik sartu ta andik laster okergune bat igarorik, egun-argia ostendu zan. Bapatean, areto antzeko zabalune andia aurkeztu yaken, eta Neretxu abo-zabalik geratu zan. Zutoin ederrak azpitik sabairaiño edatzen ziran, eta aitak zelan eunurteetan zear ur-tantoen jauskereaz eratu izan zirala azaldu eutsanean, neskatoa arritu zan. Areto andi arek didarrak oiartzun amaibagetan birresaten ebazan.

Olan ba, itzal eta isillezko igarobide areitatik joiazan. Leizean oso barruratuta zirala, areto andi baten, sabaian beera ur-jauste arrigarria errezel baten antzera lurrean jota gero, arrizko arru estu batetik galtzen zan. Arrituriko neskatoak, amesetan izango ez ete bere buruari itauntzen eutsan.

Aurrera joan-ala, Neretxu'ri alaitasuna gitxiagotzen yakon, eta zergaitia jakiteke aitaren eskuari oratu eutsan. Alako baten, etxejoaunak arri baten soster egin eban, eta eskuan eroian zuzia jausi ta itzungi zan. Eskua sakalera sartu eban, su-zotzen billa zuzia piztuteko asmoz, baiña ikarazko zirrara batek menperatu eban... su-zotz bat bera be ez eban aurkitu... Orduan, ur-jaustiriaren ondoan sur-zapiñoa atara izan ebala gomutara etorri yakon, eta arekin batera, su-zotzen kutxatxua jausi egin zan, antza.

—Aitatxu, zergaitik ez dozu piztuten zuzia...? —itaundu eutsan Neretxu'k ikara larrian. Bildur naz...

—Neretxu, su-zotzak galdu egin yataz, baiña ez larritu, urtengo gara-ta...

Jarraian, eskuak ormetan ipiñita, aztamuka ibiltzen asi ziran.

Laster, baiña, naiz-ta eziñezkoak egin arren, etxekojauna oartu zan ezin egikiela aurrerapen andirik egin. Noizbait, etxeko jauna arri baten gaiñean jesarri zan, etsipen andi batek gogoa zapaltzen eutsala. Bere alboan, Neretxu'k aitaren indune-inguruan besoak ipiñi, eta negarrari emon eutsan.

— IV —

Ibargane'ko atadian lotuta zirauan Ariñ'ek, kez karen ezaugarriak adierazoten ebazan. Ordu asko igaro ziran Neretxu joan zanetik, eta eguzkia ostentzeko zorian bazan be, neskatoaren aztar narik ez. Alako baten, txakurra kateari teink egiten asi zan, lurra atzaparkatuz. Aldia igaro-ala, agiri zan txakurrak gero ta sumiñago jarduten ebal. Kateak baiña, bere bultzadak aidean eten egiten eutsazan, idune-inguruan lepokoak ubel-antzeko zauria izten eutsala.

Isillik, begiai sumiñezko dizdirak eriezala, soiña makoturik, bere gorputz sendoaz aurrerantz oldartzen zan. Alako baten, eraso indartsu batez, txingea ormatik askatu, eta katea narraz joiala, etxe-ostetik itzuri zan. Orduko, idune-inguruko orban ubela, zauri bizia biurtu izan zan.

Etxe-osteko gaztaiñadira elduta, nora ez ekiala, ezpaitsu gelditu zan aurrera joan eziñik. Bere usainmen urriak ezin egikean ugazabaiñogana eroan. Orduan, adar baten kokatuta, Txir-Txuri, kardantxilloa ikusi eban. Ariñ'ek basoan emondako bizitzaldian, baekian txorien berbetea, eta,

—Aizu, Txir-Txuri —esan eutsan txakurrak—, eroan nagizu Neretxu'k artutako bidera, zeuk emendik igaroten ikusiko zenduan-eta. Arindu zaitetz, berandu samar da-ta...

—Bai, Arin, emetik igaro zan, jarraitu egistazu.

Eta txakurrak berantetsia erraikiola, txoriak abesteari emon eutsan. Baiña illunabarra asi zanean, kardantxilloa isildu egin zan lo-gura zala-ta. Eguzkia Iñarramendi'ko tontorraren atzetik ostendu izan zan arrezkero, eta Txir-Txuri'k gero ta astiroago joian.

—Arindu zaitetz, Txir-Txuri —eskatu eutsan txakurrak aieneka—eroan nagizu Neretxu'gana...!

—Ezin dot, baiña, Arin. Illuntasuna datorrenean ezin dagiket egan egin. Nire naimena baiño indartsuagoa dan lo-gura batek menperatzen nau...

—Esaidazu, besterik ezean, azkenengoz norantz jo eban...

Begiak itxi-urren ebazala, Txir-Txuri'k abopean zeozer esan eutsan, eta amaitu orduko, mokoia lumatxuen artean ezkutaturik, lotan asi zan.

Txoriak esanikoa entzun baiño ez, txakurra atx batzutara zuzendu zan, eta inguruak begiz aztertzen asi zan. Ariñ'en begi sarkorrek laster ezagutu eben azeriaren kabi-zuloa.

—Azeri, badira ordu batzuk —zaunka bizitan esan eutsan—, Ibargane'ko aita-alabak igaro dirala. Urten zaitetz eta lagundu egistazu eurakana.

Baiña azeriak ez eutsan jaromonik egiten. Bera egoan lekura ezin zeitekean sartu-ta...

—Aizu ondo, azeri —begiak sutan Ariñ'ek barriro—, ondo dakit zagozan lekura ezin naitekela sartu, baiña ziñez diñotsut: egunen baten ilgo zaitut. Datorren udabarrian zure kumeekin orko zulotik urten zaitezanean, nai-ta-ez arrapatuko zaitut, eta zu ta zure kumeak banan-banan ilgo be. Azkenean, zeu bakarrik itzita, astiro-astiro ilgo zaitut, eta orduan arrenka eskatuko daustazu lenbailen il egin zagidazan, baiña bizitza zatika kenduko dautsut. Orain autu egizu, maltzur orrek...

Azeriari ikara bizia erraietaraiño sartu yakon, ondo bai ondo ekialako txakurrak benetan ziarduala. Andik laster urten, eta txakurrak erraikiola, atxetan gora bideratu zan. Luzaro barik, leize bateko sarreran aurkitu ziran, eta orduan azeria geldituta,

—Or barruan dagoz —abopeka esan eutsan—, baiña, arren, ez egistazu eskatu barrura joan naitela, leize orrekiko bildurra nire naimena baiño andiagoa da-ta.

Au esanik, azeria ostendu zan. Astirik galtzeke, txakurra leizean sartu, baiña andik laster lengo lekuan aurkitu zan. Bein eta

barrero orixe bera gertatu yakon, eta noizbait, sarrera guztiak zeatz aztertu ondoren, len ez erabillitako bat idoro, eta andik barrendu zan. Alako baten, areto andi batera eldu zan. Sabaijan beera ur-jaustiri bat etorren, eta gero arru estu batetik urak galtzen ziran. Aurrera joiala, belarriak zutunik jarrita, unetxu batez gelditu zan. Urrundik dei larriak antzera etorkiozala iruditu yakon, eta biotza itxaropenez taupada zorotan ebilkiola, aalik ariñen aurrerantz oldartu zan. Olan joiala, idunetik eskegita eroian kateak ormetan jo egiten eban, otsak iñondiko oiartzunetan galtzen zirala...

Ibargane'ko aita-alabak izu-leku aretan gero ta larriago irauten eban. Orduak astiro igaroten ziran. Alako baten, Neretxu'ren entzumen argiraiño, urrundiko suzmurrak eldu yakozan.

—Aitatxu —esan eutsan neskatoak—, urrutiko zarata motela bide dator, zeozer narraz bai'letorkigun-edo...

Etxekojauna une batez adi-adi geratu zan, baiña ez eban ezer entzun. Bere alabea, antza, burua galtzen asten zan... Baiña Neretxu'k lengo zaratea gero ta argiago entzuten eban.

—Aita, entzun orain, baiña —andik laster umeak barrero—, bere zaunkak dira, ondo ezagutzen dodaz-eta. Laster izango dogu emen... Didar egizu, aitatxu...!

Ibargane'ko etxekojaunaren didarrai erantzunez, txakurraren zaunkak gero ta argiago aditzen ziran. Txakurraren zaunkekin batera naasiak, katearen narrazte-zaratea etorkien. Luzaro barik, txingarrak baizen sutsuak begi bi ikusi ebezan, eta neskatoagan aurreko anak jarriarik, txakurrak aurpegia ta eskuak miazkatu eutsazan. Neskatoak txakurra besarkatu eban, eta zorionez beterik aurpegi-txua txakurraren uleetan ezkutaturik, negarrez asi zan. Etxekojaunak Ariñ'en burua laztantzen ebala, eskuak abere zintzoaren odol-lez busti yakozan.

Bereala, leizearen urten-bidera abiatu ziran. Neretxu'k esku bat az txakurraren kateari oratzen eutsan, eta besteaz aitarenari. Txakurrak ibilte ziurraz, igarobideetako naaspil aretatik urtenbidera eroiazan. Ur-jaustiriko aretotik igarota, andik laster igarobide baten amaieran, ortzi-zati bat izarrakaz apainduta ikusi eban. Antxe bertan unetxu batez gelditu ziran, eta aita-alabak ezkerrean otoi bat egin eban.

Landa-orlegi'tik etxerakoan, eta etxekojaunak katea eroiala, an urrun Ibargane'ko irudi motela agertu yakon. Aitaren aurpegian begi argitsuak jarrita, Neretxu'k auxe esan eutsan:

—Aitatxu, gure Arin ez da kateatu izateko jaio dan txakurra. Au sarri ikusten dot atadian lotuta dagoanean. Jasaten ba'dau, maite gaitualako da... Aita, aurrerantzean ez dagigun lotu...

Ibargane'ko etxekojaunari irribarre bat sortu yakon ezpanetan, eta beso indartsuaren bultzada bat az, katea urrutira jaurti eban, aditzen zala txapar baten gainean jausten zala.

—Neretxu, ziñez diñotsut: aurrerantzean gure txakurrak ez dau katerik ezagutuko.

Eta etxekojaunaren agintza bete zan, ordutik Arin zintzoak lokarriarik ezagutu ez ebalako, eta begi biziak maitasunez gainezka, ain maite-maite eban neskatoari, mendiko zidorretatik laguntzen eutsan...

MALKOEN DIZDIRA

Erramun eta Mañasi senar-emazteak, arratsalde aretan Endara basetxeko sutondoan autu nasai bateri emoten eutsoen. Jaia izanik, eta abelgorriaren luza-eziñeko zaintza eginda gero, sueteko garrai begira, iradubako alkarrizketan ziarduen.

—Aspaldi onetan, Mañasi, kezkatuta nozu —Erramun'ek emazteari esan eutsan—. Orain arte lez jarraitzekotan, gure alabeari eskontzeko garaia igaroko yako... Gure etxeko utsa gero ta andiago sentitzen dot. Zartzaroaren ateetan aurkitzen gara, eta laster etxaguntza onetako betebearrak niretzat bakarrik andiegiak biurtuko yataz. Luzaro barik gure etxeak nagusi baten esku errimea bear izango dau, baiña zoritxarrez gure alaba bakarrari, ez yako eskongairik urreratzen...

—Egia da, Erramun. Neu be arrenkuraz beterik nagotzu. Alazne'ri ezkontzeko urterik egokienak igaroten asi yakoz, eta egunen baten gure etxaldea bakartasunaz jota, ondakin-meta bat biurtuko da.

—Bai, Mañasi, marrazkatzen nauan arra orixe da. Nik aitagandik jarauntsiriko etxaldea ondorengoai emon aal ez izatea, etenbarik jazarten nauan arrenkura da, baita lan egiteko adorea kentzen daustana be.

Auxe zan aspaldi aretan senar-emeazteak sarri askotan erabilten eben gaia, baiña euren atsekaberako, Alazne'ri ez yakon senargairik urreratzen.

Igandeko arratsalde aretan, illuntzea zala, Alazne erritik bidean gora etxera abiatzen zan. Iñoizkorik naigabetuen joian, erriko mutil batek berak be jaramonik egin ez eutsalako. Au oikoa zan, baiña

neskatillak maite izaten eban Goikolanda'ko Laurentzi'k ez eutsan iñongo jaramonik egin, eta arratsalde osoan beste neskekin jardun izan eban.

Alazne ez zan neska polita. Aurpegi arrunta eban; ez ederra, ez itsusia. Edertzat artu zeitekean baiña begi txiki orlegi areik erakarpena kentzen eutsoen aurpegiari, eta au dala-ta, gogo-doai bikaiñakaz jantzita bazan be, mutillek ez eutsoen jaramon andirik egiten. Azken aspaldi aretan, Laurentzi'z maitemindu izan zan, baiña mutil onek be, besteak lez, ez eban neskatilla aintzakotzat artzen.

Illuntze aretan etxera biurtzen zala, iturri-ondotik igarotean, barruko naigabeari bide egiñez, Alazne'ri negar-arpulu gartsu eder bi aurpegian beera isuri yakozan, eta antxe bertan, bide-ertzean, diamante bizi lakoak kokatu ziran. Aldatz-gora neskearen irudia illuntzean ostendu zanean, malko eder bi areik maitasunez dardar asi ziran.

Gaba sakondu-ala, jausitako malkoen dizdira biziagotzen zan, Alazne'ri maitasuna andiagotzen yakon giñoan. Goizalde-irian malkoen dizdira orlegi biurtu, eta arein argia ortzian zear sakabanaturik, izarretaraiño eldu zan.

Ludian izar bi jaio ziralaren barria laster edatu zan ortzi guztian zear, eta izar orok argi eder biai begira ta begira geratu ziran, alkarri auxe zirautsoela:

—An ludian, esmeralezko izar eder bien dizdira jaio da. Etorriko al dira gurekin bizi izatera...!

Eta gaba aurrera joian giñoan, esmeralezko malko-bitxien edertasuna andiagotzen zan. Oneitzaz jabetzeko irrika bizia menperatu eziñik, noizbait, izarrek goizaldeko aizeari eskatu eutsoen asperenka, barri jaiotako bitxi orlegi bi areik ekarri egiezala.

Eguna jaioteko zorian zala, goizaldeko aizeñoak esmeralezko malko-bitxiak magalean artu, eta zeruko gaindegietaraiño eroanda, izarrek eskaturiko tokian jarri ebazan. Gaba asi orduko, malko-bitxiek ortzi guztia argi orlegiz jantzi eben, eta pozez gaiñezka, izar orok zorionez dardar asi ziran.

Malko-bitxiek, baiña, Endara'ko iturriari eriozan suzmurrak irrikatzen ebezan, an bertan jaiok ziran-eta. Augaitik, ituntasunak

jota, dizdira galtzen asi, eta gau baten itzungi ziran. Au ikusirik, izarrek goizaldeko aizeñoari malko-bitxien geisotasunari buruz galdetu eutsoen. Zergaitik amatau ziran jakin ebenean, iturri-ondora eroan egiazan eskatu eutsoen izarrek goizaldeko aizeñoari. Onek, besoetan artuta illuntze aretan ludira eroan, eta itzungitako esmeralezko malko-bitxiak Endara'ko iturri-ondoan laga ebazan.

Gau aretan, iturriari eriozan suzmurrek laztanduriko, malko-bitxiak iratzarrita, argi orlegiz dardar asi ziran barriro, eta au ikusirik, izar urrundariek pozez gaiñezka dizdir gozoaz erantzun eutsien.

Gau oro, illunabarra asten zanean, malko-bitxiak dizdir orlegiaz piztu, eta gaba sakondu-ala, arein argia ederragotzen zan. Goizalde-irian iñoizkorik ederren ñir-ñir egiten eben, iturriko uren suzmurrak urrumaturiko.

Goizalde guztietan, iraketea egitearren, Laurentzi aldapan gora joi ala, malko-bitxien dizdirak laguntzen eutsan, eta argi gozo aren pean, bere gogo aimes ederrakaz bete egiten zan. Augaitik, goizalde orotan zain egoan, eta egunsentia barik, idiak gurdiari buztartuta, mendian gora joian iraketea egiteko, baiña aimes ederretan murgiltzeko batez be. Goizalde baten, baiña, Endara'ko iturritik igarotean, ez eban argi orlegirik ikusi aal. Malko-bitxiak ostendu edo betiko il izan ziran...

Goizalde aretan, lentxuago, Alazne urketea egitearren iturrira abiatu izan zan. Arradapean pegarra bete bitartean, neskea arri baten gaiñean jesarri, eta begikada utsa urrutira zuzenduta, une batez igige iraun eban. Olan egoala, malko-bitxiak dardar bizitan asi, eta zauskada bakanak eraginda, bide-ertzetik zapart egiñik, Alazne'ren begietan kokatu ziran. Indar ezkutu batek jaio ziran begietara biurtzen ebazan. Pegarra buru-gaiñean jarrita, ibilte txariroz etxera bideratzen zala, neskatillaren begi orlegiai asmatu-eziñeko lillura erien, len izaniko aurpegi ezaiñak iñondiko edertasuna erakusten ebala.

Laurentzi, baiña, larri egoan lengo argi orlegi zoragarria ostendu izan zalako. Au dala-ta, goizalde guztietan Endara'ko iturrira joian, malko-bitxien edertasuna ikustearren, baiña dana alperrik.

Mutilla, baiña, dei ezkutu batek eraginda, goizalde oro iturrira joaten zan, eta bein baten, aurpegia eskuen artean jesarrita egoala,

ibilte ariñaren otsa entzun, eta burua jasorik, iñoizkorik ederren malko-bitxiak agertu yakoza... Aurrean, Alazne ikusi eban, eta onen begi orlegi ederrai, ainbeste irrikaturiko argi zoragarria iñoizkorik lilluragarrien erien.

Iturriko arradeak pegarra beteten ebalá, Laurentzi konturatu zan ezin zeitekeala malko-bitxien argi barik bizi izan aurreran-tzean, eta zauskada andipean, Alazne'ri bere maitasuna autortu eutsan.

Arrezkero, Endara'k etxejojaun gazte ezagutu eban, eta Alazne'ren begiek etxe guztia edertuz gaiñera, Erramun'en eta Mañasi'ren zartzaróa alaitu eben. Arrezkero, Endara'ko orma zaarren artean, billobatxuen barre ta didarrak etenbarik aditu ziran.

KLIN-KLON

Gau baten, idoi-inguruko mimenen artean lokatzezko jauregia eraikita eban apoak, bere egoitza itzi, eta larrean zear abiatu zan. Ez ekian zergaitik, baiña izarren keiñuek eta aizearen suzmurrek, dei jarki-eziñaz erakarten eben.

Mimentza atzean gertu zanean, bedar laburraz estalitako zelai batetik barruratu zan. Iñontzaren tantotxuek laztandurik, eta gaugentzaz bizkortuta, erakarpen andiaz dizdir egiten eben argitxu koloka baterantz bideratu zan.

Ondurarte ez eban iñoiz a lako argirik ikusi izan, illargi ta izarrenak baiño besterik ez eban ezagutzen-eta. Ikus-miñaz erakarrita, urratsak arindu, eta txabola baten aurrean aurkitu zan.

Leioaren zear krisaillu batek argi ta itzalezko itopen-arteán dardar egiten eban erabeti. Lei biziáz menperatuta, Klin-Klon'ek argitxu a obeto ikusi gura izan eban, eta indarrak baturik, ikoti egin eban leiora igotearren, baiña astun lurrera jausi zan. Orduan, goraiño igoteko asmoz, batetik bestera ibiltén asi zan, eta azkenean, teillaturaiño jagiten zan ormetan besakaturiko arkakarats bat ikusi eban. Ikoti egiñez Klin-Klon lenengo adarrera igon, eta gero adarrik-adar leio bateraiño eldu zan noizbait. Ikusmiñez jabeturik barrura begiratu eban.

Argitxu makal baten pean, bere begiek gela txiki bat begiztatu, eta onen erdian ume bat ikusi eban etzanda. Klin-Klon'ek ordurarte ez eban iñoiz gauza ederragorik ikusi izan. Neskatotxu baten aurpegi zurbilla adats gaztainkaraz inguratuta agertzen zan. Noizean bein, bular makaletik asperen bat iges egiten yakon, min andi sakon batez atzítuta bai'litzan.

Leioan kokatuta, Klin-Klon'ek ezin egikeazan aurpegitxu polit aretatik begiak baztertu. Nor izango ete...? Zergaitik orren zurbil eta zerk jaurti-erazoten eutsazan areik lako antziak...?

Klin-Klon'ek bere buruari itaun oneik egiten eutsazala, gau-aizeñoak arkakaratsaren ostoa igitu ebazan eta onek, iñontzezko malko dizdiratsuen artean auxe esan eutsan:

—Polita da, ezta, Klin-Klon...? Bai, gure Muskilde iñoiz ez ezagaturiko umerik zoragarriena da... Lore baten amesa baiño ederragoa eguzkia idoiaren atzetik ostentzen danean... Baiña gure Muskilde'k biotza ausita dau... Bein baten, bere aita beste gudari batzuekin mendietara joan zan, eta arrezkero, umeak ez dau barriro ikusi, eta eguzkibako lora baten antzera zimeltzen asi yaku. Umeak ez dau luzaro iraungo, udazkeneko ostoa lez gero ta makalago baidakust. Zeruan, aingeru-talde bat aren begira dago, eta egunen baten etorrita, eurekin eroango dabe... eta au jazo daitenean, naigabez betiko isilduko naz...

Arkakarats naigabetuari, malkoak bai'litzazan iñontz-tantoak isuri yakozan, eta miñaren-miñez isildu zan. Muskilde'ren irudiagandik begiak kendu eziñik, Klin-Klon'ek begizatzen eban samurtasunez jabetuta. Alako baten, neskatotxuak begiak edegi, eta orduan zorionezko zirrara batek Klin-Klon menperatu eban. Zelaietan zear egiñiko gau-ibillaldietan, ez eban areik baiño izar ederragorik ikusi izan. Aurpegitxu zurizkan leun eta gozo begi andiak dizdir egiten eben, eta arein lillurak erakarrita, isildu eziñik, zirikoizko abotsaz Klin-Klon onetaraxe abesten asi zan:

—Klin-Klon, Klin-Klon, Klin-Klon...

Iretargiaren izpi eta ibarraren itzalakaz egiñikoa zirudian abestia entzutean, Muskilde'k leiorantz begiratu eban, irribarre gozoaz auxe iñoala:

—Eresi orren edertasuna...! Zeruko arrabita dirudi...!

Eta Muskilde'ren begien lillurak uzterpeturik, Klin-Klon'ek bein eta barriro bere zirikoizko samaz, ekiazan eresi ederrenak jaurti eutsazan. Astiro-astiro Muskilde'ren begiak itxi ziran, bakez beteriko lo batek artzen ebal. Orduan Klin-Klon'ek umearentzat bakarrik abesteari jarraitu eutsan, iñontzez beteriko zelaiak ames egiten ebal izarrakaz beteriko gaupean.

Goizaldea agertu aurretik, eta Muskilde'k lotan zirauala, Klin-Klon'ek etxetxua itzi eban, eta mimenakaz inguraturiko idoi-ondoan eraikita eban bere lokatzezko jauregira bideratu zan. Bearrezkoa yakon, benetan, etxera eldutea eguzkia jagi baiño len, ostantzean onen izpi kiskalgarriek bere zirikoizko samea ondatuko leuskioe.

Arrezkero, gauoro, illundu baiño ez, Klin-Klon'ek bere lupezezko jauregia itzia oi eban, eta mimenen artean iñontzaz malkoturiko zelaietan zear Muskilde'ren txabolarantz bideratzen zan, eta elduta, arkakaratsaren adarrik-adar leioraiño lauazka igoten zan. Irrikan, Muskilde apoaren begira egon oi zan, eta onen gorputza leio-barrenean marrazten zanean, pozaren-pozez agur egiten eutsan onetaraxe:

—Gabon, zeruko arrabita ori...!

Gero, Klin-Klon'ek abesteari emon bitartean, Muskilde'k zorionezko irribarre bat ezpanetan ebal, zeru-zatixuak zirudien begi ederrak ixten yakozan, eta bakez beteriko lo batek beso laztangarriakaz artzen eban. Olan, gaba asperen baizen arin igaroten zan, eta idoiak bestaldetik urrezko krisaillua egunari pizten yakoneko, Klin-Klon bere lokatzezko jauregira biurtzen zan.

Baiña egunak joan egunak etorri, goizalde baten zeruko aingeru batzuk aspalditik itxarotako dei bereizia artu eben, eta arin baten idoiaren aldeko txabolarantz abiatu ziran. Zurbil eta bake-tsua, iñoizkorik ederren aurkitu eben Muskilde zoragarria. Aingeruek besoetan artu, bekokian musu bana emon, eta umea iratzarri barik, zuri-gorritz biurtzen asten zan ortzian zear, gaindegietatik eroan eben.

Urrengo gabeen, oi eban lez, Klin-Klon etxetxura eldu, eta arritu zan oiko argi zuzendaria ez ikusteagaitik, baiña bidea ondo ezagutzen eban ezketiño, luzaro barik leio-barrenean kokaturik, barrurantz so egin eban, eta... zarrastada andiak menperatu eban... Askatxua utsik egoan eta Muskilde maitiak ezin egikion esan bestetan lez: "Gabon, zeruko arrabita...!" Arkakaratsa geldi-geldi egoan orriak igitzeke, eta naigabeturik bai'litzazan adarrak lurrerantz jaus-ten yakozan. Gau osoan antxe bertan iraun eban Klin-Klon'ek arkakarats eta izarrai asperen-itaunka non izango ete bere Muskilde maitia, baiña iñork ez eutsan erantzun aal. Noizbait, naigabeak lur-jota, alboka egiñez, bere lokatzezko jauregira biurtu zan.

Muskilde'ren eriotzaren ostean, iru gabez biurtu zan Klin-Klon txabolara, eta irugarrenean arkakaratsaren ostoak zimeldurik ikustean, ez leukela barriro be Muskilde maitia ikusiko, igarri eban. Negar-zotin itogarria bere zirikoizko samean gora igon yakon, eta etsia, iñontzez estaliriko zelaian zear ariñeketan, bere lupetzezko jauregira abiatu zan. Barrura sartzean, samin-samin negar egiñez, auxe iñoan:

—Bera barik ez dot bizi gura... Onezkero ez dot egundo be barriro abestuko...

Eta bere jauregiko itzaletara sartu zan isil eta ezkibel, eriotz aringarriaren begira.

Irugarren egun aretan bertan, Yosu'gana urreraturik, aingeru batek auxe irautsi eutsan:

—Jauna, badira iru egun, Muskilde, idoi-ondoko etxetxuan bizi izaten zan umea ekarri genduanetik. Egunez oso zorionsua da, baiña gaba datorrenean, asperenka ta asperenka asten da, nik ez dakit, zein zeruko arrabita bateri buruz ziarduala. Zergaitik ete...?

—Idoi-ertzean mimenen artean bizi dan Klin-Klon apoaren eresia entzun gura dau. Gauoro abestu oi eban umearentzat bere zirikoizko sameaz. Gaur bertan idoira jatsiko zara, eta apoa ekarriko dozu, gure artean bizi izateko geratu daiten, eta olan gure Muskilde'k lo egingo dau zorionsu.

Gau aretan, aingerua idoira jatsi, eta Klin-Klon'en jauregiko atean jo egiñik, apoa urten zanean onetaraxe mintzatu yakon:

—Aizu, Klin-Klon, nirekin eroan zaidazan agindu daust Jau-nak, gabaz Muskilde'rentzat abestu dagizun. Umeak ezin zaituke aztu, eta gau osoan irrikan dago zu entzutearren.

Zorion utsaz, Klin-Klon'ek bereala joan nai izan eban.

—Goazen, goazen arin baten —pozaren-pozez oi u egin eban—. Esaidazu, aingeru orrek, zerua ederra ta argitsua al-da...?

—Eder-ederra da, Klin-Klon, eta beti argi gozopean aurkitzen da. Goizaldean zuri-gorria dozu, eta eguberdian orlegia, gabean oztin sakona biurtzeko.

Zeruan argi andia zala entzutean, Klin-Klon idoi-ertzera abia-

tu zan gorputzezko lupetza kentzearren. Garbitu zanean, iretargi-printzen pean ispillu bat zirudian idoiko gainaldean, bere buruari begiratu eutsan, baiña urek emotsoen irudi itsusia ikusi baiña ez, berekiko iguinduta, aingeruari auxe esan eutsan:

—Ez naz zerura joango, oso itsusia naz-eta. Orain arte ez dot egundo be nire irudia ikusi. Muskilde'k ba'nakus zapuztu egingo nau, eta ori ezin dagiket eroan. Il naiago dot.

Eta negar baten bere lokatzezko jauregira sartu zan.

Aingerua zerura biurtu, eta Jaunari gertatukoaren barri emon eutsan. Orduan onek onetaraxe itz egin eban:

—Biar gabeen, joan zaitez idoira barriro, eta ara elduta, Klin-Klon'entzat soiñeko eder bat eiotuko dozu, eta olan jantzita, ez dau atxakirik izango neskatotxuaren aurrean agertzeko.

Aingerua idoira jatsi zan bigarrenez, eta illunabarrean Klin-Klon'en jauregiko atean jo egiñik, itxaron bitartean izarren dizdiraz eta iiakaz soiñeko eder-ederra egin eban. Apoa agertu zanean, aingeruak auxe irautsi eutsan:

—Jantzi egizu soiñeko au, eta onekin zure begira dozun Muskilde'ren aurrean aurkeztuko zara.

Ondo etorkion jantzia ipiñita gero, iretargiaren argiaz laztanduriko, idoi-ertzera joan zan uretan bere burua ikustearren. Idoiak emotsan irudia ikustean, didar bat jaurti eban, eta atzera egiñik, soiñeko barria kendu eban, aingeruari berba itunaz auxe iñotsala:

—Soiñeko ederra da, baiña nire abotzar itsusia ta begi urtenak agiri dira. Muskilde nakusanean bildur izango da, eta orrek naigabez ilgo ninduke.

Eta aurpegian beera malkoak eriozala, iien artean ezkutatu zan.

Gau aretan, aingeru-mezulariaren barriak entzun ezketiño, Jau-nak aingeruari isil-misilka zeozer esan eutsan, eta jarraian aingerua arin baten idoirantz bideratu zan.

Goizalde inguruan, aingerua idoira eldu, eta,

—Zatoz Klin-Klon —ots-egin eban—, Jaunak dei egiten dautsu.

Baiña mimenen artean ezkutaturik, apoak ez eban urten gura. Aingeruak orduan epertargiakaz krisaillu bat eratu, eta eskuan artuta bazterrak aztertu ebazan. Noizbait, zulo baten gordeta idoro eban.

—Zatoz nirekin, Klin-Klon —esan eutsan aingeruak—, eta zenbatu egizuz ortziko izarrak.

Eta Klin-Klon'ek goizaldeko argipean ostentzen asten ziran izarrak zenbatzen ebazala, aingeruak onetaraxe itz egin eutsan:

—Aizu, Klin-Klon, Jaunak zugana igorri nau itsusia ez zarala esan dagizudan. Berak sortu zinduzan bazter onetan, eta Berak ez dau iñoz gauza itsusirik egin. Gauza nazkagarririk izatekotan, gorrotoaren aurpegia da. Ez da ezer ederragorik maitasunezko txinpartak baiño, eta zure abo-begiai maitasunezko txinpartak dariez, Muskilde maite-maite dozulako, eta berak... berak ez dau besterik gura zure irudia ikusi ta zure zirikoizko abestia entzun baiño. Zatoz neugaz Klin-Klon...

—Bai, aingeru ori, baiña joan aurretik, maitasunak oro edertzen ete dauan egiztatu nai dot, nire irudia idoian ikusiz.

Izarrak ostendu izan ziran idoiaeren ertzera eldu ziraneko. Bere irudiari ur baketsuetan begiratu, eta orduan... bai begi eder andi illunak ebazala Muskilde'ganako maitasunezko jario aretan, eta bere abo andia irribarrez edegia, bai polita zala...!

Bere burua olan ikustean, zorionez eraginda, ikoti txairo bat az mimen baten adarrean kokatu zan, eta aingeruari,

—Eroan, eroan nagizu —esan eutsan— Muskilde'ganaiño. Orain ez daust bildurrik izango, eta beti-beti maite izango nau.

Eta idoiaeren gaiñetik goizaldea zabaltzen zala, mimenai, iñontzaren tantoz estalitako zelaiari ta iretargiz besarkaturiko ilten zan gabari, agur eder-ederra bialdu eutsen. Gero, aingeruarekin zerura joan zan.

Ara eldu ziranean, unerik galtzeke, Muskilde egoan lekura abiatu zan. Umea oe ikusgarri baten zetzan. Onen lau aldeak besarkatuz, idoiko txabolan jagiten zan arkakarats berbera egoan. Orain orde, ez zan naigabez zimeldua ikusten, bizitzaz eta indarraz gaiñezka baiño.

Umea ikusi baiño ez, Klin-Klon arkakaratsaren adar baten kokatu zan, eta bere zirikoizko samaz klin-klon bardinbageak jaurti eutsazan. Oneik entzutean, Muskilde'k pozezko didar bat bota, eta begiak edegi ebazan.

—Oi, zeruko nire arrabita da...! —esan eban irribarrez—. Idoiko txabolan niretzat abestu oi ebanean, ez neban iñoiz ikusi gau betea zalako, baiña orain badakust... Bai abo ta begi eder-ederrak dauzala...!

Eta Klin-Klon'ek abesteari emoten eutsala, Muskilde lotan asi zan. Orduetik, egun oro zeruan zidarrezko gaba asi ta idoiaeren atzetik eguzkia gorrimiñezko eriotzaldian ostentzen danean, Klin-Klon'ek Muskilde'rentzat bakarrik, bere zirikoizko estarriaz eresi yaukalak abestu oi dauz.

ERRIKO ORDULARIA

Asteak ziran erriko ordularia ezbear batek jota gelditu izan zala. Au kinka larria zan benetan Errigarai'ko biztanleentzat, noiz jagi ta oeratu, zein ordutan etxera biurtu bazkaltzeko, mezatarra joateko, edo-ta Durango'rako erri-berebilla artzeko, ez zekien-eta.

Errigarai'k ezin egikean egoera negargarri onetan luzaro jarraitu, eta au dala-ta, alkateak batzar nagusi baterako dei egitea ebatzi eban. Alkateak, ziñegotzi guztiek eta idazkari dotoreak, arazoari merezi eban lez ekin ondoren, Durango'ko konpontzaille bat errira ekarteko erabagia abo batez artu eban, eta astirik galtzeke, eretiari zegokion idazkia alkate Jaunak igorri eban.

Andik egun batzutara, eskaturiko konpontzaillea Errigarai'ra eldu zan, eta abadeak, alkateak eta sakristauak lagundutako, eleizara abiatu zan. Dorrean egoan joaletegira igonda gero, Manu eritxan Durango'ko konpontzailleak, txabux zuria jantzi, eta zeatz-zeatz, ertilari bateri zegokion lez, ordularia aztertu eban. Amaitutakoan, Manu'k itxura larria erakusten eban, eta ordulariaren matxura oso gaitza zala, eta aalik ariñen aurre-kontua bialduko leuskiela agindurik, Durango'ra biurtu zan, Errigarai'ko lagun ospetsuak kezkaz beterik izten ebazala.

Aste aretan bertan, Manu'gandiko idazkia udaletxera etorri zan, eta abadea, alkatea ta sakristaua alkartuta, idazkia zabaldu, eta atonketearen balioa ikusi ebenean, zur eta lur geratu ziran.

—Jaungoiko bedeinkatua —abadeak bota eban— ertilari orrek eskatzen dauskuan diruketeagaitik, eleiza barri bat egingo neuke.

—Arraioa...! —arrituriko alkateak— Manu'k eskatzen dauskuanaz, udaletxe barri bat eskolak eta guzti eraikiko neuke.

—Zenteillak...! —sakristauak eratsi eban— Sakel-ustulari orrek eskatzen dauskuana emongo ba'leuste niri, munduko organurik ederrena korurako erosiko neuke.

Berrezkoa da emen azaltzea, Pio eritxan dalako sakristaua errialde aretako gizonik argiena zala, eta erriak benetako burubi-deak bear ebazanean, udaleko batzarretara dei egiten ebela. Argia aiña txikia zan ezker, gure gizonari Piotxu esaten eutsoen, baiña danek begirunerik andienaz erabilten eben, baita ondo merezita be.

Errian askok Piotxu alkatetzat nai eben, eta alkatea sakristautzat, baiña arazo au errian luzaro erabillita gero, gauzak egozan lez lagatea erabagi zan. Jakiña, Piotxu bazan nor erriko arazoak bear dan lez erabilteko, zuur izanez gaiñera, Errigarai'ko arazoak naikoa errazak ziralako. Baiña nork bera baizen ondo eleizako betekizunak egin, latiña ain argi aboskatu, eta abadeari abestuz parra-parra erantzun...? Gaiñera, Piotxu'k mezatan diru-batzea egiten ebanean, ez zan iñortxo be txiñak bota barik eleizatik urten zeitekeanik. Olan ba, Piotxu argia sakristautzat gordetea erabagi zan.

Errigarai'an arazoak gero ta txartoago joiazan, eta noizbait, egoerea jasangatxa billakaturik, alkateak Batzar Nagusirako deia egin eban. Batzar-aretoan udalbatzako bat bera be uts egin barik, Piotxu'rekin alkartu ziran. BARRIRO be, alkateak egoerearen kinka larria azaldu eban, eta baten bateri urtenbideren bat otu ba'litzakion, esateko. Udalbatza osoa Piotxu'ri begira geratu zan, eta gure sakristaua, atzamarra suuranean sartuta, oldozkun sakon bateri emoten eutsala ikusi ebanean, nasaitu egin ziran. Argitu bear da emen, Piotxu'k ausnartze garrantzitsu bateri emotsanean, zuku-atza suuranean sartuta euki bear ebala, bestelan ezin burutapen onik jaritsi.

Une batzuk isillean igaro ziran, eta noizbait goi-arnasak jota, Piotxu atzamarra suurretik atara, eta,

—Danok ezagutzen dozue —itz egiten asi zan sakristaua—, Perukillo gure erriko oillar adoretu ta zangarra. Bera lako oillarrik ez ei'da jaio oraindiño, ezta iñoiz jaioko be. Ordulariaren auzia nire ardurapean lagaten ba'daustazue, Perukillo'ren laguntzaz atonduko dogula uste dot.

Udalbatzak abo batez eskaturiko baietza Piotxu'ri emon eutsan, eta beste barik batzarra amaitutzat jo eben.

Biaramonean, Piotxu'k, Perukillo oillar bardinbagea artu, eta biok Errigarai'ko kaleetan zear ibiltan asi ziran. Sakristauak sakel-ordulari baten bidez Perukillo'ren ibillaldia ordubete batenari ego kitu eban, eta luzaro barik ibiltekoa zeaztuta geratu zan.

Piotxu'ren jokaerea zentzunez betea zan. Perukillo'k ordu bete-ko osteratxu baktxa joaletegan edo kanpai-dorrean amaituko leu-ke, eta orduan, oillar kementsu ta indartsua zanez, mokoaz joaleari ekingo leuskio, ordu ainbat mokokada emonez. Ordu-orduko ibi-llaldia ziurtatzearren, miñutu bitarik garau bat idoroko leuke, eta ogei ta amar garau iruntsirik, Perukillo joaletegan aurkituko zan, erriari ordua emoteko.

Piotxu, beraz, urrengo udaleko Batzar Nagusian azaldu zan, eta udalbatzakoai bere asmoa jakiñerazo eutsen. Danok adoretz beterik onartu eben, eta jarraian, oso garrantzitsua izanik, zelako garaua emongo yakon oillarrari eztabaidatu zan. Udalbatzakook erriko onurea beti gogoan arturik, garagarra merkeena zan ezker, auxe emotea abo batez erabagi eben.

Urrengo egunean, Piotxu'k oillarrari garagar-aleak eskiñi eutsa-zanean, duintasunez gaiñezka, Perukillo'k zapuztu ebazan, eta izan be zuzen jokatu eban. Astoak-eta janaritzeko zan garagar ezaiña, berari, Perukillo andiari emon...? Ez orixe...!

Piotxu'k amor emon bear, eta urrengo egunean gari-garauak eskiñi eutsazan, eta oneik bai, gure oillar zangarrak onartu ebazan.

Edu onetan ba, Errigarai erriak zein ordutan aurkitzen zan barriro be jakin, eta oster be, lengo alaitasuna ta bizi-naia irabazi ebazan. Baiña egunen bidean... Perukillo'ren kukurruku zaratatsua eta joale-aurkako mokokadak indarretan galtzen asi ziran, eta azke-nean, eleiza-ondoko etxeetan be nekez aditzen ziran.

Erria barriro be larritu zan, eta oikoa zana, udalbatzak sakris-tauari oster be dei egin bear izan eutsan. Piotxu'k zuku-atza suur-barrura sartuta gero, asunar-aldi luze bateri emon, eta onen ondorioz, jazoten zana idoro eban...

Gariak, bearrezko protein eta bitamiñak ez ebazan Perukillo andia indartzeko, eta beraz, beste biderik ez egoala, karuagoa zan artora aldatzea baiño. Udalbatzak, arazoaren garrantzia kontuan arturik, eta ordularia abidan iraunerazoteko, ondo merezi ebala

oiezko eralguntza egitea erabagi eban. Aspaldi luze batez ba, artoari esker, Errigarai'ko ordulariak ez eban utsik egin. Perukillo'k doi bereiziaz ornitua egoan, au da, kukurruku zaratatsua bota ondoren, zenbat mokokada joaleari emotea berez baekiala.

Baiña zorritzarreko egun baten, Jaurlaritzak ordubete batez aldia aurreratzea erabagi eban, eta onekin batera, Errigarai'tarrak gorriak ikusten asi ziran. Benetan aalegindu bazan be, Piotxu'k ezin eban jaritsi Perukillo agindu barriari egokitu zeiten, eta au zala-ta, errikoak leku guztietara berandu eltzen ziran, eta augaitik arazo guztiak buruz-beera urteten yakezan.

Buruaste au atontzearren, udaletxean beste Batzar Nagusi bat ospatu zan, eta Piotxu'k oraingo onetan arazoa guztiz iñuzentea zala esanik, egitekoa bereala azaldu eutsan udalbatzari. Perukillo'k Jaungoikoak jarritako orduari bakarrik jaramon egitsan ezker, eta munduan, oillarrari, izadiko legearen arauz zuzena ez zana, egokitzat artuerazoteko indarrak ez egoan ezker, auzia atondu zeitekeala alkate Jaunaren aldarri agiri baten bidez. Aldarri onek, Errigarai-tarrai jakin-erazoko leukie, orduen naastea konpontzeko, oillarrak emondako orduari, eurok beste bat geitu bear izango leuskioela, au da, Peukillo'k laurak joten ba'ebazan, legezko bostak izango ziran. Amar joalekadak aditzen ba'ziran, orduan amaikak kontuan artu bear, etab... Aldarri au, kaleetako kantoi guztietan eratsi zan, baita Igandeko mezatan irakurri be. Olan ba, eta erriko jendea guztiz argia zan ezker, bereala ulertu eben, eta bakea Errigarai'an birjarri zan.

Baiña gizonok aseगतxak gara, eta erriko batzorde bat alkateagana joanda, auxe azaldu eutsan: ondo bai ondo konpondu izan zala erriko ordulariarena egunez... baiña gabeen ordularia mututa egoala, eta egunez baizen bearrezkoa zala ordua jakitea gabaz be, eta beraz, ordulariaren arazoa erdiz bakarrik atondu izan zala. Gaiñera, batzordearen eritxiz, udalak aalegin guztiak erabilli bear leukez bein betiko egoera larri au zelan edo alan garbitzeko.

Zuzen egoan batzordea, eta gure oillarra obendun ez izanik be, erritarrek iñoena bidezkoa zan. Eguzkia urrutiko mendietatik ostentzen zanean, Perukillo'ren altzairuzko naimena baiño indartsuagoa zan lo-gura batek begiak ixten eutsazan, eta burua lumen artean sartuta, joaletegian bertan, lo-egiteari emoten eutsan, eta au be Jaungoikoaren legea izanik, erriko joaleak isillik zirauan.

Nai-ta-ez, egoera negargarri oneri aurre egin bear, eta urrengo-ko Batzar Nagusian alkateak auzi au mai-gaiñean ipiñi eban, eta oikoa zana, Piotxu'ri adimena zorrotzu egian eskatu eutsan. Gure sakristauak ezin aal izan eban arazo larri au bertanbera atondu, eta zuku-atza zuurraren babesa billatu arren, ezin izan eban urtenbiderik idoro. Alkateak orduan, iru eguneko epea emoten eutsala, eta aldi ori amaituta gero, urtenbideaz aurkeztu ekion agindu eutsan.

Iru egun eta gau larri-larri jasan ebazan Piotxu'k, buru-makur eta eskuak atzean ipiñita erriko kaleetan zear lo-ibiltari baten antzera joiala. Epea amaituta, udalbatzaren aurrean azaldu zan, eta bere jeiñuaren bikaintasuna barriro be agirian jarri zan. Ona emen, bere asmamen joriaren ondorioa:

Perukillo'k gabeko orduak jo egiazan, iratzarri bear izango zan joaldi bakotxean, eta orretarako Piotxu'k auxe asmatu izan eban: Sakristegiko sagu guztiak ondo bai ondo ezagutzen ebazan, eta onein artean argien eta begikoena, Txutu izeneko sagutxua zan. Onen zeregiña, ordubetea igarota Perukillo iratzartea zan, eta orretarako ordubete ori neurtu bear oillarrak orduak euren garaian jo egiazan. Eta au oso erraza zan, ara...

Erriko tabernan baegoan Naparra'ko Ultzama'n egiten dan gatzai gozo-gozoa, eta bost urtez saldu eziñik egoan ezker, errian ez egoan aren gogortasunaz neurtu zeitekenik. Bein baten, erriko errementariak baietz birrinduko leukelaren postorea egin eban, baiña gaixoak iru agin galduta gero, saioari laga bear izan eutsan. Ekintza onen gomutagarritzat, dalako gaztaia leiar-kutxa baten barruan gordeten zan jatokiko apal baten gaiñean. Saio batzuk egin ostean, baekian Piotxu'k zelako zatiak ebagi bear ebazan, Txutu argiari ordubete bat doi-doi iraun ekiozan. Jakiña, Ultzama'ko gaztaia ebagiteko maillu ta zizela erabilli bear izango leukez, baiña ain gogorra izanik, zatiak oso txikiak izango ziran, eta bere eritxiz, gatzai-apurra ordubetean zear iraungo leuke.

Txutu'k gabeko ordu-emote aiña zatiak jan egingo leukez, eta puxkak amaitzean, oillarrari kili-kili egingo leuskio erpetan, eta iratzarrita, Perukillo'k ordu-joteari emongo leuskio. Egunsentiaz batera, Txutu sakristegira barriro, urrengo gaberarte, eta Perukillo kale-ibilkundera arto-garauen billa.

Piotxu'k bere asmoa agertu ebanean, ederrespen andiko isillu-

ne luzea egin zan batzar-aretoan. Bitartean, egunen baten erriko kale batek Piotxu'ren izena erabili bear izango leukela, alkateak berekautan ausnartzen eban. Jarraian, gure sakristau argiak udalbatzaren eskerrona abo batez irabazi eban.

Izan be, Piotxu'k asmatu-rik lez gertatu zan, eta egunez bai-zen garaiz, gabaz be ordu-emoteak nonai aditzen ziran. Errian bala-bala zabaldu zan, urrengo udalerako auteskudeetan, oraingo alkate ta ziñegotzi berberak aukeratu bear izango litzakezala.

Aspaldi luze batez, Errigarai'an gauzak ondo ta baketsu billa- katu ziran, baiña bein baten odeitzar zemaikorrek, erriko zeru aratz eta dizdiratsua illundu eben, eta barriro be biztanleen arren- kurak itxartu ziran... Perukillo'ren joale-joteak gero ta makalago biurtzen asten ziran, eta bein baten, joaletagian bertan nekez entzun zeitekezan.

Oilloek be, aspalditik oartu izan eben Perukillo lengoa ez zala. Klean gora arto-garauen billa joiala, ez ebazan aspaldiko bizitasun eta indarrak erakusten. Gatx ezezagun batek jota, buru- makur eta adore barik oiko betekizunari ekiten eutsan. Konturatu izan ziran baita be, euren oillarraren luma dizdiratsuak oiko bizita- suna galdurik, motel eta bizibage jausten yakozala, eta bein baten miñutu erdiko atzerapenaz ordua emon izan ebala, oilloek be ordu-arazoetan euren endako sen bereizi ori badabe-ta. Eurai zego- kien aldetik, baziran asteak arrenkura bizi batek jota, larri-larri aurkitzen zirala. Auxe zala-ta, bein baten Lutzi Andrearen oillote- gi zabalean, batzar ezkutu bat izan eben, eta erabagi sendoak artu ziran.

Biamonoko eguberdian, astrapala itzela egiñez, erriko oilloek kaleetan zear euren biziko agiriketea ospatu eben, onetaraxe alda- rrikatzen ebela:

—Kolo, klo, klo, Perukillo guretzat...! Klo, klo, klo, Perukillo guretzat...! Klo, klo, klo, Perukillo guretzat...!

Iskanbillak eraginda, erritar guztiak ate ta leioetan agertu ziran oilloen agiriketea arrituta begizatzen ebela.

Udaletxera elduta, eritxi-emoillea zan oillo eder gorri batek, idazkari Jaunari euren eskaerak idatziz emon eutsazan. Eskabide onetan, auxe iñoen: Perukillo maitasun-miñak jota egoala, eta ordu-

joteari uko egin bear izango leuskiola, eta onezaz gaiñera, eurak, oilloak be, ain luzaro oillarra barik bizi izanda gero, maitasunbako geisotasunaz jota egozala, euren bioztxua be baeukiela-ta, eta aalik ariñen oillarra atzera emon bearko yakiela. Eta au dana gitxi bai'li- tzan, oilloek geitzen eben, Errigarai'an txitarik ez zirala jaioten, eta onen ondorioz, mundu guztiko arritasuna zan euren enda bikaiña, azkena ezagutzeko zorian aurkitzen zala.

Oilloen agiria onetaraxe amaitzen zan: “Au guztiagaitik, Alka- te Jaun Agurgarria, Perukillo gure ugazaba maitekor eta zangarra, barriro emon dakigula eskatzen dogu. Iru egunen epean gure eska- ra aintzakotzat artzen ez ba'da, neurri zorrotzagoak aurtu bear izango doguz”.

Alkate Jaunari eskabidea jakiñerazoko leuskiola, agindu eutsen idezakariak, eta ikerraldia amaitutzat emonda, bakotxari zegokion lekura abiatuz, bakean barreiatu ziran.

Iru eguneko epe aretan, baiña, alkatea ur-ekarketea zala-ta, guztiz arazopetuta aurkitu zan, eta mai-gaiñean egoan oilloen bidez- ko eskabideari jaramonik be ez. Alako baten, irugarren egunean, izugarritzko astrapala aditu zan, eta udaletxea oilloz bete zan. Eritxi- emoilleak aginduta, alkatearen idaztegia, batzar-aretoa ta onen ingu- ruko gela guztiak eraso bizian artu ebezan, eta andik ez leukiela alde egingo zemaitzaz, gose-oporra asi eben.

Urrengo egunetan, udaletxe-barruko bizitzea eten egin zan, eta emen lan egiten eben guztientzat, baiña idazkariarentzat batez be, aspaldi izugarria asi zan. Oilloen karakak, egaketak eta korotzak toki guztiak bete ebezan. Inpernu aretan zorotzeko zorian lan egiten eban bakarra, idazkari saiatua zan, irarkiak, idaztekoak, silluak, baita bere betaurrekoak be idoro eziñik. Urrutizkiñez berba egiten eban bakotxean, oillo bat urreratzen yakon, eta karaka bizitan asten zan. Urrutizkiñez udaletxekoekin itz egiten ebenek, Erriga- rai'ko idazkaria zorotu egin izan zala uste izaten eben.

Kinka larri aretan, alkateak Batzar Nagusirako deia aldarrikatu eban, eta ziñegotzi guztiak baita Piotxu bera be, jakiña, batu zira- nean, oillotalde andi batek inguratuta, alkatea onetaraxe asi zan:

—Jaunok, batzar au dei egitea erabagi dot, idazkari Jaunak eskatuta. Badirudi azken egunotan, gauzak apur bat naastu dirala...

—Apur bat baiño ez...? —pipertua eten egin eutsan idazkariak—. Etxe agurgarri au zoroetxe biurtu yaku, oillo madarikatu orreik dirala-ta. Begira: urrutizkiñez beste udalekin edo Foru Aldunekin berba egiten diardudanean, zorotu ete nazan diñoste, eta oillo egiteari itzi dagiodan, neu lako idazkari itzalgarrri batentzat, benetakoa ez da-ta. Onezkero, amar boligrafo oillo barrabasok ostu egin daustez, eta gure agiriak-eta, dozenaka nire izenpearen begira metatzen dira. Azken egunotan betaurrekoak ez dodaz iñondik aurkitzen, eta jakiña, egoera onetan, bear dodazan gauzak ezin dagikedaz idoro.

Ona elduta, izketea eten egin eban, zapiño bataz bekokiko izerdia txukatzearren, eta,

—Baiña larriera, jaun agurgarriok —jarraitu eban—, gaur goizean Foru Aldunditik artutako deia da. Badirudi...

—Badirudi, zer...? —eten egin eutsan alkateak.

Idazkariak ez ekian zelan jarraitu, baiña udalbatza osoaren begiak beragan josita ikustean, zelan edo alan tartailloka auxe esaten lortu eban:

—Ba... dirudianez... Aldun Nagusi Jaun Txit Agurgarriak, gungandik ba... agiri bat artu egin dau, eta... udal bikain-bikaiña onen silluaren orde, ba... oillo baten korotza agertzen da...

Ona elduta, bekokiko izerdia txukatu ebana, alkate Jauna izan zan, itz bat bera be esateko gai ez zala, errirako ur-ekarketea galtzori gorrian egoala konturatu zanean, batez be.

Egoera estu ta larria zan, eta guztiek Piotxu argiari bideren bat jaritsi egiala, erregu mutuaz eskatzen eutsoen.

Eta oi eban lez, Errigarai'ko sakristau argiak gogarte sakon bateri emon eutsan.

Noizbait, Piotxu'k atzamarra suurretik atara eban, eta au ikustean, udalbatzakoek nasaitasun-sentipenaz euren larritasunerako urtenbidea baegoala somatu eben, eta izan be, zuzen egozan.

—Jaun agurgarriok —asi zan Piotxu—, izan be, emen arazoak alde bi erakusten dauz. Bata, Aldun Nagusi Txit Agurgarriarena, eta bestea oilloen eta oneiri eratsita dagoan erriko ordulariarena.

Lenengoari buruz, nik auxe esondatzen edo proposatzen dautsuet: oilloen eritxi-emoillea dan gorri eder ori —Piotxu'k atzamarras oilloa erakutsi eutsen—, berauxe dala gure idazkia sillatu ebana esanez, Aldun Nagusi Txit Agurgarriari, gure Alkate Jaunak idazki bat igorri dagiola. Oillo onegaz egindako sukalkiak, Aldun Nagusi Txit Agurgarriaren bidezko asarrea, betiko uxatuko dautso, eta berbera izango dogu laster erri onetan, ekarketearen askundea edo inaguraziñoa egiteko.

Bigarrenari dagokion aldetik, oillarra ta oilloen geisotasuna biotzekoa dala esan bearrean nozue. Bai, izan be, maite-miñak eragindako biotzaren makurra da, Perukillo'k-eta, euren bioztxua dabelako. Ordulariaren betekizun orrek oillarra ta oilloen arteko loturea eten egin dau, eta izadi aurkako egin dogun pekatua orain ordaindu bear dogu. Nire aburuz, baiña, geu ta oillotarren arteko auzia, guztien onerako atondu daiteken arazoa da, eta Errigarai'k bere ordularia izan dagiala bidezkoa dan ezker, baita oillotarrek maitasunarekiko eskubidea be, ona emen esondatzen dautsuedana:

Joaletegian orduak emoteko garaian, azken arto-garauaren orde, Perukillo'k oillo bat bere begira aurkituko dau, eta alkarri besarkatu ostean, gure oillar zangarrak orduak jo egingo dauz. Olan ba, txandaka, erriko oillo guztiek Perukillo'ren besarkada maitekorra artzeko eretia izango dabe, eta era onetan, nire ustez beintzat, gure erriari zemaitzen dautsan gatxa bein betiko uxatua izango da.

Auxe izan zan Piotxu argiaren esondapena, eta amaitu eban, zutuniko udalbatza osoak, txalokada itzel bataz burutapena onetsi eban. Jarraian, oilloek karaka bizitan euren baietza emon eben be, eta bertanbera barau egiteari itzi, eta udaletxetik urten ziran.

Piotxu'k asmatu'ko lez gertatu zan, eta aurrerantzean larrialdia igarota, erriar guztiek euren zeregiñai ekin eutsien nasai-nasai. Perukillo, lengo oillar indartsu ta zangarra biurtu zan, eta Errigarai'ko oillo-enda bikain-bikaiñaren jarraipena ziurtatu zan, erriari alaitasuna ekarririk, txita asko barriro ikusi zeitekean-eta.

Alkate Jaunaren eta Aldun Nagusi Txit Agurgarriaren arteko silluaren auzi itsusia be konpondu zan, eta ain zuzen be, benetako jaunai dagokien antzera.

Udea amaitu barik, Igande eguzkitsu baten, Aldun Nagusi Txit Agurgarria Errigarai'ra eldu zan, eta berebilletik jatsi baiño ez, berak eta Alkate Jaunak alkar besarkatu eben, eta Udalbatzaren aurrean ziñez esan eban, silluarena bein betiko aztu izan ebala. Jarraian, zorro batetik oillo gorri ederra atara eban auxe iñoala:

—Izan be, eritxi-emoille bataz lursagar eta guzti sukalkia egi-teari egokia ez deritxadan ezkeru, eta gaiñera, onek bidezko gauza baten alde burrukan egin dauala kontuan arturik batez be, emen dakartsuet eritxi-emoille au, nire borondate ona ta zuzentasunaren ezaugarritzat.

Berba oneik esanda, txalokada itzelaren artean, oilloa askatu eban. Amabiak laster izango ziran, eta arrapalada baten oillo gorria zurubian gora joaletegira oldartu zan, Perukillo'ren besarkada sutua artzearren.

Jarraian, amabitako mezea entzunda gero, Aldun Nagusi Txit Agurgarriak Errigarai'ko ur-ekarketearen askundea egin eban, eta goratzarre-aureskua amaituta gero, Erriko Tabernara joan ziran otoruntza bikain baten bidez, egun aretako jazoera aztu-eziñak ospatzeko.

Gertaera oneik erriko izena Euzkadi'n zear zabaldu egin dabe, aitaturiko azkenak batez be, ereti onetan Aldun Nagusi Txit Agurgarriarekin, barri-emoille ta ikustirratiko batzuk etorri izan ziran-eta.

Orain, jaiegun guztietan, Errigarai ospetsuak erakarritako, ikerleakaz beteriko berebilbusak etorri oi dira, eta Piotxu'k zuzenduta, egun zoragarria emoten dabe. Jaia, meza nagusiaz asten da, eta abeslaritzat dauan sakristauaren erti bikaiñak, eta eleiztarrak dirua emon barik urten ez daitezen aren ganora itzelak irabazita, abozabalik geratzen dira.

Enparantzara urtetean, Txutu sagutxu begikoak, goratzarre-aureskua dantzan egiten dau, eta jarraian danak zurubian gora joaletegira, amabietako joaldia entzuteko. Dagokion oilloa biotz-biotzez agurtu ondoren, Perukillo'k amabiak josten dauz. Ona elduta, bearrezkoa da esatea, jaiegunetan orduak birritan emoten dauzala, eta ikerleak zur eta lur geratzen dirala, aren joale aurkako mokokada indartsuak entzutean. Badirudi, joale-soiñuak zurrun lodi batek sortuak dirala, eta ikerleek belarriak eskuakaz estaldu bear dabez.

Gero, Piotxu'k zuzenduta aldarerik onenean kalerik-kale Perukillo'ren atzetik, arto-garauak zelan garbitzen dituan ikusteko. Erringuraketa osoa egin ondoren, Erriko Tabernara, emen gerturik dagoan bazkari bikaiña eurok be garbitzeko.

Otordu au guztiz atsegiña izan oi da, eta emetik igaro diran guztiek, gorengo maillakotzat ederresten dabe. Ordulariaren alde ainbeste egin daben oillotarren begirunez, ostatu onetan oillokia galazota dago, baiña emoten dabezan jakiak ez dautsoe iñongoari zor.

Akeita, txola ta txokorra txastatu bitartean, iru bidar urruma eginda gero, Piotxu jagiten da, eta berba arranditsuz, erriko ordulariak izandako gora-beerak edesten dautsez, eta ikerleek bere ezpanetatik dilindan, arreta andiaz iñotsenari jarraitzen dautsoe. Ultzama'ko gaztaiarena aitatzean, leiarrezko estalkipean gordeten dan apalera urreratzen dira, agin-apurtzaillea begirunerik andienaz ikustatzeko. Ain zuzen be, bazkariaren ontasunak eta Piotxu'ren begikotasunak ikerleai iñondiko zarrastadea eragiten dautsie, eta jate-txetik urtetean, il baiño len Errigarai'ra barriro etorri gura izango leukiela autortzen dabe.

Gero, biribilketa alaia eratuz, aldarerik adiskidetsuenean txistulariaren ingurutik kalerik-kale doaz. Alako baten, txistulariak joteari eten egiten dautso, eta kale bateko muturrean danok gelditzen dira. Piotxu'k atzamarrak kalearen izena erakusten dautse. Argi ta garbi, auxe irakurri daiteke:

ON PIOTXU KALEA

“Erriaren alde egindakoagaitik, udalak sakristauari eskiñitako oroigarria”

Bene-benetan kale Nagusiari edo erriko enparantzari aren izena emotea bidezkoa zan, baiña ereti aretan kaletxu arek izenik ez eban bakarra zan ezkeru... Dana-dala, kale txikia baiña polita da.

Azkenean, kale-jira adoretsua egiñez, berebilbusetara eltzen dira, biurtzeko ordua da-ta. Banan-banan agurtzat Piotxu'k guztiai

bostekoa emoten dautse, eta ikerleek zenbat zor dautsoen itauntzen dabenean, Errigarai'ko sakristauak duintasunez gainezka auxe dirautse:

—Ezer ez, Jaun-andreok. Izan be, erri onetakuok zuei zor andia dautsuegu ona etorri izategaitik, baiña zuetarikoren baten bat emote-ezagaitik larri aurkituko ba'litz, bere borondateak agindu dagitsana, ate-ondoan ipiñitako txapel orretan sartu dagike. Artutako dirua Perukillo'k eta Txutu'k bear dabezan artoa ta gaztaia erosteko izango da.

Ain zuzen be, au dana ikusi ondoren, ez da arritzekoa gero ta ikerle geiago Errigarai'ra etorri daitela, erri onen ordularia ta apaintzen dautsoen gora-beerak urretik ezagutzearren.

TXA-FUN'GO BITXIA

Amama Itsasne ta bere billoba Kurtzio, Itsasondo'tik bost kilometrora egoan etxetxu baten bizi ziran txirotasun betean. Aspal-diko sendi aberats bategandik etozan, baiña bizitzaren gora-beerakaitik, ogasun guztiak galdu, eta oraingo etxolan babestu izan ziran.

Len izandako aberastasunaren ezaugarritzat, ez euken besterik, ordulari bikain bat baiño, Txa-Fun'go bitxia eritxoena, eta izan be, munduan ordulari-bitxia izan ba'da, a baiño arrigarri ederragorik nekez ikusi zeitekean.

Dalako ordularia, ebanozko zur-lan zoragarria zan, pagoda edo Txina'ko eleiza bat itxuratuz, guztitariko abere ta giza-irudiakaz apainduta. Orduak joteko garaian, pagodako atea zabaldu, eta marfillezko dantzari-talde bat urtenda, buruaz gur egin ondoren, aurreku ikusgarria dantzan egiten eben, eresi zoragarri baten neurripean. Dantzaldia amaituta, beste gur bat eginda gero, dantzariak pagodako atetik ostentzen ziran, eta orduan errementari indartsua urtenda, zidarrezko zurrun anditzarraz orduak ainbat zurrunkadak jotenebazan urrezko ingude baten gainean.

Ordulariagaitik diru-eskintza ugari ta baliotsuak artu izan ebazan Itsasne'k baiña ezeukia izan arren, ez eban ordurarte saldu izan gura, eta ain zuzen be, zuur jokutzen eban. Kurtzio billobatuak, osagille billakatzeko dei bizia erakusten eban, eta bere garaian ikasketarako bear izango leuken dirua lortzearren, Txa-Fun'go bitxia salduko litzake. Bitartean, mutikoa Itsasondo'ko ikastolara joian.

Aititagandik etorkion Itsasne'ri bitxi ori. Bera ume baiño ez zala, Kurtzio Zaarraren belaunetan jesarrita, onek edesten eutsazan amaika gora-beera, abo-zabalik entzuten ebazan, baiña umearen-

tzat, Txina'ko Txa-Fun'go lurraldean bizi izandako jazoerea, beste guztien artean arrigarriena zan. Sarri askotan edesten eutsan Itsasne txikiari, zelan lortu izan eban Txa-Fun'go bitxia. Ara...

Bein baten, Txina'ko itsasanditik Kurtzio itsasontziaren nagusia, bere ogei menpeko mariñelakin aberrirantz biurtzen zala, barealdi andiak "Kala-txoria" eritxan itsasontzia artu eban. Gaba zan, eta aize-oialak mastatik eskegita, zingili agertzen ziran. Gau illunilluna izanik, isiltasun aretan loa danatzaz jabetzen zan. Alako baten, eta lemazaiña erdi-lokartuta egoala, itsas-lapurtalde ugari batek "Kala-txoria"ri eraso, eta aida baten eusko itsasontziaz jabetu zan.

Kurtzio bere gelan idazten egoala, oartu zaneko, sei txinatar indartsuk inguratirik, kuku egin bear izan eban. Urrengo egunean, aize bigun batek eraginda, itsas-lapurrek "Kala-txoria" portu batera eroan eben atxillo egiñiko itsastarrekin.

Lurralde a, Txa-Fun'go jauntxoaren legepean egoan, eta onek bere jaurerria burdiñezko eskuz erabilten eban. Dalako jauntxo ori, guztiz indartsua zan, eta augaitik erriko agintaria billakatu ei'zan. Pultsolari edo eskuturlari porrokatua zan, eta jaurerrian ez egoan kirol onetan berarekin neurtu zeitekeanik. Erriko goikaldean jauregi eder baten bizi zan.

Eusko itsastarrak atxillo izan zirala jakitean, areikin zer egin erabagi bitartean, Txa-Fun'ek gudaletxe zaar baten kokatu zeitezan agindu eban, eta Kurtzio bere gizonekin an bizi zan aspaldi batez, guztiz gogait-eraginda. Baeben errian zear egurasteko eskubidea, baiña gero ta erri-miñago aurkitzen ziran.

Areitariko egun baten, gure itsas-gizonek kaleetan iragarkiak ipinten ebezala ikusi eben. Orduan Kurtzio'k orren zergaitia itaundu eban, eta noizbait, englisera apur batzuk ekiazan andik igaroten zan itsas-lapur batek, erriko jaiak zirala azaldu eutsan Kurtzio'ri, eta augaitik iru ekitaldiko leiaketeta ospatuko litzakela. Lenengo, portuan zearko arraun-leiaketeta. Bigarrena, azta-makillen jaurtiketea, eta azkenean, Txa-Fun berarekin pultso-neurketa entzutetsua. Iru ekitaldi oneitan, irabazle azaldu zeitena, Txa-Fun'go bitxia zan ordulari arrigarriz jabetuko litzake.

Kurtzio guztiz indartsua zan, eta bere egoera aspergarriari

amaia emoteko asmotan, tartekoa izatea erabagi eban. Txa-Fun aaltsuak eusko nagusiaren erabagia jakinda gero, poztu zan zearo, olan jaiak ikusgarriagoak biurtuz gaiñera, bere erritarren aurrean eskuturraren indarra agirian jarriko leuke.

Arraunketan Kurtzio'rekin neurtzeko, Txa-Fun jauntxoak bere ontzidiko nagusia aukeratu eban. Txinatar au itsastar indartsua zan benetan, baiña errialde aretan, ez ekian iñork Kurtzio besoko indarraldi batz azaldu gero, eta augaitik, ordutik urte batzuk igaro izan arren, beso-indarretan ez eban kidekorik.

Portu-barruko arraunaren leiaketeta iru kilometrokoa zan, eta kaia jendez mukurru bete egoala, ur-kirola Kurtzio'k aisa irabazi eban.

Biaramonean, azta-makillen jaurtiketea gertatzeko zan ezker, erriko errementari bateri burdin-aga bat atondu egitsala agindu eutsan Kurtzio'k, beronek emondako neurriakaz. Urte batzuk lenago, Itsasondo'ko palankari trebeena azaldu izan zan erriko jaietan, eta oraindiño jaurtiketa arrigarriak egiteko gai zan.

Urrengo egunean, erriko zelai eder baten azta-makillen neurketea ospatzeko zan, eta dana gerturik egoan. Jaurerri aretako gudaroste-nagusiarekin neurtzeko zan Kurtzio, eta iru jaurtiketarik urrunen botako leukena, axe irabazle.

Lenengo ekitaldian txinatarrak garaille billakatu zan. Bigarrenean, biak bardintsu azaldu ziran. Irugarrenean, baiña, txinatarraren azta-makilleak azkon baizen arin egan egin eban, ikusle guztien txaloen artean. Jarraian, Kurtzio'k burdin-aga eskuan aztatu ondoren, bere palankariaren sasoia gogora ekarririk, iru ikoti andi egin, eta tximista baizen azkar, besagain indartsuz burdin-aga jaurti eban, eta izan be, txinatarrak baiño iru metro urrutiago, garaille azaltzen zala.

Ekintza onek eta aurrerunekoak, Kurtzio'ren entzutea gorengo maillariño igon-erazo eben, eta urrengo eguneko irugarren eta azken leiaketeta ikusteko, jende guztia irrikan egoan. Ekitaldi au Txa-Fun'en jauregi ederreko areto nagusian izateko zan, eta erri guztia ikusmiñez jabetuta egoan.

Gabeko amarrak inguruan, Kurtzio bere gizonekin jauregian azaldu zan. Orduko, aretoa jaurreko leku guztietatik etorritako gizaki garrantzitsuz beterik egoan. Ikusleen artean, Larrosatxu izeneko Txa-Fun'en alaba ederra nabarmentzen zan, irribarre zoragarriaz ezpan gozoak piztuta ebazala. Ezin Larrosatxu baiño izen egokiagorik, aren edertasun dizdiratsua adierazoteko.

Alkar agurtu ondoren, Txa-Fun eta Kurtzio arnabarrezko mai baten ondoan jesarri ziran, eta berbetan ziarduela, aretoko ordularia amarrak joten asi zan. Marfillezko giza-irudien dantza zoragarria ikusi eta urrezko ingudean amar zurrun-joteak entzunda gero, Kurtzio abo-zabalik geratu zan, eta Larrosatxu'gandik begiak kenduta, ezin egikean besterik egin, ordulariari begiratu baiño.

Jarraian, epaikari bana alboan ebela, leikide biak ukalondoak maigaiñean jarri, eta eskuak alkarri eutsirik, eupadea asi zan. Ikusle guztiak arein besoetatik dilindan egozan, eta areto guztian ez zan inongo zaratarik aditzen.

Baratxe-baratxe, Txa-Fun'en beso indartsuak gaiña artuta, Kurtzio'ren eskua gero ta beerantzago makurtzen asi zan. Alako baten, eta eskuaz maia ukutzeko zorian zala, Kurtzio bere barruan bildu, eta indarraldi itzelaz bestearen aurrerapena geldierazo eban. Gero, apurka-apurka txinatarraren eskuturra bide egiten asi zan, eta noiz-bait mai-gaiñean zapaldu zan.

Onen ondoren, garaituriko Txa-Fun sumiñak jota egoan, eta augaitik ez zan inortxu be itz egiten azartzen. Une aretan bertan, ordularia amaikak jotzen asi zan. Gero, jagirik, Kurtzio'k Txa-Fun'eri auxe esan eutsan:

—Jauna, iru ekitaldietan irabazle azaldu naz. Agindu egizu, beraz, ordularia emon dakidan.

Txa-Fun'ek baiña, ez eban ezelan be etxeko bitxia inori emon gura, eta are gitxiago atxillo egindako arrotz bateri. Bestaldetik, itz emon izan eban, garaillearentzat izango litzakela. Orduan,

—Aizu, arrotz, Larrosatxu nire alabea, jaurreko neskatiilik ederrena, zuretzat izango da ordulariari uko egiten ba'dautsazu.

—Ezin dot, Jauna —erantzun eutsan Kurtzio'k—, nire aberrian emaztegaia nire begira daukat, eta biurtzean ezkonduko gara.

Arrezkero, Txa-Fun sumiñez ler egiteko zorian billakatu zan, baiña bere barru-irakitea garaiturik, zerbitzari bateri,

—Aiko —esan eutsan—, ekarstak kortan yagoan “Sirius”, nire zaldirik ederrena.

Arin baten zerbitzaria urten, eta bereala zaldiarekin aretoan azaldu zan. “Sirius” dalakoa zaldi arabitar bikain-bikaiña, munduko ederrenetariko bat ei'zan, eta ain zuzen be, itxuraz aizea baizen ariña. Ordurarte, Kurtzio'k ez eban inoiz a lako zaldirik ikusi izan. Une aretan, Txa-Fun'ek auxe esan eutsan:

—Aizu, arrotz ori, zure aurrean munduko zaldirik ederrena dozu. Enbata baiño ariñagoa izanez gaiñera, eskurakoi eta otzan-otzana da. Emongo dautsut ordulariari uko egitekotan.

—Zaldi eder-ederra da benetan, Jauna, baiña neu lako itsastar batentzat ez da onura andikoa. Ordularia eroango dot.

—Ordularia nire jaurreko bitxia eroango dozula, doñozu...? Ez orixe...! Gudariok, atxillo egizue gizon au bere menpekoekin, eta sartu egizuez jauregiko espetxera.

Txa-Fung asarre bizian egoan benetan. Bere menpeko guztien aurrean arrotz batek garaitua izan zan, ordurarte kidekorik ezagutu ez eban pultsaldi baten. Onezaz gaiñera, arrotz ausarta arek Larrosatxu bere alaba zoragarria, eta “Sirius” zaldi arabitar bikaiña, zapuztu izan ebazan. Eta au gitxi bai'litzan, arein ordez bere bitxirik ederrena zan, arbasoakandik yarauntsiriko ordularia eroan nai eban. Ez orixe...!

Euskotarrak ba, jauregipeko espetxe illunean atxillo geratu ziran Txa-Fun aaltsuak arein etorkiari burtuz erabagi arte. Andik iru egunetara, aurki, lepo-moztuak izango ziran.

Bere burua menpekoekin atxillo eginda ikusi ebanean, Kurtzio'ren asarrea gaiñezkatu zan, eta gela illunean, kaiola baten sartuta dagoan leoi baten antzera batetik bestera ibilli ebillen baretu eziñik. Ezustean, ortzi-bitargi baten zear leaitilla zearkatuz, iretargiak gela izugarria argitu eban. Sumiñez irakiten, Kurtzio leiati-llara urreratu ta aztertu eban. Andi samarra zan, baiña burdin-aga batzuk itxita egoan. Lodiak izan arren, oneitariko bat beekaldean ugertuta aurkitzen zan. Orduan, Kurtzio'k oin bat orman jarrita,

esku indartsuz burdin-agaren teink egiteari emon eutsan. Alako baten, karraska itzela entzun, eta burdiña askatu zan.

Astirik galtzeke, "Kala-Txori"ko mariñelak banan-banan urten, eta Kurtzio'ren agintzapean, gau-itzalakaz babestuta, jauregiko ate nagusira urreratu ziran. Kurtzio'ren keiñu bateri men egiñez, atea zaintzen eben gudari biak ezustean arrapatu, eta konorte barik itzita, zaintzategiko iskilluak artuta, goikaldera abiatu ziran, bidean aurkitu ebezan gudari txinatarrak atxillo egiñik.

Areto Nagusian sartu ziranean, Txa-Fun eta bere andikiak jai baten aurkitzen ziran, eta euskotarren lepotik barre itzelak egiten ebezan. Jauntxoak Kurtzio ikusi ebanean, igesari emon nai izan eban, baiña eusko buruzagiak arrapatu, eta bere biziko astinketea emon eutsan. Jarraian, ordularia artuta, bere gizonekin etorri bai-zen arin eta isil urten zan, jauregian egozan txinatar guztiak ondo lotu ondoren.

Jarraian, kairantz abiatu ziran, eta "Kala-Txoria" ainguratuta egoan lekura joanda, ontzia zaintzen eben itsaslapurrak garaituta gero, aize-oialak eta aingurea jasorik, itsas-zabalera zuzendu ziran. Kaiko muturra atzean itzi ebanean, gure itsastar izukaitzak, auxe abesten asi ziran:

Iru masta andi baditu
"Kala-Txori" ontzi euskotarrak,
amar aize-oiak dizditsu
itsas-musuen aparrak.
Ogeitsu mariñel sendo
aizea baizen azkarrak,
soiñez txairo ta garaiak
gogo-biotzez zangarrak.

Etxera biurtuta, Itsasondo'ko neskarik ederrenarekin ezkondu zan Kurtzio, eta biok urte askotan zoriotsu bizi ziran. Il-agiñean zala, bere billoba kutuna zan Itsasne'ri, Txa-Fun'go bitxia yarauntzizat laga eutsan.

Andik gero, Itsasne'ren biziereak gora-beera andiak ezagutu ebazan, eta azkenean alargundu ondoren eta ogasunik bage, Kurtzio be eritxan bere billoba bakarrarekin, Itsasondo'tik urruntsu egoan bide-ondoko etxetxura aldatu zan, jabetasun bakartzat Txa-

Fun'go bitxia ebala. Itsasne txiroa zan, baiña bere baitan Kurtzio bere aititaren kemenak irauten eban.

Etxe-inguruko baratzean, jateko lain ozta-ozta lortzen eban, eta txolarteetan orratz-lanetan ziarduan, enparauko gauzak erosi aal izateko. Berrizan gorrian aurkitzen ziran amama-billobak, baiña Itsasne Kurtzio Zaarraren jasekoa izanik, bizitzaren garraztasunari aurre egiten eutsan adoretzu, eta billoba Kurtzio'ri osalaritza egiteko garaia etorri ekionean, orduan bai, ain biziro maite izaten eban Txa-Fun'go bitxi zoragarri ta parebakoa salduko leuke.

— II —

Itsasne'ren etxetxua gurdi-bide baten ondoan zetzan, eta bidariren bateri gaba edo ekaitza ezustez etorkionean, amama-billobak arrerarik maitetsuena egin oi eutsoen, eta eukiena-eukiela, arrotzarekin benetako arraitasunaz banatzen eben.

Bein baten, ekaitz izugarripean atean kox-kox egin eben, eta Itsasne'k deiari erantzunez atea edegi ebanean, gizon sendo baten aurrean aurkitu zan. Onek orduan,

—Etxekoandrea —esan eutsan—, Itsasondo'rako bidean nozu, baiña ekaitz izugarri onen pean, ezin naiteke aurrerago joan. Itziko al-nozu emen egoten euri-jasa baretu arte...?

—Bai, bidari, eta ongi-etorri gurera. Jesarri zaitetz sutondoan, eta zu legortu bitartean, Kurtzio nire billoba erriko ikastolatik etorri daitenean, apalduko dogu.

Arrotza sartu, eta gelan zear ibilli ebillela, tok-tok-tok zaratea aditu zan, eta Itsasne'k arrituta egiztatu aal izan eban, gizon arek zurezko anka bat eukala. Errukituta, sutondoan jesarri zeiten lagundu, eta gero bere orratz-lanari jarraitu eutsan. Alako baten, Txa-Fun'go bitxia arratsaldeko bostak joten asi zan, eta aren ekintza ikusi ta entzun ebanean, arritutako arrotzari irrikazko dizdir gaiztoa agertu yakon begietan. Orduan Itsasne'k bitxiari buruzko guztia edestu eutsan. Arrezkero, gizon arek ezin egikean ordularitik begiak kendu, eta orduak emoten ebazan bakotxean, arrotzaren begietan irrikazko dizdir gaiztoa agertzen zan.

Kurtzio ikastolatik etorri zanean, irurek apaldu eben, eta orduko, ekaitza baretu izan zan ezker, arrotzak eskerrak emonik eta Itsasondo'ra eltzeko argibideak eskatuta, azkenengoz ordulariari begikada gosetia jaurti eutsan. Bere atzetik atea itxi zanean, bidean zear joiala unetxu batez zurezko ankaren tok-tok-tok aditu zan.

Arrotza, Okerra ezizeneko bidelapur gaiztoa zan, eta amaika gaiztakeriren egillea. Itsasondo'rantz bidean beera joiala, bitxi az jabetzeko azpi-lan baten asmatzeari emon eutsan, eta portura barik, egitekoaren zeatz guztiak ondo atonduta egozan.

Okerra'k, bidelapurak, gaiztakeriak egiteko Saguzarra eritxan lankide batekin ziarduan. Geienetan biok alkarrekin joiazan, bidari ta zalpurdiai erasoteko. Edu onetan, arrapatutakoaz polito bizi izaten ziran. Azken aspaldi aretan, baiña, arazoak zeozer okerturik, ertzain-talde batek bideak jagoten ebazalako, lapurretak gero ta zaillago biurtu izan yakezan. Au zala-ta, Okerra'k beste barruti batera joatea asmatzen eban, bere gaiztakeriak errazagoak biurtuko litzakiozalakoan.

Baiña arratsalde aretan Txa-Fun'go bitxia ezagutu ebanetik, arazoak itxura barripean ikusten asi zan. Ordulariaz jabetuko ba'litz, onen ordaiñez artuko leuken diruari, ordurarte aurreratutakoa eratsiko ba'leutso, lapurretari betiko uko egingo leuskio, eta andik urrun errege baten antzera bizi izango litzake.

Ona emen, ori jardesteko asmatu izan eban eginkizun zitala: bere burua lazkan sartu nai ez eban ezker, Saguzarra'z baliatuko litzake. Ikastolatik bide-ondoko etxetxura biurtzean, bere lagunak Kurtzio berbera ostuko leuke, eta gero onen truk, Txa-Fun'go bitxia eskatuko leuskio Itsasne'ri. Ekintza erraz onek ez leuke bere buruarentzat iñongo arriskurik ekarriko.

Izan be, gauzak, Okerra maltzurak asmatutako lez azaldu ziran. Arratsalde baten Kurtzio erriko ikastolatik etxera biurtzen zala, Saguzarra urreratu yakon, eta,

—Aizu, mutil —esan eutsan irribarretsu—, or berton zugaitzen artean zorro bete gaztain daukat etxera eroateko, baiña nik baka-riek ezin dagiket leporaiño jaso, lagunduko zeunskit...?

Baietz esan eutsan mutikoak, eta biok basoan zear barrendu ziranean, eta iñoren entzumenetik-at egozala, Zaguzaarra'k muti-

koari zorro bat sartu eutsan burutik, eta lepoan artuta aalik ariñen urrundu zan, Kurtzio gaixoaren didar eta ostikadai jaramonik egiteke.

Kurtzio etxera biurtzen ez zala ikusirik, Itsasne artegatzen asi zan. Azkenean, illundu ondoren, Itsasondo'ra jaistea erabagi eban, baiña an be billobaren aztarnarik ez. Suzmo illunak jota etxera biurtu zanean, ateko kanpoko aldean txatal bat josita egoan. Kandela bat piztu, eta onen argipean auxe irakurri aal izan eban:

“Andra agurgarria:

Zure billoba bizirik ikusi nai ba'dozu, artu egizu Txu-Fun'go bitxia, eta etzi eguberdiñan Irubide'ko gurutzera eroango dozu. Emen-txe bertan, ordulariaren truk zure billobea emongo yatzu.

Okerra'k

Oarra: Baten bateri, ertzaiñari batez be, arazo oneri buruz zeozer esaten ba'dautsazu, billobea ez dozu bizirik ikusiko”

Itsasne gaixoak gau osoa ta urrengo eguna negar baten iraun eban, jan eta lo egin eziñik. Irugarren egunean, noizbait, bere ordulari maitia zorro baten sartu, eta Irubide'ko guretzerantz abiatu zan. Txa-Fun'go bitxiak amabi-amabiak josten ebazala, Zaguzaarra ta Kurtzio azaldu ziran. Azken onek burua zorro baten sartuta eban. Bidelapurak mutikoari zorroa kendu eutsanean, Itsasne'k billoba besakartu, eta biok etxerantz jo eben, Zaguzaarra zugaitzen artetik ostentzen zala.

Etxera eldu ta bereala, Kurtzio'k amamari jazotakoaren barriak emon eutsazan. Gaixoak, baiña, ezin egikion argibide andirik emon, iru egun areik burua zorro baten sartuta emon izan ebazalako. Jateko bakarrik kentzen eutsoen, eta illuntasun osoan janaritzen eben. Itsasne'k guztitariko itaunak egin baetsazan be, mutikoak ezin egikion zeatz andirik emon. Gau aretan, oeratzean, Kurtzio'k amamari oiko musua emoten eutsala, tximista alakoa, oroitzen artean jazoera bat burura etorri yakon, eta,

—Amama —esan eutsan—, gauza bat gomutara yatort. Nire burua zorro baten barruan izan arren, areitariko gizon bat batetik bestera ebillenean, soru-gaiñean tok-tok-tok egiten eban.

—Izango ete lengo egunean gurera etorri yakun arrotza...? —otu yakon Itsasne'ri.

Gau aretan lo egin eziñik, Itsasne'k gogoeta sakon bateri emon eutsan, eta egunsentia barik, erabagi sendo bat artu izan eban. Ikastolara joateko ordua egin zanean, Kurtzio'rekin Itsasondo'ra jatsi, eta bera kanpora joateko zala atxakiaz, mutikoa lengusiñe baten etxean egun batzutarako laga eban. Etxera biurtu zanean, Itsasne'k antzaldatze-gertakizun bateri emon eutsan.

Bere senarra zanaren janzki bat atondu ta egokitu ondoren, ortuko zeregiñetarako erabillezan oiñetakoak gertatu ebazan. Au, baiña, egiteko zanerako ez zan naikorik. Abotsa bestelatu bear gizonetzkoa iruditu arte, eta arazo oneri buru-belarri emon eutsan. Gatza ta galipotaren apurrakaz naasketa bat egin ostean, irakin zeiten su-gaiñean jarri eban, eta gero, olan sorturiko saldeaz gar-gar egin ebazan. Irugarren saioaldian, abotsa trumoi baizen durundutsua biurtu yakon. Jarraian, begi bat ipinki baltzaz estaldu, eta bibote lodia goiko ezpaneaz eratsi ondoren, irugarren egunean makilla bat eskuan artu, eta txapela buru-gaiñean ipiñita, arratsaldean etxetik urten zan.

Illuntzea zan Itsasondo'ra eldu zaneko, eta betarik galtzeke portura zuzendu zan. Kai-ondoan iru ardandegi egozan, eta oneik guztiok ikertzen erabagi eban. Itsasne gaixoak edaten ebalakoa egiten eban, gero, iñork ikusi barik lurrera botateko. Lenengo ardandegi bietan, luzaro samar alperrik zain egon ondoren, berandu samar zala, "Urrezko Aingura" eritxan irugarrenera sartu zan.

Leku aretan sartu zanean, une batez ezpaitsu geratu zan, itsasgizonen oi u ta keaz beterik egoalako. Zaila zan benetan alkar entzun eta ikustea. Txoko baten, mai uts bakarra agertzen zan, eta orduko nekatuta egoanez, Itsasne aren ondoan jesarri zan. Bereala mintzo trumoitsuaz, auxe agindu eban:

—Txo, ekastak bonbil bete erron, baiña benetakoa, Jamaica'koa...!

Bezero barriaren itxura ta abotsaz eraginda, zerbitzari batek arin baten eskaturikoa ekarri eutsan. Eta len lez, edatekoa egiñez ordubete bi igaro ziran. Eleizako joaletagian amabiak aditu ziran, eta aspertu eraginda lekua izteko gertatzen zala, Itsasne zur eta lur geratu zan.

Atetik gizon bat sartu barria zan, eta ibiltean tok-tok-tok egiten eban soru-gaiñean. Begimena zorrozuta, egun batzuk lena-

go bere etxean izandako arrotza ezagutu eban Itsasne'k. Bai, axe zan bere abegi txeratsuaren ordaiñez, bere Kurtzio maitea giza-ostu eutsana, Txa-Fun'go bitxiaz jabetzarren. Une batez sumiñaren-sumiñez irakiten iraun eban, baiña zertara etorria zan gogoratuz, baretu zan.

Okerra gelditu zan ezpaitsu, non jesarri zeitekearen begira. Orduan, Itsasne'ren abots trumoitsua onetaraxe aditu zan:

—Aizu, lagun, jesarri zaitetz nire ondoan, eta edan dagigun bion osasunerako.

Bidelapurra, eskiñitako lekuan jesarri, eta erronari zurrutada itzela emonik, axue esan eban:

—Errona benetako edaria da norberaren otza ta nagiak atarateko. Baiña, aizuz, lagun, ez ete dogu lenago alkar ikusi...?

—Ori eziña da, gaur bertan legorreratu naitzuta.

—Nor zaitut ba...?

—“Mirua” ezizenaz danek ezagutzen nabe. Benetan esateko itsaslapur saiatur nozu, lagun, eta amaika burrukan tartekoa izan naz. Orain, baiña, legorraren babesaren billa nabiltzu, azken urteak bakean irauntzeko asmoz.

Au esanda, Mirua'k Okerra'ren edontzia bete egin eban. Edanda gero, bidelapurrak,

—Aizu, lagun —itaundu eutsan—, zelan billakatu zara begibakar...?

—Bein baten, itsasandian zear Jamaica'tik etxera gentozala, lemaizaiñarekin eztabaidatxu bat izan neban, eta madarikatu arek aiztoaz begi bat atara eustan...

—Ño...! Eta zuk, zer...?

—Batek-baki zelan amaitu zan lemazain zital a. Besoetan artuta, ontzi-karelaren gaiñetik uretara bota neban, marrazoren baten janaria izan zeiten. Bai, lagun, Mirua'rekin neurtu daitekenik oraindiño ez da jaio. Eta gai oneitan diardugun ezker, esan egistazu lagun zintzo orrek, zelan billakatu zara ankamotz...?

—Afrika'ko gudean, bein baten lagunekin postura bat egin neban, eta auxe alegia: baietz nik bakarrik gure aurka ziarduan etsaiaren kañoi bat arrapatu.

—Ta, arrapatu zenduan...?

—Bai orixe...! Kañoiaz jabetu nintzan, baiña azken unean aren balakada batek belunetik ankea moztu eustan. Alan eta guzti be, kañoiaren zerbitzari guztiak garbitu nebazan. Ez, lagun, Okerra'ri gaiña artu leikionik oraindiño ez da jaio munduan.

—Ori, ori...! Zu nire jasekoa zara, ekarri bostekoa...!

Olan jarraitu eben edateari ta ipuin esateari itzi barik, iñon diran iñondikoak alkarri esaten eutsoezala. Orduko, bidelapurra guztiz txolinduta egoan. Mirua'k ordea, bere edontzia, bestek oartzeke, soru-gaiñean ustu egiten eban, bereala bion ontziak barriro be beteteko.

Beste bonbil errona agindu eban Mirua'k abots durundutsuz, eta lagun barriek aldarerik onenean, euren alkarri ipuin esateari jarraitu eutsoen.

Alako baten, Okerra isildu zan, eta egun areitan buruan erabilen arazo batek eraginda, abopeka Mirua'ri:

—Aizu, adiskide, dirudienez aurrerantzean legorrean bizi izateko asmotan zabiz... Begira, lurralde onetako bidelapurra nozu, baiña zorritzarrez bakarrik geratu naz. Bai, atzo bertan nire lankide zintzoa garbitu egin dauste. Ondo jakingo dozunez, lapurreta orreitan jarduteko, gitxienez lagun bi bear dira. Bata iskilluak erabilteko, eta bestea bidarien sakelak ustuteko. Ai Zaguzaarra, nire biotzeko lagun zintzoa...!

—Zer jazo yako ba...?

—Azken aldiotan, Zaguzaarra, nire lankide saiatua, lelokeriak artuta egoan, eta onen ondorioz zuurtasuna alde batera itzi, eta nire burubideai jaramon egiteke, iñongo arinkeriak egiten asi zan. Araiñegun bertan, zer otu yakola uste dozu...? Ara... berak bakarrik, gure uriburutik Itsasondo'rako zerbitzua egiten dauan erri-berebilleari erasotea. Baiña lelotasun utsaz, berebil orreri eraso bearrean, eratzaiñez beteriko bateri ekin eustan, eta jakiña, andik laster, areitz batetik eskegita bere azken arnasa emon eban...

Ona elduta, Mirua'k barre-santzo itzela bota eban. Okerra'k asarrez beterik begiratu eustan, eta,

—Zerez egiten dozu barre...? —esan eustan— Uste al-dozu lagun zintzo bat galtzea txantxetako zioa danik...?

—Ez, lagun, baiña gauzak esateko darabiltzuzan gatza ta pipe-rra itzelak dira. Ertzaiñen berebilleari eraso bear be...!

Eta Mirua'k barriro beste karkar andia jaurti eban.

—Gizon apartekoa zan —jarraitu eban Okerra'k—, eta lengo egunean, or goian bide-ertzean bizi dan Itsasne, atso kokolaren billobea gizostu eban, eta orren ordaiñez, Txa-Fun'go bitxi-az jabetu naz. Atso iñuzentea...! Urrengo baten etxea erreko dausat, bai orixe...!

—Zergaitik, baiña, etxea erre...?

—Ori nire arazoa da. Egunen baten esango dausut orren zegaitia, baiña atso kokolaren etxea erreko dot. Bai orixe...!

Ona elduta, barre-santzo itzela bota eban, Okerra izan zan. Mirua'ren sasi-janzkipean, Itsasne sumiñez irakiten egoan, eta billoba maitia ostu ebanari burua apurtzeko asmoz jagi zan, baiña zertara etorria zan gogoratuz, jesarri zan barriro, eta bidelapuraren ontzia bete egin eban amaikagarrenez.

Barre egiteari itzi eustanean, Okerra onetaraxe mintzatu zan:

—Aizu, Mirua, Zaguzaarra'k itzitako jarduna zuretzat nai ba'dozu, baita bere lekua basoko ezkutunean.

Mirua'k bidelapuraren eskintza ausnartzen ebalakoa egin, eta,

—Ederto, lagun —esan eustan—, zu baiño gizon zangar eta begikoagorik nekez aurkituko litzake. Zure lankide zintzoa izango naz, eta ezaugarritzat artu dagigun beste zurrutadā bat.

Olan egin eben. Gero, lagun biok zutundu, eta kalera urten ziran. Egundoko ordipean, Mirua'ren besoari eustita, Okerra errian gora abiatu zan.

Alboka egiñez joiazala, abots trumoitsuaz Mirua auxe abesten asi zan:

Iru masta andi baditu
"Kala-Txori" ontzi euskotarrak,
amar aize-oial dizditsu
itsas-musuen aparrak.
Ogeitsu mariñel sendo
aizea baizen azkarrak,
soiñez txairo ta garaiak
gogo-biotzez zangarrak.

—Ori dok, motel, ori dok...! —iñoan Okerra'k bere biziko mozkorpean.

— III —

Lau orduz ibilli ziran bidexka ta baso usuen zear. Egunsentia barik, eta adimena alkolezko laiñoaren artean oraindiño naastuta, Okerra zugaitz andi-andi baten aurrean gelditu zan, eta enborrean aztamuka ibillita gero, adarbegi bat atzamarraz zapaldu, eta isillean ate bat zabaldu zan. Andik, goiko gelara igoteko esku-mailladi txikia barrukaldeko enborrari eratsita egoan. Goian aurkitu ziran, Okerra'k aga bat eragin, eta atea itxi zan.

—Ez gaitue aurkituko emen, lagun —esan eban Okerra'k—, ezkutune au iñork ez dau ezagutzen-eta. Orain lo egin dagigun.

Gelatxu aretan laztamarraga bi egozan, eta banatan etzanda, lagun barriak lotan asi ziran, bata erronaren lurriñak eraginda, eta bestea lengo eguneko gora-beerak zirala-ta guztiz nekatuta.

Eguberdi inguruan Mirua itxartu zanean, bakarrik egoan. Okerra nora joango zan bere buruari itauntzen eutsala, gelatxua bere aukeran arakatu eban. Sabaian leiatilla bat ikusi zeitekean, eta onen zear soka lodia kanpotik eskegita, barrura sartzen zan. Onezaz bestalde, ez eban gauza bereizirik idoro aal.

Arratsalde-erdian, eta bere urrengo egitekoa zein izango litzaiken ausnartzen ebal, zorro bat ekarrela, Okerra azaldu zan. Au

ikustean, Mirua'ren biotza taupada zorotan asi zan, axe baizan ordularia estaltzen eban zorroa, Kurtzio'ren truk Zaguzaarra'ri emon eutsanean. Zauskada onen pean egoala, Okerra'k auxe esan eutsan:

—Aizu, lagun, zoaz egur-sointxu baten billa, biontzako aparria aalik ariñen atondu dagidan.

Mirua agindutakoaren billa joan, eta andik laster egurrakaz biurtu zan. Bidebatez, atea zelan erabilli ikasi eban. Illuntze aretan Okerra aldarterik onenean aurkitzen zan, eta aparria atondu bitartean, abopeka abesten eban. Zorroaren aztarnarik ez egoala konturatu zan Mirua.

Lagun barriak mai-ondoan jesarri ziran, eta Okerra'k gertaturiko apariari ekin eutsoen. Bitartean, Mirua'k bere buruari itauntzen eutsan non demoniño egongo litzaken bere zorroa. Alako baten,

—Aizu, lagun —itaundu eutsan bide-lapurri—, dirudienez zure osteratxutik oso pozik biurtu zara. Txoko andiren bat egin dozulakoan nago...

—Ez da txarra izan, adiskide. Aspalditik nigan sortutako amesa egi biurtzeko ordua eldu da.

—Zein ames, lagun ori...?

—Ori ezkutu bat da eta niretzat bakarrik gordeko dot.

—Ondo diñozu, Okerra, baiña dana-dala lagunen zoriona ospatu bear da. Artu dagigun beraz, zurrut bana.

—Patarra amaitu yat, baiña,...! Lengo egunean nire ezuste batez baliaturik, Saguzaarra'k dana garbitu eban.

—Ni errona barik bizi ezin naiteken ezkerro, badaukat bonbil-txu bat arean.

Au esanik, Mirua'k Jamaika'ko bonbil bete erron jake-barrutik atara eban, eta pozez gaiñezka biok edateari emon eutsoen. Alako baten,

—Aizu, adiskide —esan eban Mirua'k—, zertarako da sabaian zear barrura sartzen dan soka lodi ori...?

Une batez Okerra oldozkor geratu zan, eta jarraian auxe bota eutsan:

—Soka orren bidez usokarlea edo usodeia eragiten da, pagau-soen igaroaldian. Orduan Iparraldetik datozen egaztiok eurretan bat zuzaitzean kokatzeko zorian dalakoan, eurek be bardin egiteko asmoz jaisten dira, eta orduan, Pum... pum...! tiroka garbitzen doguz, eta lapikora.

Au esanik, barre-santzoka asi zan, papar-lepo bitartera zurrutada itzela sartzen ebalu. Laster, baiña, Saguzaarra'ren eriotza gogora etorri yakon, eta abots negartsuz auxu esan eban:

—Axe bai lagun zintzoa, munduan lagun zintzorik izan ba'da...! Bion artean zalpurdiai edo bidariai erasoten geutsela, eta nik su-iskilloaz areik zemaitu bitartean, ikustekoa zan nire lagun Saguzaarra'ren trebetasuna, bidarien sakelak ustuteko... Tamala benetan, azken aldiotan arrapatu eban lelotasunak, bestelan...

Ona elduta, beste zurrutada bat gogoeta negargarriak uxatzeko, eta jarraian,

—Aizu, Mirua —esan eutsan—, etzi larunbata da, eta gure uriburutik Inguntza'ko Andra Mari'ren baseleizara, erromes-talde andia joango ei'da. Olako jendeari diruak kentzea oso erraza da, atso ta agureak baiño ez doaz-eta. Bai barre egingo dogula arein bildurra ikustean... Irubide'ko gurutzean itxaron, eta areik igarotetan eraso ta diruak garbituko dautseguz. Ia zu nire lankide maitia zana baizen ona azaltzen zaran...

Itz oneik mintzo zemaikorraz bota ebazan, aitzoaz Mirua'ren lepoa moztuko ebalakoa egiñez. Orduko, lenengo bonbilla usti izan zan, eta Mirua'k beste bat atara eban. Arrezkero, Okerra'ren begiak mozkorraren lenengo dizdirak erakusten asi ziran. Alako baten,

—Aizu, adiskide —esan eutsan Mirua'k—, onezkero egindako lapurketakaz, zure diruak lortuko zenduzan, ezta...?

—Alan olan, baiña —jarraitu eban abopeka— benetako onura ekarri daustana, gaur eguberdian uriburuko alkatearekin egiñiko ituna da... Ara, badakizu Txa-Fun'go bitxia zelan kendu neutsan Itsasne'ri, bide-ondoko atso inuzenteari. Arrapakin ori, dalako alkate orreri erakutsi dautsat, zaarkinzale porrokatua da-ta... Bai al-dakizu bitxi orren truk zenbat eskiñi daustan...? Berrogei ta amar ontzurre... Onegaz eta gordeta daukadazan apurraz, lan egin barik polito bizi izateko lain izango dot.

Beste zurrutada bat erronari emon ondoren, barre egin eban, eta onetaraxe jarraitu eban:

—Aizu, Mirua, Itsasne, bide-ondoko txotxola, ondo bai ondo atzipetu neban... Zaguzaarra'k esan eustanez, ikusi ba'zendu aren aurpegia bere billoba kokoloren billa etorrela Txa-Fun'go bitxiaz...! Ez al-dakizu zer egingo dautsadan urrengo baten...?

—Zer egingo dautsazu...?

—Inuzente orren etxetuari su emongo dautsat, Ez al-dau ba Itsasondo'ko ertzaindegian, nire aurkako salakuntza bat egin...? Argi ta garbi billobearena ez inori esateko agindu neutsan. Ondo merezitakoa artuko dau, bai orixe...!

Onen ostan, eta ondo bustita egoanez, Okerra'k itz totalakaz berba egiteari jarraitu eutsan. Mirua iradu bizian egoan, Okerra'k bitxia non gordeten eban jakiteko, baiña mozkorturiko bidelapurak ezin egikean aditu ez itz egin egoera aretan. Andik laster, lastamarragan etzanda, zurrunga bizitan asi zan.

Zelan edo alan, Mirua'k bere bitxia idoro bear izango leuke, eta estu ta larri billatzeari emon eutsan. Gelatxuko bazter guztiak bein eta barriro arakatu ebazan, baiña bere zorroa ez zan inondik azaltzen. Orduan, inguruko ezkutuneren baten egongo zalakoan, kanpora urtenda, zuzaitz-etxearen inguruan arakatzeari emon eutsan. Noizbait, alperriko billaketeaz lur-jota, ezkutunera biurtu zan. Esku-mailladian gora joiala, bapatean, tximista baizen azkar, burutapen bat etorri yakon:

—Izango ete...?

Arrapalada baten gora igon, eta txinga batera lotuta egoan sabaian zear sartzen zan sokea askaturik, noizbait, leiatillan zear bere zorro maitia azaldu zan. Une artean bertan, orru antzeko didar bat aditu zan:

—Ilgo zaitut madarikatu ori...!

Lengo loaldi astunetik iratzarrita, itxura izugarriaz beragana urrezatzen zala, ikusi eban Okerra. Eskuan aitzotzar bat erabilen, eta etsia, Mirua'k atzera egin eban ormaraiño. Une artean bertan, esku bat azkora baten kirtena ukutu eban; astirik galtzeke, oratu, eta zartada itzela bota eutsan bidelapurari. Aizkorea astuna zan

ezkero, eskuetatik jausi egin yakon, baiña beerakoan, Krask...! aditu zan, eta Okerra'ren zurezko ankea autsi zan. Oreka galduta, lapurra jausi, eta eretia ustiatuz, zorroa artuta Mirua urten egin zan, oi u ta biraoka Okerra atzean geratzen zala.

Zugaitz-etxetik basoan beera joiala, Mirua'k baekian zer egin. Kurtzio'k laster asi bear izango leukez goi-maillako ikasketak lurraldeko uriburuan, eta orretarako baita gero osalaritza egiteko bearezkoa zan dirua jaristeko, Txu-Fun'go bitxia saltzeko eretia eldu izan zan.

Berarentzat arazoa argi egoan, eta bereala, urirako bidea artu eban. Andik ordubete bitara-edo, eldu ta alkatenera joan zan. Atea zabaldu eban neskameari ordularia ekarrela esan eutsan. Orduan, Txa-Fun'go bitxiaren ordaiñez, alkateak berrogei ta amar ontzurre eder, dizdiratsu emon eutsazan. Uriburutik urten baiño leen, Mirua'k emakumezko janzki bat erosi eban, eta zabaldian aurkitu zanean, itsaslapurraren soiñekoa ta begiko ipinkia kenduta, betiko Itsasne zangarra agertu zan.

Ontzurreen zorrotxua ondo eutsita eroiala, etxerantz jo eban. Ustekabez, txaraka baten ondolik joiala, aiñen eta biraoak entzun ebazan. Urreratu, eta adarretan zear begiratu eban... Bai, Okerra'k berak aizkoreaz gorozti bateri ekiten eutsan, beste eugurrezko anka bat egiteko asmoz, urrean. Aizkorakada bakotxaz, bidelapurari esan-eziñekoak urteten yakozan.

Sumiñez beterik, ainbeste atsekabe ekarri izan eutsan gizona begiztatu eban. Eta bidelapur arek, bide-ondoko bere etxetxua erre egingo leukela pentsau be...! Alako baten, burutapen batek jota, Itsasne'k alde egin eban, eta eskumatarantz abiatu zan.

Laster, zugaitz-etxearen aurrean aurkitu zan. Atzamarraz enboreko adarbegia eragin, eta atea edegi zan isillean. Arrapalada baten egur-besokada batzuk bildu, eta zugaitzeko utsune andian mailladiaren ondoan metaturik, egurketea piztu eban. Bereala, zugaitz-etxe gar bizia biurtu, eta andik laster Okerra'ren lapur-zuloa ezereztu zan betiko.

Unerik galtzeke, Itsasne'k alde egin eban andik, eta baso ta menditan zear lau orduz ibilli ondoren, Itsasondo'ra eldu zan. Portu-ondoko etxean Kurtzio bere billoba maitia artuta, bide-ondoko etxetxura biurtu baiño len, su-iskillo ederra erosi eban.

Etxera eldu zanean, lapiko baten sartuta, baratzeko atzekaldean ontzurreak lurperatu ebazan, eta jarraian, su-iskilloa atean eskegi eban.

Arrezkero, baten batek atean jo egiten ebanean, begira-zulotik bidea aztertzen eban edegi aurretik. Zorionez, baiña, ez eban iñoiz su-iskilloa erabilli bear izan, Okerra betiko ostendua zan barruti aretatik ez dakigu nora...

Bidelapurra zurezko anka barriaz zugaitz-etxera biurtu, eta erreta ikusi ebanean, bildur bakanak jota, oiko gaiztakeri-lekua itzi, eta beste ezkutune baten billa andik alde egin eban betiko.

— IV —

Ontzurreai esker, Kurtzio'k goi-maillako ikasketak asi ebazan, eta urtean bost ontzurre txautuz, noizbait osagille biurtu, eta uriburura bizi izateko joan zan. Itsasne'k baiña, ez eban ezelan be bideko etxetxua itzi nai izan, eta bidariai laguntza emonez, eta bere ortu txikia beti lez zaintzen jarraitu eban.

Baiña orain bakarrik egoala, iñoizkorik bizien Txa-Fun'go bitxia uts emoten eban, eta eguneko orduak aspergarri ta luzeak biurtu yakozan. Ain zuzen be, Itsasne ez zan lengoa, ituntasun bakanpean bizi izaten zala.

Bein baten geisorik egoala, ikerraldi bat egitera billobea etorri yakon. Berarekin zorro bat ekarren, eta au ikustean zergaitia ez ekiala, zauskada batek artuta, Itsasne'ri biotza taupada zorotan asi yakon. Zorro-barrutik Kurtzio'k atara ebana ikusi baiño ez, Itsasne'k ezin izan eban bere zoriona menperatu, eta onetaraxe asi zan:

—Txa-Fun'go nire bitxi ederra, azkenean bazakust eta zurekin batera, Kurtzio Zaarra'ren oroitzta etxe onetan bizirik sentitzen dot...!

Eta bapatean osatuta, ormatik eskegi eban. Une aretan bertan, joteko ordua izanik, dantzea gertatu ondoren, zidarrezko zurrungak urrezko ingude-gaiñean amabiak jo ebazan.

Arratsalde aretan Itsasne'k iñoizkorik gazteen emoten eban,
eta billoba Kurtzio uriburura biurtzen zanean, ate-aurrean jarrita,
onetaraxe abesten asi zan:

Iru masta andi baditu
"Kala-Txori" ontzi euskotarrak,
amar aize-oial dizditsu
itsas-musuen aparrak.
Ogeitsu mariñel sendo
aizea baizen azkarrak,
soiñez txairo ta garaiak
gogo-biotzez zangarrak.

AMA KLARE

Klare, erri andi samar bateko osagille baten alabea izan zan. Umetaro zoriontsua igaro eban bere guraso ta neba-aiztekin. Aita benetako kristiñaua zan, bai izaeraz bai ekintzaz, eta sendia zuzentasun eta maitasunaren bidetik ezi eban. Gazterik, Klare'k eresirako joera andia erakusten eban, eta augaitik piano-ikasteari emon eutsan.

Ikasketa onetan, Yosune'ren, neska-lagun baten ezaguerea egin eban, eta urterik-urte, neska bien arteko loturea sendoagoa egin zan. Ain zuen be, Klare'k aitzatzat eban, eta Yosune beeragoko gizarte-maillakoa izanik, etxean pianorik ez egoan ezkerero, iñarkunak Klare'ren etxean egin oi ebazan.

Piano-irakaslearen agiria lortu ondoren, Yosune'ri makalaldi gaitza etorri yakon, eta noizbait, Klare'ren aitak etika zala iragarri eban. Arrezkerero, Yosune'k atsedenaldi oso bateri emon bear izan eutsan. Klare etxera etorkion egunoro, eta guztiz begiko ta alaia zan ezkerero, Yosune'ri geisotasuna arindu yakon.

Bein baten, bere laguna illabete labur batzutarako bakarrik zala, esan eutsan aitak Klare'ri, eta onek orduan bizitzaren lenengo zartadea artu eban, eta bere buruari zin egin eutsan, aaleginduko litzakela bere lagunaren azken egunak alaitzeko, eta benetan bere agintzari ekin eutsan. Yosune inguratu eban ardura guztiakaz, baiña gaitza aurrera joian, eta arratsalde baten Yosune bere besoetan il zan.

Arrezkerero, Klare'ren barruan zerbait betiko aldatu zan, berarentzat eriotzak beste sen bat artzen ebalá. Olan, igarri barik, Jaungoikoagana urreratu zan. Aitaren izeko bat lekaiame eban erri txiki baten, eta aregana joan oi zan noizean bein, baiña Yosune il

zanetik, sarriago ikertzera joiakion, eta olan igarri barik, lekaimetxe aretako biziareak erakarri eban. Gora-beera guztiak ondo aztertuta gero, bein baten, etxe aretara lekaime sartu nai ebalala esan eutsan aitari.

Asiera baten, aita egundoko naigabea artu eban, Klare bere betseñak lez maite ebalako, etxeko alaitasuna zan-eta, baiña gero poztu zan Jaunak bere alabea aukeratu izan ebalako.

Arratsalde baten, aita gauza ez zala-ta, anai nagusiak lagunduta, Klare lekaime sartu zan.

Lekaimeak mota bikoak ziran: korukoak eta zerbitzariak. Lenengoak gogo-arazoai bete-bete emonak, eta bigarrenek betekizun ori etxeko ta baratzeko lanakaz aldizkatzen ebenak. Klare, ezkuntzaz eta diru-egoeraz ondo ornitua zan, eta augaitik koruko lekaime sartu zan, egokiozan arrio ta lekaimesaria berarekin ekarrezala.

Sarrera-eguna aztueziña izan zan, ogei urteko lora eder arek bere burua munduari ukatuz, Jaunaren zerbitzura sartu zanean. Etxe aretako atea zearkatu ebanean, barrukaldean egoan abatiñeak besarkatu eban, itz oneik zirautsazala:

—Emendik zerura...!

Nebea bestaldean geratu zan negarrari eutsi eziñik.

Lekaime-batza arek otoitz eta gogoetan jarduten eban. Etxe aretako arauak oso gogorrak ziran. Egunez, zenbait aldiz, euren kaperan edo elizatzuan batu oi ziran, eta enparauko aldian, egalun eta josketa-lanetan ziarduen, bearrezkoa zan diru-sarrerea lortzearren. Josketa-irakaslea ama Agustiñe zan, eta onek oartzeko eraspen andia eutsan Klare gazteari, askotan onen oben txikiak zuritzen ekiazala. Izan be, Klare'k organuan ziarduanean, Ama Agustiñe Jaungoikoagandik urrago sentitzen zan. Piano-irakaslea zan ezker, Klare'k lekaimetxeko organua erabilli oi eban, eta izan be, laster jabetu zan ereskin barriaz, eta ordurarte iñork jaritsi ez eban antzez, organu zaarrari eresi zoragarriak ataraten eutsazan.

Otorduak isiltasun osoan egin oi ebezan, eta bazkaria amaituta, ordu-beteko solasaldia izan oi eben. Aparia 8'tan izaten zan, eta onen ostean ordu-erdiko izketaldia izanik, kaperara barriro eguneko azken otoitzak esateko, 9'tan oeratzen zirala. Gabeko amabie-

tan, joaleak iratzarrita, jagi ta ordu ta erdiko otoitzaldia esanda gero, barriro lotara goizeko 7'tan jagiteko. Eguneroko mezea entzun ondoren, gosari ariña artuta, oiko betekizunai emoten eutsien.

Biziera gogor eta latz aretan, Klare zoriontsua zan. Noizean bein etxekoak ikertzera etorkiozan, eta orduan zorion neurribakoak menperatzen eban, arein barri ta gora-beerak aspertzeke aditzen ebazala.

Klare'k oro ta guztientzat maitasun bizi-bizia sentitzen eban, eta Jaunaganako ebanaz gaiñera, inguruan eban guztiari biotzaren onena eskuzabal banatzen eutsan. Gogoeta-aldietan, baratzetik egurastuten atsegin izaten yakon benetan, eta txoko baten jagiten zan astigar urtetsuan urte guztietan abia egiten eban txindorraren eresiak, lilluratuta aditzen ebazan.

Baratzean bertan, iturri bat sortzen zan, eta leiarrezko ari txikia eratuz, urak suzmurretan joiazan ormaren atzetik ostendu arte. Tirain onek, baratzaren erdian osintxu bat eratzen eban, eta Klare sarri askotan emen gelditzen zan, arrain gorrien joan-etorriak begiztatzearren, ogi-apurrak jaurtiten eutsezala.

Ortzi oztinean ibiltari joiazan odeien igarotze isilla; goizalde ta illuntzeak; aizearen laztanak etab., Jaungoikoaganago urreratzen eben.

Lekaimetxeko arauak guztiz zorrotzak ziran, eta aldi aretako abatiñeak aren baten ebiltzan. Inguratzen yakon guztiarentzat sentitzen eban maitasun utsaz, Klare'k arau onein aurka amaika pekatu txiki egin oi ebazan. Askotan, txorien txintak entzutean, edo-ta arraiñen joan-etorriak ikustean, baita ozkorriaren aintzapean eguzkiaren eriotzak lilluratuta, otoitz eta gogoetak egiteko atzeratu oi zan, joalearen deiaz aztuta. Au zala-ta, abatiñeak sarritan akar egiten eutsan, eta zigortzat, buruz-beera etzanda jarrita, lurra mosukatu bear izaten eban bere obena autortuz, olan zirauala, egindako garrantziaren giñoan, edo-ta sukaldean ziarduen lekaime-zerbitzariak lagunduz.

Bein baten, bizitzaren doaiagaitik baratzean zear Jaungoikoari esker emonez joiala, zerbitzari zaar bat izerdi patsetan aitzur-lanean ziarduala ikusi eban. Urreratu yakon, eta astigarpean jesarri zeitela agindu eutsan. Klare'k aren orde zaitzurra artu, eta lanean asi zan. Goiko leio batetik abatiñeak au dana ikusi eban, lekaime-

mota biek janzki ez bardiñak erabiltzazan-eta. Andik laster abatiñeak dei egin, eta auxe esan eutsan:

—Klare, ez ete dakizu, oraintxe bertan baratzean egin dozuna debekatuta dagoanik...?

—Bai, Abatiñe Txit Agurgarria.

—Zergaitik egin dozu ba...?

Zer esan ez ekiala, Klare buru-makur geratu zan, oiñetako muturrari begiratzen eutsala.

—Ai, Klare, Klare...! Zuk burua betiko lepotik. Sarri askotan, nire baitan pentsaten dot, benetako lekai-me izateko jaio ete zaran. Ontzat zaitut, Klare, baiña... Begira, etxe onetan ez zara iñoiz garrantziko lekai-me izango, ezta urrik emon be abatiñegora elduko.

Une batez abatiñeak isillik iraun eban, eta,

—Ama Klare —esan eutsan—, zure obenarem ordaiñez, soru-gaiñean buruz-beera etzanda, agurtza edo errosario bat esango dozu, eta jarraian, sukaldera jatsiko zara, ain maite dozuzan ango aizpa-zerbitzariak laguntza emoteko. Dana-dala, zuk egindakoa arreta andiz aztertuko dogu, eta gero ikusiko...

—Eskerrik asko, Abatiñe Txit Agurgarria, berori oso ona izan da nirekiko.

Ama Terese, Abatiñea, guztiz zorrotza zan; izan be, urkoarekiko maitasuna aztu egiteraiño be, batzutan. Gau aretan Klare'ri buruz erabagi zorrotza artu eban, eta urrengo egunean, eskuen artean garrantzi andiko arazoren bat erabilli oi eban lez, Ama Agustiñe'ri ta Ama Elise'ri, lekai-me-gaien jagolea zana, dei egin, eta Klare'k egindakoa azaldu eutsen. Amaitu ebanean, bere eritxiz Klare ez zala lekai-me izateko gauza, eta ondo oldoztu ondoren, artutako erabagia etxera bialtzeko zala. Au entzutean, Ama Agustiñe'k auxe esan eutsan:

—Ama Txit Agurgarri ori, nire ustez, eta Berorrek barkatu dagistala, Klare'ren obenak txikiak dira, eta bere goi-deia benetako. Aren obenik geienak maitasunak sortutakoak dira, eta nik neuk esan dagikiot Ama Txist Agurgarri orreri, Klare, nire zaintza-pean igarotako lekai-me-gai onenatarikoa dala. Gaiñera... organua

joten diarduanean zerura naroa. Ez, Ama txit Agurgarri ori, arren, ez bialdu etxera...

Ama Elise be, Ama Agustiñe'k esandakoaren alde azaldu zan, eta au zala-ta, Ama Terese Abatiñeak ez eban aurrera eroan bere asmoa.

Eguraldi txarra zanean, eta edurra izanik batez be, otordua amaituta, Klare'k okondoren bat artu, eta apurrak egiñik, txoriai ta oxineko arraiñai botaten eutsezan goserik jasan ez egien.

Lekai-me-tzeko igarobideetatik joiala, ikusten eban edozein lekai-meri irribarre egiten eutsan. Ez leuke iñoiz aztuko, bein baten jazo yakona.

Egun aretan gelatxuan otoika ziarduala, norbaitek atea jo eban, eta etxean illabete gitxi batzuk irauten eban lekai-me-gai gazte bat azaldu zan. Klare'k gaingiroki bakarrik ezagutzen eban, baiña ekusian bakotxean, oi eban lez, irribarre egiten eutsan. Edurne eritxan lagun barria negar baten etorren, eta baretu zanean, Klare'k jesarri-erazo eban. Ona emen Edurne'k azaldu eutsana:

Edurne'ren sendia oso Jaungoikozalea zan, eta onek eta autor-leak eraginda, lekai-me billakatu izan zan. Orain, baiña, biziera barria urretik ikusita, etxe aretan irauntzeko gauza ez zala oartu zan, eta andik urteteko erabagia artu izan eban. Aita, baiña, oso latz eta estua izanik, alabearen urteerea ez bear izugarritzat artuko leuke. Edurne, beraz, etorri leitekez ondorioak somatzean, bildur andipean egoan.

—Baiña, Edurne maitia —esan eutsan Klare'k dana entzunda gero—, zer egin dagiket nik arazo oneri buruz...? Ni ez naz iñor etxe onetan. Abatiñe Txit Agurgarriari dagokion arazoa da, eta au dala-ta, aregana jo bear dozu.

—Abatiñea jakitun ipiñi dot.

—Orduan...?

—Gauza bat arren eta arren eskatzen dautsut. Aregana joan zaitezala, eta nire aitarekin itz egiten itzi dagizuala... Eskaera auxe Abatiñeari berari egin dautsat onezkero.

—Edurne maitea, poz-pozik edozer egingo neuke zure alde,

baiña zergaitik aukeratu nozu niri ez dagokidan arazo baterako, zergaitik...?

—Neronek be ez dakit, baiña nik uste, Jaungoikoak orretara eragin nau.

Klare'k berak ez ekian goi-doai bataz jantzita egoala: maitasunaren doaiaz, ain zuzen be.

—Zeuk aitari esaten ba'dautsazu —jarraitu eban Edurne'k— dana atonduko da. Eskatuko dautsazu Abatiñe Txit Agurgarriari, orretarako bear dozun baimena...?

Klare'k ezin egikion eskariari ezetza emon, eta egun aretan bertan, entzun-aldia eskatu eutsan Abatiñeari. Jakiñaren gaiñean izanik, eta Edurne'k, lekaime-gaiak berak, Klare'ren bitartekotasuna eskatzen eban ezkerro, Abatiñeak ez eutsan iñongo oztoporik jarri. Lekaimetxeko Nagusiak Klare'ren pekatutxu ugariak ezagutu arren, arazo zail aretan ondo jokatu leukela ziur egoan.

Urrengo Igandean, Edurne'ren sendia oiko ikerraldia egiteko azaldu zan. Klare'k, aita alde batera artuta, alabearen egoerari buruzkoa azaldu eutsan, eta munduan be Jaungoikozale andia izan daitekela, eta bera, aita zan aldetik, zana-zalaren lekuan, bere alabaren zoriona billatu bear ebala.

Edu onetan, Klare'k eta Edurne'ren aitak autu nasai ta egizko bateri emon eutsoen, eta onen ondorioz, aitaren arrenkurak arinduta, egun aretan bertan, Edurne etxera biurtu zan etxekoekin.

Urte batzuk geroago, Edurne mutil on batekin ezkondata, sarri askotan senar eta umeekin Klare ikertzera etorri oi zan, onen poz andirako.

Arratsalde aretan, gelatxuko leioan zear begiratzen ebala, jazoe-ra ori oroimenera etorri yakonean, Klare'ren ezpanetan irribarre aul bat agertu zan.

Urteak igaro izan ziran lekaimetxe maite aretan, poz eta naigabeak alkarri erraikiola, eta Klare'ren baitan gero ta andiago egiten zan Jaunarekiko maitasun biziak, bere izaera osoa beteten eban. Urteen bidean, baiña, munduan aldakuntza andiak gertatzen asi izan ziran. Lekaimetzarako deiak urritzen asi izan ziran, eta onen ondorioz, asikeran Klare'k ezaguturiko berrogei ta amar lekaime,

ogei ta amar biurtu ziran. Lekaimetxea zaartasunez jota sentitzen asten zan, eta baziran urteak lekaime barririk sartzen ez zala. Zaarren ugaritasun eta barrien urritasuna, jarraipen txarrak ekarten asi ziran.

Egoera larri onetan, abatiñe barria aukeratzeko garaia etorri zan, eta alkarrizketa, ausnartze ta otoi ugari izanda gero, lekaimeek Jaungoikoaren etorriaren bidez, urrean, abo batez abatiñetzat Klare aukeratu eban.

Onek, jardun ori nai izan ez arren, artu bear izan eban, baldintza batzukaz lagunduta, baiña, eta oneitxek alegia: lekaime zaar eta geisoen kopurua anditzen zan ezkerro, gaberdiko ordubete ta erdiko otoitzaldia ordubeteko bakarrik izango litzakela. Abatiñe barriak ez leukela egunoroko uts txikiakaitik iñongo zigorrik jarriko; onen orde, errudun baktotxak, bere kabuz, gelatxuko gurutz-pean buruz-beera etzanda jarrita, barkapena eskatuko leuskio Jaunari. Lekaimen artean ordurarte erabillitako begirunezko deiturak kendu, eta baktotxa bere izenaz bakarrik erabilli izango litzakela, baita Abatiñeari berari be, Klare soillik esango leuskioela. Gero, lekaimetxeko erabilteari buruz beste aldakuntzak agindu ebazan.

Baldintza oneik guztiak, bat izan ezik bete ziran. Ezin lortu aal izan eban nagusi barriak, Klare soillik esan egioen: danek Ama Klare esaten eutsoen, eta ezin bestez, onek amor emon bear izan eban.

Egun aretan bertan, arrastiko otoitza esanda gero, Abatiñe barria gelatxuan aurkitzen zala, atean dei egin eban, eta baimena emonda, ordurarte Abatiñea izandako Ama Terese sartu zan, eta buruz-beera etzanda jarrita, auxe esan eutsan:

—Barkatu beist Gure Jaunak baita berorrek be Ama Txit Agurgarriak, nire abatego-aldian ain zorrotz izanagaitik. Bai, arauak maitasunaren aurretik jarri dodaz beti, eta bidebagekeriak egiñez gaiñera, lagun-urkoa askotan aztu egin dot. Gaur argi-argi ikusten dot dana. Ai ene, nire abategoaren antzutasuna...!

Ama Terese'k ezin izan eban jarraitu aal, negar mingotsari emoten eutsala. Klare'k sorutik jagi ta jesarri-erazo eban bere alboan. Gero, oi eban lez, maitasun andiz itz egin eutsan guztitariko adore-itzak emonez. Abatiñe-oia baretu zanean, Ama Klare'k auxe esan eutsan:

—Zure buruarekiko zorrotzegia zara, eta orrek urrunegi zaroaz. Zuk diñozuna egi ba'litz, ez zindukeguz maite izango, eta benetan danok maite zaitugu, zuzentasuna elburua izan dozulako. Baretu zaitetz, Terese. Jaunaren deiari jarritzarren danari uko egin zeutsan, eta ori, bere aurrean benetako maitasuna da. Orain joan zaitetz bake betean, eta zure gelatxuko gurutzaren aurrean eskatu egiozu Jaunari zure biotzak eragin dautsuana.

—Eskerrik asko, Ama Klare, Jaungoikoak bedeinkatu zagizala. Bein baten, lekai-me-gaia zintzazala, zu kanpora bialtzeko zorian billakatu nintzala pentsaten dodanean...! Jaungoikoaren bideak arri-garriak dira benetan...!

Ordutik, Ama Terese maitasun-eredua biurtu zan eriotzararte.

Alkarganako maitasuna lenengo legea biurtu zan etxe aretan, Jaungoikoarekikoaren ostean, eta augaitik, lekai-me zaarren eta geisoen zaintza Klare'ren lenengo ardurea izan zan. Orduak eta orduak emoten ebazan Klare'k egunero lekai-me zaarrai laguntzeko, eta onein arazoak bein eta barrero jasapenik andienaz entzuteko, gutzi-tariko ardurakaz inguratzen ebazala.

Abatiñeen jardunaldia lau urtekoa oi zan, baiña urrengo autes-kundean, nai ez izanik be, abo batez Klare abatiñetzat aukeratu izan zan ostera be eta len lez apal eta esanekoa, gura ez eban jarduna lepo-gaiñean artu eban, Jaunaren guraria beste barik beteteko.

Arazoak, baiña, gero ta zaillagoak biurtzen ziran. Aztutako lekaimetxe aretara sarrera barririk ez, eta au zala-ta, etxeko diru-sarrerak urriagotzen ziran nabariki, zaar eta geisoen kopurua andia-gotzen joian giñoan. Alde batetik, egalun eta josketa-lanak diru gitxiago ekarkielako, eta bestetik, baratzari ataratako onurea, lekai-me-zerbitzarien gitxitegaitik, ez zan lengo beste.

Bein baten, erriko umeentzat ikastola bat sortzea otu yakon Klare'ri. Arazoa polito joaten asi zan, baiña andik urte bitara, irakaskintzari uko egin bear izan eutsoen. Erriko maisu batek salatu ebazan lekai-me gaixoak, irakaskintzarako bearrezkoak ziran agiriak edo tituloak ez ebezalako.

Lekaimetxeko egoerea ondamendira joian etenbarik. Etxeko onena ta aukeratuena zaar eta geisoentzat izanik, enparauak benetako gosea jasaten asi ziran. Janariaren urritasuna zala-ta, txarria

loditzeko ondakiñak amaitu ziran, eta bein baten azkenengo txarria saldu bear izan eben. Egoera onetan, Klare'k Batzar Nagusi batera dei egin eban, eta egoera larria azterturik, koruko lekai-meek aal eben giñoan zerbitzariak baratzeko lanetan lagunduko leuskieela erabagi zan, orretarako bear izango ziran otoitz-orduak gitxituz.

Arto-sailtxu baten bildutakoaz amabiko bat oillo janaritzen ziran, baiña oneik errundako arrautzak geisoentzat ziran, eta enparauak errian saltzeko, oneikaz ataratako diruaz bear-bearrezkoena erostearren.

Bein baten, kapellau zaarrai ordaintzeko beste ez ebela kon-turatu ziran. Onak baiña, duan jardungo leukela esanez gaiñera, errian diru-eske bat atondu eban lekai-me laguntzeko asmoaz, baiña ain zuzen be diru-batze onak ez eban arrakasta andirik jaritsi.

Eguneroko janaria auxe zan: eguberdian ganora gitxiko lapikokoa eta baratzeko igali bat; apaiteko, lursagar egosiak eta edontzi bete esne. Noizean bein, aideren batek janari-zorrotxuren bat ekar-ten eutsen, eta oneri esker bajoiazan aurrera, estu ta larri bazan be.

Egoera negargarri aretan, Klare'ren jarduna nekaldi biurtu zan. Urteen bidean oitua zan Jaunarekin berba egiten bere lagun miña bai'litzan, eta batzutan maitasunez beterik akar egin oi eutsan, onetaraxe zirautsala:

—Jaunak, zuk badakizu estu ta larri gagozala, baita zergaitik be. Leku onetara sartu nintzanean, danari uko egin neutsan, baiña nire alabak egoera mingarri onetan ikustea ezin dagiket jasan. Txoriak janaritzen dozuz, eta zelaietako loratxuak janzki eder-ederrakaz apaindu be. Erruki zakiguz, Jauna...

Azken aldi areitan, baiña, lekai-me egoerea jasangatxa billa-katu zan. Bein baten, gaberdiko otoitzak egiteko, lekai-me koruan bilduta egozala, zauskada larripean Klare'k egiztatu eban geienek otzez dardar egiten ebela. Otoitzaldia amaitu zanean, erabagi sendo bat artu izan eban, eta bakotxa bere gelara biurtu baiño len, auxe iragarri eutsen: aurrerantzean koruko otoitzaldia kentzen zala, eta onen orde, gaberdiko joaleak jo egianean, bakotxak oetik jagi barik, ordubete bateko otoitzari emongo leuskiola.

—Jauna, Jauna —arrenkatu eban Klare'k gau aretan bere gela-

txura biurtzen zala—, badakit ori oraiñarte indarrean izandako gure arauen aurka doala, baiña ezin dagiket nire alaba gaixoak otzez dardar ikusi... Arren, Jauna, ez zaitetz asarratu...!

Gauzak, baiña, gero ta okerrago billakatu ziran, eta egun baten, lekaimeen kopurua bederatzi izateraiño eldu zan: zazpi koru-lekaime ta zerbitzari bi, alegia. Barri ildako lekaimea, Klare'k maite-maite eban Ama Agustiñe zan. Lokarri estu batek lotu izan ebazan Klare ta izandako jusketa-irakaslea alkar ezagutu ebenetik. Ia larogei ta amar urte bete izan ebazala, azken urte aretan Ama Agustiñe'k geisotegian iraun izan eban. Oikoa lez, Klare'k une luzeak geisoen artean emoten ebazan, eta bere irakasle-oiaren azken egunak arintzeko aalegindu zan, aal eban neurrian. Eriotzeko aurregunean, Ama Agustiñe'k arnas-estuka auxe esaten lortu eban:

—Ama Klare... gure etxeko egoera larri-larri da benetan... eta badakit, zuk iñori esan ez arren, barrutik nekaldi andia jasaten dozula... Begira, biar Jaunaren aurrean izango naz... eta lagundu dagizueta egoera onetatik urteteko eskatuko dautsat... Klare maitia... aal dodazan bide guztiakaz lagunduko dautsut...

Urrengo egunean Ama Agustiñe il zan, eta illetak izanda gero, Klare'k Batzar Nagusi batera dei egin eban. Arazoa zeatz eztabaidatu ondoren, eta guztien eritxia jakinda gero, bere gain artu eban Klare'k egoera larriari urtenbidea emotea. Orduko, etxea andiegia azaldu izan zan, eta kapera-ondoko zatitxu baten kokatu izan ziran, lekuri eguzkitsuenean, alegia. Onezaz gaiñera, konponketeralaguntzea gitxituko litzake.

Egoera ardura andiz azterturik, kapellauaren bitartez Klare'k euren larrialdiaren barri emon eutsan gotzaiñari. Onak ikerle bat bialdu eutsen, eta lekaimeekin autu luze bateri emonda gero, Klare'rekin urtenbide batzuk aztertu ebazan. Alkar agurtzean,

—Jauna —esan eutsan Klare'k—, gerturik gaukazuz edozein neke artzeko, baiña, arren, ez gu beartu etxe au lagaten...!

Gotzaiñaren ordezkaria joan eta astebate batzutara, gotzaindegiko erabagia eldu zan. Arazoa ondo azterturik, lekaimetxea ixtea biderik egokiena zala, eta beraz, illabete baten epean urten bear izango leukie. Euzkadi'n euren kideko iru lekaimetxe gerturik egozala eurek artzeko. Etxe bakotxara, beraz, iruko talde bana joango litzake. Epe ori amaitu ondoren, eta joateko abiamenak eginda,

lekaimetxea betiko itziko leukie. Gotzaindegian aaleginduko litzakezala, uts geratutako lekaimetxea saltzeko, eta bildutako dirua zati bardiñetan banatuta, joateko ziran lekaimetxe bakotxari emongo litzakio.

Auxe iñoan gotzaindegiko idazkiak, eta irakurketea amaitu ebanean, bularrean gorako negar-zotin batek astinduta, Klare otoitz-aulkian belaunikatu zan, auxe iñoala:

—Ez, Jauna, ori ez, arren...!

Ordubete batez negar eta otoitz bizitan iraun eban, eta arratsalde aretan bertan, artutako idazkiaren zeatzak lekaimeai jakiñerazo eutsezan. Batzar itun-ituna izan zan, eta danek negar egiela, oi eban antzera Klare'k bakea ta itxaropena ereintzen saiatu zan.

Negu-aurreko arratsalde margul aretan, Klare'k leioan zear baratza azkenengoz begizatzen eban. Astigarreko txindorra, nonbait isillik egoan. Iturriko ur garden eta eresintsuak soillik aditzen ziran, berrogei ta amar urte aretan entzun izan ebazan lez. Gero, otoitz-aulkian belaunikatuta, eskari au sortu yakon:

—Jauna, Jauna, zergaitik izten gaituzu olan...? Begira: orain berrogei ta amar urte etxe onetara sartu, eta atea zearkatu nebanean, berba oneik esan eustezan: “Emendik zerura”. Orduan zure agintza zala iruditu yatan, baiña zure naija besterik izan da. Gauza bat eskatuko dautsut... Ara, nire alabak indartu ta adoretu dagizuzala. Errudun bat izatekotan, nerau nozu, Jauna. Badaiteke, arazoak bear lez erabilten nik jakin ez izatea, baiña nire alaba gaixook ez dabe iñongo errurik...

Jarraian, jagi, eta bere azken agintza beteteko gertatu zan. Etxeko joaleak, lekaime-zerbitzariak abatiñegana etorri zeitezalaren deia barreiatu eban. Andik laster, Ane ta Igone, etxeko lekaime-zerbitzariak aurkeztu yakozan.

—Zer nai dozu, Ama Klare...?

—Jesari zaitzeze enetxuok. Azken aldiotan zuei buruz amaika gogoeta egiña nozue, eta orren ondorioz, nire abatiñegoak emoten daustazan eskubideak ustiatuz, auxe erabgi dot: oraingan korulekaimeak izango zarie eskubide osoakaz...

—Baiña Ama Klare, gu eskolabako ta ezjakiñak garan ezkeru,

ez dogu olako duintasunik merezi, eta gaiñera ez genduan iñongo doterik ekarri...

—Enparauak beste edo areago aalegindu zarie Jaunaren alde, eta azken aldiotan zuei esker, iraun aal izan dogu. Nik esango neuke, lekaimetzako ainbeste urteetan zear, garbienak eta zintzoenak izan zariela. Ez uste izan, erabagi au nire kabuz bakarrik artu dodala, ez, azken aldiotan Jaunaren eragintzak orretara bultzaten nau.

Isillune baten ostean, Ama Klare'k barriro:

—Orain, nire alaba maiteok, joan zaiteze, eta atondu egizue etxe onetan izango dogun azken aparía. Aztu baiño len esan bear dautsuet, zuek biok nire taldekoa izango zariela...

—Ama Klare, au bai poztasuna...! —Ane'k eta Igone'k didar egin eben batera—. Jaunak bedeinkatu zagizala...!

Arratsalde aretako otoitzaldia Te Deum Nagusiaz amaituta gero, lekaimiak jatokira sartu ziran azkenengo otordua alkarrekin ospatzeko. Oikoa zan, jan bitartean, lekaimie batek santuen jazoeraren bat irakurri egian, lekaimiek jateari isillean emoten eutsuela. Gau aretan, baiña, maia bedeinkatuta gero, Ama Klare'k berba egiteko baimena emon eban, baiña maikide gaixo areik gogorik ez autuan jarduteko.

Aparía ekarri ebenean, jangelako erdian Igone'k txingar-ontzi bat jarri eban. Azken urte areitan, eguraldi otza zanean, janaria mai-gaiñean ipiñi ta batera, jakiak gertatzeko erabillitako azken txingarrak, ontzi baten ekarri oi ebezan gelari bero apur bat emotearren.

Zail billakatu yaken gau aretan apari urriari ekitea, lekaimie atsekabetuek eztarria naigabez korapillotuta ebelako. Oiko lursagarren lapikokoa artuta, baita edontzi esne be, ereti berezietan oi eban lez, Ama Klare itz egiten asi yaken onetaraxe:

—Nire alaba maite-maiteok:

Gaur gela onetan batu gara gure azkenengo aparía egiteko. Badakit naigabeak jota aurkitzen zariela gure etxe maite au betiko iztean, baiña adorez beterik goratu dagigun Gure Jauna, samiñaldi onek Beraganago urreratzen gaitualako. Artu dagigun gure gurutza,

eta joan gaitezen benetako gurutz astuna bere lepoan artu eban Jaunaren atzetik, eta eskiñi dagiogun gaurko gure oiñazea, munduan egiten diran pekatuen ordaiñez. Gaur, gaberdiko otoitzaldian, goi-deiak edo bokaziñoak ugaritu daitezcan eskatu dagigun, eta gure etxeak gartzetasun eta itxaropenaz barriro bete daitezcan.

Mundua gero ta berekoiago biurtzen asi da, eta augaitik, urrean, goi-deiak urriagotu dira. Baiña ez dagiogun munduari erru guztia egotzi, ez... Geu be errudunak gara gure inguruari argi naikorik emoten jakin ez dogulako. Benetako oiñazeak biotzak garbitzen dauz, eta Jaungoikoaganago eroaten gaitu. Artu dagigun ba, gaurko gurutz au itxaropen eta maitasunez, eta Gure Jaunari eskiñita, oraingo nagabea mundua garbiago biurtu daiten izango da.

Orain, amaitu baiño len, auxe jakiñerazo nai dautsuet: abatiñegoak emoten daustazan aalmenakaz, gure aizpak Ane ta Igone koru-lekaimiek biurtzen dodaz...

Baiña ezin izan eban amaitu. Barri au entzutean, barrutiko dei batek eraginda, lekaimie guztiak txalokada andiaz erabagia onartu eben. Izan be, olan jokatzean, Ama Klare zuzen egoala adierazo gura eben.

—Eta orain, ene maite-maiteok —jarraitu eban Klare'k—, emon egistazue azken besarkadea, eta Jaunaren bakea izan bedi gurekin.

Ama Klare ate-zubipean jarri zan, eta lekaimie guztiak igarotetan, banan-banan besarkatu ebazan. Gero, lekaimetxe aretako azken abatiñea, malakoak mara-mara eriozala, ibilte neketsuz, zurubian gora bere gelatxura abiatu zan.

Gelatxura sartu baiño ez, buruz-beera etzanda jarri zan, eta sorua mosukatuz, auxe esan eban:

—Barkatu egistazu, Jauna, azken egunotan nerekoitasun utsaz zurekin zeozar asarre egon nazalako. Zuk dana dakizu, eta bedeinkatua bedi zure naia, guretzat nekaldia bada be, baiña arren, Jauna, arindu egizu nire alaba orreñ etorkia...!

Jarraian, jagi zan, eta erantzita gero, berrogei ta amar urtez oe-buruan eskegita iraun izan eban egurrezko gurutza, jatsi, eta oneri estu-estu besarkatuta oeratu zan. Ez ekian zergaitik, baiña

indar ezkutu batek orretara eragiten eban. Azkenez, auxe esan eban abopeka:

—Jauna, Jauna, zuk dana aal dozun orrek, arindu egistazu gaur nire larritasuna...!

Gero, lo urduri batek artu eban.

Urrengo goizean lekaimetak beeko soruan batu ziran azken mezea entzuteko, lekaimetxea betiko itzi baiño len. Kapellaua sakristegian egoan jadanik, eretirako jazten zala. Ama Klare, baiña, ez zan iñondik agertzen, eta au gauza ezoitua zan benetan. Arrapalada baten, Ane zurubian gora igon, eta Ama Klare'ren gelaxura sartu zan, bere deiari erantzunik ez egoala ikusirik. Andik laster, zurubiko goikaldetik aren negar eta didarrak aditu ziran onetaraxe:

—Zatoze, zatoze, gure Ama Klare...!

Arin baten lekaimetza guztiak igon, eta gelaxura sarturik, oea inguratu eban. Betiko irribarre gozoa ezpanetan, eta gurutza estu-estu besarkatuta ebal, euren Ama Klare illik zetzan. Asiera baten, iñor ez zan gauza barbarik egiteko, eta negar etsi bateri emon eutsoen. Alako baten,

—Gure Ama Klare —esan eban Ane'k— joan yaku lurrean eban irribarrez...

—Benetan, ama bat galdu egin dogu —iges egin yakon Igone'ri.

Orduan lekaimetariko zaarrena:

—Oi, nor bera lez Jaunaren altzoan egon...!

Jarraian, biotz-biotzez agurtza bat esan eban ain biziro maite izandako azken abatiñearen alde. Amasei urtez lekaimetxeko agintza ta erantzukizuna bere lepo-gaiñean eroan izan eban ezetariko atxakirik bage, benetako maitasuna zer dan bere menpekoai erakutsiz.

Gero jantzi eban, eta egurrezko gurutza eskuen artean ipiñita, kaperara jatsi, eta aldare-aurreko soruan jarri eban. Auxe zan etxe aretako oiturea, il-kutxarrik ez zan erabilten-eta.

Kapellauak azken otoiak esan ebazan, eta jarraian, lekaimetxe aretako izango zan azken mezea, illeta-mezea biurtu zan. Lekaimetxek nekez abestu aal izan ebezan illeta-soiñuak, korapillo batek

eztarria elbarritzen eutsen-eta. Egun aretan, kapellau zaarraren abotsa, motel aditu zan, eta sagaritzean eskuak dardarikatzen yakozan.

Illetak amaituta, Ama Klare'ren gorpua baratzeko obitegira eroan eban, eta euren bizitzaren izango litzaken azken aitzur-lana egiñez, Ane'k eta Igone'k obi bat sakondu eban. Gero, maitasun biziaz azken abatiñearen gorpua jatsi eban. Jarraian, kapellauak azken Gure Aita esan, eta lurrak Ama Klare'ren irribarre gozoa betiko estaldu eban.

Joan baiño len, lekaimetza batek astigarreko adar bikaz oiko gurutza eratuta, obi-buruan sartu eban. Jarraian, isillean banan-banan urtenda, lekaimetxeko atadira joan ziran, eta emen bakoitxak axeak artu, eta egoitza barrietara eroango leukiezan berebilletara sartu ziran.

Arimabako erraldoi baten antzera, lekaimetxea iñoizkorik itzaltsuen geratu zan. Eunurteetan zear bizitasun eta otoitzaz pilpira bizian iraundako Jaunaren etxea, utzikiña biurtzen asten zan, isiltasun larri bat leku aretaz jabetzen zala.

Bazirudian, etxe andi zaar arek negar egiten ebal isillean, ormatako orbanen zear. Baratzean, iturriko ur garden kantariak leiarrezko suzmurretan, leku aretako eriotz-kutsuan bizitza-izpi baten antzera aditzen ziran.

Arratsalde goibel aretan, bitargi baten zear, eguzki-printzek Ama Klare'ren obia laztandu eban, eta une aretan bertan, gurutzean kokatuta, astigarreko txindorrek bere maitasunezko agurra, azken abatiñeari eskiñi eutsan...